



ZEGAMAKO  
UDALA

# ZEGAMA

## URTEKARIA 2017


19. Zenbakia • Abendua



# AGURRA

Joseba Izagirre Arozena

ALKATEA



**ZEGAMAKO  
UDALA**

Kaixo herritar hori!

Gure bizitzan ALDAKETA hitza oso barneratua dugula jakina da. Aldaketak jasaten ditugu familian, lanean, lagunartean, herrian... Oraingo honetan herrian eman diren zenbait aldaketa aipatzeko aipatuko nahiko nuke tarte hau.

Urtekari hau testigu izanik eta bere orrialdeak ikuskatuz segituan konturatuko gara Zegaman elkarte asko ditugula, Kirol, kultura, gastronomikoak etab. Aldi berean oso aktiboak eta herritarren gozamenerako ekintza asko eskaintzen dizkigutenak. Elkarte hauetako juntetan presidenteen, idazkarien, bazkide edo diruzainen aldaketak pairatu ditugu baina egia esan elkarteen funtzionamenduak lehen bezain ondo jarraitzen dute.

Udaletxera etorri bertako langileen artean ere aldaketak eman direla esan behar gaude. Urtea hasi eta berehala Lourdes Larrea; urte askoan ikastola, mediko kontsulta, udaletxe, kultur etxea... garbitzen jardun ondoren ondo merezitako erretiroa hartu digu. Martxoan berriz peoi lanetarako ia urte bete egin ondoren Iñaki Agirreri kontratua amaitu eta bere ordez beste urte betetarako Aaron Fernandez kontratatu dugu. Apirilean berriz Arantxa Gorrotxategiren txanda izan da. 40 urte baino gehiago Udaletxeko harreran administratzaile laguntzaile, edo "sekretaria", lanak egiten aritu ondoren honi ere jubilatze garaia heldu zaio. Arantxaren lanpostua "aterata" dago eta probak egin eta hautaketa egin arte Ainara Esnaolak egiten ditu harrerako lanak. Bake epailea izan den Joseba Olaziregik ere irailean agur esan digu lau urtetan zehar bere eginkizunak bete ondoren. Bere ordezkoa Mikel Berasategi Asurmendi izango da.

Udaletxeak ez ezik Udalbatzarrak ere aldaketak jasan ditu "Zegama Lantzen" talde politikoan hain zuzen ere. Juanjo Gorrotxategik mendietako zinegotzi izateari utzi egin dio azaroan. Bere ordez Maite Rodrigo sartu delarik.

Lerro hauen bidez eskerrak eman nahi dizkiet aurretik aipatutakoei zegamarron alde hainbeste lan egin egiteagatik.

Bukatzeke zegamar orok datorren urteak kendu baino gehiago emango digula koan, hartu besarkadarik beroena.


Zorionak eta urte berri on!

# AURKIBIDEA



54

San Bartolomeak



107

Xabier Intxausti



121

Prantxika Larrea

AGURRA .....	1	ZEGAMAKO GAZTELEKUA		TARTALOETXE KULTUR ELKARTEA...	96
ZEGAMAKO OROITZAPENAK		EREDUGARRI GIPIZKOAN .....	69	TARTALOETXE PILOTA ELKARTEA ...	98
MAITE ORMAZABAL ALUSTIZA .....	4	ZEGAMAKO EUSKARA PLANA .....	70	GAZTE HEREXA ELKARTEA .....	99
UDALA .....	6	ARRANO TALLERES		ZEGAMARRAK ERREALAREKIN ...	100
BERDINTASUN SAILA .....	20	ELECTROMECHANICOS SARITUA .....	71	ZENTRO METEOROLOGIKOA .....	101
LEHEN ETA ORAIN .....	21	UPV/EHUKO ERIZAINZAKO		ZEGAMAR BATASUN KASINOA ...	102
TRAZIOAK .....	25	IKASLEAK ZEGAMAN .....	72	JUBILATUEN ELKARTEA .....	104
Mari Carmen Zabaleta .....	26	ZEGAMA ZIENTZIA ASTEAN		SAN MARTIN PARROKIA .....	106
GIZARTE EKIMENAK .....	28	UPV/EHUK ANTOLATZEN DUEN		XABIER INTXAUSTI .....	107
XVII. AIZKORRIKO LAGUNEN EGUNA	30	EKINTZEN ARTEAN .....	73	ARANTXA GORROTXATEGI .....	111
ZEGAMAKO HAUR, NERABE ETA		GIPUZKOAKO ETA ARABAKO		MARI KARMEN ORMAZABAL .....	114
GAZTEEN PARTE HARTZE ZERBITZUA	32	PARTZUERGOA .....	74	LOURDES LARREA .....	115
ANDUETZA PARKETXEA .....	34	HORMAK MARGOTUZ .....	77	OTEIC. JOSE MARI PIKASARRI.	
KIROL EKINTZAK .....	36	ZEGAMAKO HARATEGIAK SARITUAK	77	IÑAKI ARRIETA .....	116
KULTUR EKINTZAK .....	39	GURE ESKU DAGO .....	78	PRANTXIKA LARREA .....	121
XXVII. EUROPAKO HISTORIAURREKO		AITXURI HERRI ESKOLA .....	80	AGUSTINA ZUFIAURRE .....	124
ARKU ETA BULTZAGAILUZKOA TIRO		TOBERA MUSIKA		SABINO IRAOLA .....	127
TXAPELKETA .....	41	ETA DANTZA ESKOLA .....	82	PIO BERASATEGI .....	129
SAN ADRIANEN INDUSKETAK .....	42	AIZKORRI GURASO ELKARTEA .....	85	XIKER LEOZ .....	132
ERLEZAIN EGUNA .....	44	KARRAZTARRO KIROL ELKARTEA ...	86	JUAN INAZIO GALDOS LARREA ...	134
XVI. ZEGAMA-AIZKORRI		AIZKORRI FUTBOL TALDEA .....	87	GURE BASERRIAK ETA PARAJEAK	138
MENDI MARATOIA 2017 .....	48	ELKARTU NAHI .....	88	BA AL ZENEKIEN?	
CARLOS MORAN .....	52	UXUA BARANDIARAN .....	89	LUIS MARIA ZALDUA .....	140
ZEGAMARRAK. BEHOBIA .....	53	JON ARAKAMA .....	89	NATURAREN TXOKOA .....	142
POWERADE NON STOP/TREPARRISCOS	53	ORKATZ ABESBATZA .....	90	ATZOKO ZEGAMA .....	143
QUEBRANTAHUESOS .....	53	ODOL EMAILEEN ELKARTEA .....	91		
SAN BARTOLOME JAIK .....	54	XABIER ARAKAMA .....	92		
SAN MARTIN FERIA .....	64	AMEZTI ELKARTEA .....	93		
CAVA FESTA .....	68	AMEZTI MENDI ELKARTEA .....	94		

## Udalak antolaturiko ekimenak 2018

MARTXOAK

18

Erliezain Eguna

MAIATZAK

20-21

Arantzazura peregrinazioa

MAIATZAK

25-27

Zegama-Aizkorri Mendi Maratoia eta Kilometro Bertikala

UZTAILAK

1

Aizkorriko Lagunen Eguna

ABUZTUAK

22-26

San Bartolome jaiak

URRIAK

26-27

Cava Festa

AZAROAK

10

San Martin FERIA

## EGILEAK ETA KOLABORATZAILEAK


Joseba Izagirre	Asier Berasategi	Zegamar Batasun
Pili Elorza	Julian Beloki	Kasinoa
Izaskun Igoa	Karraztarro Ehiz	San Martin Parrokia
Ibon Zabaleta	Elkartea	Jubilatuena Elkarte
Juan Jose	Aizkorri Futbol	Ainara Esnaola
Gorrotxategi	Elkartea	Maite Ormazabal
Olaia Elorza	Aizkorri Guraso	Xabier Intxausti
Urko Gomez	Elkartea	Arantxa Gorrotxategi
Maria Luisa	Aitxuri Herri Eskola	M <sup>a</sup> Karmen Aldalur
Gorrotxategi	Tobera Musika eta	Lourdes Larrea
Imanol Garmendia	Dantza Eskola	Jose M <sup>a</sup> Pikasari
Eduarne Albizu	Elkartu Nahi	Iñaki Arrieta
Oihana Zubizarreta	Txirindulari Elkarte	Prantxika Larrea
Ainitze Azurmendi	Odol Emaileen	Maidier Padrao
Jose Luis Berasategi	Elkartea	Asif Tufail
Arantxa Gorrotxategi	Orkatz Abesbatza	Agustina Zufiaurre
Igor Alustiza	Amezti Elkarte	Sabino Iraola
Nerea Tauschke	Gazte Herexa	Pio Berasategi
Imanol Ortiz	Elkartea	Xiker Leoz
Isabel Elorza	Gure esku dago	Juan Inazio Galdos
Diego Arratibel	Taldea	Juan Mari
Alfredo Moraza	Tartaloetxe Kultur	Ormazabal
Maria Eugenia	Elkartea	Luis Mari Zaldua
Amenabar	Tartaloetxe Pilota	
	Elkartea	

## 2017an JAIOTZAK

Oneka Azurmendi Zubeldia	2017/01/17
Illart Mendizabal Centol	2017/01/19
Rayan Fakhar El Omayry	2017/01/22
Arai Osinalde Gonzalez	2017/01/23
Amair Garayar Apezetxea	2017/03/27
Inhar Azurmendi Zunzunegui	2017/04/21
Safia Nemmassi Bouchtaoui	2017/05/12
Nikole Aramendi Izarra	2017/05/27
Anitz Alustiza Guereñu	2017/06/06
Bayan Bellaazouzi Belabbes	2017/06/13
Kattalin Arizkorreta Inza	2017/07/11
Adriana Anamaria Orha	2017/08/11
Elene Perez Aramburu	2017/10/19
Markel Aramendia Mendizabal	2017/10/30
Miren Aramendia Mendizabal	2017/10/30

## HERIOTZAK 2017

Jesus Casanova Merchan	2017/01/04
Maria Teresa Guridi Munduate	2017/01/10
Jesus Maria Aguirre Garmendia	2017/01/12
Francisco Aizpeolea Alustiza	2017/01/20
Rosario Lasa Inza	2017/02/10
Antonia Arrondo Galparsoro	2017/03/02
Jose Larrea Etxeberria	2017/04/08
Maria Luisa Aramendi Arregui	2017/04/24
Maria Concepción Astier Irigoyen	2017/04/28
Anttoni Arrondo Urbizu	2017/05/04
Martxelino Zabaleta Zabaleta	2017/05/04
Jose Antonio Gonzalez Resano	2017/05/23
Tere Agirre Arrizabalaga	2017/06/08
Pilar Rivero Fernandez	2017/06/10
Esteban Katarain Apaolaza	2017/07/09
Ana Oliva Ordoñez Guengue	2017/09/14
Maria Milagros Telleria Guridi	2017/10/08
Carmen Asequinolaza Zunzunegui	2017/11/22
Maria Pilar Sarasola Aguirre	2017/12/10



## ZEGAMAKO UDALA

Gure eskerrik beroenak

KUTXARI

GIPIZKOAKO FORU ALDUNDIARI

EUSKO JAURLARITZAKO KULTURA SAILARI urte guztian zehar eman diguten laguntzengatik

Zegamako Urtekaria 2017

© Zegamako Udala

Lege-gordailua: SS-1324/99

Zegamako Udalak ez du bere gain hartzen Urtekarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik. Halaber, adierazi, argitaratutako argazkiak Elkarte bakoitzak Udalarari utzitakoak direla.

## AGENDA - TELEFONOAK

**Idazkaritza:**

943 801 115

**Faxa:**

943 800 073

**Bake Epaitegia:**

943 801 115

**Kultura, Euskara eta Ongizate saila:**

943 801 115

**Web orria:**

[www.zegama.eus](http://www.zegama.eus)

**E-mail:**

[udala@zegama.eus](mailto:udala@zegama.eus)

**Anduetza Parketxea:** [www.zegamaturismoa.net](http://www.zegamaturismoa.net)

**Zegama-Aizkorri mendi maratoiaren web orria:** [www.zegama-aizkorri.com](http://www.zegama-aizkorri.com)

## BESTE TELEFONO BATZUK

Aitxuri Herri Eskola: 943 800 042

Haurreskola: 943 800 087

Tobera Musika Eskola: 943 801 570

Osasun Zentroa: 943 801 306 / 943 027 700

Eguneko Zentroa: 943 801 610

Udal Gimnasioa: 943 802 023

Udal Liburutegia: 943 802 137

Anduetza Parketxea: 943 802 187

Ostatua: 943 801 051

Sasieta Mankomunitatea: 943 161 590 / 943 161 555

Ertzaintza: 943 088 800

Zumarragako Ospitala: 943 035 000

Beasaingo Anbulategia: 943 027 700 / 943 027 701

Beasaingo Larraldiak: 943 461 111 / 943 880 967

Gurutze Gorria: 943 161 010 / 943 162 150

Ur Zerbitzuak: 902 302 222

RENFE (Beasain): 902 240 202

SOS Deiak, Suhiltzaileak: 112

Taxia (Arantza Ormazabal): 645 006 737

Goierrialdea Autobusak: 943 885 969

Goitur: 943 161 823

Goieki: 943 161 537

Goimen: 943 161 244

Ordiziako Zerbitzu Forestala: 943 881 793

Goierri Beheko Industrialdea: 943 880 617

Goierriarra: 943 882 719

Goierriko Hitza: 943 160 056

Goierri Telebista: 943 085 477

Partzoneria: 943 801 560

Iberdrola: 943 884 654

Ikastolen Fundazioa: 943 160 089

INEM: 943 880 548

Langa: 943 884 401

Goierriko Herrien Ekintza Fundazioa: 943 886 600

Gazte informazioa: 943 805 634

Gipuzkoako Baso Elkarte: 943 652 900

Akabatutako animaliak biltzeko zerbitzua: 943 112 348

# ZEGAMAKO OROITZAPENAK

## MAITE ORMAZABAL ALUSTIZA



Maite naiz (Azkonietako Maitere). Etxean jaioa, gure garaian izaten zen bezala. Aita Migel eta ama Jexuxa Arakamanekoa.

Edozein baserritan bezala, gure etxean ere danontzat egoten zen zer eginga.. Esnea partitzea hainbat etxeetara, itulan, gosari txikia segatan ari zirenei eramatea, belarretara, Ugatxeko ura eguerdi eta arratsaldero ekarri uda garaian... Aitonak ur hori falta gabe nahi izaten zuen. Donostian hil zen eta klinikan ere eskatzen zuen eta eramaten egiten zioten. Ugatxara nola jendea joaten zan afari-meriendarekin, gaur Kinok baratza daukan inguru horretan egoten ziren. Enkar gutara txikitan Gerrikonera joaten ginen. Petra eta Mariatxo

dendariengana gero Buztinkale pasa eta etxera. Kale horri errepasotxo egingo diot: Txurreria, bertako Felipek mantekaduzko izozki aparta egiten zuen, txurrok eta txokolatea ere bai. Tokan jolasten zen aurre hartan. Hilario eta Ana Mari; Justo eta Maria; Antonio Marin etxea; Calvotarrak eta Agapito, Antselmo eta Escolastika bizi ziren etxea. Behar bada norbait ahaztuko zait eta espero dut barkatzea. Azkenik Atxukaroren almagana. Nola honek inauteritan txerria mozorrotzen zuen sonbrero handi batekin, belarriak gaintik azalduz. Beste hiru lau bat mozorrotzen ziren orduan, "carnaval rural" erara baino ez dakit zeintzuk ziren. Baita Gerrikone aurre

horretan nola "traperero beltza" zaku handi batekin pasatzen zan buila baten "Traperero beltzaaaaa!" esanez eta zaku astinduz gu beldurtzeko. Nik uste dut etxeetan traste zaharrak erosten ibiltzen zela. Kalearen beste aldetik Sakristauneko baratza zegoen. Orain Kutxa dagoen etxe horiek dauden tokian.

Gure etxean, gaztinaria Uzta-randik gorago geneukan. Gaztina asko biltzen genuen eta gurdiz Ezpaleotik bueltan ekartzten ziren, garoa azpian jarrita eta eta gaztina zakuak gainean jarrita. Gero neguan, ganbaran aitonarekin artoa aletu eta gaztinak morkotxetik ateratzen genituen, errosarioa errezatu eta bere kontuak entzuten

aritzen ginen. Argentinara bi alditan joan zen barkuz. Ekua-dorrera pasatzean izugarrizko festa egiten omen zen barkuan eta behin gizon batek nola bere burua uretara bota zuen kontatzen zuen eta baita langosta plagak ikusi zituela ere Argentinako Misiones lurraldetan. Bai aitonak eta bai aitak ipuin asko kontatzen ziguten: Tartalo, Peru eta Mari, Fernando Amezketarra, Aketegiko damak nola bere ile luzeak urrezko orraziarekin orrazten zituen etabar.

Sagardoa ere egiten zen. Aitona oso trebea zan, pittarra ekartzen zigun sukaldera eta gogoan daukat nola goizero sagardo prentsari ikutu bat ematen zion sagarra pixka bat gehiago zapaltzeko. Gerora aitak hartu zuen erreleboa. Eta urte askoren ondoren nire anaiak bere kuadrilekin hasi ziren berriz lan horitan. Zenbat afari egin ziren gure etxean garai hortan.....

Gogoan dut baita, ondo txikitan, Eguberritan amona- xaharrez jantzi eta nire ahizpa eta ni, Arakamanera amonari” Artzai buru txuri bi “kantatzera oinez nola joaten ginen. Behin elur ugari zegoen eta Patxi etxe-koanak bere kamioiean nola eraman gintuen. Sutondoan berotzen ginen eta amonak

txokolate bero-beroa pronto edukitzen zuen guretzako. San Pedrotan ere joaten ginen, Urtzelaietan bisita egin, burua ermitako zuloan sartu kredoa errezatuz eta bazkaltzera. Udan ni joaten nintzen egunak pasatzera. Jolasera Amiña Goenera, Egurtzera, Gesaletxe inguruan eta Urtzulaietan errekan tene-dorearekin amuarrainak harra-patzen saiatzen ginen.

Izeba Jexuxarekin anisezko erroskillak eta esne gainezko pastak. Amak berriz, esne postre ikusgarrik egiten zigun, inauteritan torrada, krepak pastel-kremarekin eta arrai-nezko orlik bandejakadaka. Egin ahala jaten genituen gehienak.....

Ezin ahaztu zenbat dantza egingo nituen plazan Gau Txori orkestinarekin. Bukatu zenean Zegamako plazako orkestina, kanpora joaten ginen baina, Zumarragako kasinora eta Altsasura jutea ez zitzaidan batere gustatzen. Zegamako giroa askoz nahiago nuen.

Eskolara monjetara joan nintzen. Ez nintzen ondo hasi, izan ere beso bat bankuari lotuta edukitzen ninduten. Urteetan kezkatuta egon naiz ez bainekien zergatik. Orain dela gutxi, etxean kontu kontari asi ginen eta nire bi anaiei

ere antzekoa gertatu zitzaien. Ezkertiak ginen. Horiek ziren orduko sistemak... Solfeora Joxe Elizondorekin. “Umetxo abesbatza”n abesten nuen eta behin Santanderra joan ginen. Orduan ikusi nuen lehendabizi Altamirako koba zuloa. Orain bisitatu ezin daitekeena.

Carmen Jauregui “maestraren” alabaren laguna nintzen eta hamaika urte nituela Carmenek nire gurasoei esan zien bere alaba batxilerra egiteko prepa-ratzera ziola eta nahi banuen biok preparatuko gintuela. Hala hasi nintzen batxilerra presta-tzen eta hurrengo urtean familia Donostiara joan zen eta biga-rren ikasturtea Cabezonekin egin nuen. Orduetik, bukatu arte, 5 urte Irunen “interna “pasa nituen. Amorratzen Zegamara oporretan etortzeko. Bukatu orduko, 18 urterekin Londresen egon nintzen urte bete eta gero Parisen beste urte eta gehiago (68ko Maiatzean han neon). Nire lehendabiziko lana 20 urte-rekin Ibizan izan zen, interprete bezala.

GORA ZEGAMA ETA  
ZEGAMARRAK!

# UDALA



# ZEGAMAKO UDALA

## MARATOI LANETARAKO LANGILEAK KONTRATATU DIRA

Maratoiak sortzen dituen lanei aurre egiteko 4 lagun kontratatu dira. Lan hauek maiatzaren 25etik maiatzaren 31ra egin dira, bi egunak barne. Herritarren artean deialdi irekia egin da lehendabizi eta ondoren izena eman duten guztien artean zozketa egin ondoren honako hauek hartu ziren: Boujemaa Nemmasi, Rafa Olaziregi, Mhammed Grioui eta Segundo Arrizabalaga. Hauen egin behar nagusia herria txukun mantentzea izan da estrukturak muntatu eta traste



Zenbait herri-bidetako erretenak garbitu dira.

guztiak garbitu eta bere lekuan jasotzea ere bai.

## ORMAZPEI S.L. ETA UDALAREN ARTEKO HITZARMENA

Ormazpei S.L. empresa eta Udalaren arteko kontzertazio hitzarmenean adostutakoaren arabera, Olaberia II-ko 11 Eremuan, ondasunen trukaztea onartu da. Ormazpei S.L. Merkantila, Olaberria II-ko 11 arean, eraikuntza eraikigarritasunaren lurraren %80,31ren jabe zen eta Zegamako Udala lur eraikigarriaren gainerako portzentaiaren jabe. Trukaketaren ondorioz, Udalak bere jabetzako lurak Ormazpei S.L. ri emango dizkio eta Ormazpei S.L. enpresak Udalar 311 m<sup>2</sup>ko eraikitako lokal bat eta 126 m<sup>2</sup>ko terraza pribatu bat emango dizkio, horrezaz gain eraikitako garaje bat eta 6.693,73 eurotako diru konpentsazioa jasoko du Udalak. Honela ematea eta kontraprestazioaren balio osoa 265.073,73 eurotako izan da (BEZ barne).

## HERRI BIDEAK GARBITU DIRA

Herriko herri bideen mantentze lanei dagokionez, aurreko urtean Udalak hartu zuen konpromisoa, urtean behin herri bide hauen kuneta garbitzea hain zuzen ere, aurten ere bete egin du. Lan hauek egiteko garaian bide publiko hauen erabiltzaileek horrela

eskatuta batzuk irailean burutu dira eta beste batzuk abenduan. Kuneta garbitze hauetan bertako hostoak eta lurrez beteta zeuden kasuetan lur hauek kendu eta garbitzea izan da eginkizuna. Lan hauek egiteko ardura Arakama Anaiak S.L. enpresak izan du eta bere kostua 9.192,7 Eurotako izan da.

## ZINEGOTZI ALDAKETA

Juan Jose Gorrotxategi Larreak zinegotzi izateari uko egiten dio arrazoi pertsonalak argudiatuz. Bere eskaera azaroaren 6ko udalbatzarrean onartu delarik. Juan Jose mendi eta base-rietako zinegotzia izan da eta besteak beste Gipuzkoako eta Arabako Partzoneri Nagusian Zegamako ordezkaria izan da. Lerro hauek aprobe-txatu nahi genituzke 2 urte eta erdi hauetan Zegamaren alde egin duen lan guztiarengatik eskerrak emateko. Bera ordezkatu duena berriz Maite Rodrigo Albizuri da. Berari ongi etorria eman eta zegamarron alde lan eder bat egingo duela oso ziur gaude.

## UDAL IRISGARRITASUN EGITASMOA BETETZEN

lazko urtean irisgarritasun plana egin genuen. Irisgarritasun plan honen ondorioz zenbait aktuzio egin behar-rean aurkitzen gara herrian zehar pertsona ororen irisga-

rritasuna bermatzeko. Irisgarritasun plan honetan jasotako ekintzak exekutatu aurtengo urte honetan hasi gara. Lehenik eta behin herrian zehar ibilbide bat egin da. Ibilbide hau Buztinkale kalean hasten da eta Olaberriko plazan bukatu. Ibilbide honek irisgarritasuna bermatzeko zenbait zebra bide berri margotu dira eta bertara iristeko espaloiei egin beharreko errebaiek egin zaizkie eta baldosa bereziak jarri dira paso zebra parean pertsona orok antz eman diezaioten bertan hasten dela zebra bidea. Zenbait espaloizabala goak egin dira. Lagungarri izan daitezkeen baranda batzuk ere jarri dira. Lan hauek egiteko ardura Mikel Urbiztondok izan du eta kostua 29.723,29 euro-



Espaloizabala berria jarri da.



Zebra-bide berriak margotu dira.

takoa izan da. Eusko Jaurlaritzara egin zen diru laguntza eskaera eta bertatik 5.846,38 eurotako diru laguntza lortu dugu.

## HAURRESKOLA BERREGOKITU DA

Lehenengo urtean Santiago bideko erromesei aterpe emateko erabiltzen genuen

## UR KONTSORTZIOA ETA UDALAREN ARTEKO HITZARMENA BETE DA

Gipuzkoako Ur Kontsultazioarekin Zegamako Udalak hitzarmen bat sinatu zuen 2007. urtean. Hitzarmen honek 10 urtetarako iraupena zuen eta bertan urte horietan zehar Zegaman egingo ziren hobekuntzak daude jasota besteak beste. Hitzarmen honetan jasota zeuden hobekuntzak betetzeko aurtengo urte honetan honako hauek burutu dira:

- Fibrozementuzko hoditeria kendu egin da eta bere ordez polietilenoazkoa jarri da ondorengo kale edo zonetan:

Aseginolaza Anaiak kaleko 12-14 zenbakietan.

Alderdi- Eder kaleko hiru portaletan.

Txarape auzo guztian.

Mazkieran Barrena eta Toki Txoko artean.

- Bidegorria eraikitzerakoan lan horietaz baliatuko dira azpitik ur hoditeria berria jartzeko.
- Zubitxotik Zatzizabal Haundi eta Zatzizabal Txikira agerian dagoen hodia aldatu eta lurrean sartuta jarriko da.

Aurtengo urtean honela 232.295 euro inbertituko ditu Ur Zerbitzuak Zegaman aurretik aipatutako hobekuntza guztiak egiteko.

Guztira hobekuntza hauek eta aurreko 10 urteetakoak kontutan hartuz Ur Zerbitzuen eskutik Zegaman 513.787 euro inbertitu dira.

Honen ondoren hurrengo 10 urteetarako hitzarmena sinatuko dugu.



Txarapen hoditeria berria jarri da.



Mazkieran Barrena eta Toki Txoko artean hoditeria berria jartzeko lanak.



eraikina, "barrakoa" esanda ulertzen duguna, haurtzaindegirako ume eskaera gehiago zegoela ikusirik eta Ugarte Zelaiko eraikinean ume eskaera denei erantzuna emateko nahiko lekurik ez zegoela ikusita alde batetik eta beste alde batetik herritarrek zerbitzu hauek jasotzeko beste herri batera umeak eraman beharko zituztela ikusirik barrakoa berriro ere haurtzaindegi zerbitzua emateko egokitu da. Honetarako aldaketa nagusia barrakoi barneko aireztapenean izan da. Gaur egungo legediaren arabera haurtzaindegi barneko airea artifizialki etengabe berritzen egon behar du. Hori dela eta egokitzapen hauek egin beharrean aurkitu gara. Lan hauek Hotz-Bero S.L. enpresak egin ditu eta 8.310,28 euro kostatu dira. Bestalde ateen egokitzapen batzuk eta zenbait konponketa txiki ere egin beharrean aurkitu gara. Egokitzapen hauek Mikel Urbiztondok egin ditu 451,35 eurotan. Bitartean Santiago bideko erromesei leku konkretu bat bilatu arte berriz ere ikastolako gimnasioa eskaintzen diegu atseden pixka bat hartu eta gaua pasatzeko.



Igerilekuan kaltetuta zeuden baldosak kendu eta berriak jarri dira.

### IGERILEKUAN KONPONKETAK BIDERATU DIRA

Igerilekuan ere zenbait berrikuntza eman dira. Kanpoko azuleju denak aldatu dira. Hauek aldatzearen arrazoi nagusiak bi dira: alde batetik izotza tarteko urtero zenbait azuleju pitzatu eta pusketa batzuk askatu ere egiten zitzaizkien. Honen ondorioz erabiltzaileek zauriak egiteko arrisku handia zegoen. Bestalde azulejoa urteak pasa ahala oso irristakorra bihurtuta zegoen. Lan hauek Mikel Urbiztondok egin ditu eta 19.265,62 Euro kostatu dira. Beste alde batetik igerilekuko lorategiaren mugan dauden

kanaberak kalte handiak egiten ari dira igerilekuko zelaietan eta landare inbasorea izanik bere sustraiak bidea zeharkatuz parkera ere iristen ari dira. Hau ikusirik kanabera hauek moztu eta tratamendu berezi bat eman zaie gehiago zabaldu ez daitezken. Lan hauen ardura Goroldi enpresak izan du eta 2063,40 Euro kostatu da.

### BAKE EPAILE BERRIA

4 urtetan zehar Zegamako Udaletxeko bake epailea izan den Joseba Olaziregik bere lanari utzi dio. Momentu honetan lan hauek egiteko apuntatzeko epea ireki zen



Haurreskolan aireztapen sistema berria jarri da.



Igerilekuko kanaberak kentzeko lanetan.

## PILOALEKUARI BERRITUA EMAN ZAIO

Frontoian ere zenbait konponketa eta mantentze-lan burutu dira. Lehenik eta behin igeltserotza lanak kontutan hartzen baldin baditugu teilatuko panelak aldatu dira izan ere oso zikinak zeuden eta argia sartzearagozten zuten. Sarreraren beste gelatxo bat sortu dugu, etorkizunean biltegi bezala funtzionatuko duena. Bestalde frontoiko aldagelatarako sarrera itxi egin da eta bertara sartzeko gimnasioko bazkide txartela beharko da. Dena den komun bati beste ate bat jarri zaio eta honela berau guztientzat eskuragarri egongo da. Igeltserotza lanak Mikel Urbiztondok egin ditu eta 15.046,25 Euroko kostua izan dute. Argiteri guztia ere aldatu egin da. Frontisean zeuden foku denak aldatu dira. Honela frontoia lehen baino askoz hobeto argiztatua dago aldea batetik eta bestalde kontsumoa lehen-

goekin konparatuz erdira ere ez da iristen. Harmailetan zeuden fluoreszenteak ere LEDdun foku batzuegatik aldatu dira eta sarreraren zeuden fluoreszenteekin ere berdin egin da. Lan hauek Javier Iraola Ibañezek egin ditu eta 24.805 Euro kostatu dira. Irisgarritasuna hobetze eta seguritate maila handiagoa izan dadin berriz, eskaileratan heldulekuak jarri dira eta harmailetan zeuden barrei babesgarri eta erorketak ekidingo dituzten zenbait barra metaliko jarri dira. Lan hauek Itsasgama S.L.L enpresak egin ditu eta 6.349,6 Euro kostatu dira. Frontoiko sarrerako aluminiozko ateei ere zenbait konponketa egin zaizkie larrialdietako irteerak izan ditzaten eta ebakuazio bat egitea tokatzen baldin bada ahalik eta azkarren eta seguruen egin ahal izateko. Lan hauek Geuria Carpinteria

de Aluminio S.L. enpresak egin ditu eta 7.000 Euro inguru kostatu dira. Frontoian falta ziren zenbait seinale ere jarri beharrean aurkitu gara. Lan hauek Tac-art Braille enpresak egin ditu eta 2.705 Euro kostatu dira. Margotze sakon bat ere eman zaio frontoari. Kantxako paretak, sarrerakoak eta kanpoko fatxadakoak ere bai. Margotze-lan hauek Tinbaux Pintura enpresak egin ditu eta 47.991.26 Eurotako kostua izan du. Bukatzeko frontoiko zoruan ere 180 metro karratu konponduak izan dira. Lan hauek Landa e Imaz S.A enpresak egin ditu eta 22.781,51 Euro kostatu dira. Herri afaritan ezartzen genituen aulkien hankek egiten zituzten zulo hauek. Obra guzti hauek egiteko Foru Aldundiko kirol departamentutik 62.507 Eurotako diru laguntza lortu dugu.



Kantxako hormen margotze-lanak.



Teilatuko panelak aldatzen.



Helduleku berriak.



Pilotaleku sarreraren egin den gelatxo berria.



Komuneko ate berria.



Zegamako paisaia-planaren aurkezpena.

eta jasotako eskaera guztietatik Mikel Berasategi ordezko bezala aukeratu da hurrengo 4 urteetarako.

### ZEGAMAKO PAISAIAREN EGITASMOA ABIAN DA

laz hasi genuen paisaia planarekin ere aurrera goaz. Diagnostikoa egin ondoren Araudi S.L. enpresa eta Euskal Herriko Unibertsitatearen laguntzaz herritarren iritziak jasotzeari ekin zaio. Iritzi hauek jasotzeko zenbait herritarrei elkarrizketak egin zaizkie eta honez gain herritar guztiei galdeketa bat bidali zaie ahal ziren iritzi guztiak jasotze aldera. Jasotako iritzi guzti hauekin azterketa egin da eta berauek biltzen dituen txostena egin da. Txosten

honen berri azaroaren 24an Udaletxean eman da. Hurrengo pausoak, hurrengo urtean zehar luzatuko direnak, txosten honetan jasotako hobekuntzak eta jendeak proposaturiko beste batzuk martxan jartzea izango da. Hitz batean esanda ekintza plana adostu eta berau exekutatzeko. Lan hauek lehen esanda bezala hurrengo urtean zehar egingo ditugu.

### ESKALADAKO TXOKOA PRESTATZEN ARI DA UDALA

Frontoian ludoteka moduan erabiltzen dugun gelan eskaladako BOULDER sistema praktikatzeko bi horma jarri ditugu. Horma hauetako bat umeentzako da eta beste horma bat helduentzako jarri da. Momentu



Ludotekan boulderra jarri da.

hauetan eskalada egiteko eta ludoteka zerbitzua biak gela berean konpartitu beharko ditugu. Bi eskaladako pareta hauek 9.000 Euro kostatu dira eta Kroma Climbing enpresak egin ditu.

### HERRI LURRETAN INBERTSIOA

Aurreko legealdian Zegamako Udalak Zumiztiko terrenoa erosi zuen. Aurtengo urte honetan terreno honi itxitura egin zaio eta bertan pagoak landatu dira terrenoa garbitu ondoren. Lan honen ardura ENDAIZPE S.L. enpresak izan du eta 7.520,70 Eurotako kostua izan du. Lan hauek egiteko Gipuzkoako Foru Aldunditik 5.360,40 Eurotako diru laguntza lortu da.





Udalak erosi berri dituen mahai, aulki eta kabaileteak.

## HERRI BAZKARIETARAKO AULKI ETA MAHAI BERRIAK EROSI DIRA

Udalak orain arte 250 pertsonentzako mahaiak eta aulkiak zituen. Urtean zehar mahai eta aulki hauek ez ziren nahikoa herrian egiten ziren ekintza batzuk aurrera eramateko. Aipagarriena festetako herri

afaria eta koadrila eguneko herri bazkaria. Ekintza hauetaz gain maratoi egunean eta zenbait feria ezberdinetan materialarekin larri samar ibiltzen ginen. Hau ikusirik 650 lagunentzako mahaiak eta aulkiak ekarri dira mahaiak ezartzeko kabaileteekin batera. Mahaien kostua 8.730,15 Eurotakoan izan da


Maderas Portu enpresatik erosi dira. Kabailete eta aulkiena berriz 9.012,56 Euro eta hauek Goierriko Zurak S.L. enpresatik erosiak izan dira.

## LOURDES LARREA UDAL LANGILEA JUBILATU DA

Urtea asterekin batera Udaltxeko garbiketa zerbitzuan lanean aritu zaigun Lourdes Larrea jubilatu egin zaigu. Garbiketa lanetan ibili den urte luze hauetan eraikin publiko denak garbitu beharra tokatu zaiola esan dezakegu: Udaltxoa, kultur etxea, mediko kontsulta, ikastola, komun publikoak, ikastolako gimnasioa ... Egin duen lan txukunagatik eskerrak ematea tokatzen zaigu momentu honetan eta bere biziko etapa berri honetan disfrutatzea opatzea.

## ORIENTAZIO IBILBIDE IRAUNKORRAK JARRI DIRA

GOT, Gipuzkoako Orientazio Taldea eskutik, Zegaman 3 orientazio ibilbide iraunkor jarri dira. Orientazio ibilbide iraunkor honek 3 maila ditu. Lehenengoa motzena eta errazena izango denak 2 kilometro inguru ditu eta modalitate honetan hasi berriak direnontzat da. Ibilbide horia litzateke hau. Ondoren luzeago eta zailtasun handiagoa duen ibilbide laranja etorriko litzateke eta zailena berriz ibilbide gorria. Ibilbide iraunkor hauekin Anduetza Parketxeak Zegaman beste ekintza bat burutzeko aukera emango du eta Mendizale elkarte eta eskolentzat ere beste aukera bat litzateke. Ibilbide iraunkor hauen estreinaldia azaroaren 26an egin dugu parte hartu nahi izan duten herritar guztiek aukera izan dutelarik orientazioa lantzeko. Goitur Turismo Agentziaren laguntza izan duen ekintza izan da honako hau.



Orientazio ibilbide gorriaren planoak.



Lourdes Larrea eta Arantxa Gorrotxategik erretiroa hartu dute.

### ARANTXA GORROTXATEGI UDAL LANGILEA JUBILATU DA

Udaletxeko harrerara bertaratu guztiei erantzuna ematen aritu zaigun Arantxa Gorrotxategi ere apirilean jubilatuta zaigu.

Urte hauetan zehar bere eskue-tatik pasatako jaiotze ziurtagiri, terrenoetako plano, faktura, fotokopia ... hainbat eta hainbat izan dira. Arantxari ere Zegamarro Udaletxearekiko harremana erraztu digulako eskerrak ematen dizkiogu eta bizimodu berria gozatzea opa diogu.

### KALE GARBIKETARAKO LANGILEA HARTU DA

Iñaki Agirreri peoi lanak egiteko kontratua martxoaren 1ean amaitu ondoren lan hauek egiteko beste pertsona baten aukeraketa prozesua hasita geunden. Hala nola euskara frogak eta motozerra eta sasiak mozteko tresna erabiltzeko frogak gainditu ondoren Aaron Fernandez kontratatu dugu beste urte beterako peoi lanak egiteko.

### GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEEI DIRU LAGUNTZAK

“Herrialde behartsuenekiko lankidetzara programa eta diru laguntzak banatzeko araudia” jarraituz jasotako eskariak aztertu ondoren 4.750 € honako modu honetan banatzea erabaki da:

#### Izaki:

<i>Asociación Chernobil</i>	1.500,00 €
<i>Saada Elkarte</i>	750,00 €
<i>Mundu Solidarioa</i>	
<i>Helburu</i>	500,00 €
<i>Elikagaien bankua</i>	500,00 €
<i>Elan Euskadi</i>	500,00 €
<i>ONG Taupadak</i>	500,00 €
<i>DOA. Denok</i>	
<i>osasunaren alde</i>	500,00 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>4.750,00 €</b>

Elkarte hauetaz gain honako hauei ere beren ekintzak

## KATALUINIAKO ALKATE ETA TEKNIKOEN BISITA ZEGAMARA

Apirilko lehen astean Bartzelonako Area Metropolitarrako 3.000.000 biztanle ordezkatzeko zenbait pertsonen bisita izan genuen. Zegaman zakarrak biltzeko zein sistema dugun ikusi nahi izan zuten. Pertsona hauen artean ingurugiro teknikariak, zerbitzuetako zinegotziak, alkateak eta area metropolitarrako zakarren gestiorako zuzendari eta zerbitzuburuak etorri ziren besteak beste. Etortzeko arrazoi nagusia Europak markatzen duen birziklatze tasa minimotik urrun dabilzala eta sistema aldatu nahian dabilza tasa minimo hauetara gutxienez heltzeko. Hori dela eta Zegaman abian jarri genuen eta Gipuzkoa eta kanpoko herri askorentzat eredugarri den edukiontzi sistema honen nondik norakoak jakin nahi izan zituzten bertatik bertara.



Bartzelonako Area Metropolitarrako hainbat alkate Zegamako zabor-bilketa sistema ezagutzera etorri ziren.

## HERRI BIDEAK KONPONDU DIRA

Orain bi urte herri bide publikoen inbentarioa egin genuen beraien egoera zein zen argazki eta datu ezberdinekin dokumentu batean jasoz. Inbentario hau erabiliz konponketa bat behar duten herri bide publikoak zein diren ere badakigu. Aurtengo urtean lau herri bide publiko konpondu ditugu. Lehengo urtean bezala Foru Aldundiak konponketa hauek egiteko diru laguntza atera du eta zegamarentzat 34.276,52 Euro lortu ditugu. Finantziarioari dagokienez Foru Aldunditik lortutako diru laguntza lau pisten artean banatu da. Ordaintzeko geratzen zen zatia berriz Udalak % 65a ordaindu du eta herri bide hauetan "parte" dutenak berriz %35a. Konpondu diren lau herri bide publikoak honako hauek izan dira.

**Txanberonetik Arantzelai Ondo** baserrira doana. Aurtengo urtean lehen fasea egin da. Hala nola pista honen hasiera hormigonatu da eta baita Arantzelai Ondo baserrira iristeko azken metroak ere. Lan hauek egiteko ardura Gañera Excavaciones S.L. enpresak izan du. Konponketa osoa 35.494,19 Euro kostatu da eta horretarako Foru Aldunditik lortutako diru laguntzaren 17.060,38 Euro erabili dira. Herri bide hau konpontzeko Udalak bertako terreno bat erosi beharrean izan da. Terreno honen kostua 5.506,18 Euro izan delarik.

**Arizti Zaharra** baserrirako herri bidea konpondu, zabaldu eta hormigoia botatzea. Herri bide publiko honetan konponketa eta hormigoia botatzeaz gain zabaldu egin da. Honela kamioiak pasatzea posible da. Konponketa hau Lurkide Hondalanak S.L. enpresak egin du eta 21.633,4 Euro kostatu da. Foru Aldundiko diru laguntzatik 10.398,16 Euro erabili direlarik.

**Urtzelaieta** baserriko bide publikoaren konponketa. San Pedro inguruko bide publiko honen egoera ere txarra zenez bertan hormigoia botatu da. Lan hauek Oiarbide Exkabadora Txikiak S.L. enpresak egin ditu eta 7.033,73 Euro kostatu dira. Foru Aldundiko diru laguntzatik berriz 3.024,27 Euro erabili dira.

**Latxanea** inguruko bide publikoaren konponketa. Hemen zulo handi bat zegoenez beronen konponketa burutu da. Konponketa hau Denera enpresak egin du eta 7.892,83 Eurotako kostua izan du. Foru Aldundiko diru laguntzaren 3.793,71 Euro erabili direlarik konponketa hau egiteko.



Txanberonetik Arantzelai Ondo baserrira doan bidea hormigonatuta.



Arizti Zaharra baserri ondoan eskoilera egin da.



San Pedroko bidea hormigonatuta.

## AIZKORRIKO ATERPEA BERRITU DA

Aizkorriko aterpea egoera oso kaxkarrean zegoela eta, Deba-goieneko zenbait mendi korrikalarik, Aizkorri zaleak izanik, sare sozialetan deia luzatu zuten aterpeari txukunketa eta konponketa lanak egiteko boluntarioen bila. Aizkorri Bizirik jarri zioten izena aurkeztutako boluntarioen taldeari eta Zegamako Amezti Mendi Elkar-

tekoekin ere harremanetan jarri ziren, Aizkorriko aterpea Zegamako eremuan dagoelako. Honela hainbat bilera egin elkarrekin eta zeuden beharrak aztertu ondoren, txukunketa eta garbiketa lanak bideratu dituzte 2017. urtean. Lanak, besteak beste, atea konpondu, ate aurreko parrila berritu eta urak hartzeko kubeto berriak

eta handiagoak egin, leihotako kristalak jarri, aterpearen barrualdea margotu, zorua margotu eta abar izan dira. Guztira, 12.851,72 €tako kostua izan dute berritze lanek. Lanen finantziazioa, "Aizkorri bizirik" kamiseta salmentarekin 2.000 € inguru atera dira eta Zegamako Udalak 10.851,72 € jarri ditu.



Aizkorriko aterpearen egoera txundu aurretik.



Aterpe barrua txukundu da.

Aterpeko atea konponduta.



San Martin Ferian abereen erakusketarako jarri den kableatu berria. Zegamako Udal ordezkariak Korrika.

aurrera eramateko lagungarri izango zaien ondorengo diru laguntza eman zaie:

<i>Parrokia</i>	800 €.
<i>Zegamako odol emaileak</i>	450 €.
<i>Aitzgorri Jubilatuen Egoitza</i>	1.500 €.

### SAN MARTINETAN GANADUA LOTZEKO SISTEMA HOBETU DA

Herriko baserritar eta ganaduzaleekin San Martin feria hobetze aldera izan ditugun bilera ezberdinen ondorioz ganadua erakusgai egoten zen eremuan ere aldaketa bat eman dugu. Lehen ganadua horman zegoen kable bati lotuta egoten zen eta ganaduzaleen eskaera zen ganadua muturra ikustea oso garrantzitsua zela. Hori dela eta kable berri bat jarri da hormatik

metro pare bat desplazatua eta horretarako poste batzuk erabili dira. Poste hauek Doilantegia S.Coop. enpresak egin ditu eta 9.623,5 Euro kostatu dira. Poste hauen oinarriak berriz Mikel Urbiztondok ezarri ditu 2566,8 Euroko kostua izan dutelarik. Kableatu hau San Martin egunean jartzen da bakarrik eta behin egun hau pasa eta gero posteak eta kablea kendu egiten dira eta hurrengo urterako gorde.

### UDAL PORTIKUPEAN ARGI BERRIAK JARRI DIRA

Udaletxeko portikupeko argiak ere aldatu dira. Bertan zeuden lau fokuen ordeez 8 foku berri jarri dira. LED motako fokua dira eta hauen kontsumoa lehengoan erdira ere ez da iristen. Lan hauek Javier Iraola

Ibañez enpresak egin ditu eta 2.746,7 Euro kostatu dira.

### KORRIKARI BABESA EMAN ZAIO

Zegamako Udalak Korrika-17ko kilometro bat erosi du. Aurtengo Korrika edizioa Seguratik Mutiloan barrena pasada. Zegamako Udalari egokitu zitzaion kilometroa Mutiloko plaza parera iristen dena izanda. Korrikako antolatzaileei bestalde hurrengo edizioan Zegamatik pasatzeko eskaera luzatu zaie.

### PARKETXEN SAREARI URTEKO KUOTA ORDAINTZEA

Gipuzkoako Parketxeen Sarea Fundazioarekin, Zegamako Anduetza Parketxearen lankidetzeta hitzarmena sinatzea onartu zen 2017ko abenduaren



Udal arkupean LED argiak jarri dira.





## BIDE GORRIA EGIN ETA ERREPIDEA ZABALTZEKO LANAK HASI DIRA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako Departamentuak, Gi -2637 errepidea zabaldu eta bide gorria eraikitzeko lanak joan den abuztuan hasi zituen. Abuztua iristearekin batera festa giroan murgildurik geundela zegamarrok horrenbeste desio genuen bidegorriaren obrak hasi zituen Foru Aldundiak. Obra hauek Intxaustin hasi dira eta herri-gunea lotuko dute Ibarreta baserriaren ondoan. Obra honetan kotxez ibiltzeko bi bide errailak zabalduko dira eta bakoitzak 3 metro izango ditu eta errail bakoitzak ondoan 0,40 cm-ko bazterbidea izango du. Errepidearen ondoan bidegorria ari dira egiten eta honek 3 metroko zabalera izango du. Gainera autoen abiada murrizteko neurriak hartuko dituzte eta Industrialdeko sarrera ere hobetu egingo du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Egitasmo honek 1,5 milioiko aurrekontua du eta lanak martxa onean doaz eta esan dagoeneko errepidearen gain aldeko horma sendoak eginak daudela eta harrobi parean ari direla orain Apaztegi eta Zuloaga aldera joateko irispidea hobetzeko lanak burutzen bestek beste. Esan, lanak hurrengo urteko udaberrirako espero direla burutzea.



Bidegorriaren aurkezpena, Aintzane Oiarbide, Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako diputatua etorri zen.



Bidegorriaren eraikitze eta errepidearen zabaltze-lanak



31 arte. Lankidetza hitzarmen honen ondorioz, Gipuzkoako Parketxeen Sarea Fundazioak, Anduetza Parketxerako urtean 60.000 Euro bideratuko ditu bere dinamizaziorako eta Zegamako Udalak, gehienez, 20.000 Euro ordainduko dizkio, Parkeetxeen Sarea Fundazioari, oinarritzko gastuei aurre egiteko.

### KIROLDEGIKO ETA IGERILEKUKO ZERBITZUEN KUDEAKETA ESLEITU DA

Zegamako Udala eta Goierriko Kirol Teknikoak enpresaren artean indarrean zegoen hitzarmena bukatzeaz zela eta, Kontratazio prozedura bideratu ondoren, Toki Gobernu Batzarrak, 2016ko maiatzaren 17an Zegamako kiroldegiko gimnasioko eta udal-igerilekuko (eta taberna) zerbitzuak osoki kudeatzeko zerbitzuen kontratua, Goierriko Kirol Teknikoak enpresari 67.222,76 eurotan esleitzea erabaki zuen. Hau honela izanik eta bi aldeak

ados egonik 2017ko abenduaren 31ra arte luzatu da kontratua.

### MANTENIMENDU LANAK UDAL ALTZARIETAN

Jauregi etxe ondoko autobus markesina inguruko baranda, kioskoa eta kiosko inguruko barandak eta kiosko inguruko farolak margotu egin dira. Lan hauek Tinbaux Pinturas enpresak egin ditu et 1.264 Euro kostatu dira.

### ESKOLAKO GIMNASIOAN UR BEROGAILU BERRIA JARRI DA

Ikastolako gimnasioko aldagelatan ur beroaren kalentadore elektrikoak alde batetik energia kontsumo handia zuen eta beste alde batetik akumuladoreak duen ur beroa gastatu ondoren berriz ere ur beroa izateko denbora asko pasatzen zen. Honek zekarren arazoetako bat jende kopuru handi samarra dutzatzen baldin bazen lehenengoek ur beroa

## ZEGAMA BIZITOKI EGOKIA

Noticias de Gipuzkoan, martxoaren 6an argitaratu zen artikulu batek dionenez, Gipuzkoan bizi garen biztanleen % 72 Gipuzkoan bertan jaiotakoak gara (516.249 biztanle), % 28a beste lurralde batetik etorritakoak dira hauetatik % 2,99 Bizkai eta Arabatik, % 8,78 atzerrian jaiotakoak eta % 16,31 beste komunitate autonomo batean jaiotakoak. Datuekin jarraituz eta zegamarroi dagokigunean zera azpimarratzen da: Jaiotako herrian bizitzea erabakitzen duten herritarrei dagokionean, (Gipuzkoan hamar lehenengoetan gaude) Zegamarrok gehienbat bertan bizitzea erabakitzen dugu, hain zuzen bertan jaiotako % 59,4. Hona hemen beste herri batzuen datuak:

Jaioterrian bizitzen geratzen diren biztanleen %a hurrenez hurren:

Oñatin %66,35  
Errezil % 63,9  
Ataun % 62,02  
Bergara % 60,50  
Azkoiti % 60,19  
Orexa %60,00  
Azpeiti % 59,87  
ZEGAMA % 59,45  
Donostia % 58,06  
Abaltzisketa % 57,70

### GUTXIENA:

Errearteria % 24,35  
Pasaia % 23,41  
Astigarraga %21,67  
Irura %17,42  
Lasarte-Oria % 13,18



Gimnasioan jarri den ur berogailu berria.

izaten zuten baina denek ez. Kasu honetan geunden maratoni egunean, orientazio ibilbide (rogaine) proban eta beste zenbait kirol ekintzetan. Arazo honi aurre egiteko akumuladore hau bertan utzi eta ura berotzeko beste berogailu berri bat jarri da. Urtean zehar berogailu berri honek berotuko luke ura, beraz energi kontsumoa askoz ere txikiagoa da eta berotzen duen ur kantidadea askoz ere handiagoa, eta jende asko dutzatuko den kasuetara lehengo kalentadore elektrikoak ere lagunduko luke. Kalentadore berri hau Barandiaran eraikuntzak enpresak

jarri du martxan eta 4.263,69 Euro kosta da.

### HERRIKO KULTUR ETA KIROL ELKARTEEI DIRU LAGUNTZA BANAKETA

2016. Urteari dagozkien Zegamako kultur eta kirol elkarteei diru laguntzak eman zaizkie herrian burutzen dituzten ekintzei laguntze aldera. Banaketa honela egin da:

#### Kultur Elkarteak

Orkatx Abesbatza. 3.819,50 €.

Gazte Herexa ..... 1.720,00 €.

#### Kirol Elkarteak

Amezti ..... 1.620,00 €.

Elkartu Nahi..... 1.970,00 €.

Aizkorri F.T. .... 2.070,00 €.

Tartalo Etxe P.E..... 1.620,00 €.

Karraztarro..... 1.970,00 €.

### AISIALDI TALDEEI UDAL GIMNASIOA UTZI ZAIE

Ikastolako gimnasioan Santiago bideko erromesak ez ezik, udaran batik bat, zenbait aisialdi taldek bertan lo egiteko eskaera egiten dute. Aurtengo urtean eskolako gimnasioan lo egin duten taldeak honako hauek izan dira:

**-Movimiento Eucaristico de los jóvenes.** 45 pertsonako taldea.

**-Bizkaiako Skaut taldea.** 35 pertsona.

**-Ordiziako kale hezitzailek.** 10 pertsona.

**-Durangoko Berbaro elkarte.** 60 pertsona.

**-Antxeta Ttan Ttakun aisialdi taldea.** 30 pertsona.

### BIDEETAN MANTENIMENDU LANAK

Beruntzetik Ondarguen base-rrira doan oinezkoentzako pista, orain dela 3 urte Industrialdetik herrira oinez etortzeko aukera izan genezan konpondu zena, erretenak berriro garbitu dira izan ere luizi bat tarteko erretena estalita zegoen eta. Erretenak garbitzearekin batera uraren ondorioz egindako zuloak "todo unoz" bete dira. Lan hauek Oiarbide Exkabadora Txikiak S.L. enpresak egin ditu 1.500,4 Eurotan.

- Txintxoneko bide gurutzetik Aierdi aldera doan pistan ere urak zuloak eta kalteak eginak zituen. Hori dela eta erreten berriak atera dira eta pistari errepaso bat eman zaio "todo unoz" haserako zuloak betetz. Lan hauek Oiarbide Exkaba-



Beruntzetik Ordarguenera doan oinezkoen pistan erretenak garbitu eta "todo-uno" bota da.



Ainitze Azurmendi eta Edurne Albizu, Zegamako Udalak Cavatast-en jarri zuen stand-ean.

dora Txikiak S.L. enpresak egin ditu 1.161,6 €tan.

### ZEGAMA-AIZKORRI MENDI MARATOIA GOLDEN TRAIL SERIES ZIRKUITO BERRIAN

2018. urterako Salomon etxeak Golden Trail Series zirkuitu berria sortu du. Zirkuitu hau bost frogak eta Hego Afrikan jokatuko den Azken Finaleko frogak osatuko dute eta Zegamakoak emango dio hasera. Froga bakoitza puntuagarria izango da eta Eskozian egingo den frogaren ondoren bai emakumezko eta bai gizonezkoetan 10 hoberenak izendatuko dira. Honela aukeratu hauek Hego Afrikan jokatuko den Azken Finalera gonbidatuak izango dira eta bertan ezagutuko dira Golden Trail Series zirkuituko irabazleak. Zirkuitu honetan Salomon etxeak 100.000 euro banatuko ditu sarietan, diruaren erdia gizonezkoentzat izango da eta beste erdia emakumezkoentzat. Hona hemen zirkuitu hau osatzen duten frogak:

Zegama-Aizkorri Mendi Maratoia (Euskadi), Mont Blanc Marathon (Francia), Sierre Zinal (Suiza), Pikes Peak (Estatu Batuak), Ring of Stell (Eskozia) eta Hego Afrikan egingo den The Otter Trail final handia.

### ZEGAMAKO UDALA CAVATASTEN

1989an hasi zen Zegama eta Sant Sadurni d'Anoia herri eta herritarren arteko harremana areagotzen ari da. Bide hone-tatik San Martinetan bertako Udal ordezkariak gure herrira egiten duten bisita ezaguna da eta baita Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko gazta lehiaketan epaimahaikide bezala ematen duten laguntza ere. Era berean, Zegaman egiten dugun Kaba Festa eta San Bartolometan egiten dugun afaria dela eta, kaba eta lumagorri oilaskoa-rena, Sant Sadurniko Udalak, Cavatast feria ezagunean gure produktuak ezagutzera emateko postu bat eskaini zion Zegamako udalari dohain.

Honela urriaren 6,7 eta 8an Zegamako Udalak postu bat jarri zuen Sant Sadurniko Cava-tast feri ezagunean. Bertan Zegama eta Aizkorriko eta Zegama-Aizkorriko maratoia- ren irudiez gaian, herriko artzainen gazten pintxoak saldu ziren. Aurten Udal langileak diren Ainitze Azurmendi eta Edurne Albizu aritu ziren hiru egunetan, bertako gazten pintxoak pres-tatu eta interesatuei gaztaren sekretuak azaltzen. Arrakasta handia izan zuen Zegamako postuak, jende ugari hurbildu zen eta 130 bat gazta pintxotan saldu ziren, guztira 1624 txartel saldu ziren.

### ELOR TXIKIKO ATERPEAREN INGURUKO ATSEDENLEKUA KONPONDU DA

Elor-Txikiren magalean dagoen aterpearen inguruko mahai eta hesiak, abereen eragi- nez-edo kaltetuta zeuden eta honen ildotik, hauek konpon-tzea erabaki zen. Hautsita zeuden egurrezko hiru mahai, abereek botata zituzten bi hesi eta kaltetzen hasita zegoen aterpeko pareta bat konpondu dira besteak beste. Konponke-ta-lanak Mikel Urbiztondok egin ditu.

### OROIMENAREN EGUNA

Azaroaren 10 da biolentziaren biktimei gure elkartasuna adie-razteko Eusko Jaurlaritzak aurreikusita daukan egun finkoa urtero. Aurten ere, azaroaren 10ean, biolentziaren biktimei beren elkartasuna adierazteko elkarretaratzea burutu zuten herritar multzo batek udaletxe aurrean iluntzeko 19:00etan.

# BERDINTASUN SAILA

Berdintasun Sailean eta Batzordean, aurten ere ekitaldi desberdinak antolatzen saiatu gara eta hauek dira:

## MARTXOAK 8 EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA AUTODEFENTSA TAILERRA

### Martxoak 4, larunbata:

18 urtetik gorako emakumeei zuzenduta, indarkeria zer den identifikatzeko tailerra egin zen. Indarkerien jatorria ezagutu, eguneroko egoerak aztertu eta horiei irtenbidea emateko baliabideak landu ziren. Larunbat goizeko 10:00etatik 13:00etara kultur etxean.

## ELKARRETARATZEA

### Martxoak 8, asteazkena:

“Emakumeen eta gizonen berdintasuna helburu” lelopean

Iluntzeko 18:30ean udaletxe aurreko plazan izan zen.

## FESTAK

Festak hasi aurretik etxeetara bidali genuen “Eraso sexistei aurre egiteko protokoloa.” Emakumeek jakin zezaten zer egin behar zen kasu horietan. Kaleetan eta tabernetan kartelak jarri genituen, izenburu honekin:

“Zer egin eraso sexista bat gertatzen bada”

## AZAROAK 25

### EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO EGUNAREN INGURUAN

## BERDINTASUN SAIL ETA BATZARRAK EGITARAU HAU PRESTATU ZUEN AUTODEFENTSA TAILERRA

### Azaroak 18, larunbata:

Tailer teorikoa, goizean eta praktikoa, arratsaldean. Emaginen eskutik.

11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

## ELKARRETARATZEA

### Azaroak 25, larunbata:

“Emakumeen aurkako indarkeriari ez!” lelopean Etorkizunean horrelako egunen beharrik ez izateko, lanean jarraituko dugu, oraindik asko dagoelako egiteko.



Martxoaren 8ko autodefentsa tailerra.



Azaroaren 25eko elkarretaratzea.



Azaroaren 25eko autodefentsa tailerra.

# LEHEN ETA ORAIN



Txanberonetik Arantzelai Ondo baserrira doan pistaren egoera konpondu aurretik.



Txanberonetik Arantzelai Ondo baserrira doan pista hormigonatuta.



Arantzelai Ondo baserrirako bidea konpondu aurretik.



Arantzelai Ondo baserrirako bidea hormigonatuta.



Arizti Zaharreko pistaren egoera konpondu aurretik.



Arizti Zaharreko pista hormigonatu ondoren.



Arizti Zaharra baserriaren alboko pista konpondu aurretik.



Arizti Zaharra baserriaren alboko pistan eskoilera egin da.



Arizti Zaharreko pistarako sarbidearen egoera konpondu aurretik



Arizti Zaharreko pistarako sarbidea konponduta.



Elor Txikiko aterpearen inguruko hesiak erorita.



Elor Txikiko aterpearen inguruko hesia konponduta.



Elor Txikiko atsedenekuko mahaietako bat hautsita.



Elor Txikiko atsedenekuko mahaiak konponduta.



Elor Txikiko aterpetxeko pareta kaltetuta.



Elor Txikiko aterpetxeko pareta konponduta.





Igerilekuko baldosak kaltetuta.



Baldosa berriak jartzeko lanetan.



Igerilekuko zorua konponduta.

# TRADIZIOAK

## GABONAK

Gabonak jai bereziak izaten dira guztiontzat. Alaitasun kutsu berezia ematen diote negu hotzari, kaleak argiz apaindurik, plaza ingurua eguberrietako musikaz alaiturik eta atsedean hartzeko opor egun batzuk lagunekin eta familian disfrutatzeko. Urte amaiera, Gabonak, xarma berezia duten egunak finean. Guzti honi Olentzeroren etorrera gehitu behar zaio. Haurrentzat eta ez hain haur direnentzat ere ilusiozko egunak. A ze pagotxa!!!

Gabon jaietan dudarik gabe egun handienetako bat abenduaren 24a izaten dugu Zegaman. Goizean goizetik kantu hotsa nagusi herriko kale bazterretan. Goizean zehar Aitxuri Herri Eskolako ikasleak eta hauen gurasoak kantu doinuaz alaitzen dituzte kaleak, amona eta aitona-zahar jantziak soinean dituztela. Bazkal ostean berriz, Gazte Herexa elkartekoak baserriz-baserriz ibiltzen dira kantu eta trikiti doinuekin. Iluntzean, Olaran auzotik, herritarrak

irteten dira kantuan Olentzerorekin batera eta herriko txoko eta auzo desberdinetan abestu ondoren, Ostatu aurrean esaten zaio agur Olentzerori iluntzeko bederatziak inguruan.

Errege bezperak ere badu xarma, urtarrilaren 5ean, iluntzean ekialdetik datozen Errege Magoak iristen dira Zegamara eta txikienek beren eskariak egiteko aukera izaten dute San Martin Parrokian.

## SANTA AGEDA BEZPERA

Santa Ageda bezpera otsailaren 4an izan ohi da, aurten larunbatez ospatu zen. Urteetan zehar bizirik dirauen tradizioari jarraibidea emanaz, aurten ere Santa eskean atera ziren hainbat herritar makilak eskuan hartuta Santa Agedaren ohorez idatzitako koplak abestuz. Tobera musika eskolako ikasleek lagunzarekin, koplak zaharrek, koplak berriak, bertsoak... denetarik kantatu zituzten bertaratuek. Kantu eskea amaituta, Udalak eskainitako mokadutxoak egin zuten Ostatuan egunari amaiera emanez.

## ARANTZAZURA PEREGRINAZIOA

Aurten ere ez zaio hutsik egin Zegaman seguruenik sakonen errotuta dagoen tradizioari. Ekainaren 4 eta 5ean ospatu zen Arantzazurako erromesaldia. Igandean eguraldia lagun ez bazuten ere, zegamar ugari abiatu zen mendirantz; batzuk 8:00etan, beste batzuk 9:00tan eta ibiltari azkarrenak berriz 10:00etan. Giro ederrean, hamaiketako egin eta Arri Urdin inguruan, eguerdiko ordu bata eta erdiak aldera, Udalak eskainitako bazkaria dastatzeko aukera izan zuten bertaratuek; xerra bokadiloa tomatearekin, kafea, pastak eta pattarra edonorentzat. Indarrak berritu ostean, handik Arantzazurako bideari ekin zioten herritarrek. Iluntzean, batzuk autobusez Arantzazutik Zegamarako bidea egin zuten eta beste batzuk berriz bertan igaro zuten gaua. Hauek afari eder bat eginez, giro paregabean eman zioten amaiera erromesaldiaren lehen egun honi.



Ekainaren 23an San Juan sua egin aurretik herriko txistularien emanaldia.



## MARI CARMEN ZABALETA

Uztailaren 16an, Mari Karmen Zabaletari, omenaldi xume bat egin genion San Pedroko lagunek, honek urte luzetan zehar San Pedrorengatik eman duen guztia eskertu asmotan. Segidan agertzen den idatzitxoa eman genion.

### BIHOTZ BIHOTZEZ

Goialdekoa eta ohore haundiz.  
Bertan jaio, hazi eta hezitakoa.

Maite dezu zure ingurua animaliak, landareak,  
Eskulanak...

Eta nola ez, san pedro!!!

Zure esku zabaltasuna eskertzekoa da.

Denok gorai patzen dugu zure leialtasuna eta erein duzun  
hazia saiatuko gara Aurrera eramaten.

Karmen, gure txokoan urte askotan elkartzekoak

Izan gaitzela.

*San Pedroko lagunak, Zegama 2017-07-16*



Hurrengo egunean, ekainak 5, astelehenez, ondo gosalduta ondoren, Goiko Bentatik abiatu zen prozesioa. Herriko txistulariek, San Inazioaren martxaren doinua joz, Arantzazuko elizarako bideari ekin zioten udal agintari eta erromesek. Bittorio Zabalgojeaskoak, Arantzazuko fraideekin batera, meza eskaini zuen. Meza amaitu ostean, eliza aurreko eskailetan herritarren argazkia atera eta tertulian egon ondoren, bazkari goxoa egin zuten erromesek. Bazkaldu ondoren, berriro ere Zegamarako bidea hartu zuten erromesek, batzuk autobusez eta bete batzuk berriz oinez. Bigarren egun honetan, eguraldia lagun izan zuten erromesek eta 19:00ak inguruan iritsi ziren oinez etorritakoak Zegamako San Bartolome ermitaren ingurura, aurrez Oazurtzan merienda eginda. Tradizioari jarraituz,

gozokiak banatu ziren lehenik eta ondoren, herriko txistularien laguntzarekin, Arantzazuko amaren irudia hartuta, prozesioa egin zen San Martin parrokiaraino. Bertan otoitzaldi bat eginez eta Arantzazuko amaren abestia kantatuz eman zitzaion amaiera ospakizunari. Elizakoak amaituta, herriko plazan Udalak ardoa eta otar-tekoak banatu zituen jendar-tean eta XXIX. Kasinoko Ipuin Lehiaketako, VI.a Joxantonio Ormazabalen omenez egiten dena, sariak banatu ziren kioskoko plazan.

### IDIAZABALDARREI HARRERA

Ekainaren 11n ospatu zuten idiazabaldarrek aurtengoan urtero egin ohi duten festa. Egun horretan, idiazabaldarrek San Adrianen meza entzun ohi dute eta ondoren, Zegamara etortzen dira aspaldidanik

Olentzero Zegamara ere etorri zen.



San Pedroko meza ondoren,  
Arakamaeneako ganbaran  
mokadutxo bat egiten.

datarren tradizioari jarraibidea emateko. Urteroko moduan, Zegamako alkate den Joseba Izagirrek, Gurutze Santuko ermitan egin zien harrera eta Zegamako aginte makila eman zion loritz Imaz Idiazabalgo alkateari. Jarraian, txistulariak lagun zituztela herriko plazaraino jaitsi ziren guztiak eta eliza aurrean, lora sorta bat eman zitzaion loritzi. Ostatuan hamaiketako egin ondoren, Segurarako bidea hartu zuten.

### SAN JUAN BEZPERA ETA SAN JUAN EGUNA

San Juan bezpera egun berezia izan ohi da Euskal Herrian eta baita Zegaman ere. Neguko sasoi iluna atzean utzi eta udarari eta eguzkiari ongi etorria emateko garaia da. Ekainaren 23an, San Joan bezperan, arbola jarri zen kioskoko plaza alboan. Ohiturari jarraituz, arbola, lizar adarrez eta lore sortez apaindu zen. Ondoren, mokadutxo plaza Udalak eskainita. Gaueko hamarrak aldera, eguna iluntzearekin batera, udaletxe aurreko plazan sua piztu zen, txistulariak eta Tobera musika eskolako dantzariak giroa alaituz.

San Juan egunez, ekainaren

24ean, plazan agintariek ardoa banatu zuten buztinezko pitxarrez baliatuz katiluetan eta ondoren herri afaria egin zen.

### ERMITETAN MEZAK

#### Olaberriko Gurutze Santuaren ermitan mezak

Maiatzaren 3an, Gurutze Santuaren egunean, ospatu zen aurtengoan Olaberriko Gurutze Santuaren ermitan meza, Bittorio Zabalgojeaskoaren eskutik.

#### Santu Espiritu ermitan Meza

Urteroko tradizioari jarraituz, ekainaren 11an Sebastian Ugaldek Meza eman zuen Santu Espiritu ermitan. Meza amaitu ostean, hamaiketako goxoa eskaini zuten Atxa familiak, Urmeneta harategiak, Fermin Larreak eta Jose Domingo Ariztimuñok, borondate onez eskainitakoa. Ermita inguruko zelaietan naturarekin bat eginik, goiz ederra pasa zuten bertaratuek.

#### San Adrianen Leizarraten Meza

Ekainaren 18an, San Adrian ermitan meza ospatu genuen

zegamarrok Bittorio Zabalgojeaskoaren eskutik. Jende mordoxka bildu zen meza entzutera eta ondoren, Udalak eskainita hamaiketako izan zen koban bertan.

#### San Pedro baselizan Meza

San Pedro egunean, ekainaren 29an ospatu zen aurtengoan San Pedro baselizan meza, Txelis Agirretxeren gidaritzapean. Meza ondoren, antolatzaileen esku-zabalta-sunari esker, giro ederrean, merienda goxoa dastatu ahal izan zuten bertara hurbildu zirenek. Eguraldi kaxkarra zela eta Arakama-Eneako ganbaran elkartu ziren meriendatzeko.

#### Iruetxetako ermitan Meza

Abuztuak 7an ospatu zen aurtengoan Iruetxetako ermitan meza, Elurretako Andre Mariaren eguna abuztuaren 5ean izanik. Bittorio Zabalgojeaskoak gidatutako meza izan zen. Ondoren, bertaratuek mokadutxo goxoa egiteko aukera izan zuten.

# GIZARTE EKIMENAK

Erakunde Ez Gubenamentaleai 2016Eko diru banaketa (2016):

Izaki: Asociación Chernobil	1.500 €
Saharar haurraren etorrera	750 €
Mundu Solidarioa Helburu	500 €
Taupadak GGKE	500 €
Elan Euskadi GGKE	500 €
DOA: Denok Osasunaren alde	500 €
Elikagaien bankua	500 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>4.750 €</b>

## GKE 2016 URTEA ZEGAMAN

### 1.- IZAKI: ASOCIACIÓN CHERNOBIL

**Arduraduna:** Asun Mendizábal Elizegi (Zegama).

**Dirulaguntza:** 1.500 €

**Helburua:** Chernobil zentralako hondamendia nuklearraren eta bestelako katastrofeen adin txikiko biktimei laguntza humanitarioa eskaintzea.

**Non:** CHERNOBIL.

### 2.- SAHARAREN ALDE:

Saada Elkartea Goierriko Sahararen aldeko lagunak

**Arduraduna:** Naroa Abalabide (Ataun)

**Dirulaguntza:** 750 €

**Helburua:** Saharar Errefuxiatu Guneetan sorturiko larrialdi egoerari aurre egitea.

**Non:** SAHARA.

### 3.- MUNDU SOLIDARIOA HELBURU" ARRASATE: EEG.

**Arduraduna:** Leire Etxeberria Elorza (Arrasate).

**Dirulaguntza:** 500 €

**Helburua:** Nicaragua Diriamba herrian Carazo bailaran Gaitasun urrituak dituzten gazteen eta helduen formazio Sozio Laborala lortzea.

**Non:** Nicaragua Diriamba herrian Carazo bailaran.

### 4.- ELAN EUSKADI

**Arduraduna:** Naiara Navarro Nieto (Donostia)

**Dirulaguntza:** 500 €

**Helburua:** urritasun fisiko eta hartzaroaren arloan, fisioterapia zerbitzu bat sortuz, ume hauek duten beharrei erantzuna eman ahal izateko, eta aldi berean hezkuntza eta gizarte integrazioa errazteko.

**Non:** La Dalia eskualdean beteko da, Matagalpako probintzian, Nicaraguan.

### 5.- ONG TAUPADAK

**Arduraduna:** Fernando de la Hera Galarza (Irun)

**Dirulaguntza:** 500 €

**Helburua:** Boliviako Herri Indigena Chimen osasun prebentzioa zaintzeko edateko ur hornidura eta saneamendu sarea ezarri haurren eta herri-tarren heriotza tasarekin bukatu ahal izateko.

**Non:** Boliviako Herri Indigena Chimanak

### 6.- DOA; DENOK OSASUNAREN ALDE

**Arduraduna:** Juan Jose Martinez Rodriguez

**Dirulaguntza:** 500 €

**Helburua:** Beni Departamentuko Osasun Sistemaren sendotze plana, Asistentzia eta

formakuntza mailan.

**Non:** Beni (Bolivia)

### 7.- GIPUZKOAKO ELIKAGAI BANKUA

**Arduraduna:** Javier Saenz (Lehendakaria).

**Dirulaguntza:** 500 €

**Helburua:** Gaur egungo krisia dela eta, gizartearen mailarik xumeenen beharra areagotzeko azpiegituren gastuei aurre egitea (nabeen alokairuak, garraioa, argindarra, gasolioa konponketak, aseguruak, zergak...).

**Non:** Bergara

### JUBILATU ETA PENTSIODUNENTZAT SOIN HEZIKETA IKASTAROA.

Jubilatu eta pentsiodunentzat bideratua dagoen patxaran ariketa egiteko ikastaroa da. Astean bi egunetan biltzen dira, astearte eta ostegunetan eta Joakin Elkoro ordiziarra da ikastaroaren arduraduna.

Urtez urte, ikasle ugari biltzen ditu, 2016-2017 ikastaroan 23 pertonek parte hartu zuten, 2017-2018 ikasturtean ere 25 lagun elkartu dira, talde orekatua benetan.

### JUBILATUEN EGUNA

Uztailaren 9an Udalak antolatutako Adinekoen Eguna ospatu zen. Urtero bezala, eguna txistularien kalejirarekin hasi zen; ondoren herriko Parrokian dantzarien arku ederra pasatuaz Meza entzun ahal izan zen, bertan Orkatz abesbatzaren kantuak lagun izan zirelarik. Meza entzun ondoren herriko Ostatu jatetxean bazkari

oparoa dastatu ahal izan zen, bazkalostean sari banaketa izan zelarik.

## ETXEBITZA BABESTUA

2005eko urriaren 10ean Zegamako lehen onuradunarekin jarri zen martxan zerbitzu hau. Momentu honetan hiru gizonetzko daude bertan bizitzen.

Bertan bizi ahal izateko, onuradun bakoitzak tasa bat ordaindu behar izaten du eta zerbitzu guztiekin aurtengo tasa honen zenbatekoa, hilean 715,72 €koa izan da. Tasa hau, hala ere, Udaleko Gizarte Zerbitzuen balorazio baten ondoren zehaztuko da.

Ondorengo zerbitzuak eskaintzen ditu: Etxearen garbiketa, arropa garbiketa eta plantxa, Katering zerbitzua (otorduak), beharra izanez gero, mediku tratamenduen gestio eta kontrola, administrari lanak, autonomia eta laguntza beharrean gainbegiratzea.

## EGUNEKO ZENTROA

Zegamako Eguneko Zentroa 2014 urrian 10 urteko istorioa bete zuen zerbitzua da. Gaur egun, 8 plaza publiko onartuak dituen zentroa da, 2017 urtean zehar bi hilabetetan 5 plaza, 4 hilabetetan 6, bi hilabetetan 8 eta urtearen bukaerarako zazpi laguneko taldea osatu da.

Urtean zehar, bi baja eta hiru alta izan ditugu.

Aurten izan ditugun onuradunetik lau zegamarrak dira, zeraingar bat eta mutiloak bat eta lau segurar.

## EGUNEKO ZENTROA, JUBILATUEN ELKARTEA ETA UDALEKO GIZARTE ZERBITZUEN ARTEKO KOORDINAZIO LANA

Eguneko Zentroa, Jubilatuen Elkartea eta Udaleko Gizarte Zerbitzuen arteko elkarlana bultzatuz, zentroa ezagutu eta ateak ireki nahian, ekintzak bateratuak antolatu dira.

- Hilean bi ostegunetan bingo jokoa.
- Ogia eta taloak egiten ikasteko ikastaroak, ondoren merienda goxo bat eginez.
- Irakurketa saioak astean behin ostiraletan biltzen direlarik eta Mila Alustiza gidari dutelarik.
- Testamentuei buruzko hitzaldi interesagarria Segurako Notario eta Victor Nieto zegamar abokatuak eskainia.

Elkarlan honen zentzua, denon arteko ezagutza maila handiago izatea da eta antolatu diren zenbat ekintza ezberdinetan jendearen partehartzea ikusirik, esan liteke aurrera ere, bide berdinetik jarraitzea garrantziko delako.

## GIPUZKOAKO ELIKAGAIEN BANKUA

Gaur egungo krisia dela eta, gizartearen mailarik xumeenen beharrak direla eta laguntzak areagotzeko herri mailan egiten den Elikagaien banaketa da. Krisialdi honetan, gaizki pasatzen ari diren familiak asko daude gure inguruan eta gutxieneko beharra, hau da, elikadura, asetzea litzateke helburua.

Helburu horrekin, Udaleko Gizarte Zerbitzuak eta Caritasek elkar lanean, elikagai banaketa sistema bat antolatu zen Zegaman 2014an, hiru urte hauetan zenbat familiei eman zaielarik laguntza hau.

Urtean zehar hileko lehen asteazkenean, herriko Caritasko bolondres talde baten bidez, behar duen edozein familia edo pertsonak jaso ahal du jan lote bat.

Jan lotea lortu ahal izateko, Udaleko Gizarte Zerbitzuen balorazio bat egitea derrigorrezkoa da eta diskrezio saiatzen da aurrera eramatea.

Edozein herritar beharrean egon ezker, beraz, dudarik gabe Udaleko Gizarte Zerbitzuetan eskaera egitea animatzen da.



Segurako notarioa eta Victor Nietoren hitzaldia

# XVII. AIZKORRIKO LAGUNEN EGUNA



Mendi Orientazio Froga. Gipuzkoako III. Rogainea burutu zen uztailaren 1ean.


Uztailaren 2an ospatu zen XVIII. Aizkorriko Lagunen Eguna. Egun aproposa izaten da Aizkorri aldetik buelta bat eman eta eguerdirako Zegamako herriguneraino etortzeko. Hala ere aurten, berrikuntza bat izan genuen Aizkorriko Lagunen Egunaren bezperan: Mendi Orientazioko froga egin zen Zegaman, froga arrakastatsua izan zen eta 250 pertsonatik gora ibili ziren Aizkorriko magalean orientazio froga burutzen.

Rogainea, mendi orientazioko kiroleko modalitatea bat da eta bertan mapa oso zehatz eta ipar orratzaren laguntzarekin mendian zehar jarritako balizak bilatu behar izan zituzten parte hartzaileek.

Nahiz eta uztaila izan egun euritsu eta lainotsua izan zuten parte hartzaileek, honek Aizkorriko aldapekin batera, froga



Aizkorrira joan ziren mendizale taldea.



Aizkorri egunsentian elurraren dizdira soinean duela.



Rogainean parte hartu zutenak arauak entzuten.



Eguerditik aurrera eusko Labeko produktuen dastaketa izan zen.



Hurrup antzerki taldekoak, San Adriango historia antzezten.

gogor eta polita bilakatu zuten Zegamako lehen roigaina. Mapa eta ipar orratzaren laguntzarekin, mendian barrea zeuden balizak bilatzen saiatu ziren parte hartzaileek, beti ere jakinik, 6 edo 3 orduko epean, berriz Zegamako plazan bueltan egon beharrean zeudela.

6 orduko rogainean, puntu gehien lortu zituen taldea, Euskal Raid Aralar taldea izan zen, mendian jarritako 50 bali-zetatik 31 bilatzea lortu zuten 180 puntu pilatuz. Ondoren “NosStop Aventura” taldeko Urtzi Iglesias eta Pablo Respal-diza sailkatu ziren 171 puntu-rekin eta hirugarren postuan berriz” Foracorda-Fubi “talde katalana sailkatu zen 168 punturekin.

Emakumezkoen sailkape-nean, “Cobi” neskek nagusitu ziren 104 punturekin, bigarren postuan “NonStop Aventureko” neskek izan dira eta hirugarren postuan Ernio taldeko neskek.

3 orduko rogainen herrikoia, Aitor Erguin eta Ander Requejon

arteko berdinketa izan zen 65 punturekin, baina azkarrago helmugaratu izanak, Aitor Erguin bihurtu zuen garaile.

Rogainearen antolakuntzan, GOT orientazio taldea, Zegamako Udala eta Goitur elkar-lanean aritu ziren baina aurrera begira, uztailaren 1etik aurrera, Anduetza Parketxetik emango da orientazio froga hau egin nahi dutenentzat zerbitzua.

### AIZKORRIKO LAGUNEN EGUNA, UZTAILAREN 2AN

Igande goizean goiz, 6:30etan abiatu zen lehenengo taldea Aizkorrirantz herriko plazatik. 7:30etan berri, beste talde bat abiatu zen Aldaolako aparkalekutik, San Adrianen barrena Aizkorriko gailurreraino. Bi taldeak Aizkorriin elkartu ziren urtero bezala eta, elkarrekin argazkia atera zuten. Ohikoa da Aizkorriin cava edatea parte hartzen dutenek igoaldian eta Udal ordezkariak bertan izandakoei, gero herriko plazan parrilan erretako Eusko Labe-

leko produktuentzat bi txartel banatzen dizkie bertan. Honela, behin herrira iritsitakoan, bai mendian izan dinenek eta bai herrian Aizkorriko lagun Eguna ospatzeko hautua egin dutenek, sagardoa eta parrila erretako jakiak izaten dituzte. Aurten Labeleko hegaluzerik ez zela arrantzatu eta, Eusko Labeleko txerri saiheskia eta hanburgesak banatu ziren eta, ez zen ezertxo ere soberan geratu.

### SAN ADRIAN IGAROLEKUAREN HISTORIA ANTZEZTUA

11:15etan Aizkorritik bueltan zetozenek eta hala nahi zutelako. Bertaratu zutenek, San Adriango igarolekuko historia antzeztuz gozatzeko aukera izan zuten Hurrup antzerki taldearen eskutik. Bertaratuak oso esperientzi polita izan zela aipatu zuten, batez ere agertokia, natural eta propioa izateak ematen zion xarma zela eta.



# ZEGAMAKO HAUR, NERABE ETA GAZTEEN PARTE HARTZE ZERBITZUA

Bederatzi! Bederatzi urte daramatzagu udalean gazteria arloarekin lanean. Gaztematika, eragile eta entitate desberdinen arteko jarduera-sare egonkorra da; Gipuzkoako Foru Aldundiak, Gipuzkoako Udalek eta beste gizarte-eragile batzuen parte-hartzearekin osatua. Gaztematikari esker, arlo honetan oinarri sendo bat konpartitzen dugu zegamarrok Gipuzkoako gainontzeko herriekin batera.

## HAURREN ATALA

Opor garaietan eskaintza ludikoa eskaintzearen helburuari erantzunez, 3-10 urte bitarteko haurrentzat Udaleku Irekiak eta 2 urteko haurrentzat Udako Haur Txokoa antolatu ditu Zegamako Udalak. Egitasmo honetan egon den parte hartzea handia izan da; udalekuan 100 haur aritu dira eta udako haur txokoa berriz 10 haur. Ekintzak ekainaren 26an hasi eta bost astez, uztailearen 28rarte iraun dute. Orotara 11 hezitzaile kontratatu ditu udalak lan honetarako: Josune Azurmendi, Sara Iras-

torza, Garazi Ormazabal, Nerea Galdos, Josune Zubizarreta, Ainhoa Saez de Maturana, Uxue Arrizabalaga, Oihana Arizkorreta, Lander Irastorza, Laida Ormazabal eta Anne Oiarbide. Bost astetan burutu-tako ekintzak asko izan dira eta hurrek, gurasoek, hezitzaileek eta udalak egindako balorazioak oso onak izan dira.

Bestalde, ikasturtean zehar frontoian dagoen jolas txokoa irekita egon da 0-11 urte bitarteko haurrentzat, astelehenetik ostiralera 16:30etatik 18:30etara.

## NERABEEN ATALA

Bele Gazte Gaztelekuan elkartzen dira 12-18 urte bitarteko nerabeak. Zerbitzu hau asteen lau egunetan eskaintzen da; astelehen, asteazken eta ostiraletan 18:30etatik 20:00etara eta larunbatetan 16:30etatik 20:30etara. Nerabeen etortzea handia izan ohi da, batez ere ostiral eta larunbatetan. Hiru hilero, bertan egoten den suspertzaileak nerabeekin adostutako ekintzen progra-

mazioa egiten dute. Denetariko ekintzak egin dira aurtengo urtean ere, hala nola, sukaldaritza tailerrak, irteerak, eskulanak, merienda eta afariak, pelikula emanaldiak, kirolak... Ekintza guzti hauek larunbatetan egiten dira eta baita opor garaietan ere.

Aurtengo urtean, gaztelekuan hasi diren 12 urte betetzen dituzten nerabeen kopurua 18 neska-mutilekoa izan da eta hauei ongi etorri festa egin zitzaion urtarrilean. Orotara, zerbitzu honetaz goza dezaketan 12-18 urte bitartean 75 nerabe daude.

2017 urteko berrikuntzen artean aipatzekoa, nerabeen iritzia jasotzeko egin den prozesu pilotuaren garapena izan da. Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Sailak abian jarritako ekimen honetan, Gipuzkoako hiru herritako gaztelekuek parte hartu dute eta hauetako bat izan da Zegamako gaztelekua. Urtean zehar bi saioa egin dira Zegamako gaztelekuko nerabeekin, bata urtarrilean eta bestea uztailean. Bertan, gaztelekuko erabiltzaileen iritzia jaso-



Isabel Elorzarekin Elor-txikira egindako ibilaldian.



2017an gaztelekuan hasitako partaide berriak.



Udaleku irekietako eta udako haur txokoko haurrak San Fermínak ospatzen



Gaztelekuan nerabeen iritzia jasotzeko prozesu pilotuko urtarrieko saioa.



tzearen beharra aztertu da eta iritzi hauek jasotzeko dauden bide desberdinak jorratu dira. Esperientzia berritzailea izanik, emaitza positiboak eskuratu dira.

Gaztelekua herrian ikusgarri egiteko xedearekin, herri mailako ekintza desberdinetan parte hartu dute neska-mutiek, kalean burutu dira hainbat ekimen eta udalak duen web orrian zintzilikatu dira jarduera desberdinak.

Landutako beste alderdi bat berdintasunaren alorra izan da. Urte guztian zehar hainbat ekimen aurrera eramán dira eta urria-azaroa bitartean nerabeekin hezkidetzak landu da Beldur Barik Lehiaketan parte hartuz. Honez gain, zerbitzuetik ekintza orotan euskara susta-

tzea izan da beste helburu garrantzitsuetako bat.

### GAZTEEN ATALA

Zegaman, Gazte Herexa elkar-tearen lana goraipatzekoa da. Bide batez, Bele Gazte gaztelekutik 18 urterekin irtetzen diren gazteak Gazte Herexa elkartearen inplikatu daitezzen sustatzea da helburuetako bat, herriko eragile aktibo bilakatu daitezzen lortuz. Bestalde, Gazte Herexa elkarteari aholkularitza eta laguntza zerbitzuak eskaini zaizkio zerbitzuetik hainbat ekimen aurrera eramateko.

Hiru atal nagusiak aipatuta, haur, nerabe eta gazteei arreta eskaintza jarraia ematea da zerbitzuaren helburu nagusia.

Bestalde, esandako hiru adin tarte hauei arreta eskaintzen dieten profesional, heldu eta udal langileekin koordinazio-sistema jarraia da; hala nola, eskolako guraso elkartearekin eta Aitxuri Herri eskolarekin, udal mailan zinegotziarekin eta beste sailekin. Guztiek parte hartzen dute urtean bitan egiten diren Gazteria Batzordeko bilaketan.

Bukatzeko esan, 2009 urteaz geroztik lan handia egin dela Udalaren aldetik haur, nerabe eta gazteria arloan, kontutan izanda orain gutxi arte arlo honetan herrian ez zegoela ezer. Beraz, etorkizuna ere oparoa izan dadila!

# ANDUETZA PARKETXEA

Anduetza Parketxeak Gipuzkoako Parketxe Sarean bere bidea egiten jarraitzen du eta urtez urte, bisitari kopurua igotzen ari da. Aurten, 6.800 bisitarien langa gainditu da.

Anduetza Parketxeak, Aizkorrri-Aratz natura parkearen interpretazio zentroa izanik, helburu nagusitzat ingurumen hezkuntza du. Ildo honetatik, Oria ibaiko goi ibilguaren azterketa oinarritzat duen "Oria Garaia" ibilbidea da eskaintzen duen aukeretako bat. Eskaintza honek bisitari asko izan ditu aurtengoan ere, hauen artean, Tolosa eskolako talde handi bat. Ikasleek, Oria Garaia ibil-

biderako prestatuta dagoen unitate didaktikoa eskuratu eta garatzeko aukera izaten dute ibilbide honetan.

Anduetza Parketxeak martxan jarri zuen "Jaten den egurrik ba al dago?" tailerrak arrakasta handia izaten ari du. Tailer honetan, bisitatiek xilotekako oholtxoak esku artean hartu eta hauen usaina, testura, kolorea eta soinua ezagutzeko aukera izaten dute. Eta baita egurra dastatzeko ere! Jaten den egurrik bai ote?

Halaber, inguruetako eskolekin ingurumen hezkuntza lantzeaz gain, Anduetza Parketxearen ekimenez Zegamako Aitxuri

Herri Eskolakoek hainbat jarduera burutu dituzte. Urte hasieran, Zegaman dauden zuhaitzak ezagutzeko ibilaldia egin zen eskolako txikiekin. Ondoren Anduetza Parketxearen inguruan 2015ean landatu ziren 35 zuhaitz singular eta berezien azterketari jarraipena eman diete. Anduetza parketxean zuhaitz berezi hauek ekarri zituen Marti Boada zientzialariaren bizitzara gerturatu ginen besteak beste. Baita zuhaitz singular hauen berezitasunak ezagutzera eman ziren, hau da, singularrak izatearen zergatia azaldu zen.

Horretaz gain, urtean zehar



Marimundukoren ipuin kontaketa.



Eñaut Elorrietaren kontzertua San Martin Parrokian.

jarduera eta programa ugari antolatzen ditugu gure eskaintza aberasteko eta bisitari gehiago erakartzeko. Ikastetxe eta taldeei jarduera bereziak eskaintzen dizkiegu eta beste jarduera asko herritar guztiei zuzenduak izaten dira.

Aurten egindako jarduera nagusien errepaso egingo dugu.

Urtarrilean, Gaztagintzaren sekretuak jarduerak arrakasta handia izan zuen berriro ere eta Gipuzkoa osoko familia ugari gerturatu ziren.

Martxoan, Erlezainen feriaren barruan orientazio jolasa antolatu zen erlearen bila izenarekin.

Apirilean, txoriak kantuz ezagutzeko irteera egin genuen Mikel Olano adituaren gidaritzapean.

Maiatzean, Aizkorriko narrasti eta anfioak ezagutzeko ibilaldia egin genuen Ander Izagirre adituarekin.

Ekainean, Historiaurreko tiro eta arku txapelketan Europa osoko bisitariak izan ziren.

Uztailean, Aizkorriko lagun egunean San Adriango historia antzeztua antolatu zuen Udalak eta Gipuzkoako jende asko etorri zen. Urtero legez, hilabete bukaeran, San Adriango igarobideko indusketak erakusteko txangoak ere egin ziren.

Irailean, Zur eta Lur 2017 egitaraua martxan jarri zen Zegamako bide zaharretan barrena ibilaldiarekin. Urtero legez, saguzarrak hurbiletik ikusteko gau-irteera egin genuen.

Urrian, Zur eta Lur 2017 egitarauaren barruan Gutik Zura filmaren aurkezpena izan genuen Mari Jose Barriola zuzendariaren eskutik.

Azaroan, Luis Mari Zalduak Zegama izenaren jatorri, esanahi eta garrantziaz hitzaldia eman zuen San Martin Feriako egitarauaren barruan. Egitarau aberats honen barruan, Eñaut Elorrietaren emanaldia izan zen. Ataungo Jentilbaratza kultur elkartearen eskutik Marimundukoren ipuin harrigarriak

entzun genituen ere. Hilabetea bukatzeko Zegamako orientazio froga herrikoia ospatu zen.

Abenduan, Olentzero eta talo tailerra jarduera antolatu genuen, urtero bezala oso arrakastatsua izanik.

Aurreko udazkenean bezala, Zur eta Lur 2017 kultur programa antolatu dugu Udalarekin elkarlanean. Jose Luis Ugartek gidatutako ibilaldi toponimikoak, Zegamako bide zaharretan barrena tituluarekin, ireki zuen aurten egitaraua. Ondoren Gutik Zura filmaren aurkezpena izan genuen Anduetza parke-txean. Bukatzeko Eñaut Elorrietaren kontzertua izan zen San Martin elizan.

Ekitaldi horiek guztiak arrakasta handia izan dute eta bisitari ugari erakarri ditu. Hala ere, azpimarratzekoa eta eskertzekoa da bihotzez zegamatarren harrera ona eta parte-hartze ikaragarria.

# KIROL EKINTZAK

Urte honetan, kirol ekintza ugari burutu dira Zegaman. Hurrengo lerroetan, 2017an zehar antolatu diren kirol-ekintza esanguratsuenen aipamena duzue:

## V. SAN SILVESTRE KROSA 2016

Aurreko urteetako arrakasta ikusirik, 2016ko abenduaren azken egunean Zegamako V. San Silvestre lasterketa antolatu zuen Udalak Elkartu Nahi elkartearekin lankidetzan. Bi lasterketa burutu ziren iaz ere, lehenengoan haurrak izan ziren protagonista eta bigarrenean berriz gaztetxo eta helduak.

Helduen lasterketa arratsaldeko 17:30etan hasi zen eta 5,25km-ko bidea egin behar izan zuten 257 korrikalariak. Hauen artean herritar parte hartzaile ugari izan genituen eta baita inguruko herrieta-koak ere. Euskal Herritarrak ez ezik, espainiarrak ere baziren aurtengo parte hartzaileen artean.

Bestalde, gizonezkoetan lehen zegamarra Auritz Mendizabal

## V. SAN SILVESTRE KROSA 2016. SAILKAPENAK

### GIZONEZKOAK

#### IZEN-ABIZENAK

- 1 Unai Hernandez Muñoz
- 2 Jon Telleria Gallastegi
- 3 Iñaki Sarasua Elizegi

#### HERRIA

- Urretxu  
Legazpi  
Asteasu

#### DENBORA

- 00:17:03  
00:17:10  
00:17:15

### EMAKUMEZKOAK

#### IZEN-ABIZENAK

- 1 Maite Maiora Elizondo
- 2 Sara Juez Lorza
- 3 Naroa Sagarna Sagarna

#### HERRIA

- Mendaro  
Legazpi  
Ormaiztegi

#### DENBORA

- 00:18:55  
00:20:18  
00:20:20

izan zen 17 minutu eta 37 segundoko denborarekin eta lehen emakumezko zegamarra berriz, Karmele Ormazabal 22 minutu eta 13 segundoko denborarekin.

Lehen hiru gizonezko eta emakumezkoek eta lehen zegamar gizonezko eta emakumezkoak sari bana jaso zuten baina beste parte hartzaileen-tzat ere izan zen saririk. Saririk preziatuenak 2017ko Zegama-Aizkorri mendi maratoirako hiru dortsal izan ziren.

Kirol festa honi zien urte zaharrari behar bezalako amaiera emateko, Ostatuan luntxa eman zen parte hartzaile eta antolakuntzan ibili ziren guztientzat. Giro bikaina beraz, urte zaharrari agur esateko!

## XVII. FRONTENIS TXAPELKETA

Urteroko ohiturari jarraituz, 17.enez frontenis txapelketa eman zitzaion hasiera martxoan. Txapelketa honetan hamar bikotek parte hartu zuten. Finalera Luis Malkorra eta Xabier Azurmendik osatutako bikotea eta Ioritz Etxeberria eta Iosu Oiarbidek osaturikoa iritsi ziren eta XVII. Frontenis Txapelketako irabazleak Luis Malkorra eta Xabier Azurmendi izan ziren. Hirugarren postuan berriz, Asier Berasategi eta Iker Gereñu izan ziren, urte askotan frontenis txapelketa honetan jokatuak bikotea.

### 2017KO URREZKO

### AIZKOLARIEN BANAKAKO TXAPELKETA

Maiatzaren 20an Urrezko Aizkolaria, 2017 Eusko Label banakako aizkolari txapelketa lehiak izan ziren Zegamako toki-alai pilotalekuan. Hiru aizkolarik parte hartu zuten; Iñaki Azurmendi, Ugaitz Mugertza eta Xabier Zaldúa. Lehenak, Iñaki Azurmendik, lehiaketa utzi behar izan zuen arazo fisikoak tarteko. Finalerako berriz, Ugaitz Mugertza sailkatu zen eta finalerdietarako Xabier Zaldúa.

Bestalde, harri jasotzaileen II. Pastorkua finalurrekoan Hodei Iruretagoiena Izeta IV.a eta Mikel Lopetegi Urra aritu ziren Zegaman.



XVII. Frontenis txapelketako txapeldunak eta txapeldunordeak Kirol Saileko zinegotziarekin

### III. ZEGAMA-AIZKORRI KILOMETRO BERTIKALA

2017ko maiatzaren 26an, ostirala, hirugarrenez antolatu zen Zegama-Aizkorri Kilometro Bertikala. Zegamako plazatik abiatu ziren lasterkariak baina zati kronometraturia Harrihaundin hasi (505m) eta helmuga Iraulen (1520m) izan zuen. 3.000m-ko ibilbidean 1015m-ko desnibela igo behar izan zuten parte-hartzaileek. 195 korrikalarik amaitu zuten ostiraleko proba (orotara 217 izen-emate egon ziren). Arratsaldeko 16:00etan abiatu zen lehen taldetxoa Zegamako plazatik. Stian Angermund norvegiarra izan zen bizkorrena Iraulera igotzen, 34 minutu eta 55 segundo behar izan zituelarik. Bigarren postuan Matadeperako (Bartzelona) Jan Margarit izan genuen, 36 minutu eta 11 segundoko denbora eginez eta hirugarren postuan sailkatu zena, lehen euskalduna, Eako Imanol Goñi, 37 minutu eta 18 segundo behar izan zituelarik ibilbidea egiteko. Emakumezkoetan, bizkorrena Igoaladako Laura Orgue izan zen, 41 minutu eta 40 segundoko denborarekin. Bigarren postuan Maite Maiora mendaroarra, 42 minutu eta 28 segundo behar izan zituelarik. Emakumetako podiuma osatzeko, hirugarren, Gernika-Lumoko Maria Zorroza korrikalaria izan genuen, 44 minutu eta 55 segundoko denborarekin. Herritarren artean berriz denbora onena Ivan San Juanek egin zuen, 44 minutu eta 40 segundo behar izan zituelarik proba amaitzeko.

### XVI. ZEGAMA-AIZKORRI MENDI MARATOIA

Maiatzaren 28an, Zegama-Aizkorri Mendi Maratoiko hamaseigarren edizioa ospatu zen. Eguraldia lagun, gozatu ederra hartu zuten parte hartzaileek.

469 korrikalarik amaitu zuten proba eta lasterketa utzi zutenak 53 korrikalari izan ziren. Aurtengoan ere luxuzko podiuma osatu zen. Ostiralean kilometro bertikala irabazi zuen Stian Angermund norvegiarra irabazi zuen mendi maratoia ere. Jornetek 2014an egindako errekorra hautsi zuen gainera, 3 ordu 45 minutu eta 8 segundoko denbora eginez. Bigarren Bormioko (Italia) Marco De Gasperi helmugaratu zen, 3 ordu 48 minutu eta 20 segundo behar izan zituelarik frogara amaitzeko. Gizonezkoen podiumean hirugarren Marc Lauenstein suitzarra izan zen, 3 ordu 53 minutu eta 26 segundoko denborarekin. Maite Maiora izan zen emakumezkoen artean lehena 4:34:27 denborarekin. Zegama Aizkorri lehenengo aldiz eramango du txapela Mendarokoak eta ez hori bakarrik, Emmanuelle Brizoren errekorra hobetzea ere lortu zuen. Bigarren sailkatua Silvia Rampazzo italiarra izan zen, 4:37:17 denborarekin. Hirugarren sailkatua, Sheila Aviles kataluniarra izan zen, helmugan 4:43:24ko denbora eginez. Lasterkari zegamarrak ere ugari izan ziren eta gizonezkoetan bizkorrena Guillermo Pinillos izan zen 4:53:29 denborarekin eta emakumezkoetan Uxua Barandiaran, 6:25:18 denborarekin.

### VI. ZEGAMA-AIZKORRI JUNIOR TRAIL

Maiatzaren 28an, maratoiaz gain izan zen beste proba bat ere, VI. Zegama-Aizkorri Junior Trail proba. 10,4km-ko ibilbidea egin behar izan zuten parte hartu zuten korrikalari gaztek. Orotara 75 lasterkarik amaitu zuten proba. Gizonezkoetan Nicolas Molina izan zen garaile 00:46:07 denborarekin. 55 segundo beranduago sartu zen bigarrena, Burgosko Victor Illera eta hirugarren sailkatua Hernaniko Anartz Artola izan zen, 00:47:28 denbora eginez. Emakumezkoetan garaile Ane Iturria tolosarra izan zen, 58 minutu eta 46 segundoko denborarekin. 30 segundo beranduago sartu zen helmugan bigarrena, Yaiza Miñana zaragozarra. Hirugarren Andorrako Andrea Sinfreu izan zen, ordu bat eta 15 segundo behar izan zituelarik. Zegamarraren artean parte hartzaile bat izan genuen gazteen lasterketa honetan, Arantxa Ortiz eta ordu bat eta 21 segundo behar izan zituen proba amaitzeko.

### LX. HERRITARREN ARTEKO FUTBITO TXAPELKETA

Uztailaren lehen egunetan eman zitzaion hasiera herritarren futbito txapelketari. Aurtengoan sei talde izan dira elkarrekin lehian. Finala berriz, San Bartolome festetako lehen egunean, abuztuaren 23an,



Futbito txapelketako finalera iritsi ziren Ipurbeltz eta Haizea taldeak



San Bartolome txirrindu probako irabazlearen helmugaratzea

jokatu zen. Finalera iritsi ziren bi taldeak Ipurbeltz eta Haizea izan ziren eta Ipurbeltz taldea izan zen garaile finalean. Gol gutxien jaso zituen atezainaren saria Mikel Rey Apaolazarentzat izan zen eta finaleko jokari onenari ematen zaion saria berriz, Joxe Jabier Malkorra Rodrigok jaso zuen.

#### LXXXIV. SAN BARTOLOME TXIRRINDU PROBA AFIZIONATUENTZAT

San Bartolome jaien barruan, abuztuaren 27an, igandez, LXXXIV. afizionatuen San Bartolome Txirrindulari lasterketa ospatu zen. 130 kilometroko ibilbidea osatu behar izan zuten txirrindulariek eta sprinean amaitu zen lasterketan Euskadi Fundazioko Marc Buades izan zen irabazle. Bigarren postuan Lizarte taldeko Sergio Samitier txirrindularia helmugaratu zen eta hirugarren berriz Txomin Juaristi Baque-BH taldekoa. Taldekako saria Euskadi Fundazioak irabazi zuen eta mendiko saria Asier Aranak eraman zuen, Quick Step-Telco´m taldeko txirrindulariak.

#### ZEGAMAKO II. MENDI DUATLOIA

Azaroaren 4an, larunbatez, ospatu zen Zegamako II. Mendi

Duatloia. Euskal Herriko mendi duatloi zirkuiturako proba puntuagarria izan zen. Elkartu Nahi Txirrindulari Elkarteak Zegamako udalarekin lankidetzan antolatutako ekimena izan zen. Euripean, lasterkariak ibilbide gogorra egin behar izan zuten; 4,4 kilometro korrikan, ondoren 14,92 bizikletan eta bukatzeko beste 1,46 korrikan. Parte hartzaile batzuk banaka aritu ziren eta beste batzuk binaka. Binakako lehiaketan batek korrika egin zuen eta besteak bizikleta. Banakako lasterkarien artean bizkorrena eta beraz probako garaile, herritarra izan zen, Aitor Perez Arrieta, ordu bat eta hamar minutu behar izan zituelarik lasterketa amaitzeko. Binaka aritu zirenen artean, 3. postuan

beste bi herritar izan genituen; Beñat Katarain (korrika) eta Gorka Lozano (bizikletan), ordu bat eta hamalau minutu behar izan zituztelarik proba amaitzeko. Honez gain, banaka aritutako Zegamako Elkartu Nahi Txirrindulari Elkarteko kirolariek, taldekako lehenengo saria irabazi zuten.

#### HERRITARREN ARTEKO XIX. SAN MARTIN TORNEOA

Udazkenarekin batera, urteko azken txanpan, herritarren arteko XIX. San Martin torneoa antolatu zuen Tartaloetxe Pilota Elkarteak Udalarekin lankidetzan. Txapelketa honetan haur zein gazte aritu dira, urriko eta azaroko asteburuetan pilota jardunaldi bikainak ikusteko aukera izan delarik. San Martin azokarekin batera, arratsaldean ospatu ziren finalak, frontoia jendez beteta zegoela. Finalean, lau pilota partida ikusteko aukera izan zen, lau kategoria ezberdinetako pilotariak hain zuzen ere. Guztiek bikain jokatu zuten eta 2017ko azaroaren 11an txapela jantzi zuten bikoteak hauexek izan ziren: Eneko Ormazabal-Jokin Etxezarreta, Enez Goiburu-Ekhi Aizpeolea, Aratz Collado-Enaitz Landa eta Josu Oiarbide-Xabier Azurmendi.



Mendi duatloian taldekako saria irabazi zuten zegamarrak

# KULTUR EKINTZAK

## IPUIN KONTALARIA

2016ko abenduaren 28an, 17:00etan Jabier Otaegi Kultur etxeko Oria gelan Onintze Goitz ipuin kontalaria izan genuen “ Enaitz pirata ipuinen munduan” saioa eskainiz. Saiora 60 bat haur eta guraso hurbildu ziren.

## ZEGAMAKO TOPONIMI MAPAREN AURKEZPENA

Martxoaren 14an, Erlezain Egunaren bueltan, “Zegamako toponimi mapa berriaren aurkezpena izan genuen Jabier Otaegi kultur etxean, Jose Luis

Ugarte legazpiarraren eskutik. Jose Luis Ugartek herriko txoko guztiak miatu ditu toponimi mapa hau berritzeko eta azken urteotan hainbat toki ofizialetan gaizki erabili dituzten izenak bere tokian kokatu dituela berriro ere. Esan Zegamako udalak bultzatuta, 1990. hamarkadan, Luis Mari Zaldua eta Luis del Barriok, Etnogintza enpresarekin egin zuten mapan ere izenak ongi zeudela kokatuta baina harrez gero, leku izen horiek lekuz aldatua zebiltzala leku ofizial askotan.

## JAKOBA ERREKONDOREKIN HITZALDIA

Martxoaren 16an, Jakoba Errekondoren eskutik izan genuen hitzaldia arratsaldeko 19:00etan. Erleak eta intsektuak erakarri eta uxatu” izan zen hitzaldiko gaia eta baratza-gintzan dauden teknika berritzaileen adibideak izan genituen.

## TOMATEA, BARATZAKO ERREGINA

Apirilaren 11n, eta Ekoguneak antolatuta, herriko baratze parkean, tomatea baratza-gintzan nola zaindu irakatsi



Onintze Goitz ipuin kontalariarekin haurrak adi adi.





San Bartolomeko baratza parkean, tomatearen zaintzari buruzko ikastaroa eman zen.

zuten ikastaro praktiko batean eta ikastaroaren ondoren, parte hartzaileei hiruna tomate landara desberdin oparitu zitzairen.

### ZEGAMA IZENAREN JATORRIA, ESANAHIA ETA GARRANTZIA LUIS MARI ZALDUAREN ESKUTIK

Azaroaren 8an, San Martin feriaren bueltan urtero egin ohi ditugun kultur jardueren barnean, aurten gure herriarean izenaren gainean aritu gara. Horretarako Luis Mari Zaldua filologoaren azalpenak entzun ahal izan genituen Anduetza Parketxean. Gure herriaren izenak jatorri Indoeuropearra omen du eta "herri oso garailea", "herri garaileena" "esan nahi omen dio. Hala eta guztiz ere, guzti honen azalpena urtekari honetan aurkituko duzun artikuluan baten duzu.

### JOSE MARI ARTOLAREN BIDEO EMANALDIA

Azaroaren 9an, iluntzeko 19:00etan, Jabier Otaegi kultur

etxean, Jose Mari Artolak prestatutako bideo emanaldiaz gozatzeko aukera izan genuen. Beste behin ere, herritar ugari jasota dauden elkarrizketak, duela hogeita hamar bat urtekoak berriro entzuteko eta beraietaz gozatzeko parada izan genuen, egun ikusi ezin ditugun eraikinak, eta parajeak ikusteko aukera ere bai.

### BERTSO JAIALDIA

Martxoaren 19an, arratsaldeko 18:00etan eskolako gimnasioan bertso saioa izan genuen Kasino Elkarteak antolatu eta Zegamako udalak lagunduta. Bertso saioan Andoni Egaña, Iker Zubeldia, Maddalen Arzallus eta Oihana Iguaran aritu ziren eta gai jartzaile Saroi Jauregi aritu zen. Leku aldaketa hoberako izan zen, bertso zalea bertsolariengandik gertuago sentitu baitzen. Bertso saioa polita izan zen.

### EÑAUT ELORRIETAREN KANTALDIA

San Martin bezperan, azaroaren 10ean, Eñaut Elorrietaren emanaldia izan genuen San Martin Parrokian. Ekimen hau, Anduetza Parketxeak eta Zegamako udalak antolatu zuten elkarlanean, eta ehundaka pertsonak parte hartu zuten kontzertuan.

### TAILA, MARRAZKETA, PINTURA ETA ESKULAN TAILERRAK

Xabier Otaegi kultur etxea da eskulan ezberdinen ikastaroak ematen diren gune garrantzitsuena. Hala ere apaiz etxean dauden gela batzuetan aritzen dira Maria Luisa Gorrotxategirekin pintura lantzen dutenak, beraietaz ez dagoela kultur etxea leku egokiagorik.

Aurtengoan ere, Iñaxi Urreaga, Itziar de la Granja, Maria Luisa Gorrotxategi eta Jabier Arrieta aritu dira ikastaroak ematen. Pintura, marrazketa, esku lanak eta tailaketa landu dira.

# XXVII. EUROPAKO HISTORIAURREKO ARKU ETA BULTZAGAILUZKOA TIRO TXAPELKETA



San Adrian inguruan egin zen arku eta bultzagailuzko txapelketa.

2017ko udaberrian XXVII. Europako Historiaurreko Arku eta Bultzagailuzko Tiro Txapelketa ospatu da San Adrian-Leizarraten. Horrekin hirugarren aldiz ospatzen da Europako Txapelketako saio bat Partzuergoan, eta San Adrian kobako balio arkeologikoa ezagutzera ematen ari gara Europa mailan. Txapelketaren helburua Historiaurrea jendartera hurbiltzea da, modu dibertigarri batean hiru alderdi landuz: lehiaketa, eskulana eta Historiaurreko teknikak ikastea.

Aurtengo ekinaldian bertakoen parte-hartzea bultzatu nahi izan dugu, eta horretarako egitarau zabal bat eskaini da: arkuak nola egin ikasteko tailerrak, arku eta bultzagailuzko tiro txapelketa eta historiaurreko bizimoduen tailerrak.

Antolaketan Aranzadi Zientzia Elkarteak, Aitzbitarteko Lagunak elkarteak, Ekainberrik eta Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko Interpretazio Zentroak parte hartu dute Zegamako Udalaren babesarekin.

Apirilean eta maiatzean arkuak egiten ikasteko tailerrak eman ziren eta 25 pertsona inguratu ziren teknikak, lehengaiak eta txapelketaren arauak ezagutzeko. Horietatik askok txapelketan parte hartu ahal izan dute beraiek egindako armekin, eta, dudarik gabe, datozen ekinaldian euren gaitasunak trebatzeko aukera izango dute.

Tiro txapelketa ekainean ospatu zen eta 20 lagun aurkeztu ziren lehiaketan parte hartzera. Gehienak Euskal Herrikoak ziren, baina Estatuko eta Euro-

pako jaurtitzailak ere izan ditugu gure artean. Tamalez Emakumeen eta Haurren kategoriatan tiratzaile gutxi izan ditugu, eta horixe da hurrengo ekitaldietan hobetu nahi dugun alderdietako bat.

Denera, txapelketaren emaitza positibotzat hartzen dugu berriz, gero eta jende gehiago animatzen baita kirola, ondarea eta artisautza konbinatzen duen hobbie honetara. San Adriango txapelketak modu ezin hobean konbinatzen ditu lehiakideen arteko adiskidetasuna, ingurune paregabea eta aztarnategi arkeologiko interesgarrienetako bat. Horregatik lehiakide-taldea sendotzen ari da urtero, eta denoi animatzen zaituztegu hurrengo saiotan parte hartzera.



Txapelketa irabazleak pozik.



Anduetza inguruan haurrak arku eta bultzagailuak probatzen.

# SAN ADRIANEN INDUSKETAK



San Adrianen udaro egiten dira indusketei Zegamako udalak azpiegitura babesa ematen die.

San Adrian-Leizarrateko Tunelaren egindako lan arkeologikoen XI Kanpainak datu berri eta interesgarriak eman ditu. Inguru berezi honetan egiten ari diren lanak oso ikuspegi interesgarria sortzea ahalbidetzen ari dira.

Lan hauek Gipuzkoa eta Arabako Partzuergo Orokorrak sustatzen ditu Zegamako Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundiko laguntzarekin, eta Aranzadi Zientzia Elkarteko koordinaziopean.

Aurtengo indusketa lanetan Euskal Herriko eta beste lurral-

deetako (Burgos, Errioxa) hamar ikasle eta arkeologo gazteek hartu dute parte. Era berean, betiko arreta berezia eskaini zaie Pasabidetik igarotzen diren ohiko bisitariei.

Aurten bi izan dira lan eremu nagusienak. Bolborategi zaharra deritzanean (Karlismadetan erabilera hori izanagatik datorkio izena), egungo Baselizaren aurrean, 2012an hasitako lanei jarraipena eman zaie. Hemen Madeleine aldiko okupazio mailetan lan egiten jarraitzen da, duela 14.000 urtetakoak, datazioen arabera.

Gizaki talde bati dagokio, ehiztari-biltzaileak, ohiko moduan kanpalekua Tunelaren barrualdean kokatzen zuenak. Bertan bizi izaten ziren denboraldi txikietan, eguraldiak aukera ematen zuenean. Gogora arazi beharra dago une honetan baldintzak eta paisaia Europako Iparraldearen antzekoak zirela (Finlandia edo Siberia). Egonaldi hauek belaunaldi batzuetan luzatu ziren, eta horien aztarna ugari utzi dituzte. Nabarmenezkoa da jasotako suharri pieza eta faunaren kopurua. Lehenengoak tresnak



Aranzadi Zientzia Elkartekoak, udako ikasleekin lanean.



Indusketek emandako emaitzak bisita gidatu batean azaltzen dira.

egiteko lehengai bezala erabiltzen zituzten, Tunelean bertan egin eta konpontzen zirelarik. Ehizatu-tako animaliei dagokienez oreinak, basahuntzak, hartzak, basurdeak, etab. nabarmentzen dira.

Bigarren lan eremua Baseliza zaharraren kokapean kokatzen da, egungoaren parean. Bertan, lortutako datuak oso garrantzitsuak dira ere, eremu honetan egondako okupazio faseak ulertu ahal izateko. Honela, segida osatu ahal izan da Brontze Aroko Bukaera – Burdin Aroa eta Erromatar Garaiko egonlekuak aurkitzerakoan. Hauekin lotuta etxeko su baxu txiki batzuk identifikatu dira, hala nola oraindik ikerketa fasean dauden material aztarna txikiak (ikatzak, zeramika, fauna, etab.).

Hurrengo urteetarako lan itxaropenak oso erakarriak dira, eta San Adrian-Leizarrateko Tunelean gordetzen den puzzleak emaitza berri eta interesgarriak ematen jarraituko du. Hala, gure iragana eta arbasoen ezezagunak diren alderdiak ezagutzen joango gara.



ALFREDO MORAZA

Aurten aurkitu duten txanpon bat.



Teknika bereziak erabiltzen dira indusketetan.

# ERLEZAIN EGUNA



XIX. Erlezain eguna osatu dugu aurten Zegaman, martxoaren 19an hain zuzen ere. Ekimen honen helburuetako bat erlezainak omentzea da, urtean zehar egiten duten lanari errekonozimendu bat eginez egun hau beraiei zuzendurik eginez. Ildo honetan, erlezainei ez ezik erleak berak, gure bizitzan duen garrantzia ere azpimarratzea egokia iruditu zaio udalari eta Erlezain elkarteari eta aurten “ Erletik eta loretik dator mundua” 1. Jardunaldia abian jartzea erabaki zen. Jardunaldi hauekin, bi erakundeek gai honi buruzko dibulgazio lan bat egin nahi baita gure gizarteari zuzenduta.

Honela, Erlezain Eguneko asteen antolatzen diren Kultur ekitaldietako bat, martxoaren 14an egin zen. Iluntzeko 19:00etan Jabier Otaegi Kultur etxean, “ Zegamako toponimi maparen aurkezpena” egin zen Jose Luis Ugarteren eskutik. Toponimi mapa hau egiteko herritar askok eman zioten beren laguntza eta hauek ere bertan izan ziren, beraiek egindako ekarpenari esker sortutako mapa berria bertatik bertara ikusiz; honela, solasaldi polita gauzatu zen Zegamako leku izenak aitzakiatzat hartuta. Martxoaren 16an, “ Erleak eta intsektuak erakarri eta uxatu” gaia ardatz hartuta, Jakoba Errekondoren azalpenaz goza-

tzeko aukera izan zuten hitzaldira gerturatu ziren herritarrek. Hitzaldian, baratzean intsektuak kontrolatzeko eta erakartzeko dauden landare eta loreen erabilpena azaldu zen.

Martxoaren 19an ospatu zen Erlezain Eguna eta honen barnean Gipuzkoako XIX. Ezti Lehiaketa eta Gipuzkoako gozogile ezagunen produktuaren erakusketa eta dastaketa egin ziren.

XIX. Gipuzkoako ezti lehiaketara, urtero bezala, Gipuzkoak 7 eskualdetatik aurkezten diren eztiak zeuden dastatzeko. Eskualde bakoitzean aurrez



Zegamako toponimia mapa berria aurkeztu zuen Jose Luis Ugarterek.



Jakoba Errekondo Erlezain Eguneko azokan izan zen landareei eta hauen erabilerei buruzko azalpenak ematen.



Erleen mundua ezagutarazteko panelak jarri ziren kiroldegian.



Erleak eta erregina gertutik ikusteko aukera izan zen.

egiten da, txapelketa bazter-tzailea eta eskualdeko bakoitzeko hiru hoberenak aurkezten dira Zegamara. Bestalde, herritarren saria ere banatzen da, horretarako jartzen herritarrentzako dastaketan emandako puntuazioaren arabera.

Gozogintzarako berriz, Rafa Gorrotxategi gozogile ezagunaren presentzia izan genuen aurten ere, eta eziz eginiko gozokiak egin zituen goizean zehar kiroldegian, ondoren nahi zuenari dastatzeko aukera emanaz. Ager-

toki aurrean Gipuzkoa osotik ekarritako gozogileen produktua erakusgai jarri ziren eta, goizeko txapelketak bukatu ondoren, herritarrei eman zitzaizkien dastatzeko.

## HONA HEMEN AURTENGO TXAPELKETAKO EMAITZAK

**1go saria: Agustin Zabala**

**2. saria: Ramon Lopategi**

**3. saria: Bittor Murgiondo**

**Herritarren saria: Ageda Zeberio**



2017ko Ezti lehiaketako hiru sarituak.



Ezti eta gozo salmenta postuez gain, landareak erosteko aukera ere izan zen Astigarragako Loraldi Mintegiak jarritako postuan.

Feriaren amaieran lehen san bezala, Gipuzkoako gozogileen produktuak eta Mahala etxeko yogurtha eztiarekin dastatzeko aukera izan zen.

Anduetza Parketxetik kandela tailerra antolatu zen eta haurrek kandelak egiten ikasten aritu ziren; era berean, Anduetza Parketxean, "Erlearen bila" orientazio jolasa egin zuten

haurrentzat arratsaldeko 16:00etan.

Aurten berrikuntza modura, Astigarragako Loraldi Mintegiak ere parte hartu zuen Erle-

Aitxuri Herri Eskolako haurrek ere, marrazkien erakusketa egin zuten eta Erlezain Elkarteko kideek, epaimahaikide lanak egin zituzten ondorengo sarituak aukeratzeko:

**2 URTEKOAK:**

IKER OTAEGI VIDAL  
ANE RIVAS MEGINO

**3 URTEKOAK**

XUBAN PEREZ AGIRRE  
EKAI INZA  
RODRIGUEZ

**4 URTEKOAK:**

ARANHE SAN SEBASTIAN  
IRIARTE

NAHIA IZAGIRRE  
BERASATEGI

**5 URTEKOAK**

ANDER OTAEGI VIDAL  
GARAZI ALBIZU  
GOROSPE

**1. MAILA:**

2. ARATZ AIZPEOLEA  
AZKONA

3. BEÑAT APALATEGI  
ALVIZ

**2. MAILA:**

IRATI TELLERIA MURUA  
ENETZ GOIBURU  
ARRIETA

**3 MAILA:**

MADDI MENDIZABAL  
LEKUONA  
OIER ZEBERIO  
IRASTORZA

**4. MAILA**

ELENE AIZPEOLEA  
GORROTXATEGI  
OIER ERRASTI ARAKAMA

**5. MAILA:**

ANDER ORMAZABAL  
URDANGARIN  
AINITZE MAIZKURRENA  
LARREA

**6. MAILA:**

BEÑAT DE PRADO  
ORMAZABAL  
NORA ETXEZARRETA  
URBIZU



Epaimahaikideak ezirik hoberenen aukeraketan.

zain Egunean. Bertan Jakoba Errekondo egon zen landareei buruzko azalpena ematen eta bakoitzaren funtzioa azalduz baratzean erabiltzeko, besteak beste astean zehar hitzaldian eman zituen azalpenak berriz entzun eta loreak bertatik bertara ikusi eta erosi ahal izan ziren.

Azkenik, Kasino Elkarteak antolatuta, Aitxuri Herri Eskolako gimnasioan Bertso Jaialdia antolatu zuten. Bertsotan, Andoni Egaña, Iker Zubeldia, Maddalen Arzallus eta Oihana Iguaran hartu ziren eta gai jartzaile lanetan Saroi Jauregi. Bertso saio polita izan zen eta tokia ere gustukoa izan zuten bai bertsolari eta bai bertsozaileek ere.



Hainbat gozoglek bidalitako pasteekin erakusketa bikaina osatu zen.



# XVI. ZEGAMA-AIZKORRI MENDI MARATOIA 2017



Zegama-Aizkorri Mendi Maratoiaren XVI. edizioa arrakastatsu aurten ere.

## MENDAROKOA ERREGINA NORBEGIARRA ERREGE

Zegamara etortzen lehenengo aldia zuen arren, **STIAN HOVIND-ANGERMUND** norbegiarrak irabazi zituen maiatzaren 27ko Kilometro Bertikala eta maiatzaren 29ko Zegama-Aizkorri Maratoiaren XVI. edizioa, markak hautsiz bietan eta bere erregetza aldarrikatuz. Emakumezkoetan ere, marka eta guzti, amets eder bat bete zuen Mendaroko Maite Maiorak, XVI. Maratoia irabaziz eta Kilometro Bertikalean bigarren izanez.



### ALBERTO ZERAIN GOGOAN

Aurtengo Zegama-Aizkorri mendi maratoiaren kronika idazteak ba ditu bere gazi-gozaok. Behin berritan, maratoia bera, kilometro bertikala eta gazteen lasterketak, hiru probak emaitza bikaina izan zuten, kirol lehia eta ikuskizun bezala. Bertakoa gutxi bailitzan, maratoiaren goiz berean lortu zuen Kilian Jornetek Everest mendirako joan-etorria, orain arte beste inork lortu gabeko denbora eta modutan egitea.

Ospakizun horien gozoak, ordea, berehala izan zuen bere gazia: Alberto Zerain ekainaren 24an zendu zen Nanga Parbat (8.126 m.) mendiaren magaletan, Mariano Galván argentinarrekin batera gailurra era alpinoan egiteko ahaleaginean zihoazela.

Ez ditugu Zegaman inoiz ahaztuko gurekin egin zituen orduak. Maratoiaren aurkezpeneko ekitaldian Annapurnara [8.091] maiatzaren 11n egindako igoera zoriondu genion eta maratoiaren irteerako zinta-mozketan parte hartu zuen korrikalari guztien txalo artean.

2018ko maratoiaren irteeran berrituko ditugun txaloak, Zegamako mendi zaletasunari beti hainbateko estima izan zion Alberto Zerain mendizale handiaren ohoretan.

## NORBEGIARRA ERREGE

Fiordoan pareje urrunetik, Norbegiago Rådal herritik iritsi zen Zegamara STIAN HOVIND-ANGERMUND maiaztaren 24an. Ez zen noski ezezagun bat mendi lasterketen mundua jarraitzen dutentzat, berak jantzi baitzuen 2016ko kilometro bertikalen munduko txapela, baina, gainerakooi, kosta egin zitzaigun bere izenari doinua jartzen.

Beharko ikasi, ordea! Maiaztaren 26ko arratsaldean Zegama-Aizkorri Kilometro Bertikalen hirugarren edizioa irabazi zuen 34:45-eko marka ezarriz. Ilandean, berriz, 3 minutu eta 30 segunduz hautsi zuen Kilian Jornetek 2014an [3:48:38] ezarritako marka, berria 3:45:08an utziz.

Mundu guztiaren ahotan, jakin min ase ezina egun horretan Zegaman: Kilian Jornetek parte hartu izan balu, zer gerta ote zitekeen? Galdera horren erantzuna ikusteko irrikitan gaude honenbestez. 2018an izango ote, Zegama Aizkorri Mendi Maratoiaren XXVII. edizioan? Auskalo. Hala balitz, zalantzarik gabe, kirol ikuskizun bikain baten aurrean egon gintezke.

## MENDAROARRA ERREGINA

Maite Maiorarentzat ere urte berezia izan da aurtengoa



Uxua Barandiaran Santu Spiritu inguruan.

Zegaman. Kilometro bertikalean bigarren egitea lortu zuen. Ilandeko maratoian, berriz, txapela janztea [4:34:27], gizonen kategorian bezala, honetan ere markak berria ezarriz. Ez nolana gainera, aurreko errekorra ia lau minututan gaindituz. Berarekin batera, Silvia Rampazzo italiarrak eta Sheila Avilés kataluniarrak osatu zuten podiuma.

Ostiraleko Kilometro Bertilaka Igaladako Laura Orguerentzat izan zen eta Maite Maiorarekin batera Gernika-Lumoko Maria Zorrozak osatu zuen podiuma.

Maite Maiorak maratoiaren helmugara iritsitakoan, emozioz gainezka aitortu zuen: "Amets bat bete dut gaur". Berak eta

beste guztiek. Besteak beste, maratoia osatzea lortu zuten Zegamako bi emakume hauek, Uxua Barandiaranak [6:25:18] eta Karmele Ormazabalek [7:20:30].

## KILIAN JORNET. SUMMITS OF ME LIFE

Kilian Jornetek ez du inork erronka bota beharrik, mendi igoera eta ibilalditan oraindano inork egin gabekoak egiteko. Bakarra izan da gaur arte, Everest mendiaren 8.848 metroak sei egunen buruan bi aldiz igo eta jaitsi dituen, bere proiektuan, Summits of my life, urrats erraldoia emanaz.

Maiatzaren 22an egin zuen lehenbiziko aldiz. 26 ordutan



igo zen 5.100 metrora dagoen Rongbuk monastegitik gailurreraino. Eta beste 12 ordutan jaitsi zen 6.492 metrora dagoen behe kanpamendu aurreratura. 38 ordu guztira. Bidean, birus batek eragindako sabeleko minari ere aurre eginez. Leher eginda, noski, baina nahi bezain eroso egin ez izanaren arantza buru-bihotzen zituela.

Sei egunera, maiatzaren 28an, Zegamako Mendi Maratoiari ohore egin nahi izan balio bezala, bigarren saiakera egin zuen. Oraingoan 6.492 metrora dagoen behe kanpamendu aurreratutik Everest gailurrera, 17 ordu behar izan zituen. Eta 11 ordu jaisten. Lanak ematen ditu inork berriro halakorik egin lezakeenik pentsatzeak.

Kilianek berak zabalik utzi ditu atek:

*“Estic molt emocionat d’haver pogut fer cim una altra vegada. Avui m’he trobat bé, encara que feia molt de vent i m’ha costat bastant avançar. Fer dues*

*vegades cim a l’Everest en una setmana i sense oxigen crec que estableix una nova línia de possibilitats en l’alpinisme i estic molt content d’haver-ho pogut dur a terme”.*

Kilianen amak, Núria Burgadak Zegamatik bizi izan zuen semearen lorpena, aurreko urteetan bezala maratoia ikustera etorrira. Hala aitortu zigun, semea zein ahaleginetan zebilen jakinda, maratoiaren bezperan: *“Bera horrela da zoriontsu. Orduak daramatza whatsapp erantzun gabe eta urduri nago baina pozik, berari gehien gustatzen zaiona egiten ari delako”.*

Zegaman pozik, 2018ko maiatzaren 27an Aizkorri gainetik hegan igarotzen ikusteko aukera emango baligu!

### ZAILTASUN GUZTIEN GAINETIK...

Rafael Ledesma santurtziarra da Zegaman beti miretsiko

dugun korrikalarietako bat. Itsua da bera. Arabako ONCE erakundea zuzentzen du gaur egun. 306 dortsalarekin, Zegama-Aizkorri Mendi Maratoiaren XVI edizioa egin zuen.

Halako ezintasunik ez daukagunoi kosta egiten zaigu Zegama-Aizkorri bezalako lasterketa luze eta gogor bat itsua izanda nola egin litekeen pentsatzea. Berak lortu du.

Montes Solidarios, Gasteizko talde bat da eta zailtasun bereziak dituztenei mendi ibilaldiak egiten laguntzea du helburu. Kasu honetan, Rafael Ledesmanen itsumutil izan ziren eta ibilaldi osoa egitea lortu zuten.

Zorionak Rafael Ledesmari, Abel Fernandez eta Yosú Vázquez gidariei eta laguntzaile talde osoari. Zegama-Aizkorri Mendi maratoiak beti izango du dortsal bat zailtasun guztien gainetik halako borondate irmoa erakusten duten kirolarientzat.



Emakumezkoen podiuma.



Karmele Ormazabal helmugan sartzen.



Gizonezkoen podiuma.



Gizonezkoen podiuma agintari eta gonbidatuekin.

# ZEGAMA 2017\_SAILKAPENAK

## KB\_2017 EMAKUMEZKOAK

ORGUE VILA, LAURA	Igualada	0:41:40
MAIORA ELIZONDO, MAITE	Mendaro	0:42:28
ZORROZA IRIONDO, MARIA	Gernika-Lumo	0:44:55

## KB\_2017 GIZONEZKOAK

ANGERMUND, STIAN	Norbegia	0:34:55
MARGARIT SOLE, JAN	Matadepera	0:36:11
GOÑI ARANBURU, IMANOL	Ea	0:37:18

## ZEGAMA-AIZKORRI JUNIOR TRAIL - NESKAK

ITURRIA ALZATE, ANE	Tolosa	0:58:46
MIÑANA MARÍN, YAIZA	Zaragoza	0:59:16
SINFREU ALDUNCIN, ANDREA	Aixirivall	1:00:15

## ZEGAMA-AIZKORRI JUNIOR TRAIL – MUTILAK

MOLINA AUGUSTÍN, NICOLÁS	Illera	0:46:04
SANTOS, VÍCTOR	Burgos	0:46:59
ARTOLA ARIN, ANARTZ	Hernani	0:47:28

## XVI. ZEGAMA-AIZKORRI MARATOIA - EMAKUMEZKOAK

MAIORA ELIZONDO, MAITE	Mendaro	4:34:27
RAMPAZZO, SILVIA	Noale	4:37:17
AVILÉS, SHEILA	Santa Margarida de Montbui	4:43:24

## XVI. ZEGAMA-AIZKORRI MARATOIA - ZEGAMAKO EMAKUMEZKOAK

BARANDIARAN ZURUTUZA, UXUA	Zegama	6:25:18
ORMAZABAL ZABALETA, KARMELE	Zegama	7:20:30

## XVI. ZEGAMA-AIZKORRI MARATOIA - GIZONEZKOAK

ANGERMUND, STIAN	Norbegia	3:45:08
DE GASPERI, MARCO	Bormio	3:48:20
LAUENSTEIN, MARC	Corcelles-Cormondrèche	3:53:26

## XVI. ZEGAMA-AIZKORRI MARATOIA - ZEGAMAKO GIZONEZKOAK

PINILLOS RODRIGUEZ, GUILLERMO	Zegama	4:53:29
MORAN ALONSO, CARLOS	Zegama	4:53:48
MENDIZABAL, AURITZ	Zegama	4:56:27

## 2018 EGUTEGIA



<b>APIRILAK</b>	<b>30</b>	Yading Skyrun	29 km	+2,345m	Yading, China
<b>MAIATZAK</b>	<b>27</b>	XVII ZEGAMA-AIZKORRI MENDI MARATOIA	42 KM	+2,736M	ZEGAMA, EUSKADI
<b>EKAINAK</b>	<b>16</b>	*Livigno SkyMarathon	34 km	+2,500m	Livigno, Italy
<b>EKAINAK</b>	<b>23</b>	Olympus Marathon	44 km	+3,200m	Dion, Greece
<b>UZTAILAK</b>	<b>1</b>	Buff Epic Trail 42K	42 km	+3,200m	Barruera, Spain
<b>UZTAILAK</b>	<b>22</b>	Dolomites SkyRace®	22 km	+1,750m	Canazei, Italy
<b>UZTAILAK</b>	<b>29</b>	*SkyRace® Comapedrosa	21 km	+2,280m	Arinsal, Andorra
<b>ABUZTUAK</b>	<b>25</b>	Matterhorn Ultraks « SKY »	49 km	+3,600m	Zermatt, Switzerland
<b>IRAILAK</b>	<b>1</b>	The Rut 28K	28 km	+2,375m	Big Sky Resort, USA
<b>URRIAK</b>	<b>23</b>	*Limone Extreme SkyRace®	29 km	+2,500m	Limone Sul Garda, Italy

# CARLOS MORAN

## URTEA, KILOMETROETAKO URTEA!!

2017 urtea kirol arloan os ona izan dela esan nezake, urte hasieran finkatutako helburuak lortuz. Hona hemen egin dudana egutegia:

- **Otsailean**, Basque Ultra Trail Series zirkuituko (Hego Euskal Herriko 4 hiriburuak lotzen dituen lasterketa) lehen etapa, hau da, Bilbotik atera eta Gasteizera iritsi, guztira 110Km eginez. Nahiz eta gorputza data horietan nahiko "berde" egon, nire kategorian lehen postuan amaitzea lortu nuen.

- **Apirilak 1 eta 2an** Asturiasko Cabralesko 3 bertikaletako kopa lasterketan parte hartu nuen. Lasterketa hau Kilometro bertikalen artean, munduko zailenetakoa da. 2 egunetan 3 bertikal egiten dira. Larunbata goizean 3 kilometro distantziako bertikala eta 1042 m+. Arratsaldean, 2, 470 km eta 984 m + rekin. Bukatzeko, igande goizean, Kilometro bertikalen zailtasun handiena lortuko dugu, Aventón-ekoa, 1,890 Km eta 1004 m+. Oso esperientzi polita izan zen.

- **Apirilean** ere, Penyalgosa Trails, Castellonen, CSP 115km / 5500m+. Gogorra eta luzea egin zitzaidan, hala ere nire kategorian 2. amaitu nuen.

- **Maiatza hasieran** sartuta, BUTSeko 2. etapan parte hartu nuen, Gasteiz-Iruñea lotzen duena, 130 Km hain zuzen ere. Hemen ere nire kategoriko lehen postua lortu nuen.

- **Maiatzaren 26-28ko** astebukaeran, Zegama-Aizkorri mendi maratoiaren astebukaera. Ostiralean Kilometro Bertikalean parte hartu nuen eta igandean maratoian. 10 urte ondoren nire denborarik onena egitea lortu nuen, 5 orduetik jaitsiz. Ikaragarria eta edozein garaipen baino balio handiko marka!!

- **Ekainaren 10ean Espainiako Ultra Txapelketan** hartu nuen parte, Travesera Integral Picos de Europa deritzon lasterketan, Arenas de Cabrales, Asturias. 74 km eta 6560 m+ desnibela duena. Beterano B kategorian, 50 urtetik gora, **Espainiako txapeldun** izan nintzen.



- **Ekainean** ere, Espainiako maratoi txapelketa ospatu zen Zumaia-Flysch Trail lasterketarekin. Hemen 3. postuan amaitzea lortu nuen.

- **Uztailean**, Amezti Mendi Elkarteko Emilio Txurrukaren eskutik, Bidarraiko Baztandarrak ultra lasterketan parte hartzeko gonbidapena jaso nuen. 85 Km eta 6500 m +. Kategoriko 2. eta sailkapen orokorreko 9.postua lortuz. Entrenamentu ona izan zen!!

- **Abuztuan**, BUTSeko 3. etapa ospatu zen, Iruñea-Donostia lotzen dituen, eta Euskal Herriko Ultra txapelketa izan dena, 120 Km. Hemen ere kategoriko lehen postua lortu nuen eta Euskal Herriko 5. beteranoa izan nintzen, 45 urtetik gorako kategorian.

- **Irailean**, aurtengo urteko erronka nagusiari ekin nion, Italiako Tor des Geants mendi lasterketa. 339 km eta 30908 D+. 118:50:22 denboran helmugan sartzea lortu nuen. Lasterketan zehar Italiako Aosta bailarari buelta ematen zaio. 5 korrikalariko taldea joan gara eta 10 eguneko esperientzia itzela izan dela esan dezaket. Lasterketa hau bai izan dela gorputza eta burua bueltan jarri nauena!!!

- Denboraldia amaitzeko **urrian** BUTSeko azken etapa, Donostia-Bilbo lotu dituen, 140 Km. Oso gogorra egin zitzaidan, baina helburu bikoitza lortu nuen, nire kategoriko lehena izatea eta zirkuitu osoa bukatzea lortu dugun 47 kideetatik 8. egitea, beraz, oso pozik!!

Orain, egun batzuetan gorputzari atseden eman eta datorren urteko egutegia pentsatu eta antolatzen hasiko naiz.

# ZEGAMARRAK

## Behobia-Donostia lasterketan

Azaroaren 12an, urtetik urtera arrakasta handia-  
goa duen Behobia-Donostia lasterketa ospatu  
zen eta aurten ere Zegamatik jende dezente  
hartu zuen parte bertan, 15 korrikalari zega-  
maritu ziren lehian. Zorionak guztioi!!! Hona hemen  
parte hartzaile bakoitzak egindako denbora eta  
saillapen nagusian lortu zuten postua.

POSTUA	IZEN-ABIZENAK	DENBORA
420	Mikel Frias Reguillaga	01:17:03
2431	Joxe Migel Encinas Sanchez	01:27:25
2729	Xabier Morillo Mendizabal	01:28:12
3293	Antonio Otero Rey	01:29:32
6092	Carlos Moran Alonso	01:35:51
6571	Iker Alzelai Arakama	01:36:42
6842	Asier Berasategi Urdangarin	01:37:11
6914	Uxua Barandiaran Zurutuza	01:37:19
8708	Jesus Berasategi Zurutuza	01:40:04
12129	Naiara Toledo Zurutuza	01:45:37
12134	Aritz Toledo Zurutuza	01:45:37
	Angel Segurola Alonso	01:47:00
13618	Lierni Galarraga Aguirre	01:48:06
13634	Leider Agirre Katarain	01:48:08
17126	Ion Gorrotxategi Urteaga	01:54:18
19667	Igor Elizegi Arrizabalaga	01:58:49



Donostiako helmugara iritsi ondoren hiru korrikalari zegamar



Behobia-Donostia egindako korrikalari zegamar batzuk

## QUEBRANTAHUESOS-TREPARRISCOS

Ekainaren 17an ospatu zen hain eza-  
guna den Quebrantahuesos proba. Aur-  
tengoa XXVII. edizioa izan da. Sabiñani-  
gotik abiatu eta 200km-ko ibilbidea egin  
behar izan zuten txirrindulariek. Bero  
itzela izan zuten egun honetan. Orotara  
lau mendate igo behar izaten dituzte  
txirrindulariek; Somport, Marie Blanche,  
Portalet eta Hoz de Jaca. Proba hone-  
tan 8.000 inguru txirrindulari atera ziren  
Sabiñanigotik.

Honez gain, 85km-ko beste proba bat  
ere ezaguna da, egun berean egiten  
dena, hau ere Sabiñanigotik irtetzen  
delarik, Treparriscos proba hain zuzen  
ere. XIV. edizioa izan da 2017an ospa-  
tutakoa eta 2.100 txirrindulari inguruk  
parte hartu zuten proba honetan.

Aurten ere, Zegamako txirrindularien  
ordezkaritza zabala izan da bertan.  
Hona hemen parte hartu zuten herrita-  
rren zerrenda eta denborak:

### TREPARRISCOS

<b>Mikel Larrea</b>	<b>02:47:37</b>
<b>Eñaut Albedi</b>	<b>02:47:43</b>
<b>Oier Irastorza</b>	<b>03:44:04</b>
<b>Ainara Mendoza</b>	<b>04:42:46</b>

### QUEBRANTAHUESOS

<b>Iban San Juan</b>	<b>06:02:09</b>
<b>Eneko Arratibel</b>	<b>06:24:54</b>
<b>Aritz Irastorza</b>	<b>06:57:43</b>
<b>Xabier Morillo</b>	<b>07:31:35</b>
<b>Axier Zeberio</b>	<b>07:39:13</b>



Treparricoseko parte-hartzaileak.



Poweradeko parte-hartzaileak.

## POWERADE NON STOP. DONOSTIA-BARTZELONA

Powerade Non Stop Donostiatik  
Bartzelonara doan 700 kilome-  
troko mendi bizikleta lasterketa  
da. Aurtengoa, III. edizioa izan da  
eta ekainaren 9tik 11ra bitartean  
ospatu da. Banaka, binaka, hiru-  
naka edo launakako taldeetan  
ateratzeko aukera dago. Egunez,  
gauzez... ez dira geratzen helmuga-  
ra iritsi arte. Zegamatik ere  
izan ziren parte hartzaileak proba  
gogor honetan; Ander Perezek,  
Aitor Perezek, Ruben Zabaletak  
eta Iban Sanjuanekek osatu zuten  
Zegamako taldea. Guztira 8  
etapa ziren eta saillapen oroko-  
rrean hirugarren postua lortu  
zuten, bi talde profesionalen  
atzetik. Donostiako Anoeta belo-  
dromotik ostiralean arratsaldeko  
18:00etan irten ziren eta 27 ordu  
eta 12 minutuko denborarekin  
helmugaratu ziren Bartzelonako  
Montjuic estadio olinpikoan.  
Esperientzia ezberdina, polita  
eta gogorra dela diote. Lagun-  
tzaileak ere izan zituzten: Urko,  
Kelo eta Nicol. Txalogarria lau  
txirrindulari hauek egindako lana.  
Zorionak guztioi!

# SAN BARTOLOME JAIK

Aurten San Bartolome Jaiak 5 egunetan ospatu ditugu, abuztuaren 23tik 27ra. Abuztuaren 23an, herritarren arteko bizikleta frogak burutu eta sari banaketa egin ondoren, eguerdiko 12:00etan puntuari hasi ziren ofizialki aurtengo jaiak, belea udaletxera jaitsi eta alkateak txupina bota ondoren.

## ABUZTUAK 23, ASTEAZKENA HERRITARREN ARTEKO BIZIKLETA FROGAK

Herriko neska-mutikoek gehien prestatzen duten bizikleta froga izango da abuztuaren 23an

txupina bota aurretik Zegaman lehiatzen dena. Aurreko egunetan egiten dituzten entrenamentuei errepara besterik ez dago herriko haur eta gazte-txoentzat zein garrantzitsuak diren froga hauek. Adin bakoitzak ibilbide desberdina du

luzeran, eta Apeaderora Igoera egiten dutenak, Maittegitik abiatzen dira. Aurten XLVII. Apeaderora Igoera burutu da (XX.a Jabier Berasategiren omenez). Hona hemen aurtengo irabazleak:

Hona hemen aurtengo probetako irabazleak:



6 URTETIK BEHERAKOAK	7, 8 ETA 9 URTEKOAK	10 ETA 11 URTEKOAK	12 ETA 13 URTEKOAK	APEADERORA IGOERA
<b>Neskak</b> Maia Perez Ihintza Etxeberria 2 <b>1</b> 3 Ihintza Lekuona	<b>Neskak</b> Ane Moran Hidaya Jahjah 2 <b>1</b> 3 Ihintza Goia		<b>Neskak</b> Saioa Berasategi <b>1</b>	<b>Mutilak</b> Aitor Perez Ander Perez 2 <b>1</b> 3 Asier Izuzkiza
<b>Mutilak</b> Eneko Otegi Adei Martinez 2 <b>1</b> 3 Mohamed Jahjah	<b>Mutilak</b> Enetz Goiburua Mikel Otegi 2 <b>1</b> 3 Abiot de Prado	<b>Mutilak</b> Ander Otegi Iker Begiristain 2 <b>1</b> 3 Adur Arrizabalaga	<b>Mutilak</b> Migel Angel Ramirez Haitz Goia 2 <b>1</b>	Tarteko helmuga: XXX xxxx <b>Beteranoetan (45 urtetik gorakoak)</b> Pedro Luis Arizkorreta Tarteko helmuga: Aritz Irastorza



6 urtetik beherako mutilak



6 urtetik beherako neskak



7, 8 eta 9 urteko neskak.



7, 8 eta 9 urteko mutilak.



10 eta 11 urteko mutilak.



Apeaderorako igoerako irabazleak.



Jesus Zabaletari herriko txirrindulariek egin zioten ongi-etorria apeaderora iristean.



Jesus Zabaletari omenaldi xumea egin zitzaion txirrindu proben sari banaketan.

## JESUS ZABALETARI OMENALDIA

Elkartu Nahi Txirrindulari Elkarteak proposaturik, Jesus Zabaleta herritarrari, Apeaderorako Igoeran eta ondoren omenalditxo bat egin zitzaion Udala eta Elkartu Nahi Elkartearen eskutik. Izan ere, Jesusek azken 25 urte hauetan hutsik egin gabe Apeaderorako Igoeran parte hartu baitu. Zorionak Jesus, jarraitu urte askotan horrelaxe!

## BELEAREN JAITSIERA

Belearen jaitsiera Beti Bogan txarangarekin alaitu zen, nahiz eta beleak muzin egin zion udaletxeko balkoiraino iristeari eta Jose Maiora plazaren erdi parean geratu zen, bera ere mozorrotuekin batera jaietan hasteko nahian edo.

## MOZORROEN KALEJIRA

12:00ak jo aurretik eta jotzearekin batera gerturatzen dira

mozorrotu diren kuadrilak jaiei hasiera ematera, umorez blai eta mozorro ikusgarriak jantziz. Ziurrena San Bartolome jaietako momenturik politena izango da, kuadrila bakoitzaren sormena plazaratzen baita. Behin jaien hasiera plazan egin ondoren, kalez-kalez umorea eta jai giroa gailendu zen Beti Bogan txarangarekin batera.



Txarangaren musikarekin eta cava botilak astinduz egin zitzaion beleari ongi-etorria.



Batukada izan da aurtengo mozorro lehiaketako sarituetako bat.



Ogiberri okindegia sarituetako bat izan zen.





Zartakamon eta konpainia Egiptotik Zegamara.



Oktoberfest abuztuan.

### BEZPERA NAGUSIAK ETA HERRITARREN ARTEKO BOLO TXAPELKETA

Bezpena Nagusiak San Bartolome ermitan izan genituen. Ondoren eta belaualdiz-belaualdia egin den moduan, bezpera nagusietatik agintariak bola-tokira gerturatzen dira ekimenari hasera ematera. Herriko gazte eta helduen txapelketak egiten dira, bai emakumezko eta bai gizonezkoetan, hona hemen aurtengo emaitzak:

#### Haurren maila:

1. **Saria:** Adrian Osake
2. **saria:** Andrei Filip

#### Helduen maila:

1. **Saria gizonezkoetan:** Ibai Arrizabalaga
1. **Saria emakumeetan:** Leire Ugartemendia

### HERRITARREN ARTEKO FUTBITO TXAPELKETA

Aurten XL. Herritarren arteko futbito txapelketa jokatu zen, Udal pilotalekuan, urtero giro galanta sortu zen, batzuk Ipurbeltz taldearen alde eta besteak Haizea taldearen alde, aurtengoan ere, garaipena Ipurbeltz taldeak lortu zuen.

### BURUHANDI ETA ERRALDOIEN KALEJIRA ETA MOZORROEN SARI BANAKETA

19:30etan buruhandi eta erraldoien txanda iritsi zen eta herriko kaleetan zehar lasterketa bikainak ikusi ziren buruhandiei iheska. Kalejira, Beti Bogan txarangaren doinuekin egin zen. Buruhandi eta erraldoien ondoren mozorroen sari banaketa egin zen



Leire Ugartemendia emakumeen artean garaile.



Ibai Arrizabalaga gizonezkoetan txapeldun.



Herritarren arteko futbito txapelketako finalistak.



Andrei Filip izan zen bigarren haurren mailan



Adrian Osake haurren mailan irabazle.



2016ko San Bartolome egunetik 2017kora jaio ziren haurrei ongi-etorri beroa.

eta aurtengo sarituak honako hauek izan ziren:

**18 urtetik gorako saria:**  
Batukada

**18 urtetik beherako saria:**  
ogi berri okindegia.

### DRINDOTS TALDEAREN KONTZERTUA

Iluntzean afal aurretik eta gauerditik aurrera Drindots taldearekin erromeria izan zen plazan. Plazan giro ederra sortu zen eta ordu txikik arte aritu zen jendea datzan.

### ABUZTUAK 24, SAN BARTOLOME EGUNA

#### SEGURAKO EGOITZARA ALKATEAREN BISITA

San Bartolome Egunean legealdiz-legealdi ekimen garrantzitsu bat egiteko tartea hartzen du Zegamako alkateak eta aurten ere Joseba Izagirre herriko alkatea goizeko 9:00ak aldera, Segurako San Juan Egoitzan izan zen eta bertan bizi diren adinduei bisita egin zien eta beraiek ere San Bartolome Eguna ospa zezaten guztientzat tarta eta kaba eraman zituen.

#### PROZESIOA ETA MEZA NAGUSIA

Segurako bisita egin ondoren, San Bartolome patroia eguna izanik, ohikoa da San Bartolome Ermitatik San Martin Parrokiara San Bartolome santua prozesioan ekartzea, jaiak irauten duten bitartean Parrokian egoten da San Bartolome irudia. Honela, prozesioa, San Bartolome Ermitatik abiatzen da santuen garraiatzaile, herriko txistulari, dantzari eta Bittorio Zabalgoeaskoa fraidearekin. Herriko agintariak, usadio zaharraren arabera, Zupurrutiko zubian izaten dira zain, eta bertan, prozesioan

sartzen dira, honela herritarrekin batera, bertatik San Martin parrokiarainoko bidea elkarrekin eginez. Ondoren Meza Nagusia izaten da, nahi duenarentzat.

#### SOKA-DANTZA

12:30etan herriko agintariak soka-dantza eskaini zuten herriko plazan herriko txistulari eta Tobera Musika Eskolako dantzariak lagunduta.

#### HAURREI ONGI-ETORRIA

2016ko San Bartolome egunetik 2017ko San Bartolome egunera jaio diren haurrei ongi-etorria



San Bartolome prozesioan ekarri zen San Martin Parrokiara.



Herriko agintariak soka-dantza dantzatu zuten Tobera Musika Eskolako dantzariak lagun, herritarren aurrean.

egin zitzairen San Bartolome eguerdian, Jose Maiora plazan. Aurten 19 haur jaio-berrik zuten zita eta 14 hurbildu ziren, batzuk oporretan zauden eta ez zuten etortzerik izan. Hona hemen ongi-etorria jasotako haurrak:

Ekaitz Antia Labaka  
 Ilargi Azurmendi Ferreira  
 Enare Encinas Prieto  
 Hodei Garaiar Ormazabal  
 Nura Muño Zendoia  
 Oneka Azurmendi Zubeldia  
 Rayen Fakhar El Omayry  
 Arai Osinalde Gonzalez  
 Amaiur Garaiar Apezetxea  
 Inhar Azurmendi Zunzunegi  
 Nikole Izarra Aramendi  
 Anitz Alustiza Gereñu  
 Kattalin Arizkorreta Inza

Adriana Ana Maria Orha  
 Ekitaldi hau arrakastatsua izan zen urteroko moduan. Jaio-berri bakoitzari banan bana herriko agintariak zapi bana jarri zien, “ongi etorri gure aapira” testua duena.

### TOBERA MUSIKA-ESKOLAKO DANTZA TALDEAREN DANTZA SAIO

Ondoren, Toberako dantzarien saioa izan genuen. Guztira 9 dantza egin zituzten: Agurra, Txulalai, 7 Jauzi Sain Petie, Makil txiki dantza, Sorgin dantza, Txantxo dantza, Imontzeko esku dantza eta azkenik Fandango eta Arin-arina. Dantza saioaren ondoren udalak Kasino elkartearen ondo merezitako hamaiketako eskaini zien dantzari eta txistulariei.

### APAR –JAIA

Bero galanta lagun, apar-jaiaz gozatzeko aukera izan zuten herriko txikienek. Aurreko egunean bezala eguraldi beroa izan genuen San Bartolome egunean ere eta apar-jaiak egiteko primerako giroa izan zen.

### FEDERATUEN PILOTA PARTIDAK

Arratsaldeko 18:00etan hasi ziren federatuen pilota partidak Toki-Alai pilotalekuan. Aurten lau herritar izan ziren pilotarien artean: Egoi Telleria, Unai Barandiaran, Unai Atxa eta Iban Matxinandiarena.

Lehen partidua, Barandiaran-Telleria bikotea Usabiaga-Olano bikotearen artekoa izan zen eta Barandiaran-Telleria izan zen garaile eta bigarren partidua, Azketa-Atxa bikotea, Matxinandiarena-Elizegi bikotearen aurka aritu ziren eta Azketa-Atxa bikotea izan zen garaile.

### ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KALEJIRA

Arratsaldeko 19:30etan, erraldoi eta buruhandien txanda izan zen, Tobera Musika Eskolako txistulariekin batera. Egunero bezala, arrakasta handia izan zuen kalejirak, herriko haur eta guraso andana atzetik zituztela eman zioten herriari bira.



Telleria eta Barandiaran herritarrek izan ziren lehen partiduan Olano eta Usabiaga beasaindarren aurka.



Atxa eta Matxinandiarena herritarrek elkarren aurka aritu ziren bigarren pilota partiduan.

## GAZTEEN TXANDA

San Bartolome egunez, herriko gazteek elkarrekin afaldu zuten pilotalekuko sarreran eta aurten kalez kale ibili ziren afaria aurretik, poteo txiki bat eginez. Afal aurretik giro polita sortu zen gazteen artean.

## OIHAN VEGAREKIN DANTZALDIA

Buruhandiak udaletxeko portikuan ezkututzen direnean, plazako musikak izaten du txanda eta aurten Oihan Vega Dja zegoen giroa sortzeko prest. Aurreikusitako arrakasta sortu zuen bertaratuen artean eta plaza bete dantzari izan zituen goizaldera arte, afaltzeko tartea hartuz.

## ABUZTUAK 25, SAN BARTOLOME BIGARRENA

### UMEEN EGUNA

Goizeko 9:30etan elkartu ziren herriko 5 elkarteetako bina bikote, elkarteen arteko paella lehiaketan parte hartzeko prest. Kasino elkarte, Tartalo elkarte, Txarape elkarte, Jubilatuen elkarte eta Amezti elkarte kideak hain zuzen ere. Udalak elkarte bakoitzari lehengai berdina ematen dizkio eta hauek arduratzen dira lehengai horiekin ahalik eta paella lehiakorrena prestatzen. Urtero urtero 20 kg arroz erabiltzen dira paella lehiake-



Primeran pasatzeko aukera izan zuten herriko gaztetxoek Gazte Herexako kideek prestatutako jolasetan.

tarako eta dastaketan ez da batere soberan izaten beraz denak ere primerakoak izaten direla ez dago zalantzarik. Hala ere elkarteen arteko txapelketa egiten denez, bi epaile eramaten dira hoberenei saria eman asmoz. Aurten Ainhoa Berasategi eta Julio Rivas aritu ziren epaile lanetan eta beraien hitzetan oso maila handiko paellak zirela adierazi zuten hala ere bi hobetsi zituzten:

- 1. Saria:** Begoña Etxezarreta eta Mari Carmen Lardizabal, Jubilatuen elkarteok jaso zuten.
- 2. Saria:** Anartz Goia eta Nekane Arantzamendi, Tartalo elkarteok jaso zuten.

Sari banaketaren ondoren elkarteetako partaideek herritarrei paella dastatzeko ematen die eta aurten 330 errazio eman ziren, dena agortu zen eta bat

baino gehiago probatzeko modurik gabe geratu zen.

## URTEKO HILDAKOEN ALDEKO MEZA

San Bartolome bigarren urtean hildakoen aldeko Meza ematea usadio zaharra da eta aurten ere Bittorio Zabalgogeoak Meza eman zuen San Bartolome Ermitan. Urtean bi funtzio izaten dira ermita honetan, bata San Bartolome bezperan egiten diren "Bezperak", abuztuaren 23an eta hurrengoa San Bartolome bigarren urtean, abuztuaren 25ean, izaten den urteko hildakoen aldeko Meza.



Paella goxo bezain dotoreak aurkeztu zituzten lehiaketara.



Aurtengo paella lehiaketan, sukaldari lanetan aritu diren herritarrak.

## HAUR JOLASAK

Haurren Eguna ospatu zen San Bartolome bigarreanean eta ondorioz haur jolasak antolatu ziren parte hartu nahi zuen guztientzat Jabier Otaegi Kultur Etxeko plazan. Gazte Herexako gazteek meritu galanta dute, izan ere egun hauetan gau eta egun tokatzen baitzaie lan egitea. Hala ere, goizeko 11:00etarako prest zeuden herriko hurrei jolasak antolatu eta eguerdian aurrez erosi eta prestatu zituzten opariak banatzeko. Gazte Herexako gazteak ez ezik egun honetan herriko haurrak mozorro dotoreekin parte hartzen dute jolasetan.

## BERTSO SAIOAK

Ekimen honek ere, San Bartolometan egun jakina du azken hamarkadetan. Eguerdian eta arratsaldean bertso saioak izan ziren udaletxe azpiko arkupeetan, eta nahi zuenak, Ostatuan bazkaltzeko aukera izan zuen bertsolariekin batera. Iñaki Murua, Andoni Egaña eta Anjel Mari Peñagarikano aritu ziren bertsoetan fin-fin, gai jartzaile Joanes Etxaide aritzea aurreikusita bazegoen ere, sukarra zuela eta ondoezik zegoenez, Edurne Albizu aritu zen.



Andoni Egaña, Iñaki Murua eta Anjel Mari Peñagarikanoren bertsoak entzutera jende mordoxka bildu zen udal arkupean.

## PLATER-TIROA OTZAUERTEN

Karraztarro elkartekok aurten ere Otzaurteko Bentaren atzealdean antolatu zuten herritarren arteko plater-tiroa. Jaietan ere aitzakia ona izaten da ehiztarientzat eskopeta ateratzeko eta Otzaurten elkartu ziren arratsaldeko 15:00etan elkarren arteko txapelketa burutzeko. Plater-tiroko txapelketaren emaitzak:

### Helduen maila:

Bernat Berasategi

**Junior maila:** Egoitz Rivas

### Beteranoen maila:

Fermin Mazkieran

## PUZGARRIAK

Elizondo plazan jarri ziren puzgarriak. Haurren eguna zenez, goiz eta arratsalde egon ziren haurrentzat zuzenduriko aukerak eta gustura ibili

ziren salto eta jira puzgarrietan herriko haurrak, baita gurasoak ere, Txanton atzeko terrazan hurrei begira, arnasa pittin bat hartzeko aukera izan zuten.

## ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KALEJIRA

San Bartolome bigarreanean ere erraldoiak eta buruhandiek beren kale buelta egin zuten. Aurten eguraldiarekin segurtasun handia izan zen eta arazorik gabe atera zituzten egunero.

## HERRI AFARIA

700 tike saldu eta banatu ziren, ondorioz, pilotalekua lepo beteta prestatu zen afaria guztiei emateko. Sukaldariak ere pilotalekuko sarreran jarri behar izan zuten, pilota-



Herri afariak arrakasta izan zuen aurtengoan ere.



Erraldoi eta buruhandien kalejira, galdu ezinezko zita izaten da San Bartolomeetan.



Giro aparta sortu zen koadrilen eguneko bazkarian.

lekua bera jangelatzat behar baitzen guztia. Afarian 670 bat pertsonak parte hartu zuten, orain arteko jendetsuena izan zen eta esan banatutako Luma-gorri oilaskoa eta labeleko entsalada ere kalitate handikoa izan zirela eta hurrengo urterako ere partaidetza bermatuta geratu zela, afariaren kalitatea kontutan hartzen bada behintzat. Bestalde, aurten Sant Sadurni d'Anoiako, Freixenet etxeko Garnatxa, 2013ko Subirat Parent cava dastatu zen.

### JOSELU ANIAK

Ondoren, abuztuaren 25ean, beti bezala, Joselu Aniak taldearekin dantzaldia izan zen plazan. Joselu Aniak aurten ere plaza betetzea lortu zuen eta giro galanta sortzea ere bai.

## ABUZTUAK 26, KUADRILEN EGUNA

### TOKA TXAPELKETA

Goizean lehenik Toka txapelketa jolastu zen udaletxe aurreko plazan. Bai gizonezko eta bai emakumezkoek parte hartu zuten. Goizeko 10:30etatik 11:30ak bitartean egin zen izen ematea eta eguerdirako txapel-dunen izenak bagenituen:

#### Gizonezkoen mailan:

1. **Saria:** Augusto Rodriguez
2. **Saria:** Juanjo Garaiar
3. **Saria:** Pako Larrarte

#### Emakumezkoen mailan:

1. **Saria:** Mila Alustiza
2. **Saria:** Iratxe Ormazabal
3. **Saria:** Mari Paz Ormazabal

## KUADRILEN EGUNA

Eguerdiko 13:00etan zuten herriko kuadrilek eta "Incansables txarangak" hitzordua Maiora plazan. Honela bazkal ordura arte kalez kale ibili ziren jai giroa sortuz eta zegoen beroari aurre egiteko trago batzuk hartuz. Poteo amaitu ondoren, eskolako patioan elkartu ziren elkarrekin bazkalteko, aurten ere 300 pertsonatik gora parte hartu zuten bazkarian.

## DANTZA LEHIAKETA

Ohikoa bilakatua da, kuadrilen egunean, bazkal ondoren dantza lehiaketa egitea partaideen artean. Aurten ere dantzaldi bikainak ikusi ziren. Lehia gogorra egon zen parte hartzaile guztien artean, honela aurtengo irabazleak Jone Oiarbide eta Oihane Pelaez izan ziren.

## BURUHANDI ETA ERRALDOIEN KALEJIRA

Iluntzeroko ekitaldi ikusgarri eta desiratuena izaten da haur eta gurasoentzat buruhandi eta erraldoien kalejira. Beste behin gozatu ederra hartu zuten batzuk buruhandiei ihesi eta besteak erraldoien atzetik kalejiran "Incansables" txarangaren laguntzarekin. Urtero bezala txikienen aurpegietan gozamen eta beldurra nahasten



Toka-txapelketako irabazleak.



Mari eta Tartalo ere San Bartolomeetako kalejiran.

dira, baina poliki- poliki, haur guztiek gairatzen duten froga izaten da hauxe.

## TXIMELETAREN EMANALDIA

Buruhandi eta erraldoien kalejiraren ondoren, afal aurretik ordu betez eta gauerditik aurrera goizeko 03:00ak arte Tximeleta taldeak plaza bete-bete egitea lortu zuen eta jai giro paregabea sortu zen herriko plazan.

## ABUZTUAK 27 IGANDEA

Aurtengo jaietako azken egunari hasiera, LXXXIV. San Bartolome Txirrindu frogak eman zion. Goizeko 10:00etan abiatu ziren herrigunetik eta eguerdiko 13:00ak aldera arteko lehia egin zuten txirrindulariek. Hona hemen aurtengo emaitzak:

- 1. Saria:** Marc Buades (Euskadi Fundazioa)
- 2. Saria:** Sergio Samitier (Lizarte)
- Taldekako saria:** Euskadi Fundazioa
- Mendiko saria:** Asier Arana (Quick step)



Probintziko bolo txapelketako irabazleak.

## PROBINTZIAKO BOLO TXAPELKETA

Probintziako Bolo txapelketa saioa ere igande goizean egin zen Txarapeko bolatokian. Gizonezko eta emakumezkoak parte hartu zuten eta hona hemen emaitzak:

### Gizonezkoetan:

- 1. Saria:** Antonio Goenaga.
- 2. Saria:** Marcelino Agirre
- 3. Saria:** Pedro Lazkano

### Emakumezkoetan:

- 1. Saria:** Naiara Peñagarikano
- 2. Saria:** Garbiñe Alustiza

### Herritarra:

- 1. Herritarra:** Martin Retegi

### HERRI KIROLAK:

Arratsaldean herritarren arteko aizkora erakustaldia egin zuten herriko aizkolariek Maiora plazan. Sei aizkolarik parte hartu zuten erakustaldian lan txukuna eginez urtero bezala.



San Bartolome Txirrindu Probako aurtengo irabazleak.



Ikuskizun bikaina eskaini zuten aurtengoan ere herriko aizkolariek.



San Bartolome jaietan kale garbiketarako eta muntai eta desmuntai lanak egiten dituzten langile taldea. Aaron Fernandez, Jon Antia, Jose Luis Berasategi, Konstantin Rosu, Roman Guridi, Felix Arakama, Migel Mari Zubeldia, eta Juanito Arakama.

## SARDINA JANA ETA SAGARDO DASTAKETA

Jaiak bukatzeko sagardo eta sardina dastaketa egin zen. Dastaketan 60 kg sardina jan zituzten bertaratuek. Sardinak udalak duen parrila batean erretzen dituzte parrilan adituak diren hainbat herritarrek eta mokadu aparta egin ahal izaten dugu jaietara bukatu emateko. Sagardo dastaketa ere aukerakoa izaten da, nahi duenak 1,50 € ren truke baso bat erosi eta nahi adina sagardo dastatu dezake. Hona hemen dastaketan parte hartzen duten sagardotegiak:

Eula, Aburuza, Zabala, Urbirtarte, Isastegi, Iparragirre, Oiharte, Lizeaga eta Otatza.

## BURUHANDIAK ETA ADIO BELEARI

Iluntzeko irtenaldia egin zuten herriko bost buruhandiek, azken egunean erraldoiei atsedena emanez. Azken egun honetan, ia buruhandiak nekatuta egoten dira eta udaletxe aurreko plaza, Maiora plaza izaten dute gune, korrika egiteko eta haurrei agur esateko.

Honela, gaueko 22:00etan, "Adio Beleari" ekitaldia egin zen,

jaietara bukatu emateko momentua iritsi zen eta beltzez jantzitako gaztetxo ugari parte hartu zuten, parke berritik hasi eta Santa Barbara kalea prozesioan eginez, udaletxeko plazaraino belea ekarriz kandela argitan, honela "Adio" esan zioten beleari negar malkoetan, hurrengo urtera arte esanez.

Jai egunetan, Jabier Otaegi Kultur etxeko Oria gelan, herritarrek urtean zehar egindako eskulanen erakusketa irekita egon da, arte lan bikainak agertuz bertan.



Sardinak eta sagardoa dastatuz eman zitzaion amaiera jaietako azken arratsaldeari.



# SAN MARTIN FERIA



Azaroaren 11n, San Martin egunean ospatu da aurten San Martin feria Zegaman. Aurten eguraldi koxkorra izan dugu eta ondorioz, salmenta postu batzuk falta ziren. Hala ere, zegamarrontzat feria garrantzitsua da hau eta lagunarteko eta familia arteko planak eginda egoten dira aurrez eguraldia eguraldi. Babarrun jana, dagozkion "lagunekin" (aza, odolki, txorizo, txerri saiheski eta urdaia) non nahi izaten dira egun onari edo txarrari aurre egiteko.

Hala ere San Martin feriaren aurretik, astean zehar kultur ekimenak antolatu ohi dira, eta aurten ere horrelaxe izan da. Azaroaren 8an, Anduetza Parketxean, "Zegama izenaren jatorria, esanahia eta garrantzia"ri buruzko hitzaldia izan genuen Luis Mari Zaldua filologoaren eskutik. Hitzaldian, 30 bat pertsonak parte hartu zuten. Zalduaren esanetan Zegama



Luis Mari Zaldua, "Zegama" izenari buruz azalpenak emanaz Anduetza Parketxean.



Eñaut Elorrietaren kontzertua San Martin Parrokian izan zen.



Abere erakusketa bikaina osatu da aurtengoan ere San Martin Ferialan.



Denetariko salmenta eta eskulangintza postuak izan ziren azokan.

izena oso forma zaharra da eta "herri garailea" esan nahi omen du. Bitxia benetan gure herriaren izena.

Azaroaren 9an, osteguna, Jose Mari Artolak, hainbat zegamareri jasotako elkarrizketekin ikustentzunezko emanaldia izan genuen Jabier Otaegi kultur etxean. Beste behin, bertaratuak denboran zehar iraganera eraman zituen irudiak ikusi ziren eta garai bateko eta egungo zegamarren kontuez gozatzeko aukera izan genuen. Azaroaren 10ean, ostirala, Iluntzeko 19:30etan, Eñaut Elorrietaren kontzertua izan genuen san Martin Parrokian. Kontzertuan 266 entzule izan ziren eta

abesti politez gozatzeko aukera izan genuen. Eñaut Elorrietaren kontzertua, Anduetza Parke-txearekin batera antolatu zuen Udalak.

Larunbatean berriz, azaroaren 11n, aurten san Martin egunean bertan, izan zen feria nagusia. XIX. Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko gazta-lehiaketa, herritarren arteko ganadu lehiaketa eta urteroko artisauen erakustaldia izan ziren feriaren hiru ardatzak. Bestalde, herriko txistularien goiz eresia ere izan genuen San Martin egunari.

Herritarren arteko ganadu lehiaketan 37 ganaduzalek eman zuten izena: 7 behi pirenaika, bi behi mestizo, behi suizo bat, bi zezen, 27 behor eta bi moxal, 4 zaldi, 2 asto, lau ardi lote, hiru bildots lote, 7 ahuntz lote eta txerri bat eraman zituzten.

Artisauedi dagokionean, Eugenio Mendizabal zeraindarra izan genuen gazta aitzinako erara eginez, Jabier Arrieta zegamarra, egur tailaketan, Fermin Mazkieran, gaztainak erretzen, Mari Paz Oiarbide eta loritz Etxeberria, ogia eta gazta saltzen eta Altzibargo Josetxo Mendiak berak ekoiztutako barazki ekologikoen postua jarri zuen.



Eugenio Mendizabal gazta aitzinako erara egiten.

Fermin Mazkieran "Maxki" gaztainak erretzen.



Arabara joan da aurtengo Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko gazta-lehiaketako txapela.



Ibon Gaztañazpi, Jose Ramon Agiriano eta Pello Otaegi epaimahai lanetan.



Jon Bautista, Jesus Salmeronena eta Amaia Gorospe epaimahaiko kideak.



Azkenik, XIX. Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko artzainen arteko gazta lehiaketa burutu zen.

Aurten 19 artzainek parte hartu zuten XIX. Aizkorri-Aratz Parke Naturaleko Gazta Lehiaketan. Honako hauek hain zuzen ere:

Aixtra S.C., Aizpea gaztandegia, Azkarra S.C., Baztarrika E.Z., Felix Etxezarreta, Jabier Muñoa, Garoa S.C., Aran-

buru Elkarte, La Leze S.C. Eneko Goiburu, Ander Barandiaran, Ioritz Etxeberria, Olalde Artega, Patxi Lopez de Uralde, Aitor Mantxola, Sat Olano, Unai Lekuona, Zabaleta S.C., eta Arantxa Seguro.

Epaimahaietan aurten, Errealeko jokalaria den Jon Bautista eta Euskal Telebistako hainbat programetan aurkezle bezala lan egiten duen Ibon Gaztañazpi

izan ziren, bestalde, bi herritarrek ere parte hartu zuten, Pello Otaegi alaitaria eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan lan egiten duenak eta Amaia Gorospe, Nekazal Injeneria eta Arkauteko Nekazal Eskolan irakaslea, hain zuzen ere; hauek Idiazabal Jatorri Izendapenean dauden bi aditoren laguntza izan zuten: Jose Ramon Agiriano eta Jesus Salmeronena zehazki. Bukatzeko, Jose Mari Ustarrozen laguntza paregabea aurten ere jaso genuen antolakuntza lanetan.

Epaimahaiak lan itzela izan zuen, izan ere, lehen bi gaztek puntu berak izan baitzituzten lehen fasean eta berdinketa hausteko bigarren dastaketa



Herritarren arteko abere lehiaketako irabazleak.



Lehiaketara aurkeztu ziren gaztak jendartean banatu ziren.

egin behar izan zuten dasta-tzaileek, azkenean txapela, Zabaleta S.Cri emanaz. Hona hemen emaitzak:

### AIZKORRI-ARATZ PARKE NATURALEKO ARTZAINEN ARTEKO XIX. GAZTA LEHIAKETA

- 1) Zabaleta S.C.  
(Muniain) 202 puntu.
- 2) Patxi Lopez de Uralde  
(Larrea) 201 puntu.
- 3) Garoa S.C.  
(Zerain) 186 puntu.

### HERRIKO GANADU LEHIAKETAKO IRABAZLEAK:

**ARDIAK:** Xabier Azurmendi

**BILDOTSAK:**

Jose Migel Azurmendi

**AHUNTZAK:** Ander Lasa

**ANTXUMEAK:** Ander Lasa

**PIRENAIKA BEHIAK:**

Jose Inazio Labaka

### BEHI MESTIZOAK:

Juan Kruz Arrizabalaga

### BEHI SUIZOAK:

Juan Azurmendi

**ZEZENAK:** Andres Zabaleta

### ZALDIAK:

Jose Mari Azurmendi

### ETXE BEHORRAK:

Jabier Arrondo

### MENDI BEHORRAK:

Jose Domingo Ariztimuño

Lehiaketa amaitu ondoren, lehiaketara aurkeztu ziren gaztak herritarren artean banatu ziren hamaiketako modura, herriko elkarteek lagunduta, baina a gaztak zatitzen eta bai gaztak banatzen ere. Honela, arratsaldean, buruhandiak eta herritarren arteko XIX. pilota partidak jokatu ziren arratsaldeko 18:00etan egunari amaiera emateko.

Hona hemen jokatutako partiduetako emaitzak:

### AURRE BENJAMINAK:

AMETS IZAGIRRE-  
IURGI LANDA 14

JOKIN ETXEZARRETA-  
ENEKO ORMAZABAL 16

### 1. URTEKO BENJAMINAK

ENETZ GOIBURU-  
EKHI AIZPEOLEA 16

MIKEL OTEGI-  
ODEI IZETA 6

### 2. URTEKO BENJAMINAK

OINATZ OTAEGI-  
ABIOT DE PRADO 17

ARATZ COLLADO-  
ENAITZ LANDA 18

### NAGUSIAK

IORITZ ETXEBERRIA-  
LUIS MALKORRA 21

JOSU OIARBIDE-  
XABI AZURMENDI 22

Azkenik, azaroaren 12a, arratsaldeko 17:00etan "Kalen otso eta etxean uso" antzerkia eta txokolatada antolatu zuen Aitxuri Herri Eskolako Guraso Elkarteak.

# CAVA FESTA

Azken urteetan bezala, aurten laugarrengoz, urriaren bukaeran Zegamako elkarteek eta Zegamako Udalak elkarlanean CAVA FESTA antolatu genuen. Aurreko urteetan izan zuen arrakasta izan zuen aurtengoak ere, eta pixkanaka gehiagoz ari dela ere esan dezakegu. Autobus zerbitzua jartzen da festa amaitzen denean Beasain aldera itzultzeko eta aurreko urteetan erabiltzaile asko ez badu izan ere, badirudi goierritarrak zegamarron ohituretara gerturatzeko ari direla, Cavari dagokionean behintzat.

Aurten Urriaren 27, 28 asteburuan izan dugu Sant Sadurniko cavak dastatzeko aukera. Ilun-



Kaba dastatzeko teknikak ikastera joan zen taldea.

tzeko zortzietan ireki ziren frontoiko ateak bi egunetan.

5 etxe desberdinetako 8 cava dastatzeko aukera izan genuen. Oliver Viticultors etxeko Oliver Viticultors Brut Nature eta Sadurní Oliver Reserva Barrica 2013 Brut Nature.

Llopart etxeko Llopart Brut Nature Reserva eta Llopart Brut Rosé.

Blancher etxeko Capdevilla Pujol Reserva Nature eta Gran Reserva Nature.

Raventos etxeko Raventos i Blanc L'hereu

Eta aurten lehen aldiz Nafarroko Mendiavia herrian egiten

duten Mainegros etxeko Gran Suberbiola brut Nature.

Bi egunetan Cava etxeetako adituak batzuk bertan genituela ikusirik, bakoitzak bere produktuak aurkeztu zituen.

Aurkezpenak egin ostean Oliver etxeko aita semeek eskuzko "deguellea" nola egiten den azaldu ziguten; teknika zehatza, ez da erraza ez tantonik jaurti gabe lan hori egitea, baina nabari zen ez zirela horrela irekitzen zituen lehenengo botilak.

Honen ondoren, jendeak cava dastatzen libreak jarraitzen zuen,



Herriko elkarteetako partaideak kaba Festaren aurkezpena egiten



Kaba Festaren haserako azalpenak.

baina nahi zuenarentzat Ludotekan Cava kata bat egin zen Llopart etxeke kideek eskainia. Bertaratu zirenei beraien etxeke sekretutxo batzuk kontatzeaz gain, beraien etxeke beste hiru cava desberdin dastatzeko aukera izan zuten.

Afaltzeko aukera ere noski baze- goen, urtero bezala, Eusko Label kalitatezko produktuak.

Amaiera goizeko 1:00 inguruan izan zen bi egunetan. Gustura egon zen jendea aurtengoan ere. Parrandan zebilen jendea eta laguntzaileak batera eskaini zuten azken minutuetako kantu aldiak halaxe erakutsi zuten behintzat. Hurrengo urtean ere antolatu behar denaren dudarik ez dago.



Kaba Festan jende askok parte hartu zuten.

## ZEGAMAKO GAZTELEKUA EREDUGARRI GIPUZKOAN

Pasa den irailaren 15ean, Gipuzkoako Foru Aldundian, Gipuzkoako Haurtxoko eta Gaztelekuen sarea aurkezteko helburuarekin prentsurrekoa egin zen. Prentsurrekoan parte hartu zuten Izaskun Igoa Arizkorretak, Zegamako Udaleko Gazteria zinegotziak, Goizane Alvarez de Irijoa, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol eta Gazteria Zuzendaria, eta Martin Ibabe Eceiza, Donostiako Udalaren Gazteriako zinegotziarekin batera.

Gipuzkoako lurraldea oso anitza izanik, herri bakoitza zerbitzu hauek bere beharretara egokitzen saiatzen da. Errealitate hori ezagutzeko, Izaskun Igoak, herri txikietan haur, nerabe eta gazteria arloak duten errealitatea aurkeztu zuten.

Komunikazio kanpainaren harira, gaztelekuk Gipuzkoa mailan aurkezteko liburuxketarako, Zegamako gaztelekuko nerabeen argazkiak erabili dira.



Izaskun Igoa Gazteriako udal zinegotzia, Gipuzkoako Foru Aldundiko aurkezpenean

# ZEGAMAKO EUSKARA PLANA



## MATRIKULAZIO KANPAINA

Irailaren 18tik 25era bitartean euskara ikasteko matrikulazio kanpaina ireki genuen. Aurten ere Goierri Goiztiri Euskaltegiaren eskutik egin dugu eskaintza eta esan zazpi eskaintza desberdin luzatu zirela:

Euskalduntze ikastaroak  
(A1,A2,B1,B2,C1)

Euskara azterketak prestatzeko ikastaroak (maila guztietan)

EGA/C1 maila lortzeko ikastaroa konbinatuak-

Autoikaskuntza.

On line,

Mintza taldeak

Etorkinentzako ikastaroa  
(AISA programak).

Interesatu batzuk egon badira ere, taldeak osatzeko gutxieneko zenbatekorik bildu ez denez, beste herri batzuetara bideratu dira.

## EUSKARA IKASTEN DUTEN HERRITARRENTZAT DIRU-LAGUNTZAK

2016-2017 ikasturtean euskara ikasten aritu diren zegamarrei udalak ikasturtearen kostuaren % 50 ordaintzen die behin ikasturtea bukatu eta bertaratze ziurtagiria aurkeztu eta gero. Udalak diru-laguntza emateko ezinbestekoa izaten da ikasturtean izan diren klaseen %80an parte hartzea eta Zegaman urte bete errolatuta egotea. Aurten diru-laguntza eskaera luzatu dutenek, behin baldintzak bete dituztela ikusita, Gobernu Batzarrak ordainketa egitea bideratu zuen eta guztira, 1.262,5 € eman da.

## EGUTEGIAK

Ohikoa denez abenduak udalak herriko familiei patrikako egutegia bidaltzen die etxeetara. Patrikako egutegi honetan, 2018ko egutegiaz gain, Zegama eta eskualdeko zerbitzu desberdinetako telefono interesgarrien zerrenda jasotzen du.

## EUSKARA EGUNA

Abenduaren 3an ospatu zen Zegaman ere 2017ko Nazioarteko Euskara Eguna.

Goizeko 11:30etan "Euskaraz bizi nahi dut" lasterketa antolatu bazegoen ere, ezin izan zen burutu eguraldia zela eta. Baina mokadutxo bat egiteko eguraldi aparta zegoenez, udal arkupeetan euskararen egunera ospatzera gerturatu zirenek mahai inguruan ospatu zuten eguna. Arratsaldean buruhandiak egon ziren herriko txikientzat.

## EUSKARA BATZORDEKO KIDEEK TELP TAILERREAN PARTE HARTU DUTE

Gure hizkuntzak iraungo badu, urteko 365 egunetan euskara ahoan erabil dezagun duen garrantziaz ohartuta, Euskara batzordean TELP tailerra egitea erabaki zen.

## TELP TAILERREK ZERTARAKO BALIO DU?

Askok sentitzen ditugu hainbat egoera zeinetan euskaraz hitz egiteagatik deseroso sentitzen garen. TELP (Taller d'Espai Lingüistic Personal) tailerrean deserosotasun hori murrizteko baliabideak eskaintzen dira. Baliabide horiek maila kognitiboa, emozionala eta



Aitxuri Herri eskolako ikasleek euskararen aldeko kartela egin dute.

fisiologikoa kontuan hartzen dituzte, tailer hau euskaraz hitz egin nahi duen horrentzat da, kontzientzia duenarentzat eta kontzientzia horretatik abiatuta, baliabideak eta estrategiak eskaintzen zaizkio euskaraz gehiago eta erosoagoa hitz egiteko. Helburuak beraz, euskaraz egiteari lotutako deserosotasuna murriztea eta hizkuntza jokabide asertiboari esker gusturago egotea eta horretarako baliabide gehiago sortzea dira.

Tailerra Emun Kooperatibako Inazio Usarraldesak eman zuen azaroaren 25 eta abenduaren 2an goizeko 8:30etatik 13:30etara Jabier Otaegi kultur etxean. Bertan 9 pertsonen parte hartu zuten eta ikastaroaren kostua 1.780,00 €takoa izan da. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikako departamentuak kostuaren ia % 50a diruz lagunduko du.



TELP tailerrean 9 pertsonen parte hartu dute.

# ARRANO TALLERES ELECTROMECHANICOS SARITUA

2017. urtea berezia izan da Zegamako Arrano “Talleres Electromecánicos”rentzat.

Uztailean Goiekik antolatu zuen XX. Enpresa Proiektuen Lehiaketara aurkeztu ginen eta Enpresaren barnean garatutako berrikuntza proiektu hoberena bezala lehen saria jaso genuen.

Garai hauetan, eraldaketa eta innobazioa enpresa oso handiek eta ekintzaile teknologikoez bakarrik egiten dutela pentsatzen bada ere, ARRANOK erakutsi du eguneroko kudeaketa ulertzeko era bat dela eta honek azken 30 urte hauetan bezala enpresa konpetitiboa izaten jarraitzea bideratu duela.

Zegamako enpresa hau, berrikuntza integralaren adibide bat da, izan ere bere produktu zerbitzuetan nahiz produkzio/prozesuetan berrikuntzak sartzeagatik, merkaturatzeko bere moduarengatik eta batez ere bere kudeaketa eta pertsonen garapenarengatik izan baita saritua.

Arranok, pertsona beterranoen egiten jakitea eta enpresan hasi berriak diren langileena batzen jakin du, lan talde arduratsua, proaktiboa eta bezeroekin konprometua lortuz eta hobekuntza iraunkorra helburutzat hartuz.

Teknologian egindako inbertsioa ere estrategikoa izan da. Arranok, konpontzen dituen motorrak konprobatzeko froga banku propioa baitu eta baita motor eta generadoreen diagnostikoa egiteko teknologia berriko gailuak ere.

Azken urteotan egindako lanaren ondorioz, XXI. Mendeko enpresa dugu. Enpresa gaztea, baloreduna, bezeroari guztiz orientatua eta lan bakoi-tzean bere zerbitzuari ahalik eta balio erantzi gehiago ematen saiatzen dena. Jatorria ahaztu gabe, Arrano-Aitz etxe baxuetan bobinak zintatzen hasia.



Arrano Electromecanicos enpresako arduradunak saria jasotzen.





# UPV/EHUko ERIZAINZAKO IKASLEAK ZEGAMAN

Apirilaren 1ean eta 8an UPV/EHUko Erizaintza Eskolatik antolatuta, urteroko legez, mendi irteera burutu zen, Zegamatik San Adrianera joan etorrian Errege Bideetako batetik. Erizaintzako eta medikuntzako ikasleek, Medikuntza eta Erizaintzako Fakultateko administrazioko partaideek eta irakasleek hartu zuten parte. Horrez gain apirilaren 1eko irteeran ere zegamar batzuk izan genituen lagun. Guztira 50 bat pertsona joan ziren bi egunetan banatu zen txango honetara.

Irteeraren helburu nagusia, (kasu honetan Errege Bidea askotan Santiago bidea edo erromes bidea bihurtzen dena), osasunarekin lotuta dauden ezaugarriak bertatik bertara erakustea bazen ere, elkar-kidetzat sustatzea eta denok ondo pasatzea ere garrantzitsutzat hartu zen.

Goizeko 8,30tan abiatu ginen Zegamako plazatik San Pedro auzoraino. Bertan izen bereko

ermita ikusi genuen, aldarean dagoen eta buruko minak kentzeko balio duen kredo-zuloari aipamen berezia eginez. Bidaian zehar gatz iturburua eta hainbat elementu sinboliko ere ikusi genituen: Santiagoren zaldiak utzitako ferra zuloak, erreginaren aulkia, praileen bolalekutzat jotzen den tokia...

Kontu kontari Sancti Spirituko ospitalea zenera iritsi ginen. Bertako praile gaiztoekin sortutako istorioak, eta ermitaren birtuteak entzun ondoren, zuzenean San Adriango kobazuloraino joan ginen. Han ere, bidean bezalaxe, makina bat historia eta istorio kontatu eta entzun genituen: eraikinen funtzioak, posadako jabeen alabaren istorioa, altxorraren kokalekua...

Apirilaren 1eko irteeran sorpresa ere izan genuen bidean elurra hasi zelako eta Kobazuloa pasata gero dena elurrez estalia zegoelako. Jolas pixkat egin ondoren bueltako bidea hartu genuen

pago motzez osatua dagoen baso zoragarritik. Horrela Oria ibaiaren iturburuetako batera, Iturbietakora hain zuzen ere, eta bertan dagoen karobira ere iritsi ginen. Kanala jarraituz, Irutxeta ingurura joan ginen eta hango erromes ospitalearen aurretik pasa ondoren berriro ere San Pedroraino jaitsi ginen. Kasino elkartean bazkaria egin ondoren arratsaldean Zegamako Aizkorri-Aratz interpretazio zentroa, (hau da Andueza ospitalea izan zena) eta San Bartolome ermita, izen bereko kofradiaren jatorria izan zena ikusi genituen. Egur museoan egurren laginekin eta hango enborrekin tailer zoragarria eginez pasa zitzaigun arratsaldea.

Egun gozoak pasa genituen eta bi egunetan eguraldia oso desberdina baina bietan ere ere lagun izan genuen.

ISABEL ELORZA



San Adriango kobazuloa pasata gero.



Gatz iturburua ezagutzen.

# ZEGAMA ZIENTZIA ASTEAN UPV/EHUK ANTOLATZEN DUEN EKINTZEN ARTEAN

## Zientzia Astea zer den?

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Astea da, eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak antolatzen du, inguruan dutenari buruz jakin-mina duten guztiek –gazteek zein helduek, umeeek zein nerabeek– aukera izan dezaten zientzia lanbide dutenekin zientzia ikusi, entzun, sentitu eta horretaz berba egiteko.

Tailerrak, txoko zientifikoak, ibilbide didaktikoak, erakusketak, lehiaketak, janari-dastatzeak, irteerak, bisita gidatuak eta hamaika gauza gehiago aurkituko ditzakegu Euskal Herriako hainbat txokotan eta baita Zegaman ere.

Zegaman bi ekintza antolatu eta burutu ziren azaroaren 11an. Bata San Adriango Kobazuloa bisitatu eta bestea Aizkorri Aratz interpretazio zentroa ikusi eta bertan dagoen Egur Museoan tailerra burutu. Gipuzkoa guztiko jendea etorri zen bi ekintzetara, haur gazte eta heldu eta guztira 13 pertsona elkartu ginen Kobazuloa ikus-

teko eta 18 Aizkorri-Aratz interpretazio zentruan.

San Adriango bisita egiterakoan arlo desberdinak ukitu ziren: historia, arkeologia, antropologia... Orain dela 12.000 urteko eta gaur egun arte iraun duten aztarnak esplikatu zizkiguten. Ikuspuntu kosmologiko-ludikoa hartzen duten hainbat sinbolo eta bizipen ere islatu direnez kobazuloko irudia eta eginkizunak ere azaldu zizkiguten: Osasunarekin, gizakiaren behar biologikoekin, espiritualetan eta biziraupenarekin erlaziozintutakoak, pasabidearekin lotutakoak. Orokorrean esan daiteke antzinako bizimodua gaur egungoarekin lotuta ikusi dugula erabat moldatu direlako antzina eta eguna.

Pasabidea ikusteaz gain kobazuloko hainbat txirrikitu ikusteko aukera ere izan genuen. Horietan aurkitu dira altxorren zati preziatu batzuk eta hainbat legendan sortzaile ere izan direnak. San Adrianeko kobazulotik irtenez gero (hegoaldeko irteeratik) Erdi Aroko galtzada berria eta zaharra ere

ikusi genituen. Gidari moduan Alfredo Moraza, indusketetan dabilen arkeologoa izan zen.

Zegamako Andueza Baserrian, ospitalea izandakoan, Aizkorri-Aratz interpretazio zentroa aurkitzen da. Bertan Espainian dagoen Xiloteka nagusienetakoa du kokalekua. Bizia da, Imanol Artolak bildutakoa, Zegamako herriari utzitakoa eta etengabe handitzen ari dena. Imanol Artola egurra erabiltzen eta ikertzen hasi zen 177 enborrez osatutako bilduma baten bidez. Ondoren xiloteka bat osatzen hasi zen, mundu osoko 1500 egur lagin baino gehiago dituen momentuz eta hau guztia erakutsi zigun. Xilotekarekin disfrutatuz gain, enbor bilduma paregabea ikusteko aukera ere izan genuen

Era berean, Aizkorri-Aratz interpretazioa zentroan basoaren eta inguru guztiaren informazio zehatza eman zigun bertako arduradunak.

ISABEL ELORZA



San Adriango kobazuloaren barnealdean

# GIPUZKOAKO ETA ARABAKO PARTZUERGOA

GIPUZKOAKO ETA ARABAKO PATZUERGOAK 2017.EAN  
HARTUTAKO ERABAKI ETA BURUTUTAKO EKIMEN  
GARRATZITSUENAK

## 1.- LARREETAKO HOBEKUNTZAK

### EREMUA ETA EGINDAKO LANA

Ultzamako Harrapalekua

Otzaurtetik Santi Espiritura itxitura zaharra kendu eta itxitura berriro hesola berriekin

Ultzamako eta Añabaso maldak robotarekin desbrozatu

Letain magalean, saredun itxitura zaharra kendu

Atxukoaldai, Txurro, Arkaun, Letain eta San Adrian inguruak traktorearekin desbrozatu

Urbi – Oltza eremuan kardua eskuz desbrozatu

Urbiko harrapalekuan aska berria egin

Urbino otea eskuz desbrozatu. (orain dela 2 urte eremuak erreparatu)

Urbino sortutako ur arazoak konpondu

Aurten Partzuergoan egin diren ekintzen artean larreetako hobekuntza lanak bereziki nabarmendu daitezke, hartarako Foru Aldundiak emandako diru-laguntzei esker. Bestalde, ohikoa den moduan, aurten ere ehiza postuen eta pisten konponketa, entresaka plegua, zein ondoren azalduko diren beste hainbat proiektu burutu dira.

Lehendakari aldaketa: Uztailan ospatu zen juntan Donemiliagako David Lopez

de Arbinak, Asparrenako ordezkaria den Endika Zinkunegi Zubizarretari urtebeterako lehendakaritzaren erreleboa pasatu zion.

### Larreetako hobekuntzak

Hainbat mantenimendu eta hobekuntza lan (itxiturak berriro edo kendu, harrapalekua eraiki, xehaketak, urak bideratu, askak egin, etab.) egin dira Foru Aldundiaren 120.000 €tako diru-laguntzarekin.



## 2.- BIDEETAKO HOBEKUNTZAK

### EREMUA ETA EGINDAKO LANA

EREMUA ETA EGINDAKO LANA	ENPRESA	DIRUAREN JATORRIA	GASTUA
Aldaola-Larrebil-Atxukoalda-Apota pistetako erretenak garbitu	J.M. Uribeetxeberria	Partzuergoko Hobekuntza Fondotik	6.618,70 €
LARREBIL lur jauzia konpondu	Jaime Orbegozo	Partzuergoko Hobekuntza Fondotik	9.115,85 €
ITURBELTZ pista konpondu	J.M. Uribeetxeberria	Foru Aldundiak	1.951,13 €
ALDOLA – LARREBIL: Hormigoinatu aurretik prestatu	ELORRI 3.000	Partzuergoko 2017ko aurrekontutik	11.885,23 €
Tubon erosketa	FUNDIBIDE	Foru Aldundiak	4.071,41 €
Kanterako materiala erosketa	Lazaro Echeverria	Foru Aldundiak	1.649,89 €
Hormigoizko badenak egitea	ELORRI 3.000	Foru Aldundiak	16.456,00 €
Hormigoizko badenak egitea	ELORRI 3.000	Partzuergoko Hobekuntza Fondotik	24.066,90 €



Pistek irauteko euri ura bideratzea ezinbestekoa da.

San Adrian Gipuzkoako eta Arabako Partzuergoan dago kokatuta.

## Dirulaguntzak

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren, 2016ko Kapital naturala eta biodibertsitate programa barruan, "Urbiko 2016-2018 kardu kontrola" eta "Flora habitata mantentzeko Larreetako hobekuntzak" proiektuak eskatu ziren. Kardua inbasioak mendiko larreen kontserbazio egoerari eragindako afekzio maila zehaztea eta kardua kontrolatzeko praktika onak zehaztea (HAZIk bideratuta). Eta bigarrenak berriz ganadu maneiuaren bitartez larreen aprobeixamendu arrazionala eta orekatsua bultzatuko eta habitat berezia mantentzen lagunduko duten hobekuntzak egitea (askak, desbrozeak). Bi proiektuak 2016-2018 bitartean garatzekoak dira. Kardua kasuan 6.460 € (gehi BEZ) eta hobekuntza proiektua 70.500 € (gehi BEZ).

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapeneko, Landa Ingurune eta

Lurralde Oreka Departamentua Gipuzkoako Lurralde Historikoko Landa Bideetarako diru-laguntzen programa barruan Altzaniko 3 pistetan badenak eraikitzeko proiektuarentzako finantzaketa eskatu da. Helburua ura bideratzen eta pisten mantenimenduan lagunduko duen hormigoizko badenak eta erretenak egitea. Diru kopura 40.000 € (gehi BEZ). Ez da onartua izan.

Gipuzkoa eta Arabako Partzuergoan kokatuta dagoen San Adriango tunel edo haitzuloan aurtan ere 2017.an Aranzadi Zientzia Elkarteak arkeologia-lanak egin ditu. 2017.ko martxoaren 28an Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Turismo, Kirol eta Gazteria Departamentuaren bidez 2017 ekitaldiko diru laguntzen deialdian sartu zen eta uztailaren 26an argitaratu zen ebazpenean Gipuzkoako lurraldean arkeologi ikerketa eta indusketak egiteko programan onartua izan zen.

Diru kopura 11.500 € (gehi BEZ), 6.466.5 €tako dirulaguntza jaso da.

2017ko Leader programa barruan, Garagartza Txabolan argi-indar instalazioa berritzeko diru-laguntza eskatu da: 3 plaka fotoboltaiko, inbertsorea, erreguladorea, bateria. Aurrekontua 8.092,33 €tako. Ebazpena oraindik ateratzeko.

## Ehiza

Ehizako postuen konpontze eta berritze lanak egiteko Lizelan enpresari esleitzea erabaki da. 16.478,99 €tan.

Trepak:

- 49 postuak tentsatu.
- LARREBIL 8 desegin eta aldatu den lekura materiala eraman eta montatu.
- LARREBIL 7, APOTA 5 eta ITURGAIN 9 eroritako postuak, behar zena desegin eta berriro guztiz montatu.
- LARREBIL 4 desegin eta lurreko postua eraikin.
- APOTA 7 eta AGIÑARAN 1 en aldemia gorpuz bat igo.

- AGIÑARAN 7 errebisatu eta basea egokitu.

- APOTA 11 lurreko postua erretiratu eta 3 gorputzeko aldamiaoa eraiki.

Lurrekoak

- 21 posturen errebisioa: tornillokin hesolak gogortu eta laggeroak aldatu.

- Postu berriak eraikin: LARREBIL 11, LEOTARAN 2, LEOTARAN 8, ULTZAMA 3,4,5 eta 9. Postu zaharren materiala erretiratu.

- Desegin, lekuz aldatuta eta eraikin: ITURGAIN 4, LARREBIL 13 y APOTA 12.

Materiala erosi behar izan da: aldamiaoa osatzeko piezak, kableak, etabar. 20.399,25 €.

Lanak eta materiala kontutan hartuta guztira gastatukoa: 36.878,24 €.

Enkante egunean aurten aurreneko aldiz 3 buelta egin dira eta hala ere hutsik zazpi postu geratu dira.

Juntak aurten ere aho batez onartu du enkantean desertu geratu diren postuak Partzuer-goko udal bakoitzari dagokion portzioaren arabera banatzea eta tasak eta aprobetxamen-

duaren %20a Partzuer-goak ordaintzea.

Aurten basurde koadrila guztiakin egin diren 3 bileratan Partzoneriko Basurde Batidan Barne Araudia landu da. Aipatzekoak:

- 2017ko Irailaren 1.ean Gipuzkoa eta Arabako Partzuer-go Nagusian 8 koadrila geratzen dira erregistratuta: Idiazabal, Segura, Zerain, Zegaman bi, Donemiliaga, Koto Mendizabal eta Asparrena.

- Batida erronden antolaketa herrien portzion arabera egingo da.

- Batidan helburua basurdek botatzea den arren, kortzoak botatzea ere egongo da.

2016-2017 tenporadan 31 basurde bota dira eman diren 4 batidatan. Baita ere, Foru Aldundiak 2017-2018rako Ehize Larriaren Ustiaketa arautzen duen baldintza teknikoa aurten lehenengo aldiz prestatu du.

### Basoa

2017-2018rako antolatzen diren baso bakanketa eratuko dituzten Baldintza teknikoa publikatu eta Kattaliturri enpresari adjudikatu zaio 37.500

€-tan. Egingo diren bakanketak: Larizioa, Abetoa, Zipresa eta Alertze sailak izango dira, guztira 121,91 Ha.

### Proiektuak

Siresa enpresak lideratzen duen HY-POWERBOX proiektua, bigarren urtez Tonttor txabolan neurketak egin ditu.

Artzain txaboletan argi-ingar hornitze-sistema autonomoak nola lortu aztertzekeo proiektu honek aurten aerogeneradorea aldatu du haizea gehiago aprobetxatzeko amoz. Aurten bildu diren datuekin emaitzak oraindik aztertu gabe daude.

### Auzolanak

Abuztuaren 9an Urbiko deposituetako bat inguratzen duen itxitura auzolanean konpondu da. Konbidatuak Urbiko txaboletan dauden artzainak eta Fondakoak: guztira zortzi laguneko taldeak parte hartu du.

Urriaren 25ean, Dominika txabolan eguzki plakak inguratzen dituen itxitura berritu eta tailatuko kanaloia 4 boluntarioen laguntzarekin konpondu dira.



## HORMAK MARGOTUZ

Udaberri hasieran auzoko paretak triste zegoela esan zigun, triste eta aspertuta beti horren gris. Baina, ganean marrazkiren bat edukiko balu bera eta inguruko guztiak alaitzeko gai ikusten omen zuen bere burua. Gehiago pentsatu gabe beraz, pareta hark eskatutako marrazkiak udako plan bikainak bihurtu ziren.

Horrela, udan zehar, Murgi Zelaira bidean zihoazen auto guztien tarteko geldialdia bihurtu gara Zegamako gazteak eta haurrak. Auto batzuk marrazkiari buruzko iritzia emateko gelditzen ziren, beste batzuk ideiak emateko eta gainontzekoak autotik jaitsi, pintzela hartu eta gurekin marrazteko. Hain haur eta hain gazte ez direnen laguntza ere izan dugu, hainbaten eguneroko paseoaren azken berriketaldia gurekin baitzen, liburu batetik ateratako fantasiatzko izakiei buruzko berriketaldia.



Eguraldia ez dugu lagun izan, eta askotan marrazteko geldituta geunden arren ezin izan dugu ezer egin, pareta bustia zegoelako edota euria egingo zuenaren beldurrez. Orain zatitxo txiki bat gelditzen zaigu marrazkia bukatzeko, ea Gabonetako oporraldian egiten dugun!

Eta hurrengo udan zer? Ez dakit zuek, baina nik behintzat entzuten ditut Zegamako pareta gehiago triste daudela esanez.

GAZTE HEREXA ELKARTEA

## ZEGAMAKO HARATEGIAK SARITUAK

Iazko abendutik aurtengo azarora arte Zegamako Oiarbide eta Urmeneta harategiek hainbat sari jaso dituzte.



Patxi Arangiz Santo Tomasetako sariarekin.

### Urmeneta harategia

2017ko azaroaren 4an, Beasaingo Odolki txapelketan, Urmeneta harategiak 2. Postua lortu zuen. Lehen postua Beasaingo Olano harategiak lortu zen.

2017ko abenduaren 3an Ormaiztegin egindako XXXI. Odolki Lehiaketan Jon Urmeneta eta Maria Jesus Urbizu bikoteak 1.go saria lortu zuten. Bigarren saria Olano harategiak eta 3. saria Jesus Mari Debak.

### Oiarbide harategia

2016ko abenduaren 21ean, Santo Tomas egunean, Donostian Oiarbide harategiak 2. Saria lortu zuen. Bestalde, 2017ko urriaren 28an, Azpeitian egiten den Txorixo egosiaren txapelketan lehenengo saria lortu zuen.



Oiarbide harategiako txorixo egosiaren sariarekin



Jon Urmeneta eta Mariaje Urbizu Ormaiztegin saria jasotzen.



## HERRITARREN ITUNAK MARRAZTUKO DU GURE BIDEA

Joan da 2017 urtea, eta ez alferrik. Erabakitzekeo eskubidea gauzatzera bidean, urrats garrantzitsuak eman ditugu. Iaz eman genituen haien jarraipen eta datorren urtean etorriko direnen aurrekari. Euskal Herrian adostasunak bilatzen hasteko urtea izan da 2017a, galdeketen urtea eta baita Kataluniari begira egotekoa ere.

Iaz abiatu genuen Herritarren Ituna, erabakitzekeo eskubiderako ibilbide ofiziala izango dena, eta 2018a esanguratsua izango da egiteko horretan. Itunak sintonia berri bat ekarriko dio Euskal Herriari, guztion artean eragiteko. Izan ere, herri-ituna ez du Gure Esku Dagok egingo; GED eragile



Galderaikurra

bat gehiago izango da beste hainbat konplizeren artean. Ibilbide-orri bat finkatzea izango da Gure Esku Dagoren helburua, Euskal Herri mailako galdeketak data bat izan dezan, galdera bat izan dezan, edo gutxienez, bide bat irudika dezan.

Nahiko genuke herri-itun hori behetik gora bultzatzea. Urte osoan dinamika bat egingo dugu gure buruari galdetzeko zergatik eta zertarako erabaki

nahi dugun; erabakitzekeo behar hori plazaratzeko. Horretarako, ahalduzko fase bat egongo da: mintegiak gai nagusiak eztabaidatzeko hedabideekin, adituekin, gizarte taldeekin... Ondoren, dinamika sozial baten bidez herritarrekin partekatuko ditugu arrazoiak eta eztabaida elikatuko dugu. Denon artean erabakitzekeo daukagun beharra konpartituko dugu.

## GALDEKETAK UGARITZEN

Nafarroan, Bizkaian, Gipuzkoan... galdeketak egin dituzte hainbat herritan 2017an zehar. Iaz egin genuen herri galdeketa Zegaman, Goierriko gainontzeko herriein batera, eta dagoeneko 870.000 biztanleko eremura zabaldu dugu eztabaida. Erabakitzekeo eskubideaz modu naturalean hitz egitea lortu dugu. 2018an ere, galdeketak eginez, eztabaida hori leku gehiagotara eramango dugu.

## KATALUNIARA BEGIRA, ARRETAZ

Galdeketa lurralde-esparru oso batera eramandakoan sortzen den eztabaidak duen aberastasuna ezagutu dugu aurten Katalunian. Independentzia, burujabetza, erabakitzekeo eskubidea... naturaltasunez jorratu diren gaiak dira.

Kataluniako gatazka demokratikoa gertutik jarraitu dugu Gure Esku Dagotik. Eredugarria izan da Katalunian egin duten bidea. Erabakitzea oztopo-lasterketa



Kazerolada gauez



Elkarretaratzea

baten parekoa da, zilegitaun maila bat lortu behar da. Horretarako, beharrezkoa da gizarteko sektore guztien inplikaturik. Katalunian ikusi duguna da jokoan dagoena gure etorkizuna erabakitze eskubidea dela. Baina ez soilik Katalunian, baita Euskal Herrian ere, baita Europan ere.

Kataluniako prozesuan, eta bereziki urriaren 1eko galdeketa gerturatu ahala ideia politikoaren eta adierazpen askatasunaren aurka egin du zuzenean Espainiako estatuak, botere judizialaren bidez eta etengabeko beldurraren kanpaina eginez. Urrutiegira iritsi da. Demokrazia batean aukera guztiek beren tokia izan behar dute eta proiektu politiko guztiek modu baketsuan eta demokratikoan defendatu eta gauzatzeko modua izan behar dute, salbuespenik gabe.

XXI. mendeko kultura politiko berriari atea zabaltzeko diote katalanek eta erakutsi dute herri-tarren gehiengoaren borondatea beste mugarik ez duela etorkizun justuago batek. Era baketsu eta zibikoan egin dute, irribarre batekin ahoan.

## 2017A ZEGAMAN, EKINTZAZ EKINTZA

**Otsaila.** Goierriko herri galdeketa dokumentalaren estreinaldiarekin eman genion hasiera urteari: "Galdeketa historiko baten istorioa".

**Ekainak 9.** Erabakitze prest gaudela erakutsiz, galdera ikurra osatuz mosaikoa egin genuen Zegamako udaletxe aurreko plazan.

**Irailak 21.** "Euskal Herria Kataluniarekin. Estem amb vosaltres!" lelopean, Kataluniako galdeketa galarazteko Guardia Zibilak abiatutako operazioa salatu genuen. Deialdiarekin bat egin zuten Zegama Lantzenek eta Zegamako EH Bilduk.

**Urriak 1 eta 3:** Kataluniareko erreferendumaren inguruan izandako indarkeria gertaerak salatze eta elkarretaratzeak eta kazeroladak egin genituen.

**Urriak 22:** "Eman eskua Kataluniari". Ehunka lagun bildu ginen Ordizia, Lazkao eta Beasain artean Kataluniari elkatasuna erakusteko. Giza katea osatzearekin batera, Lazkaotik eta Ordiziatik lekuko bana abiatu zen. Eskuz esku, hainbat goierritarrek eraman zuten lekukoa,

Beasaingo plazan elkartu ziren arte. Une hunkigarriak bizi izan ziren. Tartean geunden dozenaka zegamar ere, Senperen eskuz esku katea osatuz. Sandra Fernandezek, Zegaman bizi den kataluniarrak, eraman zuten lekukoa.

## TRIPONTZIA, SARI POTOLOAREKIN

Gure Esku Dagotik abiatutako egitasmo guztiak aurrera atera ahal izateko, Tripontzia jarri dugu martxan. Euskal Herrian eta diasporan saldua, saldu-tako zenbakien artean egingo da zozketa. Aurten 102.000€ banatuko dira zenbaki sari-tuaren zortzi serien artean.



Sandra Lekukoarekin



# AITXURI HERRI ESKOLA



2016-17 ikasturtean, LH4-5 eta 6. mailako ikasleak Phil ekin

## INGELESA AITXURIN

Gure eskolan ingelesa eta bere konpetentzia komunikatiboaren garrantzia aspalditik hartzen dugu kontuan. Horrela, gure ikasleak 4 urtetik aurrera hasten dira lantzen, hainbat saiotan.

Denok dakigu, ingelesaren konpetentzia komunikatiboa lortzeko gelan lantzen denaz gain, beharrezkoa dela egoera komunikatibo ezberdinak bizitzea eta horretarako proiektu ezberdinetan hartzen dugu parte:

- Antzerkia ingelesez.
- Aste beteko egonaldia ingelesez (Murgiltze proiektua)
- Hizkuntzen Marko Hirueleduna proiektua: Eleaniztasunerantz

Azken proiektu honi esker, LH.ko 4.,5. eta 6. mailako ikasleek arlo batzuk bi hizkuntzatan lantzen dituzte, hala nola, Natur zientziak eta Giza zientziak. Beste onura bat ere izan dute ikasleek, azken bi ikasturte hauetan: ahozko komunikazioa lantzeko ingeles jatorria duen laguntzaile bat.

2016-17 ikasturtean Hezkuntza Sailak laguntzaile hau esleitu zigun lehenengo aldiz. Organu

Goreneko gurasoen bitartez lortu genuen Phil Huxley, Zelanda Berrikoa, etortzea. Laguntzaile honekin eskulanak eta komunikazio jokoak eginez, entzumena eta mintzamina jorratu zituzten.

Aurten, Ipar Irlandatik, Cassie Flack, etorri zaigu lan honekin aurrera jarraitzeko.

Egiten ari den lanari buruz duen iritzia jakiteko ondorengo elkarrizketa egin diogu.

## Nolatan etorri zara Euskal Herrira?

Frantsesa eta Gaztelaniazko gradua burutzen ari naiz Irlandako nire unibertsitatean eta derrigortuta gaude egonaldi bat atzerrian egitera, bai gaztelaniaz edo bai frantsesez hitz egiten den herrialde batera konkretuki. Hori dela, eta Euskal Herria Frantziatik gertu dagoenez leku aproposa iruditu zitzaidan. Hala ere, badaude beste arrazoi batzuk erabaki hau hartzera bultzatu nindutenak: Euskal

Herria Irlandarekin identifikatzen dudalako, bai eguraldiagatik baita kultura aldetik ere. Zuen hizkuntza euskara da eta gurea Gaelikoa.

## Nola izan zenuen lan honen berri?

Aurreko ikasturtean Gradua burutzen ari nintzela unibertsitateara "British Council" erakundeko arduradun batzuk etorri ziren "mintzamen laguntzaile" programa honen berri ematera. British Council, Espainiko "Instituto Cervantes" bezalako erakunde bat da eta dena azaldu ondoren, aukera bikaina iruditu zitzaidan urte osoko egonaldi bat egitea, Haur eta Lehen hezkuntzako eskolan batean.

## Hezkuntza mundua ezagutzen zenuen aurrez?

Ez dut inoiz lanik egin hezkuntza munduan baina nire gurasoak biak irakasleak dira eta aurreko ikasturtean praktika batzuk burutu nituen nire amaren eskolan, laguntzaile gisa. Astean behin frantseseko eta gaztelaniazko saioak irakatsi nituen. Bestalde, 4 urtez gazte klub batean aritu nintzen lanean. Gazte klub honek ikasteko zailtasunak dituzten haurrekin egin dut lan eta batzuk oso kasu zailak dira. Ez dauka zerikusirik eskolan irakastearekin baina asko gustatu zitzaidan.



Cassie LH 2. Taldearekin



Cassie LH 4 taldearekin



Cassie LH 5 A taldearekin

## Zer nahiago duzu orduan hezkuntza formala edo ez formala?

Biak ditut gustuko baina gazteen klub honetan oso gustura egon nintzen begirale asko zeudelako eta ume guztiengana iristea askoz ere errazagoa zelako. Hala ere, hezkuntza mundua asko gustatzen zait, bere alderdi guztietan, nire amaren eskolan ezagutu nuena eta baita, orain, hemen ezagutzen ari naizena ere.

## Zein izan da zure lehenengo irudipena Aitxuri eskolaz?

Eskola, hemen, Euskal Herrian eta Irlandan zeharo desberdinak direla. Ez da hain formala han bezala, hau da, ez dela hain tradizionala agian? Hemen umeek ez daramate uniformerik eta irakasleei ez diete “berorika” hitz egiten, hau da, guk “Mr. edo Mrs. + abizena” erabiltzen dugu irakaslearengana zuzentzeko. Adibidez: “Mrs. Mujika edo Mrs. De Juan”. Hori bai, hemengo umeak ingelesa eta matematika maila altuagoa dute. Hemen, ikasleek ez dute modu tradizionalan ikasiko baina maila Ipar Irlandan baina altuagoa dela iruditzen zait, pertsonalki.

## Eta Zegamari buruz?

Eskola eta tabernaz gain ez dut asko ikusi baina iruditzen zait, ikusi dudak gutxiagatik, oso herrikoia dela eta jendeak elkar ondo ezagutzen duela. Gertutasuna eskaintzen du hemengo jendeak eta hori gustatzen zait.

## Zer ezberdintasun antzeman dituzu atzerritar hizkuntzen irakaskuntzan zure herri aldean eta hemen?

Hemen maila askoz ere altuagoa da. Guk han itzulpenak erabiltzen ditugu gehien bat atzerritar hizkuntza bat irakasteko, ingelesez esan ohi den bezala “Translation method”. Nik han ez dut frantseseko edo gaztelaniazko saio oso bat eduki unibertsitatera iritsi arte. Han atzerritar hizkuntzak ingelesez irakasten dira eta itzulpenak egiten dira. Hemen umeak txikitatik ikasten dute atzerritar hizkuntza eta ingeleseko saio oso bat ingelesez jasotzen dute 4 urtetik. Horrek asko laguntzen du atzerritar hizkuntza bat ikasterako garaian. Horregatik uste dut maila altuagoa dela.

## Nola ikusten dituzu gure eskolako ikasleak?

Oso ume jatorrak dira. Oso ondo hartu naute eta oso motibatuta ikusten ditut ingelesa ikasterako garaian. Egia esan, Irlandan hemen baino ikasteko gogo gutxiagorekin ikusi ditut ikasleak.

## Zer da gehien gustatu zaizuna orain arte Euskal Herrian ikusitakoaz?

Pintxoak eta ostegunetako pintxopoteak.

Irlandan taberna batean egiten dut lan eta itzultzen naizenean tabernako nagusiar horrelako egun bat jarri behar dugula proposatu nahi diot, pintxoak prestatu eta jendea gure tabernara etortzera

animatzeko asmoz. Pintxopote eguna sortzea gustatuko litzaidake Irlandan.

## Eta gehien harritu zaituena?

Eguraldia. Mundu guztiak esaten zidan Euskal Herrian eguraldia ez zela batere ona, txarra alegia, baina orain arte oso tenperatura altuak eduki ditugu, urriaren amaiera arte. Esan didatenez ez da ohikoena baina Irlandan eguraldia askoz ere okerragoa izaten da garai honetan.

## Zure burua ikusten al duzu irakaskuntzan etorkizunean?

Bai. Hala ere, Irlandara bueltatzen naizenean lehenengo gradua amaitu behar dut eta ondoren hezkuntza munduan lan egiteko beste ikasturte bat egin. Horretarako, eskaera bat egin behar dut eta oso emaitza altuak eskatzen dituzte ikasketak horiek burutzeko baina, bai gustatuko litzaidakeela eta asko gainera.

## Zein da zure asmoa datozen urtetarako?

Esan dudak bezala, gradua amaitu ondoren hezkuntza munduan lan egiteko ikasketak burutzea. Gainera esperientzi honek guztiak puntu gehiago emango dizkidala uste dut ikasketak horietara sartzerako garaian.

**Mila esker Cassie eta ZORTE ON opa dizugu, seguru lortuko duzula irakasle izatea!**



Cassie LH 5 B taldearekin



Cassie LH 6 A taldearekin



Cassie LH 6 B taldearekin

# TOBERA MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA



[www.tobera.org](http://www.tobera.org)

## *Zure neurrira*

TOBERA Musika-eskolaren zeregin nagusia bere ikasleei egunero musika-eskolak ematea da, hainbat ikasgaien gainean, eta hor sortzen den mugimendua kulturaren alde, artearen alde eta musikaren alde ongi kanalizatzea, eta herrikideen artean harremanak eta lankidetzak eratzen laguntzea, herria bera gorpuztuko dutenak. Ez dago zalantzarik: TOBERA Musika-eskolan izena ematea Zegamaren alde egitea da.

Nabarmena da, ordea, pisu esanguratsua dutela ekintzek. 2017an ia 50 izan dira egindako ekintzak. Tartean, herrigintzari ekarpena egiteko aukera eman diguten ekintzak ere badaude, musika-eskolak berak antolatutako izan ez direnak, baina musika-eskola laguntzaile izan dutenak, alegia: Santa Ageda bezpera, San Joan sua, Erlezainen Eguna, jubilatuen eguna, jaunartzeak, Errome-saldia, herriko jaiak, Korrika, Zegamako Erregeen Kabalgata...

Urtarrilaren 13 iluntzean, Zeraingo Oatza sagardotegiaren txotx-denboraldiaren irekieran hartu zuten parte trikiti, pandero eta perkusioko 20 bat ikaslek. Aurretik, Mutiloan, hango kultura-astearen egitarauaren barruan, kalejira egin zuten musika-eskolako txistulariekin batera. Urtarrilaren 30ean, berriz, ETBko 'Gailurra Xtrem' programaren grabazioan aritu ziren partaide trikitiko eta panderoako ikasleak. Abuztuaren 25ean kalejira egin zuten erraldoi eta buruhandiekin.

### DATUAK

**4 urtetik gorako 160 ikasle ditu ikastetxeak gaur egun, helduak ere bai, eta 250 matrikula (taldeetakoak zenbatu gabe) hainbat eta hainbat irakasgaitan. 30.a izan da 2016/2017 ikasturtea Zegamako, Segurako, Zeraingo eta Mutiloako TOBERA Musika-eskolarentzat. Herrien eta herritarren arteko loturak eraikitzen saiatzen gara, hainbat ekintzaren bitartez.**

Otsailaren 4an eta 5ean Andoaingo 12. piano-jaialdia egin zen Andoaingo Bastero kultur-gunean. Hantxe elkartu ziren 18 urtez azpiko ia 800 piano-ikasle. TOBERA Musika-eskolako 11 lagunek emaitza bikainak lortu zituzten: 2k brontzezko domina eskuratu zuten, 7k zilarrezkoa eta 2k urrezkoa. TOBERA Musika-eskolak hasiera-hasieratik hartu izan du parte Andoaingo



Tobera Musika eskolako trikitilariak sagardotegian.

Andoaingo piano lehiaketan parte hartu zuten ikasleak.



Tobera Musika eskolako ikasle batzuk.

piano-jaialdian, jaialdi hau sortu zen urte beretik aurrera.

Musika-eskolan 4 txistu-talde daude, eta, gainera, Zegamako Txistu Bandara bideratzen dira gero ikasleetako asko. Talde hauek herrian nahiz herritik kanpo jotzeko aukera paregabea luzatzen diete ikasleei.

Esaterako, 2017ko irailaren 17an, Urretxuko Euskal Jaiko desfilean hartu zuten parte zenbait txistu-ikaslek, Urretxuko Lurra Dantza-taldea laguntzen. Urriaren 28an Beasaingo Txistu-alardean ere partaide izan ziren. Segurako Azpilla Dantza-taldeak emanaldia egin zuen Seguran martxoaren 25ean, eta TOBERAko txistularien laguntza izan zuten. Hemen ondoko

argazkian, bestalde, abuztuaren 24an ermitatik herriguneraino desfilea egin zuten ikasleak daude.

Txistu-ikasleak atzerrian: behin baino gehiagotan hartu dute kanporako bidea azkenaldian TOBERAko txistu-ikasleek. 2015eko uztailean, Galizian izan ziren zenbait txistu-ikasle gazte Urretxuko Lurra Dantza-taldekoekin batera, nazioarteko folklore-jaialdi batean. Iazko irailan eta abenduan Portugalen izan ziren Idiazabalgo beste musikari eta dantzari batzuekin batera. Oraingoan Frantziako Aveyron eskualdeko Rodez hirira joan ziren abuztuaren 7tik 14ra bitartean, Oinkari dantza-taldearekin batera. Han ospatutako nazioarteko folklore-jaialdi

batean egin zuten euskal kulturaren erakustaldia.

Musikaren Hamabostaldia antolatatu zuen TOBERA Musika-eskolak martxoaren 27tik apirilaren 8ra bitarteko 2 asteetan. Ekintza ugari egin zuten bat egun horietan: ate irekiak, musikatresnetako entzunaldiak, eskolako *Patxara* taldearen kargurako dantzaldia, kalejira, e.a.

Elkartrukea. Urte asko dira TOBERAK beste eskola batzuekin emanaldi bateratuak egiteari ekin ziola. Amaitutako urte honetan Lasarte-Oriako Udal Musika-eskola izan dugu bidaide, eta martxoaren 30ean eta apirilaren 4an izan dira bi musika-eskolen arteko kontzertu bateratuak. Lasarte-Oriako Manuel Lekuona auditoriora 60 ikasle joan ziren TOBERAtik (eskuineko argazkian horietako hainbat ikus litezke).

Apirilaren 2 goizean, Lazkaoko Oin-Arin eta Beasaingo Aurtzaka dantza-taldeak TOBERAko dantzarietara eta musikarietara batu zitzaizkien, Zegamako 4. Dantzari Txiki Eguna ospatzeko (alboko argazkian eguneko une bat). TOBERAK antolatutako ekitaldia da hori, eta urteroko maiztasuna hartua du honez-ker. 2018an apirilaren 15ean egiteko asmoa dago.



Zegamako txistulari taldea eta txistuko ikasleak.

Zegamako TOBERAko dantzariak eta txistulariak maiatzaren 21ean Beasainera joan ziren trukean, eta ekainaren 18an Lazkaora, hango Dantzari Txiki Egunetara.

Abuztuaren 24an, herriko zaindariaren egunean, dantza-saioa egin zuten dantzatako eta txistuko ikasleek elkarrekin, Zegamako plazan. Gainera, laugarren aldiz, musika-eskolako dantzatako ikasle ohiak agintarien soka-dantzaren gidari izan ziren.



Toberako dantzariak eskolako patioan

Ekainaren 21a musikaren nazioarteko eguna da, eta kursoari agur esateko kontzertuak data horren bueltan ipintzen ditu TOBERAk urtero. 2017an ekainaren 19an eta 20an izan dira. Zegamako agertokitik 85 kide pasatu ziren instrumentuak jotzera, abestera eta dantza egitera. Festa-kutsua izan zuen emanaldiak, eta, tartean, hainbat ikaslek musika-hizkuntzako ziklo-amaierako egiaztagiria eta 2. nahiz 3. nibel-bukaerako Diplomak eskuratu zituzten. Afari-merienda eginda bukatu zen saioa. Santa Zezilia musikarion zaindariaren omenezko kontzertuak eta ikasturtearen amaierakoak izan ohi dira musika-eskolaren jendaurreko hitzordu esanguratsuenetakoak.

2017/2018 aurtengo ikasturtean ikastaro berritzaileak egingo dira: *Musika Laborategia*. 0-3 urteko umeekin eta beren gurasoekin saioak egingo

dira, musikan oinarrituta beren arteko harremanak sendotzeko eta haurraren garapena hobetzeko. Musika-hizkuntzako tailer osagarriak ere egingo dira hala nahi duten herritar guztiekin: 4-7 urte-bitarteko haurrekin eta 8-12 urte-bitarteko gazteekin 4na saio egingo ditu TOBERAk, sormena eta musikazaletasuna esperimentazioaren eta ludikotasunaren bitartez jorrazteko (psikomotritate, erritmoa, entzumena, konfiantza...). Egon adi, laster zabalduko da-eta ikastarootan izena emateko aukera.

Eskerrik asko urtean zehar musikari bide ematen lagundu diguzuen guztioi: Zegamako Udalari, elkarteei, herritarrei... 2018a ere musikaz argituko du. Urte berri on!

**Iker Gómez de Segura**

*TOBERA Musika-eskolaren izenean*

# AIZKORRI GURASO ELKARTEA



Ohikoa denez, Aizkorri Guraso Elkartean, atzera begirada bat botaz, urtean zehar egindako ekintzen laburpen bat egiteko garaia iritsi da 2017ko urte honetan.

**Inauterietako ostiralekoa** izan da lehena. Bertan haurrak ikastolan mozorrotu ondoren, txokolatada antolatzen da bertaratutako guztientzat. Jarraian, haurrak horren gustuko dituzten buruhaundiak izaten dira.

**Kurtso amaierako festak** ere izaten du bere xarma, opor luzeak iritxi bait dira. Herriko kiroldegian haur jolasak antolatu dira, aurpegiak margotuz eta ohikoak diren taldeko jokuak eginez.

Bertan ere “**kirol festa**” egiten da Ekainean, haurrak eskola bukatu aurreko larunbatean, Xabier Intsaustik antola-

tuta gurasoen laguntzarekin. Aurtengoan ere **ikastolako bazkaria** antolatu da. Jokoen ondoren, herriko ostatuan, ikasle, guraso eta irakasle artean 100 lagun inguru elkartu gara. Guraso Elkarte oso pozik dago festa honek duen arrakastarekin.

**San Martin ondorengo igandean** ere, bada haurrentzat pozgarri. Aurtengoan Patata Tropikalak egin du bere antzez-lana. Ondoren txokolate beroa banatu delarik.

Dakizuen bezala, eskola orduetatik kanpoko **zaintza zerbitzuak** ere, aurrera jarraitzen du goizeko 8:00retatik 9:00etara bitartean ikastolako jangelan Marian Telleria begirale bezala delarik.

Elkarteko partaide guraso denak izan arren, hauteskunde bidez aukeraturiko ordezkari

bat arduratzen da Elkartearen betebeharrak kudeatzen eta aurrera eramaten. Bi urtero ordezkari horren erdia berritzen da.

Beste behin gogora arazi nahi genuke Elkartearen egitekoa seme alaben heziketan Eskolako Irakasle Klaustroari laguntzea dela, eskola orduz kanpoko aktibitateetan eta aktibitate osagarrietan gehienbat.

Bestalde, finantzioari dagokionean, gurasoen ekarpen eta Udal zein Foru Aldundiaren ohiko diru-sarrerak jasotzeaz gain, inguruko enpresa batzuen laguntza ere jasotzen dugu. Jakin badakigu, aurtengoan, krisia dela eta enpresa hauek esfortzu berezia egin behar izan dutela eta hau hala izanik, eskerrik beroenak luzatu nahi genizkieke guztiei Aizkorri Guraso Elkartearen izenean.

# KARRAZTARRO KIROL ELKARTEA



Ehiza txikiko parte hartzaileak.

Aurtengo ehiza denboraldiari dagokionez azken urteen jarraipena izan da. Egun polit pare bat izan ziren urriaren amaieran baina orokorrean beste denboraldi kaxkar bat izan dela esan daiteke.

Beste urteetan bezala, Karraztarro Elkartetik egoera txarrean edo bukatu gabe zeuden postuen konponketara bideratu da urteroko eginkizunen zati handi bat. Lan hauen ondorioz Zegamako linearen egoerak hobetzen jarraitzen du nahiz eta oraindik lan asko falta egiteko. Lan neketsu honek bere fruituak ematen ditu eta hori ehiza denboraldian zehar ikusi ahal izan da, sortetara gerturatu den jendearekin.

Urtean zehar ekitaldi ezberdin asko antolatu ditugu eta lehena otsailaren amaieran ospatutako Mus txapelketa izan zen. Bertan Joseba Arakama eta Luis

Malkorra gailendu ziren, aurkari Aitor Larrea eta Denis Perez izan zituztelarik. Herriko ehiztarientzat zuzendutako ehiza txikiko txapelketa martxoaren 4an burutu zen eta hamabost parte-hartzaileen artean Joseba De La Hera suertatu zen irabazle eper gehienekin, jarraian Estebe Ariznabarreta eta Ibai Urbiztondo izanik. Uztailaren erdialdera III. Ehiza eta natura azoka antolatu genuen, ekitaldi ezberdin eta ugariarekin polikiroldegian, eskolako patioan zein Arretxeko zelaian. San Bartolometako herritarren tiro-platoa Bernat Berasategik irabazi zuen, podiumean Unai Atxa eta Estebe Ariznabarreta izanik. Gaztetxoetan Egoitz Rivas eta beteranoetan Fermin Mazkieran izan ziren garaileak. Irailean ospatu izaten genuen Compak Sporting txapelketa berriz, aurten ez burutzea

erabaki genuen elkarte-kideek. Ekitaldi garrantzitsuena, oihartzun aldetik behintzat, Ehiza feria izan zen. Urteroko asanblada orokorrean aipatu bezala, ekitaldi hau indartzeko ahaleginetan ibili gara, eta aurtengo feria urri hasieratik uztailaren 15era mugitzeko erabakia hartu genuen jende gehiago gerturatzeko. Emaitzak ikusirik, data aldaketa hau aberasgarria izan da feriarentzat, jende dezentez gehiago gerturatu zelako. Aipagarria izan zen basurde txakuraren erakusketa, lehen aldia izateko ikusmira handia sorta-



Ehiz txakuraren erakusketa.



Mus txapelketako irabazleak.



Ehiza txikiko lehiaketako irabazleak.



Tiro-platoko irabazleak.

razi zuelako jendearengan. Elkartekideen, herritarren, udalaren eta ACPTeren (Asociación de Cazadores de Paloma Torcaz de Euskadi) laguntzaz helburuak bete ditugula uste dugu, nahiz eta oraindik zer hobetua izan.

Hau aurrera eraman ahal izateko, behar beharrezkoa

da kolektibo eta elkarte ezberdinen laguntza eta hortaz guztion parte-hartzea ezinbestekoa da. Amaitzeko eskerrak eman ekitaldi edo beste zenbait arlotan lagundu duzuen guztioi.

JARRI DEZAGUN HORRELA  
ETA MILA ESKER!



Angel Peñagarikano eta Migel Lazpiurri omenaldia eskaini zien antolatzaileek.

# AIZKORRI FUTBOL TALDEA



Aizkorri Futbol Taldea, azkeneko urtetan egindako lanaren fruituak, pixkanaka, jasotzen ari dira. Bukatutako denboraldian 2 talde federaturekin hartu dute parte Gipuzkoako lehiaketetan:

- o 1. MAILAKO KADETEAK, 2 talde 39 jokalarikoak (5 zegamarrak).

- o INFANTIL TXIKIETAN, 19 jokalarik hartu dute parte (8 zegamarrak).

- o FUTBOL ESKOLAN; aurten zegamar asko hasi dira ikasten eta gozatzen futbolarekin. 2009. urteko 9, 2008. urteko 10, 2007. urteko 9, 2006. urteko 4 jokalaria.

Gaur egun, Aizkorri Futbol Taldearen atzetik 210 pertsonako taldea dago (jokalaria, eskolako ikasle, entrenatzaile, delegatu eta juntakideen artean), jende asko beraz, baina bere lana eta ekarpena eman nahi duten zegamarrentzat, beti dago leku bat.



2007ko alebinak



2006ko alebinak



2009ko benjaminak



Alebinak neskak



# ELKARTU NAHI

Elkartu Nahi T.E.-an, 2017ko urte honetan, beste urteetako antzeko egitaraua gauzatu da. Hala ere, urteroko probetarikoa batean aldaketa garrantzitsu bat gauzatu dugu. Izan ere, urtero egiten dugun junior mailako probaren maila, partaidetzari dagokionean, gorengo mailara igo dugu, XXIII. GIPUZKOA KLASIKA gure herrian antolatuz.

## XXIII. GIPUZKOA KLASIKA

Proba hau 2017ko Apirilaren 23an burutu zen junior mailako txirrindu proba da. Goian aipatu bezala, partaidetzaren nibela igo asmoz, urteroko Elkartu Nahi T.E. Saria alde batera utzi eta Gipuzkoa Klasika antolatzeko aukera izan dugu aurtengoan. Klasika hau, Espainiako probarik garrantzitsuenetarikoa da adin edo maila honetan. Espainia guztiko gazteek artzen dute parte bertan eta baita Ipar Euskal Herriko hainbat taldek ere.

Ibilbideari dagokionean, gogortasun maila igotzeko, portu gehiago eta ibilbide luzeagoa jarri ziren, lasterketa ikusgarriago bat gauzatu. Lehen kilometroak nahiko lauak izan ziren arren (Idiazabaldik 3 itzuli), ondoren Liernia, Atagoiti, Aztiria eta Barbariko portuak pasa behar izan zituzten jarraian helmugara iritsi baino lehen.



Txirrindulariak helmugan sartzen jubenilen mailako Gipuzkoako Klasika jokatu zenean.

Probaren garailea, Euskal selekzioko Unai Iribar, tolosarra izan zen 4 laguneko taldetxo batean, esprintean gailenduz.

## II. ZEGAMA SARIA

Proba gazte hau 2017ko Ekainaren 3an gauzatu zen. Herriko eta inguruko gaztetxoei txirrin-dularitza ezagutu eta probatzeko aukera emateko asmoarekin sorturiko proba da eta helburu berarekin jarraitzen dugu aurrera eramaten. Bertan Benjamin, Infantil eta Alebin mailako gazteek hartu zuten parte, eta beraien artean hiru herritar izan genituen, Ander Otegi, Adur Arrizabalaga eta Haitz Goia. Ibilbidea, iaz bezala, herriko hainbat auzotatik igarotzen zen zirkuitu bati bueltaka izan zen.

## LXXXVI. SAN BARTOLOME SARIA

2017ko Abuztuaren 27an gauzatu zen Elite eta 23 urtez azpikoen lasterketa. Hau, Torneo Euskaldun izeneko txapelketarako puntuagarria da. Urteroko moduan herriko jaietako azken igandean ospatu zen eta "Fundacion Euskadi" taldeko Marc Buades izan zen garaile.

Ibilbideari dagokienez, aurreko urteko bera izan zen. Zegaman irten eta bi itzuli Idiazabalgo herritik, ondoren beste bi jarraian Lierniako gainetik, eta beste bat Aztiriako gainetik, Ormaiztegitik barrena igoaz. Aztiriako igoera honen ondoren, Barbariko igoera egin eta bertatik helmugara etorri ziren txirrindulariak.

## II. ZEGAMAKO MENDI DUATLOIA

2017ko azaroaren 4an gauzatu zen bigarren urtez proba hau. Azken 4 urteetan, herriko hainbat gaztek osaturiko, ELKARTU NAHI T.E. - ZEGAMA taldea aritu da modalitate honetako Euskal Herriko kopan parte hartzen gorengo mailan

eta aurtengoan ere, kopa honetako proba bat

Zegamara ekartzeko aukera izan dugu. Ekitaldi honetan gainera, herriko taldeko Aitor Perez izan dugu garaile eta arratsaldea biribiltzeko, taldekide guztiek eginiko lan izugarriari esker, taldekako sailkapena ere irabaztea lortu zuten herritarren aurrean.

## VI. ZEGAMAKO SAN SILVESTREA

Azken urte hauetan egin bezala, aurtengoan ere, Abenduaren 31rako San Silvestre proba antolatzeko lanetan gabiltza. Herritarren artean, gustukoa delakoan, arratsalde polit bat pasatzeko eta korrikarako afizioa duten herritarrek aprobeitza dezaten, betiko ibilbidean, giro polit batean, gauzatuko da proba.

Aipatutako ekintzez gain, Elkartu Nahi T.E.-k beste ekintza batzuetan ere lagundu du, esaterako herriko jaietan, herritarrentzat antolatzen den, Apeaderorako txirrindu igoeran eta Olaberri auzoko jaietan azken urteetan galdurik zegoen, gaztetxo txirrindu lasterketak berreskuratzen.

Amaitzeko Elkarte honetako kideek eskerrak eman nahi dizkiegu proba hauek egiten laguntzen diguten herritar eta lagun guztiei, eta baita laguntza ekonomikoa ematen diguten enpresei ere. Mila esker eta urteberri on!!



Zegamako mendi duatloiko partaideak.

# UXUA BARANDIARAN

(Beasain, 1982)

Aurtengo denboraldian ere izugarri gozatu dut gehien gustatzen zaidan kirolaz, mendian eta batzuetan baita errepidean ere korrika eginaz. Lesiorik ez dut izan eta honi esker aurreikusitako lasterketak gorabehera gehiegi gabe bukatzea lortu dut. Azaroan egiten den Behobia-Donostia izaten da nire urteko egutegia itxi duena eta, urtero

bezala aurten ere, garai sasoi honetan pixka bat bat atsedean hartzea tokatzen zait indarrak hartu eta urte berriari berriz ere gogor ekiteko.

Mendi karreren denboraldia luzea izan da, tartean sariren bat edo beste edo irabazi dut. Baina guztietan bereziena noski, etxean ospatzen den Zegama Aizkorri mendi lasterketa izaten da niretzat.

- Trasierra herrian (Kantabria) ospatzen den Marcha del Norte mendi lasterketan 3. emakumezkoa
- Xabier Mendizabalen omenez ospatzen den Arriarango mendi lasterketan 3. emakumezkoa
- Trail Mallos de Riglos (Hueska) lasterketan 2. emakumezkoa
- Jerte (Caceres) herriko Garganta de los Infiernos lasterketan 2. emakumezkoa
- Tirvia (Katalunia) herriko La Rivalera mendi lasterketan 1go emakumezkoa
- Uztailen XIII Aztiriko mendi lasterketa 2. emakumezkoa
- Trail solidario Cóbreces (kantabria) 3. emakumezkoa
- Bande (Galizia) herriko mendi lasterketan 1go emakumezkoa
- Ferrol-go (Galizia) mendi lasterketan 1go emakumezkoa
- Orreaga Zubiri lasterketan 4. emakumezkoa
- Eltxo trail luzea 4. emakumezkoa



Uxua maratoni batean.

Besteak beste, lasterketa hauetan ere partu hartu dut aurten:

LIII. Behobia Donostia lasterketa, Axari Trail, Segura Zerain mendi lasterketa, Bera Bidasoa, Antzuolan, Idiazabalgo San Blas lasterketan eta Garingo mendi lasterketa.



Jon Arakama txirrindu laisterketa batean.



Jon Arakama podiumean.

## JON ARAKAMA



Jon Arakama herritarrak txirrindularitzan tinko jarraitzen du. Aurten jubenilen mailako lehenengo urteko kategorian korritu du eta hona hemen lortu dituen emaitza esanguratsuenak:

### PISTAKO FROGETAN LORTUTAKO EMAITZAK

Bioracer challenge frogan 5. postua

Gipuzkoako kopan 1. postua

Españiko txapelketan, 1. Postua taldeko jazarpenean eta 5. Postua bakarkako jazarpenean.

### ERREPIDEKO FROGETAN LORTUTAKO POSTUAK

Mutrikuko frogan 7. postua

Aratzazuko igoeran 7. postua

Mendiko kriteriumean 8. postua

Obanoseko frogan 5. postua

# ORKATZ ABESBATZA



Jadanik burura datorkigu iragan dela 2017. urtea. Jarraian jasoko ditugu hurrenez hurren urtean zehar jorratzen joan garen musika eta abestiaren inguruko ekimenak.

Otsailaren 4an, herritarrekin batera Santa Ageda bezperako kopia eta bertso saioa izan zen ohitura zahar eta usadioei jarraituz.

Hurrengo ekintza, martxoaren 4-5eko aste bukaeran izan zen. Orkatz taldeak, bertako partaideak eta zuzendaria elkar ezagutzeko eta harremana sendotzeko, Barriara egin genuen irteera. Bertan, urtero ospatzen dugun Batzar Orokorra ere egin genuen, 2016ko plangintza eta aurrekontua onartzearekin batera, lan guztien ekintzaile eta arduradun nagusi den Gida Batzordea berrituz.

Apirilaren 1 eta 2ko asteburuan, Orkatz Txikiko partaide batzuk Hondarribiko Aterpetxean Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak antolatutako tailerlean

parte hartu zuten, asteburua kontzertu zoragarri batekin amaitu zutelarik.

Aste santutan, ohikoa den bezala, apirilaren 14an Ostiral Santu egunez, San Martin Parrokiko Aste santuko ospakizunean parte hartu genuen. Horrela, ohiturazko "Hil da Jesus" abestia abestuz, beste zenbaiten artean, Dorleta Alzelai organo laguntzaile zelarik.

Datei jarraituz, hurrengo ekitaldiaren protagonista Orkatz Txiki abesbatza izan zen. Maiatzaren 5ean Ordizian kontzertu bat eman zuen bertako Urdeneta ahotsak abesbatzarekin batera Ordiziako parrokan.

Maiatzaren 21ean, San Martin parrokan Lehen Jaunartzeen ospakizunean parte hartu zuen Orkatz Txiki abesbatzak.

Ikasturteari amaiera emateko, herriko Murgi-Zelai parkean arratsalde paregabea pasatu genuen elkarteko kide guztiok ekainaren 24an. Festari txistulari eta danbor-joleekin eman

genion hasiera, eta koruko partaide batzuen eskutik txarangatxo bat osatu genuen, bertan burutu genituen jokoak musikaz apaintzeko. Arratsaldeari meriendatxo batekin eman genion bukaera kantu eta algara artean, umore eta talde giro gozoan.

Ondorengo ekintza Orkatz abesbatzak Aralarreko Done Mikelen santutegian eskainitako kontzertua izan zen. Bertako kontzertua goxoa eta hunkigarria izan zen eta eguna borobiltzeko Arbizun bazkaldu genuen.

Herrian eginiko hurrengo ekimena urtero egiten den Adinekoen Eguneko Mezan abestea izan zen, uztailaren 9an. Orkatz abesbatzak hartu zuen parte elizkizunean.

Udarekin batera oporraldia eta ondoren herriko festetan, San Bartolome egunean, hots, abuztuak 24an, Meza Nagusian abestu zuen Orkatz abesbatzak.



Libe Galdos pianoa jotzen.



Orkatz Abesbatzak San Migelen kontzertua eman zuen.

Irailean ikasturte berriari hasiera eman genion bi abesbatzek. Ikasturte honi hasiera Orkatz abesbatzak, Azaroak 18an Iruñean ospatu zen Eskualdeetako Abesbatzen IV. Topaketa-ekin eman dio. Bertan musika esku harturik Iruñeko Diver-timento abesbatza eta Biarri-tzeko Itsasoa abesbatzak bat egin genuen.

Etengabeko emanaldien soka honetan, azaroaren 25ean Santa Zezilia ospatuz Orkatz Txiki eta Orkatz abesbatzok beren azken hilabeteetako lana plazaratu dugu.

Idazten aritutako garaien urte bukaerarako pentsatutakoak ondorengoak lirateke. Ekintza

guzti hauek borobiltzeko emanaldirik kuttunena dugu ondorengo. XXXIII. Eguberri Jaialdia. Aurtengoan abenduaren 22an gauzatuko dugu ostirala asteburuko egunak jai bereziak direlako. Denok gonbidatuta zaudete!

Ohiturei jarraituz, abenduaren 24an Olentzerorekin batera kantu eskean aritu ginen herriko kaleetan gabon abesti eta giro ederrean.

Gabon egunen inguruan, urtero lez, Orkatz Txiki abesbatzako haurrak Zegamako eguneko zentrokoei eta Segurako zaharren egoitzan daudenei arratsalde eder bat pasa eta elkarrekin musikaz gozaten izango dira. Gauza bera Orkatz abes-

batzarekin, hauek Beasaingo Zaharren egoitzan egingo dutelarik. Bisita hauetan Olentzero eskean jasotako diruarekin erositako opari bana ematen zaie zentro hauetan daudenei.

Amaitzeko, aurrera egiteko gogoak mantentzen gaitu eta kide diren eta izan diren, lagun diren eta izan diren, edo zareten asko eta askoren bultzadarekin ea horrelako ekimenak egiten jarraitzen dugun. Elkartek guztion beharra du eta abeslari bezala zein lagun bezala parte hartzeko gonbitea luzatu nahi dizuegu herritar orori. Horrela bada, eskerrik asko denoi eta Urte Berri on!!!

## ODOL EMAILEEN ELKARTEA

2017an zehar bi odol emanaldi izan ditugu Zegaman. Lehengoa urtarrilaren 13an egin zen etaa bertara 37 odol-emaile hurbildu ziren. Bigarren emanaldia irailaren 29an egin genuen eta bertara 38 emaile hurbildu ziren. Odol-emaileen elkartetik eskerrak eman nahi zaizkizue egun horietan bertaratu zinetenoi eta hurrengoetarako emaile berriak animatu parte hartzen has daitezten.

Bestalde, aurtengo Goierriko odol emaileen ordezkarien batzarra Ormaiztegin egin zen eta esan bi zegamarrek jaso zutela diploma. Alde batetik Kontxi Manzanalek 40 aldiz odola eman ondorengo diploma jaso zuen eta Juan Mari Ormazabalek, 75 aldiz odola eman izanaren diploma jaso zuen. Zorionak bioi!.

### JUAN MARI ORMAZABAL

#### Noiztik izan zara odol-emaile?

1979-1980. urtetik gutxi gorabehera.

#### Garai hartan ebakuntzaren bat eduki ezkeru nola lortzen zen odola?

Ebakuntza aurretik pertsona ordezkioak eramane behar izaten ziren odola ematera.

#### Zergatik eman duzu hainbeste aldiz odola?

Bere garaietan ni beharrean izan nintzen eta horren ondorioz ni hasi nintzen beste laguntzen.

#### Zein adinetako jendeak ematen du odola orokorrean?

Odola emateko muga 18tik 65 urte artekoa da. Zegaman orokorrean, adin guztietakoak ematen dute.

#### Zer esango zenioke odola ematera animatzen ez denari?

Ekintza oso ona dela eta inoiz ez dakigula noiz izan behar garen beharrean.

#### Zegaman odola urtean zenbatetan ematen da?

Aspalditik urtean 3 emanaldi egiten dira normalean.

#### Zegamako odola emateko zita gaizki datorkionak ba al du beste aukerarik beste herriren batean emateko?

Donostiako odol emaileen elkartearen edota inguruko edozein herritan.

EDURNE ALBIZU



# XABIER ARAKAMA RUIZ DE EGINO

Zegamako musikaria gelditu gabe ibili da aurten bere trikitiarekin. BOIKOT taldeko partaide da 2015etik eta urtero bezala, Espainiako estatuan osoan eskaini dituzte kontzertuak, jaialdi handietan: Viñarock, Weekend Beach Festival, Rabo Lagartija, Iruñarock, Pintor Rock, Juergas Rock, Acampada Jove, Festivern.... Aurten gainera, Frantzia ere ibili dira jotzen pare bat alditan eta azaroaren bukaeran Colombia eta Venezuela aldera ere joatekotan ziren, baina azken momentuan bertan behera gelditu da bira taldekide baten gurasoetako baten heriotza dela eta.

Urte hasieran "Jarama" bideoklip berria aurkeztu du taldearekin batera, Dublin eta Belfast-en grabatua izan zena aurreko urtean. Bideokliparekin batera, izen bereko laburmetraia aurkeztu zuten. Espainiako guda zibilean Madril inguruko Rivas herrian dagoen Jaramako zubiaren inguruan nazionalen eta errepublikanoen artean gertatu zen "La batalla del Jarama" borroka odoltsu eta ezagunari buruz doa laburmetrai hau, non irlandar brigadistak ere borrokatu zuten faxisten aurka. Aipagarria da taldeak ekoiztu duen laburmetrai honek oso harrera ona izan duela aurkeztu duten antzokietan eta pare bat sari ere jaso dituztela zinema lehiaketa txikietan.

Xabik kontzertu berezietan ere parte hartu du 2017an zehar. Esanguratsuena, Hatortxurock 20an izan zen, uztailaren bukaeran Lakuntzan ospatu zen makro-jaialdian. Bertan, DAKIDARRIA galiziar ska taldearekin kolaboratzeaz gain, BETAGARRI talde aski ezagunaren agurrezko kontzertuan jo zuen gonbidatu berezi gisara, OBRINT PAS taldeko beste bi kiderekin batera, Xavi Sarrià eta Miquel Gironés. Gasteiztarren kontzertua oso hunkigarria izan zen, 20.000 inguru jarraitzaileen aurrean.

JOSHUA EDELMAN New Yorktarrarekin ere jazz munduan murgildua jarraitzen du Xabik han eta hemen kontzertuak eskainiz, Joshuaeren abilezia eta sormenari bere trikitiaren doinu alaiak uztartuz. Kontzertu bereziak eskaini ditu Madrilan, Bilboko Campos Eliseos antzokian, Jazz Cultural Theatre of Bilbao gunean....

Duela pare bat hilabete, Ibai Arrizabalaga zegamar gitarra jole gazteak proposamen polit bat jarri zion mahai gainean: Zegamako beste hiru lagunekin batera (Urko Agirre, Ander Orue eta Santos Regil) rock klasikoaren cover talde berri bat sortu zutela eta bertako baterijole izatea. Talde honek entseguak eta prestakuntzak Tobera musika eskolan egiten ditu, bertako gitarrako irakasleak zuzenduta. Era berean, Xabi bertako irakasle izaten jarraitzen du, trikitiba, panderoa, bateria eta perkusioko klaseak ematen dituelarik.



# AMEZTI ELKARTEA



2017. urtea ere amaitzean den honetan, urtean zehar burututako ekimen eta jardueren gogorapena eta idazketa presatzea dagokio Amezti Elkarteari. Egia esan hainbat gai urtero errepikatzen badira ere, ilusio berrituarekin eta gogo betez egiten direla azpimarra behar da. Herrigintza guztion zeregina dela garbi izanik eta Amezti Elkartek ere filosofia horrekin bat eginik, eragile xume moduan, eguneroko lanean dihardu, Zegama eraikitzen, gorpuzten. Honenbestez, urtean zehar izandako albiste eta aipagarrien laburpena jasotzen da jarraian.

## MUS TXAPELKETA

Amezti Elkartek Urtarrilaren 28an ospatu zuen ohikoa den urteroko mus txapelketa. Parte-hartze handia izan zuen lehiak, Jon Irastorza eta Unai Aierbe izan zituen garaile, finalen Aitor Azurmendi eta Iñaki Collado garaitu ondoren.

## ZUZENDARITZA BATZORDE BERRIA

Apirilaren 29an ohiko batzarra egin zen. Bertan, besteak beste, zuzendaritza batzordeko hiru kideen aldaketa ebatzi zen. Hain zuzen ere, Juan Berasategi, Juan Mari Ormazabal eta

Karlos Zuñiga aukeratuak izan ziren zuzendaritza batzordea utzi duten Antonio Morillo eta Xanti Azurmendi ordezkatzeko. Julian Iraola eta Emilio Txurrukak osatzen dute egungo zuzendaritza batzordea.

## BAZKIDEEN ARTEKO BAZKARIAK

Uztailaren 15ean eta azaroaren 22an egin ziren elkarteko bazkideen arteko afariak. Bazkide ugari elkartu zituen anaiarteko giro ezin hobean egin ziren bi otorduak eta solasaldi atsegina eta dibertigarriak egiteko aukera ederrak bilakatu ziren.

## BEREZIARTUA SAGARDOTEGIRA IRTEERA

Maiatzaren 6an Bereziartua sagardotegira irteera antolatu zen. Bertara herriko 30 lagun autobusez joan ginen sagardoak dastatzera giro paregabe.

## HERRIGINTZA

Herrigintza helburu hartuta, Amezti Elkartek hainbat ekitaldietan parte hartu du urtean zehar. Hain zuzen ere, San Bartolome jaietako paella lehiaketan bi bikoteekin parte hartzen du (aurtengoan Patxi Arrizabalaga eta Juan Mari Ormazabalek osatu dute bikote

bat eta Andres Lucas eta Iñigo Aizpeolea (besteak beste), goizetan Udaleko kale garbitzeaz arduratzen den lantaldeari gosaria prestatu eta zerbitzatzen zaie eta afizionatuentzat antolatzen den txirritu-

lari frogako antolatzaileentzat luntxa prestatu eta zerbitzatzen zaie. Halaber, Aizkorriko Lagunen Egunean, Zegamako beste elkarteekin batera, baserriko oilaskoa parrilan erretzen eta herritarren artean banatzen laguntzen du eta San Martin ferian ere gazta eta ardoa banatzen ditu.

## ZEGAMA-AIZKORRI MENDI MARATOIA

Maiatzaren 28an, Munduko Koparako puntuagarria izan zen Zegama-Aizkorri Mendi Maratoia ospatu zen. Frogako zuzendaritza teknikoaren ardura izanik, Alberto Aierbe eta Ainhoa Txurrukaren zuzendaritzapean, 500 bolondresen lana koordinatu zuen aurten goan ere Amezti Elkartek.

Zegama-Aizkorri Mendi Maratoia lehen aldiz ospatu zen 2002. urtetik gaurdaino Amezti Elkartek Zegamako Udalarekin lankidetzan burutu du antolakuntza lana. Testuinguru honetan, Zegamako Udalak eta Amezti Elkartek lankidetzaz hitzarmena adostu dute, funtsean, koordinazioa eta eraginkortasuna helburu izanik.

## CAVA FESTA

Urriaren 27 eta 28an Zegamako polikiroldegian ospatu zen laugarren Cava Festan, udalerriko beste elkarteekin batera parte hartu zuen Amezti Elkartek. Jakina da Zegamako herriak Sant Sadurni D,Anoiarekin 1989tik gaurdaino duen harreman estua. Herriko elkarte guztien eta Zegamako Udalaren auzolan bateratua eta Sant Sadurni D,Anoiarekin dugun senidetza izan dira egitasmo honen ardatzak. Ospakizun arrakastatsua izan zen eta arratsaldeko 19,00etatik goizeko 1,00ak arte luzatu ziren bi jardunaldietan jende ugari bertaratu zen.



Mus txapelketako irabazleak

# AMEZTI MENDI ELKARTEA



Ohartu ordu-rako iritsi zaigu urte bukaera eta honekin batera urtean zehar egin ditugun irteeren azterketa egiteko unea. Hona hemen urtean zehar egin ditugun mendi - irteeren zerrenda eta aipatzekoak:

Urtarrilean, urtero bezala, Iruñako rokopolis eskalatzeko aretoan izan ginen Aitxuri Herri Eskolako ikasle eta gurasoekin. Umeak bertan horren gustura ibiltzen direnez, udalari Zegaman rododromo gune bat jartzea proposatu zitzaion eta horrela izango da.

Mendi irteerei dagokionez, urteari hasera Altxo-ra joanez eman genion. Lehenik, Otsabio gainean izan ginen (801m). Beherako itzulerakoan, "Altxoko pago" ezaguna bisitatu genuen. Pago hau, 1836 urtean Manuel Antonio Imaz bertsolariak landatu zuen eta iazko Europako zuhaitz ikusgarrien artean hautatua izan zen. Enborraren perimetroa 6,8 metrotakoa, garaiera 22,7 metro eta adarraren zabalera 28 metrokoa da. Behin herrira iristean, Miguel Joakin Elizegi-ren, "Altxoko handia edo erraldoia" bezala ezaguna, monumentua ikusi genuen, non bere altuera errealekoa den, 2,42 m. (urte bukaeran bere filma ere ezagun egin da eta oihartzun handia hartzen ari da).

Otsailean, Kantauri itsaso alde-rantz gerturatu ginen, Pagoeta



Lagran - Cruz de Castillo

Natura Parkera. Aiako herritik irtenik, 22km-tako ibilaldi zirkular bat burutu genuen. Burnigurutzeko begira gunea, Beho rbarrutiko hagina (berau 14m-ko altuera eta 200 urtetik gora dituen zuhaitza), Elutsaundi igaroz, Pagoetako gurutzera igo ginen. Ondoren Urdaneta auzora eta han dik Altxola-ra. Azkenik, Etxetabaila eta Ikazkilartetatik barrena, berriro Aia-ko erdigunera itzuli ginen. Aipatu, hase-rako zatian Gipuzkoako Orientazio Taldeko proba bat egiten ari zirela, eta beraiekin elkarrizketa batzuk partekatu genituen. Uztai-lean Zegaman antzeko frogak ere izan zen.

Ondoren San Pedro auzoan dagoen "Aristerrazu" erromeri ezagunak egiten diren Andotzako jatxera jaitsi ginen egunari bukaera dantzaldi eder batzuk eginez eman asmoz. Zoritxarrez, garazegi iritsi ginen, trikitixa jaialdia beranduago hasten zen eta beste baterako utzi genituen fandango eta

arin-arinak. Lastima, bat baino gehiago euren dantza abileziak erakusteko gogoz gelditu ziren!!!

Martxoan, Bizkai aldera jo genuen, Durangaldeko mendietara hain zuzen ere, Aramotz mendilerroa. Mañaritik gora, lehenik Mugarra (964m) tontorra egin genuen. Mendikatearen ezkerrean gelditzen den Anbotoren moduan harkaitzez osaturiko paisaia ederra du bukaeran, non eskalatzeko ere erabili ohi dena. Ondoren Artaxagan (998m) eta amaitzeko Leungane (1009m) igo ondoren, berriro abiagunera itzuliz. Hasieran laino pixka bat izan bagenuen ere, goiza aurrera joan ala zeruan eguzkia gailentzen joan zen eta eguraldi ederra lagun burutu genuen jarduna. Bertan bazkari legea egin ondoren, Anbotopeko Axpe eta Arrazola-tik zehar turismo pixka bat egiteko aprobetxatu genuen, non "isiltasuna entzun egiten den" jatetxe bihurtutako baserrira ere iritsi ginen, adibide moduan.

Maiatzean 14an, Aiako Harrietan barrena izan ginen. Aritxulegiko gainetik abiatuz, Erroilbide, Txurumuru eta Hirimugaeta tontorrak igaroz, Elurretetik berriro abiapuntura itzuli ginen. Tartean, Erlaitzgo mendi lasterketa zegoen eta partaideak animatzeko aukera izan genuen. Eguraldi ederra lagun, benetan



Nerbioi jaoitza

paisaia bikainaz disfrutatzen aukera izan genuen, Donostia, Hondarribi eta Baiona aldeko itsasoa alde batetik, eta Gipuzkoa nahiz Nafarroako zelai, baso eta mendiak bestaldetik. Eskalada praktikak egiteko aukera ere izan genuen tarte batzuetan.

Maiatzaren azken asteburuan, K.Bertikala eta Zegama-Aizkorri Maratoiko antolakuntzan buru belarri murgilduta ibili ginen urtero bezala.

Ekainean, Sabiñanigo eta Gasteizko Mendaur taldeekin batera, arabar Errioxan izan ginen. Lagran herritik abiatu, La Cruz de Castillo gaina igo eta Laguardiara jaitsi ginen. Ardoaren erdigunean egonik, ezin ginen bertako zuku eder hori dastatu gabe itzuli eta La Huerta Vieja jatetxean bapo bazkaldu ondoren, "pozik eta kantari" itzuli ginen etxerantz.

Uztailean, Aizkorriko lagunak eguna ospatu dugu urteroko moduan, batzuk herritik oinez joanez eta besteak Aldaolatik, denok batera tontorrean kaba-ekin Txin-txin eginez.

Xerpa lanetan ere ibiltzea tokatu zitzaigun uztailaren 15ean, Aizkorri Bizirik taldekoekin batera, Aizkorriko aterpean jartzeko marko berria eta konpondutako ate zaharra jaso genituen Askiola gainetik abiatuta

Uztailak 22 eta 23n, Gorobel mendi lerroan izan ginen (Sierra Salvada). Larunbatean Goiuri eta Nerbioi-ko ur jauziak ikusten izan ginen. Uda parteko lehortea zela

eta, urik ez zegoen baina paisaia ederrak ikusteko aukera izan genuen. Ondoren Artziniegan izan ginen, bertan santutegia eta artea ezaguna ikusiz. Orduñako erdigunean geneukan lo egiteko ostua eta bertako etxeak andreak ederki zaindu gintuen aholku zein aginduak eman ere bai. Firme, jarri gintuen denok!!!, Igandean, Txarlarzo, Txolope, Soliera, Bedarbide eta Tologorri gainak igaro ondoren, Orduñako igerilekuetan bazkaldu genuen meriendatzeko orduan.

Irailean, Kantauri Itsas-ertzetik ibili ginen. Hondarribi-Pasaia. arteko ibilbide ederra egin genuen, Talaia bidea bezala ere ezagutzen dena. Higer itsas muturretik irten eta itsas-ertzetik joan ginen bide erdia egin arte. Ondoren GRa jarraituz. Jaizki-belgo gainera igo genuen, gero ikus leiho edo "dorreei" jarraituz Pasai Donibane-ra iritsiz. Benetan pena merezi duen ibilaldia, nahiz eta nahiko luzea izan.

Dagoneko hirugarren urtez, bailarako "5 herrien arteko ibilaldia" antolatu dugu, aurtengoan Mutiloan zehar, beraien izenak direlarik gidari. Lehenik Liernira joan ginen, handik bide berdea hartu eta Urteagatik gorantz Aztirira eta hemendik Aizpuruko tontorrera Bertan hamaiketako egin ondoren, Mañastegi-zahar inguruan aitzinako meategi bat bisitatuz, Barrenolara jaitsi, berriro Mutiloako plazara iritsiz. Euskal Herrian ohitura den bezala, mahai inguruan bukatu genuen, Txerri-Gorri elkartearen, senidetzea ederrean, bost herritako kideak bazkalduz.

Urrian, Nafarroa aldean izan ginen, Malerrekan hain zuzen ere. Beintza-Labaien herrian zentratu genuen abiapuntua eta Lurtzako urtegiatara igo ginen. Ondoren Soratxipi eta Eragorri gainak igo ondoren ibilbide zirkular bat burutuz, berriro abiagunera iritsiz. Herritik buelta bat eman ondoren Donamaria-ra joan ginen. Bertan, ikusteko moduko zenbait eraikuntza daude, dorretxea, elizako kanpandorre biribila eta lekameen santutegia. Aipatu, bertan Euskadi Irratiko "Argi ibili" saioan, beste zegamar batzuen moduan, parte hartzen duen Olatz izeneko klausurako lekame azpeitiarra ezagutzeko aukera izan genuela. Turismo bira bukatzeko, Donezteben izan ginen.

Azaroan, Aizkorri-ko mendi lerroaren beste ertzean izan ginen, Aloñan. Eguraldi txarra iragarrita zegoenez, jende gutxi elkartu ginen herriko plazan Eguraldi onarekin edonor joaten dela mendira eta, 4 mosketero behintzat ausartu ginen. Honela, Oñatirantz irten ginen goizean goiz. Urtiagandik abiatuz egin genuen Aloñako itzulia, eta esan beharra dago, ez zuela horren eguraldi txarra egin. Argi dago, badaezpada jaiki egin behar dela zer eguraldi dagoen ikusteko, ez lehenengoan kokildu eta ohean gelditu!!!

Urtero moduan, abenduan, taldeari izena ematen digun mendia eta bertan jarrita daukagun buzoari bisitatzea eginez, Aitxuri Herri Eskolako ikasle eta gurasoekin, Amezti izan ginen. Itzuleran Urretaneko mutilek preparatu ziguten eta bene-benetan eskertzen dugun hamaiketako egiteko aukera izan genuen.

Eta urteari amaiera polit bat emateko Aizkorriko puntara joango gara, datorren urterako indarrak hartuz kaba pixka bat edanez.



Pasaia Hondarribi



# TARTALOETXE KULTUR ELKARTEA



## ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

Bai, 2017a ere joan zaigu, urteak etorri eta joan egiten omen dira, hala ere ba da dioenik urteak gelditu egiten direla, alegia, pilatzen joaten zaizkigula. Bat dela edo bestea dela aurtengo urteari ere begiradaxo bat emateko garai ailegatu dela gogoratu digute urtekaritik.

Beti bezala, esan dezakegu, Tartaloetxetik, urtean zehar parte hartzen dugun edo antolatzen ditugun ekimenak berdintsuak izaten direla urtero: Preso, iheslari eta senideen aldeko elkartasun ekimenak; gastronomi lehiaketak; herri kirolak; Mus txapelketak; beste elkarteekin baterako ekimenak; Txakolin dastatzea, urte zahar eguneko gaztañada... Bestalde Tartaloetxe Pilota elkarteak osatu duen aurtengo urtea ere ez da nola nahikoa izan. Hala ere aurten, bereziki, berri pozgarri batek alaitu gaitu,

urriaren 21an, 18 urte preso eduki ondoren, kalera atera zen Tartaloko bazkide dugun Arkaitz Saez Arrieta, zorionak! Aldi berean, antolatutako ekin-tzetan parte hartu eta laguntza eman duzuen herritar guztioi eskerrak eman nahi dizkizuegu. Beraz, mila esker eta urte berri on guztioi! Besterik gabe, has gaitezen bada, urteari errepa-sotxoa egiten.

## KATALUNIARI ELKARTASUNA

Katalunian gertatzen ari diren errepresio eta giza eskubideen urraketen aurrean Tartaloetxetik ere gure elkartasuna adierazi nahi izan diegu, honela hainbat aldiz izan ditugu gure elkar-tean hainbat herritar katalan, zinegotzi... beraien ikurra jarria dugu Tartaloetxen... kazelo-rada eta beste hainbat mobili-zazioetan parte hartu dugu... Catalunya-Euskal Herria *dues nacions una mateixa lluita: Independència*.

## IPARRA HEGOA

Seguran iparraldeko eta hegoaldeko euskaldunok biltzeko eta elkarren arteko hartu emana zabaldu eta sendotzeko asmoarekin XXII. Iparra-Hegoa egitasmoa izan genuen 2017an. Aste guztian zehar hainbat ekitaldi antolatzen dituzte. Euskal Herri osoko kultura, arazoak, hizkuntza, ohiturak, ondasunak... ezagutzeko, zabaltzeko eta trukatzeko okasio interesgarria izaten delarik. Urteroko legez, azken egunean, apirilak 2 igandea, beste ekitaldi batzuen artean, Euskal Herriko hainbat elkar-teen artean, haragi egosiaren prestaketa-leiaketa antolatu ohi da. Dagoeneko urte batzuk ba dira Tartaloetxetik bertan parte hartzen dugula, horrela aurten ere hiru lapiko eder prestatzen parte hartu genuen Iparra-Hegoa egitasmoaren alde. Saririk ez genuen ekarri baina bertan bizi izandakoarekin pozik geratu ginen.

## KORRIKAREKIN BAT

Euskara sendotu eta zabaltzeko asmoarekin, dagoeneko 37 urte luze ba dira KORRIKA abian jarri zela, 1980an, AEKko euskal militantek bultzatuta. Zenbat, sentipen, pasadizo eta zer esan utzi digu ordu ezkerero. Aurten 20. aldia zen Korrika abian jarri zenetik, bi urtez behin egiten den lasterketa sinbolikoan, apirilaren 8an, Tartaloetxetik ere ekarpen ekonomikoa ez ezik bertan parte hartuz ospatu genuen euskararen aldeko aldarrikapenean. Bai, pasa dira 42 urte



Tartalo elkartea.



Tartalo elkartekoak Korrikan parte hartu zuten.

Francisco Franco hil zela eta oraindik euskara indartzeko diru eskean ibili behar.

### ELKARTASUN EGUNA

Aurtengo San Bartolome jaietan ere ez ditugu ahaztu nahi izan preso, iheslari edo beraien senideak. Hauei herritarron elkartasuna adierazteko asmoarekin abuztuaren 22ko Herri Afariaren antolaketan Tartaloetxetik ere parte hartu genuen. Bertaratu ginen herritarrak afaria ez ezik giro ederrean eguna bukatzeko aukera izan genuen.

### SAN BARTOLOMETAN PAELLA LEHIAKETA

Urteroko usadioari jarraituz, aurtengoan ere San Bartolome jaietan ospatzen den elkar-teen arteko paella lehiaketan parte hartu ez ezik bigarren saria ere eskuratu zuten, Tartaloetxe ordezkatzera joan ziren, Nekane Arantzamendi eta Anartz Goiak osatutako sukaldari bikoteak. Zorionak!

### MUS TXAPELKETAK

Tartaloetxen, otsailaren 4ean, hamaika bikotek jokatu zuten, Zegamari zegokion Euskal Herriko Mus Txapelketarako kanporaketa. Guztietatik Koldo Otaegi eta Aitor Azurmendi Roki atera ziren irabazle, Iker Goiburu eta Aitor Arakamari finala irabazi ondoren. Zegamatik, Gipuzkoako txapelketara bi bikote hauek sailkatu ziren.

Aldiz, urtero, Tartaloetxe elkarteak antolatzen duen mus txapelketak mende laurdena bete du aurtengoan, bai 25 urte luze. Kanporaketak irailaren 30ean egin zituzten bertaratu ziren 17 bikotek eta urriaren 6an jokaturako finalean Axier Berasategi Berasa eta Axier

Elizegi Txikito izan ziren txapel-dunak; txapel-dun ordezkokoak Imanol Azurmendi Asemendi eta Jabi Telleriak osatutako bikotea gelditu zelarik.

Tartaloetxe kultur elkarteko zuzendaritzatik eskerrak eman nahi dizuegu parte-hartzaile guztioi ez ezik sariak eman dituzuen herriko tabernari, dendari eta lantokiei ere.

### BAT GUTXIAGO

Bai, 18 urte preso izan ondoren, urriak 21 ezker Tartaloetxeko bazkidea den Arkaitz Saez Arrieta, berriro, etxera etorri ahal izan du. Zorionak eta aurrera! Hala ere, Tartalotik, elkartasuna ematen jarraituko dugu ditugun eta Espainiako estatua sortzen ari den beste hainbat preso eta iheslari politikoei ez ezik zigortutako beraien senideei ere.

### SAN MARTIN EGUNEAN TXAKOLIN DASTATZEA

Azken urtetan bezalaxe aurten ere nahi izan dutenentzat txakolin dastatzeko aukera izan dugu Tartaloetxek antolatuta, San Martin peri eguneko eguerdian zehar. Naiz eguraldiak asko ez lagundu, giro ezin hobea sortzen da urtez urte. Aurtengoan ere hainbat txakolin ezberdin dastatzeko aukera izan genuen eta bai dastatu ere; ia ekarritako botila guztiak amaitu ziren.

### GABONETAN ERE PRESO ETA IHESLARIAK GOGOAN

Abenduaren 31ko iluntzean preso, iheslari eta senideei herritarron elkartasuna adierazteko asmoarekin, Euskal Herriko beste ehunka herrietan bezalaxe, urteko azken elkartaraztea egin genuen Zegaman, udaletxeko plazan. Ondoren gaztaina jana antolatzen dugu bertaratzeko garen guztiontzat. Beraz, aurten ere, herritar guztiok gonbidatuta zaudete, abenduak 31ko iluntzean, herriko plazan gaztaina batzuk janez elkartasuna adieraztea errepresaliatuei.

Tartaloetxe kultur elkartetik, herritar guztioi, gonbite berdina pasatzen dizuegu, urtarrilaren 13an Bilbon, SAREK: "Prest gaude, Estamos dispuestos" izenburupean, preso en eskubideen alde antolatu duen mobilizazioan parte hartzera. ETXEAN NAHI DITUGU!!!!

### BESTERIK GABE, HURRENGO ARTE, ZORIONAK ETA URTE BERRI ON HERRITAR GUZTIOI!



Arkaitz Saez Arrieta bere sendiarekin.

# TARTALOETXE PILOTA ELKARTEA

ZORIONAK ETA  
URTE BERRI ON!



Beste urte batez ere hor ibili gara Toki Alai kiroldegiko hormak pilotaz astinduz. Alde batetik, haurrak, telebistan ikusten dituzten goi mailako izarren pausoak segi nahian eta bestalde, gazte federatuak, non Gipuzkoa nahiz Euskal Herrian zehar txapelketa ezberdinetan lehiatzen dabilizanak.

2017 amaiera honetan federaturik ditugun pilotariak honakoak dira:

- **Infantilak:** Aratz Izeta (Ordi-ziako taldean), Unai Barandiaran, Egoi Telleria,
- **Kadeteak:** Iñaki Galdos (Lazkaoko taldean)

- **Nagusiak:** Iban Matxinandiarrena, Unai Atxa, Iñigo Suarez (beasaindarra), Beñat Azketa (beasaindarra), Iñaki Zabala (beasaindarra), Aitor Elizegi (zaldibiarra).

Emaitzei dagokionez, urte oparoa burutu dutela esan genezake, batzuk nabarmen-tzearren honakoak aipatuz:

- **Doneztebe eta Zizur-eko 4'terdiko txapelketa:** (Matxinandiarrena)
- **Zaramagan eta Irunen:** Azketa – Elizegi
- **Oreretan:** Azketa – Arratibel
- **Trinitate frontoian Donostian:** Matxinandiarrena - Elizegi

- **Udaberri txapelketa:**

Suarez – Azurmendi (2.mailan) eta Matxinandiarrena - Elizegi (1-maila); Zabala (4'terdiko eskualdeka).

- **Gatzaga:** Landa – Ormazabal (aurre benjaminak)

Hainbat urtetan eginiko lan onaren fruituak garbi azaltzen dira eta horrelako ume kuadrilla ikusirik, berri pozgarria benetan, etorkizun oparoaren seinale. Segi horrela mutilak!!!

ZORIONAK ETA  
URTE BERRI ON!



Unai Atxa bere pilotako talde kideekin.



Egoi Telleria eta Unai Barandiaran.



Pilota eskolako ikasleak.



Iban Matxinandiarrena Abel Barriolarekin.

# GAZTE HEREXA ELKARTEA

Gazte  
Herexako  
partaideak  
Ostatun  
afari baten  
ondoren.

Behin 2016ko Gabonak bukatuta, eta epe honetan ospatutako bazkari eta kantu eskea atzean utzita, Gazte Herexak 2017 urteari ekin zion.

Zegamako gazte elkartearen urteko lehenengo ekitaldia, otsailaren 24ean izan zen. Egun honetan, herria mozorro ezberdinez eta giro apartaz jantzi zen, inauteriak ospatzeko. Herriko gazteak poteorako bildu ziren herriko tabernetan eta trikitilari bikote bat izan zuten lagun. Ondoren, herriko ostatuan afaria izan zuten. Nahi zuenarentzako, festa polita aurreikusten zen, sari banaketa eta guzti!

Behin neguko hotzak bukatuta, maiatzaren 13an gazte eguna ospatu zen. Eguna, bazkariarekin hasi zen frontoian; eta nola ez, giro aparta sortu zen hurbildu ziren gazte guztien artean. Behin, tripa ondo beteta,

joko ezberdinak eginez pasa zuten arratsaldea. Aurten, berrikuntza izan zen egun honetan, arratsaldeko poteoan elektrotzaranga batek zabaldu zuen festa giroa herrian. Egunari amaiera ostatu afariarekin eman zitzaion.

Aipatzekoa da ere, Gazte Herexak herriko festetan eginiko lana. Denboraldi bat geldi egon ostean, San Bartolome egunean, gazte afaria antolatu zuten herriko frontoian, lehenik triki-poteoan giro ezin hobea zabalduz. Bertatik ordu gutxira, abuztuaren 25ean, Umeen egunean, umeentzako jolasak aurrera eraman zituzten. Goiz honetan, jolasak ez ezik; inguratutako ume guztiek opari bana jaso zuten Gazte Herexa eta Udaletxearen partetik.

Eta azkenik, herriko festetako lanekin bukatzeko, kuadrilen egunean, abuztuak 26, udale-



txeak antolaturiko bazkarian laguntzaile bezala parte hartu zuten. Gazte Herexaren egun honetako eginkizuna, bazkariko tikeen lana aurrera eraman eta bazkariaren ondorengo animazioa antolatzea izan zen; Urteroko legez, dantza txapelketa antolatu zen patioan bazkalostean. Giro ederra izan zen bildu zen jendearen artean.

Zegaman, 4.urtez, urriaren 27 eta 28an Cava festa antolatu zen, herriko talde ezberdinen laguntzaz; tartean Gazte Herexa izanik. Udalak antolatutako ekintza honetan lagundu zuen elkarteak. Giro ederrean ospatu zen ekintza hau ere, beste guztiak bezala.



Herriko gazteak herriko jaietan.



Gazte bazkarian partaidetza zabala izaten da.



Kaba festan, gainerako elkarteekin batera lan egiten dute.



## ANJEL IRIGORASEN LIBURUA

2017. urten Angel Irigorasek "Kalekok" beste liburu bat argitaratu du. Oraingoan, aurrez idatzitako "Herri zapalkuntzaren lekuko batzuk" liburuaren II. alea argitaratu du. Herriko hainbat dendetan eta Anduetza Parketxean dago salgai.

# ZEGAMARRAK ERREALAREKIN

Urriaren 14ean Zegamarrak Realarekin taldea Gasteizen izan zen Alaves-Real Sociedad partidua ikusten. Zegamatik goizeko 10etan abiatu ziren Arabako hirirantz. Bidean, Ozaeta herrian geratu ziren hamaiketakoa egiteko eta indarrak hartzeko zetorren egun politari begira.

Gasteizera iristerako eguerdiko 12ak ziren eta giro aparta zeogen bertako kaleetan. Talde bateko zein besteko zaleak batera ibili ziren tabernaz taberna egunari giro polita emanez. Abesti ezberdinak entzuten ziren bi taldeetako zaleen eztarrietatik ateraz.

Zelaira bidean zale gehiagorekin topo egin zuten eta ia 500 bat realzale bildu ziren Mendizorrotza barruan errealari animatzeko. Bertan jokaturako 3 puntuak errealak eraman

zituena etxera partiduan erabat nagusi izan eta gero.

Urriaren 27 eta 28 an Zegaman IV. Kaba Festa ospatu zen. Asteburu horretan etorri ziren kaba zaleen artean Blancher etxeko kaba zaleak ere hemen izan ziren. Orain dela urte batzuk Zegamarrak Realarekin taldea Bartzelonan izan zenean, besoak zabalik jaso gintuztenaren ordainetan, 28 goizean hamaiketako bat prestatu genuen. Jende asko bildu zen bertan eta opariak ere elkarbanatu ziren.

Azaroaren 8an, Aitxuri Herri Eskolako 3,4, 5 eta 6. Mailako haurrak Zubietara joan ziren Realeko entrenamendua ikustera, Elgoibarko ikastolako haurrekin batera.

Goizean goiz autobusa hartu eta bertara abiatu ziren. Iritsi orduko, hiru taldetan banatu

zituena haurrak, ekintza desberdinak egiteko asmoz, denbora mugatua eta haur guztiek ekintza guztiak egingo zituztela kontrolatuz. Begirale talde bat zegoen ekintzak presatatu eta aurrera eramateko.

Ekintzetako bat jokoak izan ziren. Hiru joko zeuden presatuta: zaku lasterketa, futbola eta brileta.

Beste ekintzetako batean, gela batean sartu eta bideo bat jarri zieten hurrei kirolaren alde onak eta txarrak ikusteko. Bertan, Realaren historia zati txiki bat ezagutu zuten.

Jarraitzeko, eguraldia lagun zegoen unean, Zubietako instalakuntzak ezagutu zituzten; bertako zazpi zelaia, jokalariz gazteak erabiltzen dituzten gimnasio eta gailuak...



Zegamako Erreal zaleak Gasteizen partiduen aurretik.



Erreal zaleak berarekin eramaten dute pankarta historikoa.



Kasinoko Errealzaleek Sant Sadurniko lagunei ongi-entzua eman zuten Kaba Festaren asteburuan.



Josetxo Arizkorreta Blancher kabako nagusiari oroigarria ematen.



Zegamarrak Sevillan izan ziren Errealaren animatzen. Sevillan Loren eta Aperribai presidentearekin.

Zegamarrak Sevillan, Luis Arkonadarekin.

Jarduerak bukatzerako, Realaren lehenengo taldea entrenatzen zen iada Z1 zelaian. Haurrek etxetik eramandako hamaiketako entrenamendua ikusiz jan zuten, pozik eta alai. Batzuk sinadurak eta guzti lortu zituzten momentu horretan.

Ondoren, berriro ere gela batean sartu eta nesken taldeko atezaina den Mari Asun Quiñones eta mutilen atezain den Geronimo Rulli izan ziren haurrekin. Eskolatik prestatuta zituzten galderak egin zituzten, bai batari, zein besteari beraien esperientziez gehiago jakiteko.

Bukatzeko, bi protagonistek kamisetak sinatu zituzten haurrei eta taldeko argazkiak atera zituzten denak batera. Une zoragarriak bizi izan ziren.



Aitxuri Herri Eskolako ikasleak Zubietan izan ziren Errealaren entrenamendua ikustera.



Aitxuriko ikasleak Zubietan jolasak egiten.

## ZENTRO METEOROLOGIKOA

Hemen dituzue 2016ko abendutik 2017ko urrira bitarteko meteorologiari buruzko datu batzuk. Datu hauek, [www.euskalmet.euskadi.net](http://www.euskalmet.euskadi.net) web orritik eskuratu ditugu:

**PREZIPITAZIO GEHIEN EMAN ZEN EGUNA**  
2017-01-10 • **64,0 l/m<sup>2</sup>**

**T. MAXIMOA EMANDAKO EGUNA**  
2017-08-21 • **35,7°**

**T. MINIMOA EMANDAKO EGUNA**  
2017-01-18 • **-4,3°**

**HAIZEAK ABIADURA HANDIENEN EGUNA (Km/h)**  
2017-02-12 • **118,9 km/h**

### ARGIBIDEAK

**Prezipitazioa l/m<sup>2</sup>** Euria, m<sup>2</sup> bakoitzean zenbat litro.  
**T. max (°C)** Temperatura edo hozberorik altuena.  
**T. min. (°C)** Temperatura edo hozberorik baxuena.  
**Haizea abiadura (Km/h)** Haizearen indarrik handiena.  
**Hezetasun erlatiboa (%)** Hezetasun handiena.

	Prez. (l/m <sup>2</sup> )	T. max. (°C)	T. min. (°C)	Haizearen abiadura (km/h)	Hezetasun erlatiboa (%)
Abendua 2016	16,2	17,1	0,2	78,7	96
Urtarrila 2017	32	15,4	-4,3	102,7	96
Otsaila 2017	153,6	18,9	1,3	118,9	95
Martxoa 2017	113,5	26,1	2,5	77,6	95
Apirila 2017	73	26,5	2,2	59,3	92
Maiatza 2017	66,7	33,8	1,9	71,3	96
Ekaina 2017	130,2	35,6	8,7	93,1	97
Uztaila 2017	42,1	34,4	10	104,4	96
Abuztua 2017	61,8	35,7	10,2	59,6	95
Iraila 2017	36	27,7	6,7	55	98
Urria 2017	10,4	26,7	4,1	79,4	98

# ZEGAMAR BATASUN KASINOA



1.080 kg piper erre ziren.

## JUNTA BERRIAREN ERAKETA

Batzar Orokorra otsailaren 17an izan zen, ondorioz Junta, ondorengoak osatzen dugu, lehendik zaudenak: Aitor Urbizu, Joxetxo Arizkorreta, Imanol Azurmendi, Jabier Gartzia eta Igor Elizegi. Berriak sartu garenak: Jabi Collado, Jon Gorrotxategi (Presidente), Unai Martin (Diruzaina), Julio Rivas eta Miren A. Albizu (Idazkaria).

## BERTSO JAIALDIA

Urtero bezala, Erlezain egunaren barnean antolatzen da ekitaldi hau, aurten, martxoaren 19an izan zen eta eskolako gimnasioan egin zen. Esan, oso giro ederra egon zela, bai aretoarengatik, goxoagoa eta bilduagoa eta

baita bertsolariengatik. Gai-jartzaileak ere oso gai entretenigarriak jarri zituen, hurrengo urtean bertan egiteko bezala gelditu ginen, bertsolariak ere frontoian baino hobeto sentitu zirela esan zuten. Bertsolariak hauek izan ziren: Iker Zubeldia, Oihana Iguaran, Andoni Egaña eta Maddalen Arzalluz, gai jartzailea: Saroi Jauregi. Eskerrak eman nahi diegu jaialdi hau egiteko diru laguntza ematen diguten herriko denda, enpresa, Udaletxe eta laguntzaile guztiei, beraien gabe ezin izango litzateke aurrera eraman urtero ekintza hau.

## TXAPELDUNEN TXAPELKETA

Aurten guri tokatu zaigu Txapeldunen txapelketa antolatzea, maiatzaren 13rako antolatu genuen, Txapeldunak: Jesus

Telleria eta Sebastian Lujanbio izan ziren eta Txapeldunordeak: Jon Irastorza eta Unai Aierbe izan ziren. Oraindik "zaharrak" nagusi. Ondoren, parte-hartu zutenekin batera, afaritxo batekin amaitu genuen txapelketa, oso giro onean.

## XXIX. KASINOKO IPUIN LEHIAKETA-"VI. JOXE ANTONIO ORMAZABAL "AIERDI"

Urtero bezala, Zegamako Peregrinazioaren ondoren banatzen dira sariak. Eskolako haurrak parte hartzen dute, txikienak marrazkiak eta handienak ipuinak idazten dituzte. Aurten ekainaren 5ean banatu ziren sariak. Esan ipuinen eta marrazkien balorazioa Isabel Elortzak eta Arantza Ortizek egin dituztela, mila esker!!



Eguraldia zela-eta udal arkupeetan erre ziren piperrak.



Juntakideek piperrak erretzen izugarrizko trebezia erakutsi zuten.



Txapeldunen txapelketako afaria.



Mus txapelketa lehiatua izan zen.

## V. PIPER EGUNA

Irailaren 30ean egin genuen “piper eguna”. Bezperan Inazio Urbizu eta Iñaki Albizu joan ziren Lerin aldera piperrak ekartzera. Aurten 1080 kilo ekarri ziren. Goizeko 8etako danbolinak bueltaka zebiltzan eta eguerdiko 2’30ak alderako denak egin ziren. Eguraldia zela eta azken momentuan Udaletxe azpian erre beharra izan genituen. Urtero bezala, arrakasta handia eduki zuten. Aurten ez da inor gelditu piperrik gabe, eskatutako danak izan zituzten piperrak. Baita esan, goizean elkarteak ematen dituen gosarrietan ere, urtetik urtera geroz eta jende gehiago izaten dala gosaltzen.

## KASINOKO MUS TXAPELKETA

Azaroaren 24ko data dugu jarrita, orain ari gara antolatzen. Aurten erabaki dugu egun berdinean hasi eta bukatzea, bi ostiral partez. Eta eskerrak eman nahi dizkiegu hau aurrera eramateko laguntzen diguten guztiei, herriko denda, enpresa eta laguntzaile guztiei. Datorren urteko Urtekarian jarriko ditugu nortzuk irabazi duten.

## HAINBAT EKINTZATAN PARTE HARTU DU ELKARTEAK

**KORRIKAN:** Orkatz abesbatzarekin batera kilometroa erosi zuen elkarteak eta korrika egitera Unai Martin eta Igor Elizegi joan ziren. Zerain aldean egin zuten korrika.

## AIZKORRIKO LAGUNEN

**EGUNEAN:** urtero bezala elkar-teko kideak esku bat botatzen han izan ziren.

**PAELLA:** Festatan, nagiak kenduta, elkartetik lau lagunek hartu zuten parte. Beajondezaiela!!

**CAVA FESTA:** Aurten ere gure elkarte partaidetza handiarekin egon da antolakuntzan.

**SAN MARTIN**etan gazta banatzen parte hartu genuen, urtero bezala.

Gure aurtengo ekintzak hauek izan dira, baita esan, nahi duenak elkarteko bazkide izan, atek zabalik dauzkala!!



Mus Txapelketako irabazleak, Kasinoko presidentea den Jon Gorrotxategirekin.



Mus txapelketako txapeldunak eta txapeldun ordeak.



# JUBILATUEN ELKARTEA

Hauexek dira aurten Jubilatuen Elkartean burutu ditugun ekintzak:

## IRTEERAK

### IRATXERA IRTEERA

Maiatzaren 18an egin genuen urteko lehen irteera eta helmuga Iratxe izan genuen. 8:30ak aldera Zegamatik abiatu eta Iratxe Jatetxean egin genuen lehen geldialdia hamaiketako egiteko. Ondoren nahi zuenak, Lizarraga bisitatzeko aukera izan zuen. Eguerdian berriz, Iratxe Jatetxera itzuli ginen bazkaltzera eta bazkalostean, bingoan jolasteko eta dantzatzeko aukera izan genuen jate-txean bertan.

### HONDARRIBIA ETA DONOSTIARA IRTEERA

Ekainaren 22an egin genuen irteera. Goizean goiz Zegamatik atera eta Hondarribiako txokoak ikusteko aukera izan genuen. Bertan gosari legea egin eta ondoren Donostiara. Han bueltaxka bat eman ostean, Kaskazuri jatetxean bazkalduz. Bapo jan ondoren, berriro ere Zegamarako itzulera bidaiari ekin genion.



Dolores Telleria taloak egiten

### ISLARA IRTEERA

Uda aldera, uztailaren 20ean Islasesera joan ginen Arenillas jatetxean bazkaltzera, paraje ederrak ikusiz.

### BIASTERIRA IRTEERA

Irailaren 21ean, Errioxako Biasteri ikusteko aukera izan genuen, bertako mahastiez gozatuz. Ondoren Rivas de Teresoko herri txikira hurbildu ginen, Jose Mari Erretegian giro ederrean bazkalduz eta ondoren Harora.

### GERNIKARA BIDAIA

Urteroko legez, urriko azken astelehenean, urriaren 30ean aurten, Gernikako azoka berezia ospatzen zela eta, bertara irteera egin genuen. Gernikara joan, azoka ikusi eta urteroko ohiturari jarraituz Amurrioko Ruperto jatetxera joan ginen bazkaltzera. Arratsaldea berriz, Gasteizen pasa genuen. Esan behar, irteera hau ez zela soilik jubilatuei zuzendutakoa izan, nahi zuten herritar guztiek parte hartu ahal izan zuten bertan.



Jubilatuak elkarretaratzean herriko plazan

## JUNTAKIDEAK

Aurten, juntakideen berritzerik ez da egin eta hauexek gara Jubilatuen elkarteko juntan jarraitzen dugunak: Jose Mari Bitarte, Juan Mari Ormazabal, Milagros Alustiza, Jose Manuel Landa, Juani Peñagarikano, Ana Jesus Larrea, Mari Karmen Lardizabal, Begoña Etxezarreta, Fernando Urbizu eta Miguel Angel Igoa.

## SAN BARTOLOME JAIETAKO PAELLA LEHIAKETA

Abuztuan, herriko jai nagusien barruan urtero antolatu ohi den paella lehiaketan parte hartu genuen aurtengoan ere. Bikote hauek izan ziren gure elkarteko ordezkariak lehiaketan: Begoña Etxezarreta eta Mari Karmen Lardizabal alde batetik, irabazleak eta Juani Peñagarikano eta Ana Jesus Larrea bestetik.

## BAILARAKO LEHIAKETA GASTRONOMIKOA

Goierri mailan egiten den lehiaketa gastronomikoan ere parte hartu genuen. Irailaren 21ean ospatu zen Beasainen eta bertan, Begoña Etxezarreta eta Joani Peñagarikanok parte hartu zuten.

## EIBARKO JUBILATUEN MARTXA

Urriaren 21ean Eibarren ospatu zen jubilatuen martxan hartu zuten parte gure elkarteko kide batzuk. Hona hemen bertan parte hartu zuten elkartekideak: Jesus Telleria, Begoña Etxezarreta, Juan Mari Irastorza, Maria Jesus Mugika, Mari Karmen Lardizabal, Juan Jose Garaia, Juan Mari Ormazabal eta Axun Mendizabal.

## LOURDESKOA AMAREN EGUNA

Urteroko moduan, otsailaren 11an, Lourdesko amaren egunean Meza ospatu genuen jubilatuen elkartean. Meza entzun ondoren, txokolate beroa izan zen dastagai elkarteko kideek prestatuta.

## BATZAR OROKORRA

Aurtengo batzarra martxoaren 4an ospatu genuen eta jarraian txokolate jana egin genuen.

## URTEKO KUOTA KOBATZEA

Martxoaren 15, 16 eta 17an urteko kuota kobratu zitzaizen elkartekideei.

## GABONETAKO LOTERIA BANATZEA

Azaroaren 23 eta 24ean, Gabonetako loteriaren partizipazioak banatu ziren elkartekideen artean.

## GAZTAINA JATEA

Azaroaren 25ean, gaztaina jana egin genuen elkartean.

## KULTUR ASTEA ETA SAN TOMAS EGUNA

Abenduaren 11tik 15era kultura astea ospatu genuen elkartean. Aste honetan zehar mahai jokoak egin genituen eta San Tomas egunean, txistor jatea ere egin genuen eta baita trofeo banaketa ere. 1939an jaiotako koei banatu zitzaizkien saskiak eta beste bi saski zozketatu ziren, bata San Tomas eguneko festan parte hartu zuten elkartekideen artean eta bestea elkartekide guztien artean.

## BESTE EKINTZA BATZUK

- Bingoko zenbait saio egin dira, jende askok parte hartuz.
- Ogia eta taloak egiteko saioak, ondoren goxo -goxo meriendatuz.
- Uztailaren 13an Segurako notarioak eta Zegaman bizi den Victor Nieto abokatuak hitzaldi

interesgarria eskeni ziguten bertako eta inguruko hainbat jende etorritz.

- Jubilatuen pentsio duinen alde egiteko, herriko plazan elkarretaratzeak ere egin ditugu.

## IRAKURKETA DIALOGIKOA

Urrian ekin genion irakurketa saioak aurrea eramateari, ostiraletan bilduz, bi liburu landu ditugu, "INGELESEN HILERRIA" eta "AMAREN ESKUAK". Oso saio interesgarriak izan dira eta gogotsu parte hartu dugu elkarriketetan. Lan hau aurrera eramateko hamar emakume bildu gara: Maritxu Galarraga, Agustina Zufiaurre, Arantxa Arrondo, Mari Paz Ormazabal, Dolores Telleria, M<sup>a</sup> Dolores Goya, Ixiar Etxabe, Nieves Oiarbide, M<sup>a</sup> Karmen Arrieta eta Mila Alustiza. Ondoren honekin lotuta, bidaitxo bat egiteko asmoa dugu. Bidai honek liburuetako batekin lotura izango du.



Irakurketa dialogikoko taldean lanean



Zegamarrak Eibarren Jubilatuen martxan



Bingo jolasean jubilatuen elkartean

# SAN MARTIN PARROKIA

OSPAKIZUNAK: Jarraian 2017an zehar izan ditugun ospakizunak aipatuko ditut:

## BATAIOAK

2017an bataioak hiru txandatan ospatzen dira. Jesusen bataioaren festan (Errege festaren ondorengo igandea), Pazko bigarren igandea eta irailaren igandeetako batean (gurasoen artean aukeratutakoa). Elkartan ospatzeak garrantzi eta emozio berezia du beti, denok arduradun garela adieraziz. Hauek dira aurten bataioa hartu duten umeen izenak, guztira hamar:

1. XABAT ZUÑIGA ARANA
2. ITZEA AGIRRE AIZPEOLEA
3. ILARGI AZURMENDI FERREIRA
4. HODEI GARAIAR ORMAZABAL
5. ARAI OSINALDE GONZALEZ
6. MAREN MUÑO A FERNANDEZ DE GARAIALDE
7. NIKOLE ARAMENDI IZARRA

Honelako ospakizunak bereziak eta alaiak izaten dira beti: "bizi"-berri batek hasierak poz handia sortzen du familiarengan eta sinesmendunengan. Zorionak guraso guztioi!

## LEHENENGO JAUNARTZEAK

Aurtengo urtean bederatzi neska-mutikok ospatu dute lehenengo Jaunartzea. Emozioa, urduritasuna, poza, musuak, opariak eta abar... denok gustura! Hauek izan dira:

1. MANEX DE PRADO ORMAZABAL
2. MADDI ETXEZARRETA URBIZU
3. XOAN OTERO ETXAIDE
4. OIER URBITARTE ALDA
5. OIER ERRASTI ARAKAMA
6. NAHIA LIZARRIBAR LEKUONA
7. ARATZ MURUA GONZALEZ
8. ELENE AIZPEOLEA GORROTXATEGI
9. ENEKO AGIRRE BERASATEGI

Egun ederra benetan. Umeak dauden tokian ez da inoiz falta gardentasuna eta poza. Denok festa alai bat gozatzeko aukera izan genuen. Zorionak eta segi lagun eta adiskide onak izaten Jesusen Ebanjelioaren bidetik.

BAKE ETA ON GUZTIOI!

*Bittorio Zabalgoeaskoa*

## HERIOTZAK

Urte honetan hildako senideen zerrenda (Ondorengo heriotzak 2016ko azaroaren 1etik 2017ko urriaren 31 dira):

1. JESUS CASANOVA MERCHAN
2. TERESA GURIDI MUNDUATE
3. JESUS M<sup>a</sup> AGIRRE MUNDUATE
4. MARIA ARRIETA ARRIETA
5. ROSARIO LAZA INZA
6. ANTONIA ARRONDO GALPARSORO
7. JOSE LARREA ETXEBERRIA
8. MARIA LUISA ARAMENDI ARREGI
9. MARCELINO ZABALETA ZABALETA
10. ANTONIA ARRONDO URBIZU
11. JOSE ANTONIO GONZALEZ RESANO
12. TERESA AGIRRE ARRIZABALAGA
13. PILAR RIVERO FERNANDEZ
14. ESTEBAN KATARAIN APAOLAZA
15. MARIA MILAGROS TELLERIA GURIDI

Itxaropenak eta fedeak eraginda "gero arte" esanaz ospatu genuen gure senideen agurra. Jainkoak digun maitasunaren zerrendan seguru daudela sinisten dugu! Agur eta bakean goaz dezazuela! Egun handi arte!



# XABIER INTXAUSTI



84-85 olinpiadatakako dominekin

## Nongoa zara ?

Idiazabalgoa eta bertan bizi naiz.

## Noiz eta nolatan hasi zinen Zegamako eskolan lanean?

1985ean kirolari gazte bat nintzen eta eskola munduan ez nuen inongo hartu emanik. Zegamako eskolan, Belen Ormazabal zuzendari zela kezka bazuten gimnasia ez zuela inork ematen. Guraso Elkarteak eta irakasle artean norbait behar zela lan hori egiteko erabaki zuten. Ni San Bartolometako festetan

bizpahiru urtetan Zegamako ostatuan "Kontzejun" tabernan lanean ibilia nintzen eta bertako Lierni Telleriak (garai hartan Zegamako eskolako sukaldari zen baita ere) ezagutzen ninduen. Belen Ormazabal zuzendariak Lierniri esan ea norbait ezagutzen ote zuen eskolan gimnasia emango zuena. Liernik niri komentatu eta ni hezkuntzarekin inongo harremanik ez nuen baina lanik gabe nengoen ez esperientzi



85-86 Cadaques



87-88 Oiduin taldea



87-88 Oiduin 8 neska



92-93 ikasturtea atletismo taldea

berri bat izango zena bizitzeko prest agertu nintzen. Delegaritzatik arazo honen aurrean irtenbiderik iristen ez zenez, kontraturik gabe eta Zegamako ikastolatik zetorren diru-poltsari helduz hasi nintzen lanean.

### **Ze ikasturtean hasi zinen?**

1984-85 ikasturteko apirilean (beraz ikasturteko azken hiru hilabetean) Zegamako 8. maila bitarteko ikasleei gimnasia ematen eta kirol eskolarra antolatzen hasi nintzen. Garai hartan Ordizian, haurrentzat eskolarteko kirol olinpiadak antolatzen ziren eta lehenengo aldiz parte hartzeko behar ziren tramitazioa eginda, orduko Zegamako herri eskolako ikasleek parte hartu bakarrik ez dominak ere lortu zituzten. Ikusi argazkia 1 zk.

### **84-85 ikasturtea bukatutakoan?**

Egin nuen lana ikusirik. Guraso eta irakasleek hurrengo ikasturtean ere jarraitzea proposatu zidaten. Nik onartu egin nuen, gehiago ikasteko gogoarekin nengoen eta urte hartako udaran, ikastaro batzuk bazeuden Eibarren eta hilabete osoa bertan pasatu nuen. Ni gaztetan futboleko talde ezberdinetan jokatu nuen ala nola: Seguran, Alavesen, Ilintxan eta Ordizian. Futbola utzitakoan korrika egiteari ekin nion (maratoiak, Behobia Donostia, lasterketa herrikoiak...) beraz

futbola eta korrikaren mundutik nentorren eta Eibarren beste kirol batzuek ikasi nituen: atletismoa, saskibaloia, eskubaloia, herri kirolak... Handik aurrera kirol gehiago eskaintzeko aukera izan nuen.

89ko urtarrila arte gimnasiako klaseak eman, kirol eskolarra koordinatu eta entrenatzaile lanak egiten nituen.

### **Baita ere uste dugu ikasleekin irteera politak egingadakoak zirela?**

Garai hartan 8. maila bukatutakoan ikastetxe batzuek egun batzuetarako "Kurtso bukaerako bidaiak" antolatzen zuten. Zegamako eskolak ere 8. maila bukatzen zuten ikasleekin horrelako bidai bat antolatu genuen. 1986ko ekainean, Segurako eta Eibarko ikastetxe batekin elkartuz autobusa osatu eta astea pasatzera Catalunya joan ginen: Calella, Cadaques... Ikusi argazkia 2 zk.

Eta 86-87ko ikasturtean 7. mailako ikasleekin Aralarra OIDUI txabolara bertan egun batzuk pasatzera eta mendian ibiltzera joan ginen. Ikusi argazkiak 3 eta 4 zka.

### **Baina gimnasia emateari utzi egin zenion?**

Hori da. Delegaritzatik hasi ziren irakasleei soinketako habilitazioa lortzeko ikastaroak ematen. Zegamako herria

txika izanik, eta aurretik bertako guraso eta irakasleen ekimenez soinketako klaseak ematen hasita zeudenez, Zegamako herri eskolak (beste eskola handi batzuek baino lehenago) aukera izan zuen irakasle bat lortzeko.

Mikel Eguren eibartarra etorri zen. Handik aurrera Mikelek soinketa eman zuen eta nik eskolaz kanpoko kirolaren koordinatzaile eta teknikari lanak egin nituen eta egiten ditut.

### **Zu irakaslea ez bazara, nork ordaintzen ditu?**

Hasera hartan kontraturik gabe lana egin nuen. Baina 86-87 ikasturteetik aurrera Zegamako udalaren izenean egin zidaten kontratua. Eta 1990eko urtariletik aurrera langile autonomoa egin nintzen. Harrez gero, guraso elkarteak ordaintzen dit



89-90 1979 jaiotakoak



92-93 Ordizian XI. olinpiada Amaia



93-94 Futboleko taldea Igor Elizegikin

eta hauek aldi berean Udaletik eta Foru Aldunditik diru laguntzak jasotzen dituzte.

### **Eskola kirolaren helburuak, zuretzat zeintzuk dira?**

Kirola eta jarduera fisikoa eginez ondo pasatzea, Kirol modalitate desberdinak ezagutzea, kirola egiten ohitzea, beste herrietako lagunak egitea eta bizi-modu osasuntsua izatea.

### **Eskola Kirolaren antolaketa izan al du bilakaerarik urte hauetan?**

33 urte hauetan kirol eskolarrak bilakaera handia izan du. Batetik aukera gehiago dago. Gaur egun 8-10 kirol ezberdinetako eskaintza izaten dute haurrek eta kirol aniztasuna bultzatzen da.

### **Zein aldaketa azpimarratuko zenituzke?**

Kirol bakoitzak izan du bere eboluzioa, arauak eta jolasteko modua adin bakoitzari egokitzuz; hasiera hartan jokalarik "onak" bakarrik izaten zuten jokatzeko aukera, orokorrean helburu bakarra irabaztea izaten zelako. Gaur egun helburua DENAK jolastea da eta aukera berdintsuak izaten dituzte.

### **Nola antolatzen zara 3. mailatik aurrera dauden ikasle guzti horiekin?**

2017-18 ikasturte honetan 3. mailatik 6. maila bitartean 71 neska-mutil dauzkagu eta gehien gehienak parte hartzen dute. Partiduetarako 7 taldetan banatuta daude. Hainbeste talde eta kirol

ezberdinekin aritzeko, nik bakarrik ezinezkoa dut, orduan laguntzaile batzuen beharra izaten dut, bai entrenatzeko eta baita partiduetara joateko. Nire ikasle ohiek laguntzen didate, 15-16-17 urte inguruko ikasleak dira. Haiengana jotzen dut eta haiek gustura hartzen duten lan edo konpromisoa izaten da, erantzukizun pixka bat ere sentitzen dute. 3-4-5 urtetan aritzen dira entrenatzaile lanetan eta Unibertsitatera joaten direlako edo euren ikasketei denbora gehiago eskaini behar dutelako utzi egiten dute.

### **Eta gero?**

Berriro zikloa gazte berriein hasten da. Hemendik, eskerak bidali nahi diet urte guzti hauetan entrenatzaile bezala



05-06 alebinak herri kirolak



07-08 Benjaminak Eskubaloian



11-12 Mutil benjaminak



12-13 Neska Alebinak

aritu diren guzti- guztiei eta baita ere gaur egun daudenei ere. Ez dut ahaztu nahi, mendiko arduradunak izan diren guraso guzti horiei ere, aurtengoa barne.

### Hainbeste neska-mutilekin lan egitea erreza al da?

Erreza erreza ez da. Baina ilusioarekin eta motibazioarekin gainditzen da. Pazientzi handia behar da hori ere denoi gastatzen joaten zaigu. Oporrak pilak kargatzeko balio dute.

### Eta bailara mailan nola zaudete antolatuta?

Goierrri beheko ikastetxe guztiak (16) dute eskola kirolko koordinatzailea. Ikasturtean zehar astelehenero arratsaldeko 18:30etatik aurrera Ordizian biltzen gara. Ikasturteko kirol plangintza egiten

dugu, jardunaldi ezberdinetako eta partiduetako ordutegiak jarri eta jardunaldi batzuetan izaten diren gora-behera batzuk komentatu, aztertu e.a.

### Kirol festa ere egiten duzue

Badira 15 urte hasi ginela. Guraso Elkartetik iritsi zitzaidan proposamena. Duela 30 urte ikasturte bukaerako bidaiak egiten genituela komentatu dut lehenago, orain ikasturte amaieran “kirol festa” antolatzen dugu. Herri kirolak, txirrinduarekin, patinekin, zirkuitu batzuk prestatzen ditut eta eskolako ume denak parte hartzeko aukera izaten dute. Baita gurasoek ere sokatiran jartzen ditut. Larunbata goiza oso polita izaten da eta gero gurasoak eta haurrak bazkari batekin jarraitzen dute.

### Bukatzeo, zerbait erantsi nahi?

Gu guztion gainerik Gipuzkoako Foru Aldundia daukagu. Bera da eskola kirolaren ereduak izan behar dituen ezaugarri orokorrak zehazten dituen. Berak markatzen ditun ildoak jarraitzen ditugu.

### Anekdotarik?

Oso rik 33. ikasturtea dela aurtien hasitakoa eta beti komentatzen dudana, lehen ikasle izandakoen seme-alabak pasatzen ari direla esan dezagun “nire eskuetatik”. Hori polita da oso baina horrek adinen aurrera goazela ere esaten dizu.



16-17 neska benjaminak



16-17 KROSA Unai Mendizabal

# ARANTXA GORROTXATEGI IDIAKEZ



1973ko urtarrilaren 15ean lanean hasi ondoren 2017ko apirilaren 29an erretiratu zaigu Arantxa Gorrotxategi. Guztira 44 urte Zegamako Udaletxean zegamarrei arreta eskaintzen lanean aritu da.

## Non jaio zinen?

Gurasoak Seguran bizi ziren baina ni Donostiako ospitale batean jaio nintzen. Gurasoak ezkondu zirenean, Ezkio-ltsasora ezkondu ziren aita hango udaletxeko Idazkaria zelako, baina, gerora trasladoa eskatu zuen eta Segura, Zerain eta Mutiloako idazkaria zela jaio nintzen.

## Orduan eskola desberdinetan ibili beharko zenuen ez?

Bai, hasera batean Seguran, gero ama hil zitzaidan eta Ezkiora joan behar izan nuen bizitzera. 1963. urtean Zegamara bizitzera etorri nintzen

eta Zegamako eskolan jarraitu nuen. Ondoren hamar bat urterekin Donostian lekaiameek zituzten bi internatutan “Josefina” eta “Stela Maris” ikastetxetan ibili nintzen. Azkenik, batxilerra Beasaingo institutuan egin nuen.

## Nolatan hasi zinen udaletxean lanean?

Aitak Seguratik Zegamarako trasladoa eginda zeukan eta Zegamako udaletxeko idazkaria zen. Nire aitarekin Tomas Inza zegoen administrari laguntzaile modura eta hau gaixotu egin zen. Orduan nire aitak eskatuta eta Tomas sendatu bitartean ordu batzuk berari lagun-

tzera joaten nintzen udaletxera baina Tomas Inza hil egin zen. Honela oposaketak egon ziren eta nik lortu nuen administrari laguntzaile plaza 1973ko urtarrilaren 15ean. 1983an Gobernuak Dekretu bat atera zuen eta bertan 1983an 10 urteko administrari laguntzaile esperientzia zuenak automatikoki administrari maila lortzen zuen eta ondorioz 1983tik aurrera administrari bezala aritu naiz udaletxean.

## Nolakoa zen 1973an udaletxea barrutik?

Oso desberdina zen. Hasteko, gaur egun gizarte laguntzaile eta kulturako langileen bulegoak dauden alderdi hori ez zegoen. Hori aguazilaren etxea zen eta Jesus Larrea alkate zela egin zen obraren ondorioz, eskailera burutik alderdi horretarako pasilo bat egin zen eta bertan artxiboa eta beste lau bulego sortu ziren.

Plaza aldera ematen duena ere era desberdinean zegoen antolatuta. Pleno gela leku berean zegoen, gaur egun leihatila dagoen tokian artxiboa zegoen, eta gaur egun alkatetza dagoen tokian idazkaria(aita) eta idazkari laguntzailea egoten zien, nire aurretik Tomas Inza eta gero ni.



Arantxa Gorrotxategi udaletxean lanean hasi zenean.



Arantxaren aita, Patxi Gorrotxategi, Zegamako udaletxeko sekretarioa izan zen.





Joseba Iturralde sekretarioaren "despedida" "Ostatun, zinegotzi eta udal langileak

Maitegiko Doroteo Berasategiren "despedidan", Eugenio Galdosen Tolosako jatetxean, udal langileak eta Jesus Mari Larrea alkatea.

Gaur egun idazkaria dagoen tokian, alkatearen gela zegoen eta interbentzioan Doroteo Berasategik egiten zuen lan kontabilitatearen atal bat egiten.

### **Idazkariarentzat etxerik izaten al zen herrietan?**

Bai, gu aguazilarekin ezker eskuin bizi ginen. Gaur egun ostatuko 2. solairuko gelak dauden tokian zegoen idazkariaren etxea eta hor bizi izan nintzen 1975. urtera arte.

### **Garai hartako eta egungo lanak antzekoak al dira?**

Lanak oso desberdinak dira. Hasteko askoz ere lan bolumen txikiagoa zegoen.

Paperen kopia egiteko, kalkoarakin idazten genuen hasieran, geroago paper berezi bat atera zuten, eta paper honek kalkorik jarri gabe azpiko paperean kopia egiten zuen. Ondoren multikopista azaldu zen. Hau oso deserosoa zen, manibela

bati bueltak emanda egiten zituen kopiak eta oso egoera berezietan erabiltzen zen, herri guztiari abisu garrantzitsu bat eman behar zenean. Azkenik fotokopiagailua etorri zen. Hori bai izan zela aurrerapena eta garai hartako fotokopiagailuak gaur egunekoan aldean mantsoak zirela kontutan hartuta.

### **Herritarrei abisuak egiteko zein zen ohiko bidea?**

Batez ere bandoa zen gehien erabiltzen zena.

### **Korporazioak beti berdinak izan al dira kopuruan?**

Bai beti 9 izaten ziren 8 zinegotzi eta alkatea gaur egun bezala

### **Alkate asko ezagutuzko zenituen 44 urtetan ez?**

8 alkate izan ditut. Lehena Manuel Urbizu, hau gaixotu eta hil egin zen 1975. urtean

eta ondoren Joxe Telleria sartu zen, Eduardo Telleria, Jesus Larrea, Asun Mendizabal, Juan Inazio Galdos, Edurne Albizu eta Joseba Izagirre izan dira ondorengoak.

### **Eta idazkariak?**

**I d a z k a r i a k**  
gehiago ezagutu

ditut, hauek herri batetik bestera ibiltzen baitziren eta lekuz aldatzen zuten.

Patxi Gorrotxategi (aita), Saturnino Gil, Jose Luis Avia, Jabier Capdevila, Ramon Ciprian (hau Foru Aldundiko Idazkari orokorra ere bazen) Antton Ibartutxi, Joseba Iturralde, Jesus Mari Olazabal eta gaur egungoa Igor Alustiza.

Denekin ikasten duzu baina nik gehiena Saturninorekin ikasi nuen aitaren ondoren nire lehenengo idazkaria izan zelako.

### **Garai hartan zer lan egiten zenuen gogoratzen al duzu?**

Azkenaldian bezala lan mota asko eta ezberdinak egiten nituen. Ura udaletxetik kobratzen genuen. Hasieran Martin Catalina aguazilak egiten zuen ur kontagailuaren irakurketa eta guk fakturak prestatu eta aguazila joaten zen etxerik etxe ura kobratzera. Garai hartan zaborrak bakoitzak kudeatzen zituen bere etxe inguruan eta zabor bilketa zerbitzua ematen beranduago hasi zen udala. Esan gaur egungo zaborrik ere ez zela sortzen, kristalezko ontziak berrerabiltzen ziren eta orain adina plastiko eta paper ez zen sortzen.

Automobilaren zerga ere udaletxean kobratzen genuen.

1976. urtean Saturnino Gil Larderoko udaletxera joan



Manolo jatetxean, udal korporazioaren "despedida" batean, Joseba Iturralde sekretarioarekin eta Emilio Txurruka eta Juan Mari Ormazabal zinegotziekin.



Manolo jatetxean, udal korporazioaren "despedida" batean, Joseba Iturralde sekretarioarekin eta Emilio Txurruka eta Juan Mari Ormazabal zinegotziekin.

zen eta bake epaitegiko lanak egiten ere orduan hasi nintzen. Urtean bi aldiz, Azpeititik kontribuzioak kobratzera etortzen ziren eta jendea udaletxera etortzen zen kontribuzioak ordaintzera.

Nortasun Agiria ere bost urtetik behin udaletxean berritzen zen. Gobernu zibiletik etortzen zen horretara jendea eta nortasun agiria herrian bertan egin edo berritzen zen.

Soldadutzara joateko mutil gazteak ere "kajan" sartzeko abisua bidaltzen genien udaletxetik. 21 urte bete behar zituzten mutilak udaletxera etortzen ziren eta herriko medikuak neurtu eta pisatu egiten zituen. Ondoren Donostiara bidaltzen ziren "Centro de Reclutamiento"ra espediente guztiak eta norbaitek alegazioaren bat eginda bazuen zentro honetara joan behar izaten zuten tribunal medikua pasatzera. Guk ere beraiekin joan behar izaten genuen egun horretan.

### **Bestelakorik gogoratzen al duzu?**

Bai hilabetero behin edo gehiagotan Donostiara joan behar izaten genuen "Banco Gipuzcoano"ra, udaletxeko langileen gizarte segurantzara, garai hartan "Mumpal", ordaintzera eta bestelako ordainketa batzuk egitera.

Sarrera irteera erregistroak ere ez zuen zer ikusirik, oso idatzi gutxi iristen zen eta ordainketak ere oso gutxi izaten ziren. Orain lan handia ematen dute bai erregistroak eta egiten den ordainketa kopurua ere oso handia da.

Idazkaria astean arratsalde pare batean bakarrik etortzen zen eta ordainketak Maittegiko

### **NORTASUN AGIRIA ERE BOST URTETIK BEHIN UDALETXEAN BERRITZEN ZEN**



Doroteo Berasategik egiten zituen. Nik kontabilitatea berekin batera eramaten nuen baina orain baino askoz lan gutxiago zegoen.

Bankuko mugimenduak ere oso gutxi izaten ziren eta esku dirua erabiltzen zen asko. Soldata ere oso berandu arte dirutan ematen zigun Doroteo Berasategik.

### **Noiz izan zen aldaketa bankuko erreziboen helbideratze gaietan?**

1990. urtean orokortu zen helbideratze gaia. Ordura arte leihatilan asko ordaintzen zen. Garai horretan poliki poliki bakoitzaren kontu korranteak aplikazioetan sartzen joan ginen eta ordainketak banku bidez jartzen joan gara urteen

poderioz. Gaur egunean guztioi hobeto datorkigula uste dut, jendeak ez baitu lehengo denborarik hartzen Udaletxera ordainketak egitera etortzeko.

### **Orokorrean aldaketa nabarmena noiz izan zen?**

Nire ustez Eusko Jaurlaritzaren sortzea izan zen aldaketa nabarmena. Ordura arte, Gipuzkoako Foru Aldundi eta Gobernu Zibilararekin izaten genuen harremana udaletxeok. Gero Jaurlaritzaren sortu zenean, esparrua asko zabaldu zen. Euskara ere ordura arte ez zen batere erabiltzen udaletxean eta Eusko Jaurlaritzak Hizkuntza Eskakizunen gaia inplementatu zuen administrazioan. Nik 2. Hizkuntza eskakizuna atera nuen 1993an. Udaletxe guztietan mugimendu handia sortu zen eta lanpostu berriak sortzen hasi ziren: gizarte laguntzaileak, euskara eta kulturako teknikariak, gaztediko teknikariak...

### **San Bartolome eta San Martinak ere antolatuko ziren?**

Bai. Baina gaur egunekoekin ez zuten zer ikusirik. San Bartolomeak askoz xumeagoak ziren, zinegotziak arduratzen ziren. Udaletxean ez zegoen horretarako langilerik eta San Martinak Joxe Telleriarekin hasi ziren antolatzen. Udaletxeko bulegoetako lanetan ez zuten eraginik.

### **Arantzazuko peregrinazio nolakoa izaten zen?**

Orokorrean oraingoaren antzekoa izaten zen baina ez zuen gaur egun duen jendearen horrenbesteko partaidetza eta arrakastarik.

### **Gustura jubilatu al zara ?**

Bai, urtea asko izan dira lanean pasatu ditudanak. Orain beste bizimodu berri baten hasieran aurkitzen naiz eta oso gustura nago.

EDURNE ALBIZU ORMAZABAL

# MARI KARMEN ORMAZABAL ALDALUR



## **Non jaio zinen?**

Zegaman jaio nintzen 1950ean Arantzelaiondo baserrian. 8 urterekin amarik gabe geratu nintzen eta nintzen eskolan asko ibili. Ezkondu ere Arantze-laiondora egin nintzen eta urte pare bat bertan bizi izan ginen. Seme zaharrenak urte bete zuela edo Toki Txokora etorri ginen bizitzera.

## **Udaletxean lanean hasi aurretik non ibili zinen?**

Etzerik etxe ibiltzen nintzen etxeko lanak eta esandako egiten. Lehenengo Juliana Larrearen etxean hasi nintzen eta handik aurrera leku askotan.

## **Noiz hasi zinen udaletxean lanean?**

Eze dakit ziur zein urte zen baina Joxe Telleriaren azken urtean sartu nintzen udaletxera lanera. Garai hartan udaletxeko lana arratsalde egiten nuen eta goizez etzerik etxe ibiltzen nintzen.

## **Bakarrik ibili al zinen lanean udaletxe garbiketan?**

Ez ni hasi nintzenez Felisa Guridi zebilen garbiketa lanetan bai eskola eta bai udaletxean. Baina garai hartan zinean

ikastolako gelak zeuden eta ni gela haiek garbitzen hasi nintzen. Gerora herri eskola egin zen eta ume guztiak bateratu zituzten eta Mazkirarango eskolak garbitzera ere joaten nintzen. Hala ere ikasleak eraikin desberdinetan zeuden. Zine zaharrea, pilotalekuko geletan eta Olarango eskoletan. Azkenik Aitxurin batu zituzten guztiak.

## **Ondo konpondu al zara eskolako hurrekin?**

Bai ni oso ondo konpondu naiz bai ikasleekin eta bai irakasleekin ere.

## **Lana areagotu al zen haur kopuruarekin?**

Nabarmen lana areagotu zen. Gero eta ikasle gehiago zeuden eta bestalde Aitxuri Herri Eskolako beheko gela batean haurreskola zabaldu zuten eta han lan asko egoten zen. Honela 2007an Lourdes Larrearen laguntza jarri zidaten eskoletan. Hura onura handia izan zen, lanak banatu genituen. Lourdesek komun arduraren hartu zuen, bai eskolakoak eta bai eskolako gimnasiokoak ere eta nik gelak egiten nituen.

## **Beraz herri-eraikin guztiak pasatu zenituen?**

Bai, haurreskola berria Ugarte zelaien ireki zutenean hara ere joaten ginen eta barrakoira garbitzera ere bai, haurreskola izan denean eta Santiagoko Bidekoentzat egon denean ere bai. Mediku etxe zaharra eta berria ere garbitu izan ditut, komun publikoak ere bai.

Garbitzaile bakoitzak geure era dugu garbitzeko eta askotan zein ibili ginen antz ematen zuten, trasteak jasotzeko dugun eragatik edo.

## **Eta jubilatuta ondo bizi al zara?**

Bia gustura bizi naiz. Goizetan bilobak eskolara eramaten ditut, eta goizean nire etxean egoten naiz etxeko lanak egin eta semeak bazkaltzera etorri gero beraiekin bazkaltzen dut, arratsaldean paseatzera joaten naiz Lartxaun aldera nire lagunekin eta iluntzean anaia eta koinataren etxera joaten naiz tertuliara, diruarekin ordaintzerik ez dagoen une goxoak pasatzen ditut han. Eta gauen, semearen etxera joaten naiz lotara, hurrengo goizerako bilobak eskolara eramateko.

EDURNE ALBIZU ORMAZABAL

## LOURDES LARREA ARANA



### Non jaio zinen?

Zegaman jaio nintzen 1952ko urtarrilaren 29an. 14 urte arte eskolan ibili nintzen eta gero, Tomas Cabezonekin urte pare batera batxilerra atera nuen.

### Zein lan ibilbide izan duzu?

Hasieran ume zain ibili nintzen meriendaren truke, garai hartako neska asko bezala. Ondoren Olaberriko okindegian lan egin nuen. Olaberrin okindegia eta denda zituzten Izagirre anaiek. Nik okindegian lan egiten nuen Migel Izagirre eta bere emazte Pilarrekin eta denda Jose Izagirre eta Dolores emazteak zuten garai hartan eta anaiaren okindegiko ogia saltzen zuten.

Okindegitik Zegamako Paper-tegira joan nintzen 1968an, 16-17 urterekin. Papertegian 19 urtez aritu nintzen lanean 1987an itxi zen arte gero langabeziara joan nintzen. Ondoren udaletxean hasi nintzen lanean urte batzuk kontraturik gabe lan egin genituen garbitzaileok eta 1995etik aurrera kontraturrekin lan egin genuen. Bertan aritu naiz lanean aurten jubilatua naizen arte.

### Zegamako herri- eraikuntzak aritu al zara garbitzen?

Bai, esango nuke udalaren jabetzakoak diren herriko eraikuntza guztiak pasatu ditudala: udaletxea bera, komuna zaharrrak eta berriak, mediku etxe zaharra, zinea, zinean zegoen jubilatuen elkarte, jubilatuek elkarte berria, komun berriak, frontoian eskolak zituen gelak, telarrak eta tailaketa egon ziren gelak, Aitxuri Herri Eskola, haurreskola berria, barrakoia, eskolako gimnasioa, kultur etxea, berritu eta gero izango da garbitu ez dudana eraikin bakarra.

### Lana areagotzen joan al da?

Dudarik gabe. Eskolan haurren kopuruak eragin handia du. Zenbat eta gehiago orduan eta lan gehiago sortzen zen. Komunetan lan handia egoten zen, beti egoten zen batean ez bada bestean trabaren bat eta hura zuzentzen denbora behar izaten zen. Askotan Jose Luis aguazilak lagundu behar izaten zuen.

### Arratsaldetan ikasle asko joaten al zen eskolara ahaztutako karpetak edo jasotzera?

Bai beti zen bakarren bat. Askotan irakasleak bertan egoten ziren baina nahiago izaten zuten guri eskatzea. Garai batean, irakasleek ere esaten ziguten ez emateko ikasleak eskola orduetan beren ardurak har zitzaten.

### Bestelako lanik egiten al zenuen?

Bai, erraldoien jantziak garbitu, plantxatu eta erraldoiak jantzi.

### Jubilatuta zer moduz bizi zara?

Primeran. Nik ez daukat batera arazorik denbora kudeatzeko. Orain nire ama bizi da eta bera zaintzen denbora asko pasatzen dut, baina bera ez denean ez dut uste inongo arazorik izango dudarik nire erara ibiltzeko. Bestalde, denbora dudanean nire semeari ere laguntzen diot eta primeran bizi naiz. Deskantsu handia hartu nuen jubilatua nintzenean, izan ere, adinez aurrera zoazen eran, ezina areagotzen joaten da.

EDURNE ALBIZU ORMAZABAL

## OFIZIO BERRIAK

### OTEIC

Enpresaren sortzailea



**JOSE  
MARI  
PIKASARRI**



Jose Mari Pikasarrri, guraso emazte eta seme-alabekin.

### OTEIC

Enpresaren zuzendaria



**IÑAKI  
ARRIETA**



Iñaki Arrieta guraso eta anaiarekin.

#### JOSE MARIA PIKASARRI

*Aizkorri magalean, duela 80 urte, haur "bizi" eta langile bat jaiotzen. Zegamako Aritzauñdi-Berri baserrian hain zuzen ere eta industri perito ikasketak egin zituen Donostian.*

1959 urterako gehien atsegin zituen gaiak jorratu zituen: Prozesu Industrialen optimizazioa eta prozesu hauekin lotutako kostuen ezagutza.

Hasera batean, Tuterako Enrique Jimenez izeneko fabrikari lan egin zuen, bertan terrazoak egiteko instalakuntzak zeuden eta hogeita gutxi urterekin, 350 pertsona baino gehiagoren Produkzioko Zuzendaritza kargua eman zioten. Handik, Urretxuko Madaya enpresara joan zen (Manufactura de Accesorios de Automovilismo y Aviación), eta hemen ere Forjako buru jarri zuten, lantegi honetan alde batetik txatarra sartzan zen

eta bestetik bukatutako piezak (altzairuko sektoreko piezak) ateratzen ziren, bertan 350 langiletik gora lan egiten zuten gutxi gora behera. Ondoren CEPA enpresara frantziarrentzat lan egin zuen. Enpresa hau prozesu industrialetan, Denbora eta Metodoen Optimizazioetan zegoen espezializatuta. Baina, hala ere, Madaya enpresarentzat ere lan egiten zuen kanpotik, bertako zuzendaria gerenteak hala eskatuta eta honela profesionalki esperientzia desberdinez jantzen joan zen zegamar hau.

#### Nola sortu zen Oteic?

Oteic enpresaren sorreraren testuingurua honakoa izan zen. Alde batetik, nik "Sistema Pic" izeneko sistema bat neukan, sistema honekin, industriako fabrikazio kostuak merketzea edo bajatzea lortzen nuen eta aldi berean langileei irabazten zutenaren % 50 gehiago ordain-

tzeko aukera ematen zuen, ondorioz sistema honek izugarriko arrakasta zuen.

Beste aldetik, gaur egun gertatzen den bezala, ia inork ez zekizkien fabrikazioaren produktioko kostuak zeintzuk ziren eta nik kostu horiek ateratzen nituen. Honela, enpresetan zegoen beharra ikusita, OTEIC enpresa sortu nuen. Lehen estudio garrantzitsua ULMA enpresarentzat egin genuen 1968-69an.

#### Eta zure langile ibilbidea zein izan zen?

Oteic sortu baino lehenago, hainbat tokitan lan egin nuen. Lazkaoko Forjas Arriaran, Tuterako enpresa bat eta frantziar enpresa batentzat ere lan egiten nuen. Frantziako enpresa honekin, enpresako industri kostuak merketzeko pizgarriak jartzen lan egiten zuen. Nik hauentzat lan egiten nuen, ez nintzen beraien enplegatua.

Nik fakturazioaren arabera, portzentai bat kobratzen nuen, ez neukan ez kontraturik eta ez gizarte segurantzarik enpresa honekin. Frantziako enpresa honek Tuteran ezagutu ninduen, izan ere, Tuterako enpresa batean produktio nagusia nintzen, 350 langile zeuden eta nik 22 urte besterik ez nituen.

## Noiz hartu zenuen erabakia, zure kabuz hasteko?

Ezkondu baino aste bete lehenago, Frantziako enpresakoei esan nien, nire kabuz hasteko asmoa nuela. Lazkaoko "Fundiciones Arriaran"en izan nuen esperientzia batetik ikasi nuen asko. Enpresa honek "rebaba" lanak egiten zituen eta, eta produktioa handitzeko indarrean zeuden sistema guztiek ez zuten hobekuntzarik lortzen, eta han sortu nuen nik, nire sistema produktioa hobetzeko.

Honela, esperientzia ezberdinetatik jakinduria hartuta, 1966ko abuztuaren 17an sortu nuen OTEIC: "Organización Técnica de Empresas Industriales y Comerciales" du azpian sigla horrek.

## Garai hartan ba al zegoen mota honetako beste enpresarik?

Gure konpetentzia kanpoko enpresak ziren.

Kataluniarrak, igande gauen etortzen ziren asteko lana hemen egitera eta, ostiral iluntzean jotzen ziren egindako lanaren ordainsaria kobratuta taloi baten bidez. Lanak guk lortzeko, Induban Bankuarekin gestionatu nuen nire zerbitzuen ordainketa modua. Induban bankua, Bizkaiko Bankuaren (BBV) "Banco de Financiación industrial" zen. Honela, OTEIC enpresari lana enkargatzen zionari, banku honekin bost urte



Aritzaundi-Berri baserria, Jose Mari Pikasarriren jaiotetxea.

arteko finantziarioa lortzen nion gure zerbitzuak ordaindu ahal izateko; aurrekontuarekin batera finantzatzeko era gestionatuta eskaintzen nien eta era honetara, enpresek gurekin lan egitea erabakitzen zuten, ostiralero taloi bat egin ordez. Honela, nahiz eta bezeroek gure zerbitzua 5 urterako finantzatu bankuarekin, gure enpresak, lanean hasi aurretik kobratzen zuen zerbitzua Induban bankuaren eskutik, eta beraz, guretzako metodo oso ona izan zen.

Beste sistema bat zen, 36 hilabetezko kuotatan ordaintzea "emaitzekin". Bankuak negoziatzen zuen finantziario era bezeroarekin eta kasu honetan ere, gure enpresak lanean hasi aurretik kobratzen zuen.

Gainera, guk eskaintza egiten genienean bezeroei, beti aurrez lan egindako enpresen izenak eta bertako gerente do zuzendarien erreferentziak ematen genizkien, dei ziezaieten eta esan, gure zerbitzuak erreferentzi bidez saltzen genituela batez ere.

## Noiztik dago Iñaki Arrieta zegamarra zurekin?

Iñaki, 38 urterekin fitxatu nuen, beraz ia zahartu egin zait. Duela

hogeita pare bat urte dago nirekin.

## IÑAKI ARRIETA DEL BARRIO

*Zegaman jaioa, 1957 urtean eta ekonomia kasketak burutu ondoren, bere garapen profesionala, kontsultorian aditua zen enpresa multinazional batean hasi zuen, ondoren industriara bideratutako talde batean zuzendaritza lanetan hasi zen. 38 urterekin Oteic enpresan hasi zen lanean eta bertako Zuzendaria da.*

## Zein da zuen lan eremua Iñaki?

Gure lan eremua, bezeroek eskatzen dutena da. Estatu eta mundu zabala. Behar den tokira joaten gara, Elkano eta Urdanetaren modura. Pazifikora joan behar bada, ba Pazifikora goaz.

## Zein lan ildo jorratzen dituzue OTEICen?

Gure lan ildoak 5 dira:

### ESTRATEGIA

"Hau argi luzeak" jartzean datza. Hau da, zer izan nahi dut etorkizunean da erantzun beharrekoa. Enpresen zuzendaritza organoehi aholkularitza, formazioa, planifikazioa, komunikazio planak, plan eta gestio estrategikoak.. eta abar. Azken finean etorkizuz-



Iñaki Arrieta, aurkezpen batean.

nean zer izan nahi duten lortzeko egin beharreko pausoetan laguntzea da alor guztietan, antolaketa eta finantziazioaren ere bai. Lan asko egiten dugu bankuekin enpresetako finantziazio negoziatzen, krisi garaian enpresei laguntzen eta abar. Lan hauek industria munduan egiten dira baina administrazioan zoritxarrez ez dut ikusten behar bezala egiten denik, politikoak lau urterako sartzen direlako.

## PERTSONAK

Gure zerbitzuetatik pertsona edo langileen antolamenduak,

langileen plantilaren azterketak, formazio planak, lanpostuen balorazioak, barne komunikazio sistema eta formak, hautaketa prozesuak, zuzendariak aurkitu eta aukeratu, eta abar egiten dugu. Enpresa batean pertsonak dira garrantzitsuenak eta beharrezkoa da enpresako hainbat alorretan parte hartzea langileek.

## INDUSTRIA GESTIOA

Enpresak hobetzen nola lagundu izaten da gure zerbitzua. Bai erorketa prozesuetan bai industri plantak optimizatzen. Puntu asko daude aztertzeko

enpresa batek hobetu dezan. Gestio industrialaren azterketa, materialen fluxuen gestioa, kodifikazio sistemak, erorketa eta biltegitze sistemak eta abar.

## GESTIOEN SISTEMAK

Honetarako "CpM" metodologia erabiltzen dugu (konpartitu hobetzeko). Informazio sistemak, kostuen sistemak, hornitzaileen gestioa, proiektuen gestioa eta sistema integratuak kudeatzen ditugu besteak beste. Gure enpresan garatutako gestio sistemak ditugu, beste inork ez daukana, ildo horretan garapen handia dugu landuta.

## LEGE ETA FAMILI ENPRESEN ALORRA

Hemen, bazkidetza eta kontratazio merkantila, famili enpresak, gai fiskalak kontratazio publikoa, eta industria jabetza, intelektual jabetza eta teknologi berriei buruzko zerbitzuak ematen ditugu.

Euskadin enpresen % 80 famili enpresak dira. Askotan familiek enpresa hilarazten dute. Lan asko egiten dugu enpresetako seme-alaba, iloba eta familia-koekin.

Ikusten duzun bezala, OTEICen zeregina, gero eta zailago eta



Iñaki Arrietaren ikas taldeak Zegamako eskoletan Estatu mailako sarria irabazi zuen.



Eskola zaharra, egungo Olango Gizarte Zerbitzuetako eraikina dagoen tokian zegoen.



Oteic enpresa Zuatzun dago kokatua.



Jose Mari Pikasari eta Iñaki Arrieta, OTEI Ceko bulegoan.

konpetitiboagoa den inguru batean enpresei laguntza ematea da, hobetu dezaten eta biziraupena izan dezaten.

Administrazioak ongi antolatzeari zaila da, izan ere politikoak lau urteko ikuspegiarekin sartzen dira 10 urteko ikuspegiarekin sartu ordez.

### **Krisiarekin zer nabaritu duzue?**

Ehiza garaian absentismoa handitu egiten zen baina azken krisiarekin egoera hau ez da hain deigarria. Zegamako papertegian ere horrelako zerbait gertatzen zen, belarretako garaian, baserritar asko medikuarengana joan, baja hartu eta etxeko belar lanak egitera joaten zen. Uda garaian ere eskola umeak oporrak hartzen zituztenean, bazegoen jendea, udan baja hartzen zuena haurrak zaintzeko. Baina gaur egun, jendeak ez ditu horrelako jokaerak lehen bezala onartzen.

### **Langile bat aukeratzekoan zein jarrera da oinarritzeko bezala baloratzen duzuen?**

Bidaiatzeko prest dagoen jendea aurkitzea asko kostatzen zaigu. Batez ere jarrera baikorrak dituzten pertsonak behar ditugu, inizatiba dutenak eta lana zehaztasunez egiteko gaitasuna dutenak, egiten ari diren lanean zentratuta daudenak. Hizkuntzen gaia ere

oso garrantzitsua da hemen, gai honetan hobekuntza garrantzitsuen beharrean gaude.

### **Zein ikasketa edo lanbide izango dira arrakastatsuak etorkizunean?**

Ingeniaritzak orokorrean, gorputzen ingeniaritza, ingeniaritza biomekanikoa asko garatuko da pertsonak gero eta urte gehiagoan biziko gara-lako eta behar gehiago izango ditugulako, automatismoak eta industria planten automatizazioa, enpresaritza, zuzenbidea, logistika sistemak eta abar. Instalakuntzak robotekin lan egingo dute eta robotak baino pertsona bizkorragoak beharko ditugu.

### **Zer diozu 4.0 industriaz?**

4.0 industriari buruz zera esango nuke: nahiz eta beharrezkoa izan, sareen bidez egiten diren enlazeetan eta datuen manejuan dagoela gehiegi zentratua baina oso esanguratsua den 5.0 industriaz ahazten ari dela.

5.0 industria, gure euskal enpresak balore gehituaren katean (cadena de valor extendida) gehiago parte hartzean datza, hau da, bere balore-katearen ikuspegi globalarekin askoz lan gehiago egitea, bere barne ingurutik kanpo optimizazio eta hobekuntzak aurki ditzaten bai hornitzaileekin, azpi kontratistekin, bezeroekin, kontsultoreekin eta abar.

### **Produktzio enpresek iraungo al dute Euskadin?**

Dudarik gabe bigarren sektoreko enpresak, hau da industria sektorea, mantentzen jarraitu behar dugula, prozesuak gehiago garatuz, bai ekoizpen propioak eta geure markekin, erabilpen modelo propioak eta aurrean aipatu dugun Industry 5.0 aren balore globalaren katean intentsiboki lan eginez.

### **Nola ikusten dituzu euskal enpresak?**

Euskadin enpresa gutxi ditugu produktu propioarekin. Hau da, adibidez Mercedes kotxeak Gasteizen egiten dira, baina produktu hori ez da gurea eta edozein momentutan erabaki dezakete beste toki batean egitea.

Bizkorragoak izan behar dugu eta hurrengo 20 urteetan gure produktuak sortu eta balio erantsi gehiago sortzea da Euskadik eman beharreko jautzia.

### **Garrantzitsua al da langileak enpresako erabakietan parte hartzea?**

Enpresan parte hartzeko hiru harmaila edo modu daude: Erabakietan parte hartzea, emaitzetan (lortutako irabazien banaketan) eta kapitalean parte hartzea. Lehengo bietan, langileek parte hartu beharko lukete. Bakoitzaren lanpostuari dagokion erabakietan parte hartu behar du, lan emai-



tzetan onurak izan badira ere bai eta galerak izan badira ere bai, baina akzionista modura langile guztiak askotan enpresarentzat arriskutsua gerta daiteke eta hobe da ongi gidatutako akzionista batzuen esku egotea kapitala.

### **Enpresaren jabe izatea, akzionista izatea ez al da ilusionagarria eta pizgarria langileentzat?**

Lehenengo egunean bai, gero handik aurrera eta gure esperientziaren arabera, ez. Langileek gehienek ez dute nahi izaten erantzukizunik eta administrazio kontseiluan parte hartzeko ordezkaririk aurkitu ezinik ibiltzen dira.

### **Emakumea ari al da enpresetako zuzendaritzetan sartzen?**

Duela 50 urte ez zegoen emakumezkorik enpresetako zuzendaritzetan. Enpresa txikietan akaso bakarren bat baina administrazio kontseiluetan bat ere ez. Egoera pixkanaka hobetzen ari da. Orain gero eta gehiago ari dira sartzen eta oso garrantzitsua izango da emakumeen parte hartzea. Emakumeak gizonezkoak baino enpatia askoz gehiago daukazue, eta gaitasun hori enpresetan ere garrantzitsua da, gizonezkoak bortitzagoak gara. Enpresetan orokorrean, gero eta emakume gehiago ari dira hartzen zuzendaritzetan. Gure gestioan, asko saiatzen gara emakumeak zuzendaritza batzordetan sartu daitezkeen baina askotan, emakumezkoa bera da bere burua baztertzen duena eta batez ere amatasuna dela eta. Nire ustez, denbora gutxiago baina kalitatezkoa eskaini ezkeroseme-alabei, posible da emakumeek beren burua ez baztertzea. Nire



Jose Mari Pikasari eta Iñaki Arrietak, elkarrizketa mamitsua eskaini zuten.

ustez, zuzendaritza taldeetarako oso indartsuak zarete eta bakea islatzen duzue.

Zegamako neskak animatu behar dira ikasketak egin ditzaten, ingeniariak, enpresaritza, zuzenbidea eta abar. eta amatasunagatik beren burua bazter ez dezaten.

### **Gaurko gazteek zein jarrera izan behar dute lanpostu batean?**

Erantzukizuna, inizatiba eta eskatu aurretik ematea.

Gure neska-mutil guztiei esango nieke, gure gurasoek utzitako legatuaren jabe izan behar dutela gutxienez eta gero hau hobetu egin behar dutela. Seme-alabekin asko hitz egin behar da eta denbora librean, gazteek lan egin behar dute.

Gure gurasoak belarra moztu, metak egiten eta baserriko lanak egiten baldin bazekiten, guk gutxienez hori jakin behar dugu eta gero hortik aurrera gehiago ikasi behar dugu. Atzera pauso bat ere ez dugu eman behar. Ni, 17 urterekin osaba Inaziorekin joaten nintzen udan (uztaila, abuztua eta iraila) Aristrainera lanera eta asteburutan, Lartxaunera belarretara, eta jarrera hori oso garrantzitsua da bidea egiteko. Gai honetan askotan gurasoak ahul xamarra gara eta seme-alabei dedikazio hau eskatu egin behar dugu.

Bestalde, Zegamako haur-gazteek, ingelesa ikasi behar dute ongi, eta ongi legoke, Sant Sadurni d'Anoiaz gain, Irlanda edo horrelako herrialde bateko herri txikiren batekin senidetzea gure haur eta gazteak ingelesa praktikatzera joan daitezkeen.

Gainera, zegamarroi esango nizueke Tobera Musika Eskolarekin jarraitzeko, musika gure gazte eta helduen garapenerako oinarritzat delako eta bazter guztietan pin-poneko mahaia jartzeko.

Japonian egin duten alzeimerraren azken azterketan, alzeimerra duten pertsonen pianoa irakasten hasi direnetik, memoria izugarri hobetu omen dute eta gauza bera pin-poneko jokoarekin ere. Musikak buruko gimnasioa eragiten du eta horretarako instrumenturik hoberena pianoa omen da. Nire emaztea, Goierri-Ordiziako Musika eskolako zuzendaria da eta Ordiziako 70tik 90 urte bitarteko ikasleak dituzte esperimendu bat egiteko eta memoria izugarri ari omen dira hobetzen.

### **Zegama zer da zuretzat?**

Oroimen zoragarrien helmuga, nire bizipenak, familiarrenak, lagunarenak... eta babesten gaituen "Aizkorri" aita handi horren helmuga, egunsenti eta ilunabar zoragarrien helmuga. Eta noski nire ama eta anaia bizi den herria, ahal dudan guztietan joaten naizen herria nahiz eta askotan ezin izaten dudana. Nire aitona-amonak, gurasoak eta osaba-izebak nire bizitzako lehen pausoak ematen erakutsi zidaten herria.

EDURNE ALBIZU ORMAZABAL

ELKARRIZKETA

# PRANTXIKA LARREA ASURMENDI



Prantxika Larrea eta bere senar Antonio Arakama ezkon egunean.

## Noiz eta non jaio zinen?

1926an jaio nintzen Zegaman, Moleo baserrian. Hiru senide ginen, ama hil egin zen aborto baten ondorioz eta aita eta aitona-arekin hazi ginen, aitona ere alarguna baitzen.

## Nola izan zen zure haurtzaroa?

Nik 10 urte nituela Gerra zegoen eta beldur handia pasa genuen. Iluntzetan etxetik alde egiten genuen. Aitak, gure etxetik gora beste txabola bat zeukan eta han lo egiten genuen badaezpada, izan

ere gauetan gehiago etortzen baitziren egunez baino.

Garai hartan, Arizti-erdiko aita-semeak hil zituzten. Lehenengo aita eta gero, bere semea, honen bila joan zenean hau ere hil egin zuten. Amina-goeneko Anastasiren gizona ere eramane eta hil egin zuten eta bi haurrekin geratu zen bera bakarrik.

**GERRA ZEGOEN.  
ARIZTI-ERDIKO  
AITA-SEMEAK HIL ZITUZTEN**

## Baserrian ganadurik ba al zenuten?

Bai bi behi eta txerri pare bat izaten genituen. Hasieran behi esnea saltzen genuen baina aitak esan zidan egunero esnearekin gora eta behera ibili ordez, bidean bustiz, gazta zergatik ez nuen egiten. Honela behi gazta egiten hasi nintzen eta egunean bi egiten nituen.

## Zer egiten zenuten gaztarekin?

Gaztak Garakoko (Olaberri auzoan zegoen denda) Joxeri eman nizkion Ordizian saltzeko. Hark esan zidan lehenengo aldirian eramango zituela proba egiteko ea saltzen ziren edo ez eta Ordiziako feriatik buelta egin zuenean, esan zidan segituan saldu zituela, oso mantekatsuak baitziren.

## Dirutan ordaintzen al zen generoa?

Ez Joxek ez zidan dirurik ematen beste generoren bat bazik, trukea egiten zen. Txahalak eta txerriak, Migel harakinak eramaten zituen.

## Eskolara nora joaten ziren?

San Pedrorra joaten nintzen, Maria Mora izan genuen maestra. Eskolan 14 urte arte

ibili nintzen. 18 urtetik 30 urte bitartean Zegamako Papertegian egin nuen lan eta ezkontzean lantegiko lana utzi nuen.

### **Zer lan egiten zenuen papertegian?**

Papera “pasatzen” nuen hau da, paper txarrak apartatzen nituen. Txikia nintzen eta papera pilan jartzerakoan, askotan ihes egiten zidan.

### **Papertegia utzi eta base-rrira ezkondu al zinen?**

Bai Moleora ezkondu nintzen. Soroan lan asko egiten genuen, bi behiei uztarria jarri eta lur onak genituenez, babarrunak ereiten genituen eta hauek ere Garakoko Joxeri saltzen nizkion.

### **Moleotik gora herri biderik ba al zen?**

Bai gure etxeko ataritik gora. Bide hori San Adrianera joaten zen. Gu han bizi ginenean garbi garbi zegoen orain ez dakit nola egongo den. Araba aldera estrapelora joaten zendea ere hortik pasatu ohi zen eta San Adriango meza zegoenean ere, jendea hortik joaten zen. Gure aita ere joaten zen Arabara patata ekartzera.

### **Artzainak ere hortik ibiltzen al ziren?**

Bai batzuk hemendik pasatzen ziren, Paxkuala Gesaletxeko ataritik pasatzen zen.



Prantxika eta Antonio Jose Mari eta Arantxa seme-alabekin.

### **Zein zen emakumearen zeregina garai hartan baserrian?**

Guk, sukaldeko lanak eta behi lanak egiten genituen eta baita soroko lanak ere. Erropak ere guk garbitzen genituen. Ikazkinak Aldaolan egoten ziren, han zeukaten txabola eginda eta guk arropak garbitzen genizkien. Kelo Perez, anaia eta osabarekin etorri zen baso lanera garai hartan.

### **Nola ekartzen zuten ikatza Aldaolatik?**

Hasieran Aldaolatik ikatza txirrikan bajatzen zuten Zupi-

txotara eta gerora mandoz garraiatzen zuten.

### **Jaietan herrira joaten al zineten?**

Mezetara bai baina festara Urtzelaietara joaten ginen. Han esku-soinua (akordeoia) jotzen zuen lehenik Romanek eta gero bere anaia Migelek eta han egiten genuen festa.

### **Dantza egiten al zenuten?**

Bai, “agarratuan”. Behin nire koinata Mariatxo mutil batekin joan zen, eta Perfektak elizako sarreran Kongregazioko medaila kendu zion. Garai hartan horrelako kontuak izaten ziren.

### **Neska-laguntzen ibiltzen al ziren mutilak?**

Bai guri Idiazabalgoak laguntzen ziguten, hauek bizikletaz etortzen ziren Urtzelaietara igandean.

### **San Bartolomeak nolakoak izaten ziren zuretzat?**


Gu San Bartolometan behin edo bakarrik joaten ginen herriraino. Gu normalean Urtzelaietan ibiltzen ginen igandeetan.



Jose Mari semearen ezkontzan famili osoa.



Prantxika eta Antonio Maider bilobarekin.



Prantxika eta Antonio Maider bilobarekin.

### San Martin feria egiten al zen?

Ez hori beranduago sortutako feria da. Uste dut Joxe Telleriarekin hasi zela.

### Arantzazuko Peregrinaziora joaten al zineten?

Bai astelehen goizean autobusez joaten ginen eta arratsaldean etortzen ginen berriro ere autobusez.

### Zer moduz bizi zara orain?

Ondo, hementxe famili giroan.

EDURNE ALBIZU ORMAZABAL



Prantxika eta Antonio Onintza bilobarekin

## ASIF ETA MAIDER



Maider, bere senar Asif eta seme-alabak: Inyat (3 urte eta erdi ditu) eta Kashif (16 hilabete ditu) semea.

### Nolatan etorri zinen Zegamara?

A. Nire lehengusu baten lagunak Olaberri auzoan bizi ziren eta haiek bisitatzera etorri ginen Madriletik. Gero hemen lana aurkitu nuen eta bertan geratu nintzen bizitzen.

### Madril eta Zegamako jendearen artean alderik nabarmenduko al zenuke?

A. Bai madrildarrak askoz lehorragoak dira, zegamarrak irekiagoak zarete.

### Eta nolatan etorri ziren Pakistandik Espainira?

A. Gurasoek bidali ninduten. Pakistanen neuzkan lagunak zirkuitutik atera nahi izan ninduten, aldi berean, nituen ohitura batzuk aldarazi asmoz Espainiara bidali ninduten lehengusuarengana.

### Pakistanen ba al dago lantegirik?

A. Bai lantegiak badaude, baina gure etxean beti lurrak izan ditugu, traktore eta makinariak ere bai lur hau lantzeko, baina nik ez nuen lanik egiten.

### Ba al duzu Pakistanera joateko asmorik?

A. Bai, sei bat hilabeterako joan nahi dut, izan ere nire aita bizi da eta berarekin negozio bat jarri nahi dut gero nire asmoa, hona itzultzea da, izan ere hemen baititut Maider eta bi haurrak baina sarritan joan behar dut negozioa dela eta.

### Desberdinak al gara euskaldunak eta pakistandarrak?

M. Nire ustez antzekoak gara orokorrean. Alderik handiena txerrikia ez dutela jaten eta erlijio musulmandarra azpimarratuko nituzke.

### Seme-alaben heziketan arazorik sortzen al da?

M. Alabaren kasuan, ez du inoiz txerrikirik eskatu eta ez diogu ematen, semearen kasuan izugarri gustatzen zaio eta eman egiten diogu, nahiz eta aitari ez dion grazirik egiten.

EDURNE ALBIZU ORMAZABAL

# AGUSTINA ZUFIAURRE OLANO



Agustina eta bere anaia umetan bere gurasoekin.

## Non eta noiz jaio zinen?

1926 urtean jaio nintzen, Aralargo Guardaetxean.

## Zenbat senide zineten?

Gu sei senide ginen, 3 mutil eta 3 neska.

## Nolatan guardaetxan?

Aita Nafarroako diputazioan basozaina zen eta bizileku bezala Aralargo guarda etxea geneukan.

## Eta zer egiten zenuten han?

Aitak, guarda izanik, mendian egiten zuen lan. Inguruko mendietara jendea etortzen zen lanera eta amak eta guk, senideok, guzti horiei jana, merienda... ematen aritzen ginen. Bazeuden etxean bertan lo egiten zutenak ere.

Lanera ezik, mendi ibilaldiak egitera etortzen zirenak ere gure etxean jateko ohitura zuten.

## Eta eskolara, nora joaten zinen?

Eskolara Lakuntzara joaten nintzen oinez, eta astea izebaren etxean pasatzen nuen. Ostira-

letan berriro oinez etxea. Aldapa handia dago eta ordu eta erdi edo pasatzen nuen, baina oso gustura joaten nintzen gora. Askotan esaten zidaten herrian geratzeko festaren bat zegoenean, baina nik nahiago izaten nuen gure etxeko festa.

## Garai haietan orain baino elur gehiago egiten zuen, ezta?

Bai, bai. Batzuetan hilabete egoten ginen gu lurrik ikusi gabe. Kaminorik ere ez zegoen eta ez zen ezer garbitzen. Hala ere kasu horietan Lakuntzako jendeak asko laguntzen zigun. Korreoa eta, behar genuena ekartzen ziguten beraiek oinez etorrita. Bideak garbitu ere bai batzuetan, palak hartuta auzolanean. Oso polita zen elkar laguntza hori ikustea. Gaur



Agustina gaztetan.

egun kaminoa eginda dago eta "kitaniebesa" ere pasatzen dute.

## Generoa eta gora igotzeko nola?

Behorretan igotzen zen. Ogia etxean bertan egiten genuen, bai guretzat eta baita mendian lanean ari zirenentzat ere.

Telefonorik eta argirik ere ez genuen eta zer gustura bizi ginen, orain adina berriketa gabe, baino...

## Horrenbeste elur egiten zuenean, joango zen ba jendea ikustera ere?

Bai, jende aberatsa. Tolosa aldetik asko joaten zen farmazeutikoak, medikuak, abokatuak. Egun pasa joaten ziren eta eskiatzen karrerak egiten zituzten, eski dotore askoak ekartzen zituzten gainera. 12 autobuskada ere joan izan ziren. Gurean bazkaria eskatu, leku handirik ez guk etxean eta ganbarako eskaileretan eserita bazkaltzen zutenak ere izan ziren. Igandero etortzen ziren asko eta ia ezagunak, familia-koak bezala ziren.

## Istripuak gertatuko ziren ba holakoetan?

Bai, mendi ibilaldiren bat egitera irten eta bapatean elurra hasi eta galdu direnak asko. Orduan familiakoek San Migelera deitzen zuten, guk etxean telefonorik ez genuen eta, handik hiru gizon eta gure etxetik anaia hartu eta bila irteten ziren.



Agustina Aralarren eskiatzen.

Agustina Guardaetxean mahaia zerbitzatzen.

Anaia basozaina zenez, mendia eta ingurua oso ondo ezagutzen zituen eta berari esker aurkitzen zituzten asko eta asko. Adarra jotzen zuten jendea bilatzeko.

Gogoan dut, Azkarateko batzuk galdu zirenean eta etxera ekarri zituztenean nola negar egiten zuten pozez, beldur eta hotz handia pasatu baizuten. Oso egoera larrian aurkitu zituzten.

Eskiatzen ari zirela hanka hautsitakorik ere bai. Hala-koetan kamila bat izaten genuen etxean. Zauritua mendian jaso eta gure etxera ekartzen zuten, eta handik oinez jaitsi behar izaten zuten kaminoa eginda zegoeneraino.

Momentu haietan gaur egun mantentzen ditugun lagun ugari egin genuen.

### Zuk izan al zenuen eskirik?

Bai, izan nituen bai, neure anaiak egin zizkidan lizarrezkoak. Ahal ziren modukoak izaten ziren gureak.

Hala ere asko gozaten genuen ilargi beteko gauetan, etxetik kilometro erdi ingurura dagoen zabalgunere batera, Albira, eskia-tzera joaten ginenean.

### Jende asko pasa dela zuen etxetik esan dezakegu beraz?

Jende asko egoten zen bai gure etxean.

Guardaetxeari itsatsita Ingenieroen etxea zegoen. Ingenieroak noizean behin joaten ziren bertan egunak pasatzera.

Falces-eko bi anai Diputaziorako lanean ibili ziren gure etxetik hurbil. Hiru bat hilabete pasa zituzten gure etxean jan eta lo eginez.

Garai hartan Guardaetxen nire koinata Nikolasa, bere alaba Miren eta nire anaia ezkon-gabea Joakin bizi ziren.

### Etxekoak ez zirenek ere osabari "Tío Joakin" esaten zioten eta Falces-eko anaiei hasieran harrigarria egin zitzaien hau. "Guztien osaba ez zen izango bada?"

Garai hartan anai haietako batek ezkondu egin behar zuen eta ezkongaua Guardaetxen pasa behar zutela esan zuen. Egia esanda ez genion sinetsi.

Ezkontza ospatu ondoren, iluntzean, han presentatu ziren ezkonberriak. Erabat harrিতuta gelditu ginen, ez beigenuen espero etorriko zirenik. Etxeko gelarik dotoreena prestatu genien basoko lore eta guztiz apaindurik.

Sukaldean bageneukan mahai luze bat eta bertan bazkaltzen zuten askotan elkarrekin ezezagunak zirenak elkarrekin. Bata artzaina, bestea espeleologoa, medikua, oporrak Txinan pasatutakoa, linterneroa, azafata... guztiz jende ezberdina.

Ni ontziak garbituz kontuak entzuten aritzen nintzen eta egunero kontu desberdinak entzuteko aukera izaten nuen. Oso aberasgarria zen.

Jende aberatsa bazen ere oso jatorrak eta xumeak ziren.



Agustina bere senar Demetrio Alustiza eta biloba Orkatz.



Agustina Amaia alaba, Edurne alaba eta Fermin Aldabe suhiarekin.



Kemeni harrera egin zioten Loiu.

### Noiz arte egon zinen zu Guardaetxen?

29 urterekin ezkondu nintzen eta etorri nintzen Zegamara. Hasieran ez nuen batere ondo pasa, etxeko kontuak, ingurua,... dena botatzen nuen faltan, nahiz larunbatero joaten ginen etxera.

### Beraz ezkondu Zegamara egin zinen?

Bai, Langaneko Demetriorekin ezkondu nintzen. Hasieran Langanen bertan bizi izan ginen, ondoren Olaberrira etorri ginen eta jarraian Ezpaleora. Ezpaleon bizi ginela etxea erre egin zen eta handik Padrenera joan behar izan genuen. Azkenean, urterik gehienak, plazako Jauregin pasa ditugu.

Garai hartan hala ere Zegama oso desberdina zegoen. Gaur egun dauden etxe guztiak egiteke zeuden.

### Eta Zegaman ze lan egiten zenuten?

Demetriok kamioak zituen eta mendiko egurra ateratzen egiten zuen lan. Beste txofer eta langile batzuk ere izaten zituen eta horiek gure etxean jan eta lo egiten zuten. Batzuk 8 urte pasa zituzten gurean. Hauekin ere familiako harreman estua egin genuen.

Nik etxean egiten nuen lan, guzti hauei jaten ematen eta etxeko lanak egiten.

### Nongo jendea zen?

Hemen ibiltzen ziren basomutil gehienak Andaluziakoak ziren. Gaur egun gure etxean egon ziren guztiekin harreman estua izaten jarraitzen dugu. Lagun asko egin genituen.

### Frontoia zaintzen ere ibiliak zarete?

Demetrio kamioi lanetik jubilatu zen garai berdintsuan, irekia zen frontoia estali egin zuten. Bertara partiduak jokatzera etortzen zen jendeari harrera egiteko norbait behar zen eta gu hasi ginen horretan. Orduen erreserbak apuntatu, diruak jaso, arauak gogorazi, garbitu...

Orduan ere izaten ziren bihurrikeriak egiten zituztenak, baina Demetriok temple ona zuen eta ondo moldatzen zen guztiekin.

### Eta zenbat denbora frontoiko lan horiek egiten?

13 urte ibili ginen bai gu frontoiko lanak egiten.

### Aurten zure bilobaren bat telebistan ikusteko aukera ere izan dugu?

Bai, Kemen. Eitb2 ko "El conquistador del Caribe"

programan hartu du parte. Nahiko gose pasatuta etorri zen. 11 kilo galduta etorri zen hilabete eta bost egun pasa eta gero. Ezin mutila ase, bi lenteja plater eta bi filete handi emanda ere. Berak uste baino gogorragoa dela esaten du, baina esperientzia paregabea dela eta bihar bertan joango litzatekeela berriz ere.

Hala ere, programa telebistan ikusi ez dugun bitartean ondo gorde du sekretua. Ez zigun bertako paisaiaren daturik ere ematen.

Etorri behar zuela jakin genuenean, hamabi lagun joan ginen Loiura baserritar jantzita eta ikurrina hartuta harrera egitera. Nik aurrez irabazita zuen erremonteko txapel bat jarri nion buruan eta anaiak, Orkatzek, ikurrina eman zion.

Murgiko Anjelek egindako saski batean bonboiak eta kaba eraman genituen eta bertan ospatu genuen Kemenen etorrera. Oso polita izan zen.

# SABINO IRAOLA LAPIZONDO



## Non eta noiz jaio zinen?

1932ko abenduaren 30ean jaio nintzen Lazkaon.



Sabino Iraola ezkon egunean.

## Baserrian jaio al zinen?

Ez kale kalean jaio nintzen. Sei senide ginen, hiru anai eta hiru arreba. Ni laugarrena nintzen eta orain bi arreba eta ni bakarrik bizi gara.

## Lazkao nolako zen garai hartan?

Oraingo aldean oso txikia. Gaurko laurdenik ere ez zen izango. Kale etxeak bazeuden baina gutxi, kale inguruan ere baserriak zeuden.

## Eskolara ere joango zinen?

Bai baina 11 urte arte bakarrik. 11 urterekin morroi joan nintzen Beasaingo baserri batera.

## Non zegoen Beasaingo baserria?

Baserri hau ere kale kalean zegoen, lehen Indar fabrika egon zen inguruan.

## Zer lan egiten zenuen morroi egon zinen baserrian?

Batez ere ukuiluko lanak egiten nituen, hiru edo lau behi edukitzen zituzten eta hauentzat ganadu jana ekarri, azpiak atera eta abar. Baserrian ohikoa ziren lanak egiten genituen. Hura izan zen nire eskola.

## Lotara, Lazkaora joaten al zinen?

Ez, baserrian bizi nintzen gau eta egun, bertako bezala. Garai hartan oso ohikoa izaten zen morroi joatea beste etxe edo baserri batera.

## Zenbat denbora egin zenuen baserrian?

Hamar-hamaika urte behintzat bai.

## Beste senideak ere morroi joan al ziren?

Ez ni bakarrik joan nintzen baserrira morroi. Niri baserriko lana gustatu egiten zitzaidan eta ni joan nintzen.





Sabino Iraola bere emazte Ines Lapizondorekin, bilobarekin Jaunartze egunean.

## Soldadutzara ere joango zinen?

Ez ez nuen joan beharrik izan. Ama alarguna zen eta beste anai zaharrago bat baneukan, baina "ospiziokoa" zen eta ikusten denez, honek ez zuen kontatzen orduan ez nuen soldadutzara joan beharrik izan.

## Noiz hasi zinen Beasaingo Indar enpresan lanean?

Baserriko lanen ondoren Indarren hasi nintzen. Indarren hasieran moldeatzen aritu nintzen eta gero txapetara pasatu ninduten. Indarreko nagusiak, bai Larrañagatarak eta bai Ormazabaldarrak Lazkaokoak ziren eta ni Jesus Larrañagaren eskutik sartu nintzen Indarren.

## Zer moduzko enpresa zen Indar?

Indar enpresa ona izan da eta da. Orduan ere lan onak eta txarragoak ere bazeuden baina orokorrean lan garbia zegoen

beste enpresa batzuekin konparatuz gero.

## Noiz etorri zinen Zegamara?

1966an etorri nintzen, ezkondu ginean.

## Aldaketa handia izan al zen zuretzat?

Bai hasieran aldaketa handia izan zen. Beasain, Beasain zen eta da eta handik hona aldaketa handia zegoen. Hasieran jenderik ere ez nuen ezagutzen

baina pixkanaka pixkanaka herrian sartzen joan ginen. Orain ondo bizi naiz Zegaman.

## Nola joaten zinen Beasaina lanera?

Autobusez joaten ginen hasieran. Konstantinorekin joaten ginenean beti garaian iritsi ezinda ibiltzen ginen, izan ere jendeari kobratzera autobusetik jaitsi egin behar izaten zuen eta denbora pasatu egiten zitzaion eta beti iritsi ezinda ibiltzen ginen. Hala ere Konstantinori ez genion inoiz ezer esan, oso jenio txarra baitzeukan. Antoniorekin ordea lanera garaiz iristen ginen, hau aire batean joaten zen, guk ere horrela esaten genion bizkor-bizkor joateko.

Aizkonetako Juan Mari ere ibili zen autobusean txofer eta honekin ere oso ongi iristen ginen lanera. Geroago, Ondar-goan eta Ondar-etxeberrikoak kotxea erosi zuten eta hauekin joaten ginen kotxez. 33 urte aritu nintzen Indarren lanean.

## Gaur egun jubilatuta zer moduz bizi zara? Zertan pasatzen duzu eguna?

Ongi bizi naiz, lasai, mendira joatea gustatzen zait, perretxiku bila ibiltzea eta paseatzea. Aurten arte baratza ere eduki dut.

EDURNE ALBIZU ORMAZABAL



Sabino bere hiru seme eta errain eta biloba guztiekin .

# PIO BERASATEGI BERASATEGI



## Non eta noiz jaio zinen?

Zegaman jaio nintzen 1935eko urtarrilaren 14an Atxetxe baserrian. zazpi senide ginen bost anai eta 2 arreba. Baserrian jende asko bizi ginen, aitona-amonak, aitona-amonak zaha-rrak(gurasoen aitona-amonak), gurasoak eta gu zazpi senide.

## Baserritik bizi al zineten?

Ez aita kamineroa zen baina hala ere etxean artaldea, bost behi, oiloak etab izan genituen. Ardiak mendian egoten ziren. Nire gurasoak Egurtzekok ziren eta hango lurrak erabiltzen genituen. Gure aitona erosi zuen Atxetxe, gure amak ez omen zuen etorri nahi Atxetxera baina azkenean erosi egin zuten. Pinudiak, hariztiak, belarra eta soroa ere eduki genituen Goialdean gerrate ondoren.

## Eskolara joan al zinen?

Bai baino nahiko gutxi, Eskolan hotz egiten zuen. Maixu bat egoten zen 80-100 mutiko baino gehiagorentzat. Mutiko handienak txikiagoei erakusten zien. Nik ez nuen eskolara joan

nahi izaten. Amari esaten nion ez nuela eskolara joan nahi. Behin gogoan dut nola amak esan zion Jose Mari anaiari niri kontu egiteko eta anaiak Ugarteko kilometroko seinalean dagoen tokian zer esan zidan:

“Nik ez diat kasurik egingo. Eskolan bi modu zerek: ematekoa eta hartzekoa eta hobe dek ematekoa”.

Nik eman egiten nuen baina gero handiagoak jo egiten gintuzten ...

Eskolan hamalau urte arte ibili nintzen eta hamazazpi urte arte etxean egon nintzen.

## Noiz joan zinen Madrilera?

Madrila hamazazpi urterekin joan nintzen. Gaztelaraz banekien baina barre egiten zidaten. Honela zera erabaki nuen, etsaiari bere arma propioarekin eman behar zaiola eta gaztelaraz ongi ikastea erabaki nuen. Gero neuk isiltzen nuen jendea.

## Madrilen zertan lan egin zenuen?

Lehenik zapata denda batean lan egin nuen saltzaile modura, egunkari agentzi batean ere lan egin nuen eta “Torrejon de Ardoz”en ere lan egin nuen amerikarrekin. “Queseran” egon nintzen, Ingalaterratik “zepak” ekartzen ziren gazte gustua emateko. Zepak gaztari gustua emateko erabiltzen ziren pilula batzuk ziren,

gatzagiaren modukoa, gaztari amerikarrek nahi zioten puntua eman ziezaioten. Amerikarrek, Torrejondik at, Zaragoza, Sevilla, Cadiz, Salamanca.. eta toki ugartan zituzten baseak eta jaki guztiak Ameriketatik ekartzen zituzten eta gure ardura jakiak base hauetara banatzea izaten zen.

Hotel batean, harrera lanetan ere aritu nintzen eta abar.

## Literaturarako zaletasuna noiztik duzu?

Irakurtzeko zaletasuna aspalditik baina nahiko berandu sortu zitzaidan. Egia esan Aita Barandiaranek sartu zidan zaletasuna. Aita Barandiaran, pertsona ona eta jakintsua izan zen. Aita Barandiaranek jakin zuen 40 bat ipuin idatzita nituela eta eskatu egin zizkidan eta zera esan zidan: “Denak gau batean irakurri ditut, dibulgaziorako asko balio dute eta Saadargo Tartaloren ipuin osatuena daukazu”. Tartaloren ipuina beraz nik salbatu dudala esan dezaket. Tartaloren ipuina, nire aitona kontakatu zidan. Honela Aita Barandiarani galdetu nion ea zer zeritzon ni ere idazten hasteari eta zera esan zidan:” zerbait esateko baldin badaukazu bihartik hasi”! eta honela animatu nintzen idaztera.

## Zenbat liburu idatzi dituzu?

Lehenik bi eleberri idatzi nituen, ipuinak idatzi nituen hiru aletan eta beste lau dauzkat eta ez dakit bosgarrena egingo



Piok soldadutza Melillan egin zuen.



Juan Telleriaren  
jaiotetxea.



Atxaetxe  
baserria da Pio  
Berasategiren  
jaiotetxea

dudan. Lehenik euskaraz idatzi nituen baina gero lagunek esaten zidaten ea uste nuen beraiek euskara ikasi behar zutela nire lanak irakurri ahal izateko eta horrela gazteleraz idatzi nuen “Viejas historias de mi cuna”.

Xabier Mendigureni ere bi eleberrri utzi dizkiot eta iaz idatzi nituen 22 ipuin. Ipuinak izen errealak jarri gabe egin ditut zerbait aldrebesturik. “Beste zenbait istorio” liburuan, “Kexada Generala”ri buruz aritu naiz. Kexada, Espainiako indar guztien jenerala da eta Arkurutzetik konboi guztiak pasa zirenean, Arantzatarrak poltsa han kendu ziotela esaten da, eta handik dutela dirua. Ipuin hori ere hor dago, Zegamako hainbat kontu, astoa Zegamako udaletxeko balkoira igo zutenekoa, sorginen kontu batzuk eta abar.

Ipuinetan “Ciudad de Irun” saria eman zidaten eta beste batean 2. Postua atera nuen, lehen postua Xabier Gereñuk atera zuen. Urte askotan indiferente antzea egon naiz eta azkenaldi honetan duela 40 urteko

kontuak idatzi nahi izan ditut. “Demetrio Pilotoren” kontuak eta Otaegi, Napoleonen informatzailearen kontuak idatzi nahi ditut.

Klaudiok Konfiteriko etxeko goxokiak egiten zituen jendeari emateko. Konfiterin denda garrantzitsua zegoen eta jendeak erosketak egindakoan astoa kargatzen zuen erosketekin. Juanito Telleria pertsona bezala ona zen, “Cara al sol” egin zuen baina gainerako obra guztia hor dago isilik. Klaudiori pattarra eskatzen zioten gero ura edaten zuen eta astoa kargatu eta Klaudiori beste kopa bat eskatzen zion.

Juanito Telleriaren etxeak hiru solairu dauzka eta solairu bakoitzean 3 piano zeuden eta bakoitzak bere pianoan entsaiatzen zuten eta akatsen bat eginez gero, solairu batetik bestera elkar zuzentzen zuten. Telleriarrak oso musikari onak ziren baina bere burua galdu zuten politikarekin. Juanito Telleria Alemaniatik etorri zen musika ikasketak eginda eta Primo de Riverak, Bolartek eta era horretako jendeak ezagutzen zuten. Bere emaztea falangistagoa zen bera baino.

Dionisio Telleria zen organo jolerik hoberena, Zirkuloko pianoa desafinatuta egoten zen eta berak bakarrik jo zezakeen. Felix Telleria Azpeitiko musika bandaren zuzendari izan zen

eta gero Malagako musika bandaren zuzendari eta Radio Madrileko pianista titular bezala egon zen. Hiru pianoak orain Zegamatik eramanda dituzte.

### Ba al duzu Juanito Telleriaren orotzapenik?

Izebarekin mendira joaten ginen eta Juanito Telleria Iturbietako iturrira joan ohi zen eta hango uraren hotsarekin konposatzen zuen eta handik Txarakortara joan eta han trenaren hotsarekin konposatzen zuen. “Espera un poco, aber si tomo unas notas” esan ohi zuen. Moanotik Santu Spiritura ere askotan joaten ginen.

Bestalde, “Zirkuloan” barnean, bazegoen eszenatoki bat eta hura “Centro Carlista” izan zen lehenik eta gero “Centro Falangista” eta han egiten ziren komeriak (antzerkiak). Zirkuloa, Parisko “Cafe Teatro” antzekoa bat zen eta falangearen zentroa izan zen eta gerra zibila irabazi zuten jeneral guztien argazkiak zeuden eta herriko jende askok “txaketea” aldatu zuen.

Herri hau falangista izan da. Demetrio Pilotok bere burua Karlizatzen zuen eta telleriarrei zera esaten zien behin:

“Zuetatik ez dago Karlistarik!” eta telleriarrek erantzun omen zien: eskutara joango al gara? Zera joango gaituk eskutara, prakak gerrin eutsi ezinda gerek eta!”



## Juanito Telleriaren alabekin traturik ba al duzu?

Bai. Askotan esan diet bere aitak, "Cara al sol"en aldean obra garrantzitsuak dituela, "El Joven Piloto", "Las Viejas Ricas", "La dama de Aizkorri" zartzuelak hain zuzen ere eta "Cara al sol" sakralizatu egin dutela eta beste obra guztia ezkutatu duela honek, bere kalterako izan da.

Behin, Zegamako mutiko batzuk Juanitoren zartzuelatxo bat entsaiatu genuen eta oso meza polita atera zen.

## Juanito Telleriak Zegaman zuen monumentua ba al dakizu non den?

Bai alaba gazteenaren etxean, honek txalet bat erosi zuen Madrilen eta hara eraman zuen. Ni bere etxera bazkaltzera joan nintzen batean Maria Jesus alabak zera esan zidan: "Tu sientate allí, a lo mejor no quieres sentarte al lado de mi padre". Pena eman zidan. "pues si, voy a comer a lado de él" erantzun nion. Hemen Juan Telleria kale izena pintura botata dago eta pentsatzen dut nahita egongo dela... baina

pertsonak ezagutu egin behar direla uste dut.

## Nola ikusten duzu gaurko Zegamako gizartea?

Gure artean abertzaletasuna motel dago, mokotik bai baina ez du sentitzen jende askok. Hemen bertakoak izan dira zapaltzaile okerrenak. Gure kultura ere motel dago, euskaraz jakin eta gazteleraz aritzen den jende asko dago, irakurketa gutxi egiten da, ez dago kulturarik nire ustetan.

EDURNE ALBIZU ORMAZABAL

## MARATOIAREN IBILBIDEAREN IKUSPEGI HISTORIKOA, PIO BERASATEGI HERRITARREN AHOTIK

*"Zegaman herriak berariz edo bere kabu aproposenez lortu du Zegama-Aizkorri mendi maratoiarekin egundoko arrakasta.*

*Ez dakit nork traza- mugatuko zuen maratoiaren errezintoa, baina apropos edo kasualki herriaren leku historikoenenentatik pasatzen da.*

*Zegamak betidanik izan ohi ditu zenbait gertakizun dezentexirene edo bitxi xamarrek. Esate baterako, Aizkorrondoak izan ditu noizbait itsas-gizonik kapitain, pilotu, edo jenderik Bonaportetarrekin ahaidetua. Banuen nik lagun bat esaten zidana alegia, mundu zabalean, New York eta Zegaman gertatzen zirela gauzarik arraroenak. Holako gauzak inori entzutean, nik barre egin eta ez nion tutik ere erantzuten.*

*Herrian Elizmuino esan edo bai Muinotxo, erreferentzi bat bera, eta hementxe abiatu eta ekiten dio maratoiak korrikari Izarragaindik gora Antti-Muinorantz. Hautzarroan iruditu zitzaigun etxe hau Anttimuino alegia, etxe erdi majikoa, bere altzoan hainbeste pagadi ederrekin. Perretxikoak ere apartekoak izaten zituen baso hark bere altzoan.*

*Bidean eskuinera hartzen da Antti-sarrirako eta han ezkerre geratzen dira nontxobait Palankaleku, Saadargo tontorra, eta gaintxoan bertantxe topatzen da Tartaloe-txeta bere tumulu eta guzti. Aita Barandiaran eta Jose Mari Satrustegi antropologo jaunen esatez, Zegamak dauka Polifenoren euskal mito osoena. Trikamuinoetatik dator hurrengo haizpuntua eta leku honen izenak badirudi esan nahi duela alegia, noizbait aker eta ahariak trikean egiten zutela han. Eta Aztio mendian sartzen da ondoren korrika; agian aztien kontsulubioan edo bat batez sorginen akelarrean. Jakizu.*

*Bidarte aurreraxio eta berehala iritsiko da korrika Otzaurtera, Garagartzako bidetik ez dira urruti geratzen ezkerre Orobe eta batez ere Arkurutzeta, non Zumalakarregik triskiluraino garaitu zuen erregina Cristinaren militar ospetsuena zen General Quesada edo herri xumearen esatez "Kexada jenerala".*

*Quesadak ozta ozta ihes egin ahal izan zuen bere konboia aski txarto salbatuz.*

*Gaueko bederatzietan iritsi zen Quesada jenerala Ordiziako guarniziora arras hanka soilik Arkurutzetan txapel gorra galduz. Bere larrian ez zen geratu Zegaman eta ezta Seguran ere.*

*Arkurutzetan Zumalakarregiren eraso izugarrian erreginaren giristino edo giriek eta liberal edo beltzak baja handiak izan zituzten eta presotuak izan ziren ugari.*

*Ezin esan Karlsteen lehen gudaria ere Zegamar jatorriko Don Santos Ladron de Zegama jeneralak hasiera eman zion Jakan. Han Erdi Aroko garaletan herrian lehendabiziko eliza eraiki zuten. Ladron de Zegamarren odol edo jatorrizkoa zen zaldun hau. Maratoiak inon egonik gabe, Atabarreta eta Ailarteko portutik Aratzgo kanpabarrura eramango zaitu. Eta hemen topatzen da negutegian elurra betetzen duen leize handia. Aspaldi hemendik eramaten zuten idi-gurdietan elurra Gasteizko ospitaletara.*

*Hemendik hurrena Ezkaratzako iturria topatzen da, non Euskal Herriko, Diputazioetako juntek egiten zioten ongi-egortria Espainiatik foruak sinatzera zetorren erregeari, galtzada zaharreko atalik iraunkorra ere hementxe dago.*


*San Adrian edo Sandrati pasa, bere hainbeste gertapen, historia eta fraideen ipuinekin eta Sacti Spirituaren ordenako praideen priorazgoa izaniko Sancti Spiritutik gora Dominuko haizta gainditzean, baliteke konprendi ez genion herritar Juan Telleria musiko maisuaren "Aizkorriko Dama" sinfonia sentitzea.*

*Goiko Aizkorriko gainean, topatzen da Gurutze Santuaren kapera harri landuz eraikia, teilatu eta barrua, Arakama Altamiar harginek. Malda bildurgarri batzuen haizetara erraja tinko asko dituelarik, herrian noizbait elizako koru zaharrekoak izanak. Ez dut uste Euskal Herrian ere egongo denik aintzinate handiagoko beste gurutzerik han baino.*

*Gero Migel de Unamuno jauna ibili zitzaigun lekuri-leku jarraitzen du maratoiak. Aizkorri mediari buruz ez digu esan beste inortxok hain gauza xarmangarri eta ederragorik Unamuno jaunak esan zigunak baino. Ironia apur bat ere erabli zuen. Aketegi gaineko lepotik, Nardagaiztotik behera Arriandiko trenbidean trena iragaten ikusi zuen Unamunok eta iruditu zitzaion, poxpolo kajatxo eginitako tren jostailu bat zela. Gero jakingo zuten mendi erromesek, alegia, nola trentxo pittirri haretan eta beren oinetan barren, errege jauna pasa zela familiarekin Donostiarako uda pasa. Andraitzeko harrobia pasa eta Oazurtzako Tunel Handiaren gainean jaisten da, maratokia 3 km luzera dituen tunelera, eta non beste 11 tunelekin Aizkorrondoan, suposatzen du Frantsesteko obra-lan handiena herrian. Zumizti eta herriko plaza bitartean bukatuko da maratokia."*

PIO BERASATEGI

# XIKER LEOZ BERASATEGI



## Noiz eta non jaio zinen?

Iruñean jaio nintzen 1984 ekainaren 21. 2 urte nituela joan ginen Zegamara bizitzera, nire ama Txantonenekoa baita.

## Zein ikasketa burutu zenituen?

Zegamako herri eskolan, Loinazpen eta Txindoki Alkartasunan ikasi ondoren, Iruñean egin nituen Arkitektura eta Hiri-gintza ikasketak.

## Zein inpresio eman zizun lehen aldiz Ingalaterrak?

Suitzan 6 hilabete eman ondoren etorri nintzen Londresera, eta banekien askoz hiri handiago eta anitzagoa zela. Atentzioa eman zidan aisialdirako dagoen aukera zabalak, astebururo baitago plan berriren bat.

**ATENTZIOA EMAN ZIDAN  
AISIALDIRAKO DAGOEN  
AUKERA ZABALAK**

## Zertan lan egiten duzu?

Arkitekto bezala aritu naiz urteotan, bulego eraikinak diseinatzen gehien bat baina baita etxebizitza eta hotelak ere.

## Erraza izan al zaizu bertakoen gizartean txertatzea edo ez da horrelakorik eman?

Hiriko biztanleriaren erdia edo kanpoan jaiotakoa da, eta horregatik etorkinok ez dugu atze-



Paisai ederrak daude Xiker bizi den tokian.



Xiker bere emazte eta gurasoekin.



Xiker bere emazte eta semearekin.

rrian bizitzaren sentsazioa. Hizkuntza ingelesa izateak ere gauzak asko errazten ditu eta, iritsi nintzenean behintzat, oso gizarte irekia iruditu zitzaidan. Zoritxarrez, Brexitak bertakoen eta kanpotarren arten nolabaiteko muga bat sortu du.

### **Zein da gehien harritzen zaituena kultura horretan?**

Duten umore garratzak harritu ninduen gehien, asko gustatu zitzaidan. Bestalde ezberdintasun sozialak gurean baino askoz nabarmenagoak dira.

### **Zertan dugu antza eta zertan gara desberdinak bai lanean bai aisialdian?**

Beharbada umore puntu horrek elkartzen gaitu. Agian ingelesak pragmatikoagoak dira. Txikitatik garrantzia handia

ematen diote ondo hitz egiteari eta horrek asko laguntzen die gauzak saltzen. Beste ezberdintasun nabari bat da jatorduek ez dutela funtzio sozialik, nahiago dute harreman sozialak pubean izan mahaian eserita baino.

### **“Zegama” entzundakoan zer datorkizu burura?**

Amona, familia eta kuadrilako lagunak gehien bat, baina baita gure Txantoneneko etxea eta Aizkorriko bistak ere. Hiri handi batean bizita, faltan botatzen da naturaz inguratuta egotea.

### **Gomendatzen al diozu gazteei kanpora irtetzea?**

Bai, zalantzarik gabe

### **Zergatik?**

Kanpoan egoteak beste perspektiba bat ematen dizu.

Beste kultura batzuetatik ikasteaz gain, etxean duguna ere gehiago baloraratzen dizu.

### **Etorkizunen non ikusten duzu zure burua?**

Zaila da noiz esatea, baina gustatuko litzraiguke EHra itzultzea.

### **Zergatik erabaki hori?**

Familiarengandik hurbilago egoteko eta hango bizimodua gustuko dugulako gehien bat. Emaztea ere euskalduna da eta beti izan dugu itzultzeko asmoa, eta semea izan genuenetik itzultzeko grina areagotu zaigu.

EDURNE ALBIZU ORMAZABAL



Txirindu txango ederrak egiten dira.



Ikaskideekin bazkari batean.

# JUAN INAZIO GALDOS LARREA



### Non eta noiz jaio zinen?

Zegaman, 1963ko abuztuaren 18an. Lau anai-arrebatan zaharrena naiz.

### Zure ikasketak eta lan-ibilbidea azalduko al diguzu?

10 urte arte Zegamako eskolan ikasi nuen (OHO deituriko 5. maila bukatu arte). Jarraian, Donostiara joan nintzen "La Salle" ikastetxera. Bertan, unibertsitatera joan arteko ikasketak egin nituen. Hauetariko urte asko "interno" egon nintzen. Hurrengo urratsa unibertsitatea izan zen. Donostiako Euskal Herriko Unibertsitatean zuzenbide ikasketak egin nituen.

Ikasketak amaitu eta, oposizioa gainditu ondoren, lanean 24 urte nituela hasi nintzen Antzuolako udaletxean, idazkari-kontuhartzaile lanetan, eta bertan, lau urte egin nituen. Heziketa bikaina izan nuen. Lanean hasi eta hilabete baino lehen, herria suntsitu zuen uholdeak izan ziren eta ezbehar horren haritik

lana eta esperientzia pilatu nituela esango nuke. Halaber, bost alderdi politiko ezberdinek osatzen zuten 11 kideko udalbatza zen Antzuolakoa. Hain zatituta zegoen erakundeko kide ezberdinen artean, errespetoa, lankidetzeta eta adeitasuna posible zela ikusteko eta ikasteko aukera izan nuen. Harrezkero, nire egunerokoan oso gogoan izan dut irakaspena.

Antzuolatik, egun nagoen, Bergarako Udaletxera joan nintzen, oposaketa gainditu ondoren. Hirigintza alorrean egiten dut lan azken 25 urte hauetan. Nire eguneroko lana taldean egin beharrekoa da nagusiki, eta horrek asetzen nauela esan dezaket.

1990etik 1999ra bitartean, arratsaldetan Beasainen abokatu bulego batean lan egin nuen, Luis Suarez abokatuarekin batera.

1999an Zegamako Udaletxean hasi nintzen alkate. 8 urtez Bergarako lana eta alkatetzeta



Juan Inazio, 1999ko San Bartolometako jaiei hasera emateko txupina botatzen.

uztatu nituen, lan asko eta denbora libre gutxi izan nuen urte haietan. Alkatetzeta bukatu nuenetik, familiarekin gehiago egoteko aprobetxatzen ari naiz.

### Noiz hurbildu zinen politika mundura?

Frankismoaren azken urteak bizi izan nituen; Franco hil zenean 12 urte nituen eta ordurako bigarren ikasturtea neraman Donostian. Oraindik gaztetxoa nintzen, baina oso gogoan dut testuinguru hura eta haren bueltako gertakizunak, aldarrikapenak... Gure

etxean sentimendu nazionalista bizi izan da beti eta, orduan ere, oso bizirik zegoen. Gure aita garai hartan klandestinitatean zegoen EAJko militantea zen eta gure etxean eguneroko gaia zen Euskal Herriaren egoera (oraina eta geroa). Oso umetatik jaso izan dugu aber-tzaletasunaren testigantza eta bide horretatik ekiten saiatu gara. Halaber, Donostian 8 urte bizi izan nintzen "izeba Delia"-rekin (Delia Laurobarekin). Izeba Deliak Joxe Azurmendi, Eusko Indarra gudarosteko Gerra Zibilean fusilatu zuten zegamar jatorriko kapitaina, zuen senar. Izebak ere heriotz kondena jaso zuen ;lehen heriotz kondena jaso zuten emakumeen artean zegoen gure izeba. Berak ere arrasto berezia utzi dit. Bizi izandakoak bizita ere, inoiz ez nuen berarengan gorrotorik somatu, eta abertzale izaten ere erakutsi zidan.

### **Nolatan aurkeztu zinen Alkatetarako?**

Herrigintzan murgilduta nengoan aurretik: Orkatz Abesbatza, Tobera Musika Eskola.. Proposamena egin zidaten eta etxean komentatu ondoren, aurrera egitea erabaki nuen. Betidanik izan da Zegama ardatz nire bizitzan eta nire herri eta herritarren alde egiteko erabakia hartu nuen. Eusko Alkartasunako kide nintzen eta EA eta EAJ bateginik aurkeztu ginen hauteskuntetara. Ilusio handiz aritu ginen 1999etik 2007ra iraun zuen



Intxaustiko Industrialdearen inaugurazio eguna.

gure erronkan. Lehen egunetik azken egunera arte izan nuen garbi herritar guztien alkate nintzela eta izango nintzela. Uste dut horretan saiatu nintzela

### **Etxean ezagutu al zenuen inor aurretik udaletxean?**

Gure aita zinegotzi izan zen demokraziaren aurretik eta jarraian, EAJren izenean 1979tik 1987. urtera bitartean.

### **Erraza al da herrigintzarako jendea topatzea?**

Besteen alde lan egitea inoiz ez da erreza, baina uste dut norbera bizi den herriaren eta bertako herritarren alde, bizikaltatea hobetzeko, lan egitea baino gauza politagorik ez dagoela. Nik hori uste izanda, pentsatzen dut beti izango dela bateren bat herrigintzan aritzeko, baina egia da gero eta zailagoa dela prest dagoenik aurkitzea.

### **1999an zein egoeratan zegoen Zegama?**

Herrixiki oro moduan, Zegamak bizi-iraupenerako bere zailtasunak ditu, bai lehen eta, bai

orain ere. Beraz, errealitate hori aldatzea zen gure erronka Udalera iritsi ginenean. Ildo honetan, gogoan izan behar da 90 hamarkadaren amaiera aldera, Zegamak herritarren partehartzearekin, plan estrategikoa idatzi zuela. Bertan, herritarrek udalerrian ikusten zituzten beharrak eta nahiak zehazten ziren. Ondorioz, herritarren behar eta nahiei ahalik eta erantzun eraginkorrena ematen saiatu ginen gure bi legealdietan. Ibilbide honetan, lagun askoren laguntza jaso genuen eta elkarlanean hainbat egitasmo errealitate egiteko aukera izan genuen.

### **Zein aktuzio azpimarratuko zenituzke Udalean egondako bi legealdietan?**

Uste dut Zegamarentzat eta zegamarrentzat garrantzitsuak ziren aktuzio batzuk egiteko modua izan genuela. Hain zuzen ere:

**a.-** Intxaustiko industrialdea. Eremua kotxez beteta ikustek poza ematen dit. 80. hamar-



Ibarretxe Lehendakariarekin Udalsarea 21eko saria jasotzen.



Industrialdea bultzatzeko akordioa sinatzen.





Igerilekuen inaugurazio eguna.



Olarango Gizarte Zerbitzuen zentroaren inaugurazioa.

kadan udalerrian galdu genuen jarduera ekonomikoa (papelera, inprenta, mel, zerrategia) hein batean bada ere, eskuratu dugu.

**b.-** Olarango erabilera anitzeko zentroa. Lehen mailako zerbitzuak eskaintzen ditu. Zegama aintzindari izan zen gizarte ongizateko zerbitzuak (eguneko zentroa, anbulatorioa, etxebizitza tutelatua eta zentro soziala) leku berean elkartzen. Garai horretan Diputatua zen Maximo Goikoetxea zegamarren laguntza azpimarratu behar da.

**c.-** Udalerriko eremu ugari berrurbanizatu ziren; Intxaustiko zubia handitu eta egokitu, Txarapeko zubia eraiki eta Herreriko zubia berreraiki ziren, besteak beste.

**d.-** Eraikin publikoak birgaitu ziren (Herriko Ostatua; Jabier Otaegi Kultur-Etxea; Anduetzako Egur Museoaren erosketa eta birgaitzea; komun publiko berriak eraiki)

**e.-** Baserri bideetan ere, jabe-dunen eta Udalaren aldetik, inbertsio garrantzitsuak egin ziren. Zegama hedaduraz udalerririk handia da eta bide ugari ditu. Egun ere, eredugarria da atal honetan mantentzen den lankidetzaren publiko-pribatua eta emaitzak begi-bistakoak dira.

**f.-** Etxebizitzak salmenta prezio egokietan eraikitzeko bidea eskaini zen. Uste dut eramandako jokabideak eragin zuela

gazte asko herrian gelditzea eta ondorioz, gure bizi-iraupenaren alde egitea. Adibide gisa esan dezaket, 1999. urtean 76 ume zeudela matrikulatuta Zegamako eskolan; egun, 200 umetik gora daude. Gainbeherako egoera irauli egin zen, eta etorkizunari begira horixe da azkeneko urte hauetako lorpen nagusienetako bat.

**g.-** Sant Sadurni D, Anoiako herriarekin anaikidetzak. 1989. urtean Zegamako Orkatz Abesbatzak Sant Sadurniko abesbatzarekin hasitako harremana, urteetan zehar indartu eta bi herrien arteko anaikidetzak gauzatu zen 2006. urtean. Bide batez, egiteko honetan, kultur-gintzan eta herrigintzan iaz hil zen Jabier Otaegi adiskideak egindako ekarpena azpimarratu nahi dut.

### Igerilekuak?

Aukera suertatu zen eta aurrera ateratzea lortu genuen. Ibai ertzetik doan bidea eraikitzea lortu genuen Foru Aldundiarekin eta ondoren, alboan eraikitako etxebizitza sustailearekin hitzarmena adostu

genuen igerilekuak eraikitzeko eta trukean berak egin behar zituen urbanizazio lan batzuk -errepidearen zati bati zegozkionak- Udalak, Foru Aldundiaren bidez, egin zituen.

Herri-igerilekuak udari ukitu berezia eman dio zegamarren egunerokoan. Zerbitzu garrantzitsua da zegamarrentzat eta oso eskura gelditzen da; herritar gehienek oinez joateko moduan dago kokatua.

### Zegama-Aizkorri maratoia?

Herriak herriari emandako ekimena da; herritar guztion artean osatutako puzzlea. Munduan kokatu gaitu!!

### Uste duzu zegamarren bizikaltatea hobetu egin dela azken urte hauetan?

Bai. Uste dut Zegama oso herri atsegina dela bertan bizi garenontzat eta baita kanpotik etortzen zaizkigunentzat ere. Zegaman, bizitzako fase guztietan beharrezkoak diren zerbitzuak bermatuta daudela esango nuke: haurtzandegia, eskola, botika, dendak,



Anduetzako museoaren inaugurazioa.



Aizkorriko Lagunen egunean Antton Bandres, Edurne Pasaban, Juanito Oñartzabal eta Pako Iriondorekin.



Zegama-Aizkorri Mendi Maratoiaren lehenengotako edizioa.

tabernak. osasun zentroa, eguneko zentroa, gizarte zentrua, gimnasioa, igerilekua, bidegorria, etxebizitza tute-latua, industrialdea...

### Zer moduzko harremana izan zenuten Udaletxean?

Harreman ona izan genuen. Eskerrak ematekoa da garai hartan bertan egondakook herrigintzan nahiz pertsona mailako harremanetan izandako jarrera.

Testuinguru honetan, esango nuke bizikidetzaren dela gure egitasmoaren ardatza. Indarke-riak Euskal Herriko egoera asko baldintzatzen zuen garaian bizi izan bagara ere, saiatu gara ideia ezberdinen arteko errespetoa lehenesten eta herritarren bizikidetzaren eta elkarbizitza normalizatua helburu izaten. Guztion lorpena izan da.

Bestalde, Udaletxeari dagokionez, eguneroko eginkizunetan giltzarri dira udal langileak. Ildo honetan, goraiatu

beharrean nago udaleko langileen inplikazioa eta dedikazioa. Uste dut oso gustora egon gaitzkeela Udaletxean ditugun langileekin, Zegamarekiko lotura sentitzen dutelako eta bere lanari balio erantsia ematen diotelako uneoro.

### Herriko elkarte eta eragileekin nolako harremana izan zenuten?

Ona. Udaletik kanpoko herriko elkarteekin eta herritarrekin auzolanean ekiten saiatu ginen. Uste dut guztion artean norabide berean ekitea lortu genuela, eta emaitzak onak izan zirela esango nuke.

### Nola ikusten duzu Zegama hurrengo urteetan?

Ondo. Uste dut gure ingurune paregabeak eta herritarren izaerak Zegama handi egiten dutela, eta etorkizunean ere bide beretik ikusten dut gure herria.

Bestalde, Zegama kanpora begira indartzea garrantzi-

tsua da, eta horretan saiatu ginen Udaletxean egon ginen. Halaber, garrantzitsuena herria barrura begira indartzea zen; herritartasuna indartzea, zegamar izateaz harro egotea, Zegaman bertan bizi ginenontzat erakargarri egitea. Ahaztu ezin den filisofia da.

### Zein aholku emango zenioke egungo Alkateari?

Uste dut Zegamak Alkate ona duela. Joseba oso pertsona egokia eta orekatua da. Beraz, Alkate ona izateko baloreak ditu. Bestalde, herrian eta herritarren artean murgilduta egotea oso garrantzitsua da eta horretan ere, Josebak ez du "herrenik". Azkenik, herri gisa ditugun bi erronka nagusiak ondo bideratzen ari dela iruditzen zait; alegia, Zegamak aurrera egitea eta herritarren arteko harremana eta bizikidetzaren egokia izatea.

EDURNE ALBIZU ORMAZABAL



Sant Sadurni d'Anoiako senidetzea zela eta, Sant Sadurniaren txokoaren inaugurazioa.



Juan Inazio bere emazte eta seme-alabekin.

# GURE BASERRIAK ETA PARAJEAK



Iritxo



Iruetxeta barrena



Iruetxeta



Altxukaran



**Pagoeta**



**San Juan etxe**



**Zabalekoa**

# BA AL ZENEKIEN?

## Zegama izenaren jatorri, esanahi eta garrantzia

# LUIS MARIA ZALDUA ETXABE



1. Euskal toponimoak, euskal toki-izenak, ez dira euskal jatorria dutenak bakarrik, euskaldunek erabilitako guztiak baizik. Izan ere, gauza bat da etorkia, eta bestea erabilpena. Inork ez du zalantzan jartzen *Zegama* (edo *Zerain*) euskal leku-izenak direla; alabaina, biak ala biak, ez dira euskal jatorrikoak, beste hizkuntza batzuetan sorturikoak dira. Halaber, ez dira kanpotik ekarritakoak, hemengoak dira, baina ez zituzten euskaraz sortu. Hain zuzen, horrexek bihurtzen ditu hain esanguratsu beste hizkuntza batzuetako toki-izenok: euskaldunek euren hizkuntzara nola egokitu zituzten antzema-teko aukera eskaintzeak.

2. *Zegama* izenaren idatzizko aipamen zaharrena 1261. urtekoa da<sup>1</sup>: «*Garcia Seme-neiç et sos tios, leuaron .XII. puercos del abat de Cegama a Murguindoeta, et comieronlos*

*hi, et leuaron del busto de Pero Ladron .I. vaca et comieronla en Murguindoeta.*»

*Zegama* izena, nolana ere, zaharragoa da, bi mila urte inguru izan baititzake. Baina, zer dela eta ez da euskal jatorria duen toponimoa, eta zergatik da antzinagokoa? Lehenik eta behin, euskara erabiliz ezin daitekeelako azaldu, ezin daitekeelako argitu. *Leizarrate*, *Mendibiribil* edo *Aldapazar* leku-izenak euskararen bidez argi daitezke, izen gardenak dira; *Zegama* ez, ordea.

Horrelakoetan, inguruan antzeko toponimoak aurkitzen saiatu behar da. Antzeko bigarren edo atzeko zatia dutenei erreparatuz gero, emaitza hau da: Euskal Herrian ez ezik, hemendik kanpo ere, euskara hitz egiten ez den eta hitz egin ez den alderdietan ere, badaude sail bereko izenak, *-(a)ma* atzizkia dutenak

alegia: *Ledesma*, *Lucesma*, *Lerma*, *Burgo de Osma*, *Luesma*, *Eresma*, *Valdeledesma*... Hori ikusirik, agerikoa da *-ama* bukaera duten toponimoak ez direla euskal jatorrikoak, ez baitirudi Zamoran edo Asturiasen, esate baterako, euskaraz hitz egin denik, ezta euskaldunek *-ama* bukaera duten leku-izenak haraino eraman zituztenik.

Hitz bitan, euskararekin loturiko auzietan nahiz erromatarrak iritsi aurreko beste hizkuntzekin zerikusia dutenetan punta-puntakoak izan diren (eta diren) adituek sarritan hartu dute ahotan *Zegama* toponimoa, eta guztiak ondorio berera iritsi dira: *Zegama* izena zaharra da, erromatarrak iritsi aurrekoa seguruenara, eta jatorri indoeuroparra du, ez euskalduna.

3. *-Ama* atzizkiak bi adiera dituzke: 'superlatiboa' (zaharrena) eta 'jabetza' (berriagoa).

<sup>1</sup> Julen Manterolari zor diogun datua.



# NATURAREN TXOKOA



Urbiako larreak

## LARREAK. GIZAKIAK SORTURIKO EKOSISTEMA NATURALAK

Larreak landare belarkarez eratutako komunitateak dira. Bertan agertzen diren landare gehienak gramineoen familia-koak dira, hau da, hosto luze eta estuak dituzten landareak. Hala ere leguminosak ere badute beren garrantzia, hirusta mota ezberdinek adibidez.

Larreen itxuran erreparatuz guztiak berdinak edo oso antzekoak diruditen arren, mota ezberdineko larreak daude. Altitudearen eta beste ingurumen ezaugarri batzuen arabera, landare konposaketa ezberdineko larreak garatzen dira.

Ingurumen baldintzek ezezik, larrean burutzen diren jarduerak ere badute zerikusia larreen itxuran. Erabilpenari dago-kiola bi motatako larreak bereizten dira: sega-larreak eta bazka-larreak.

### SEGA-LARREAK

Jabetza partikularrekoak izaten dira eta negurako abereentzat belarra lortzeko xedearekin sortu dira. Larre hauetan lurrarekiko bertikalki hazten diren espezieak dira nagusi. Larre hauek baserrien inguruan kokatzen dira nagusiki.

### BAZKA-LARREAK

Mendiko larreak izaten dira nagusiki eta udaberri nahiz udan abereen janleku izateko sortu ziren aspal-di. Larre hauetan, animalien zapalketari aurre egiteko moldatuta dauden landareak hazten dira, horizontalki hazten direnak adibidez. Mota honetako larreak Ur-bian, Oltzan, Beundan... aurki ditzakezu.



Krabelina (*Dianthus Hissopifolius*)



Bitxilorea (*Bellis Perennis*)



Askari-lorea (*Merendera Montana*)

# ATZOKO ZEGAMA

Ondoan, duela 28-30 urte inguruko Arantzazuko Peregrinazioko argazkiak (Emilio Txurrukek utzita).



- 1.- Roman Ormazabal (Herreroa)
- 2.- Ramonita Arizkorreta
- 3.- Martin Catalina (herriko aguazila urte horietan)
- 4.- Mari Carmen Calvo Gerriko
- 5.- Sabino Zabaleta (Ibaiondoko)
- 6.- Mariatxo Ormazabal (Romanen emaztea)



- Ama Birjinaren aulkian zegamarrak atsedean hartzen:
- 1.- Maria Lourdes Garmendia Zabaleta.
  - 2.- Maite Iruretagoiena.
  - 3.- Pedro Gorrotxategi (Urtzelaietakoa) bere ondoan, Oroitx Aseginolaza.
  - 4.- Txomin Landa (urte askoan herriko sakristaua) eta bere ondoan eserita dagoena Jon Gorrotxategi Urtzelaietakoa eta zutik dagoena Iker Gorrotxategi Urtzelaietakoa.
  - 5.- Edurne Ugartemendia.



- 1.- Maitere Larrea eta bere aita Joxe Larrea (Dirintikoa).



Harri Urdineko artzain txabolaren ondoan, Maria Uzkuudin eta Tomas Telleria (Argindegikoa) senar-emazteak eserita. Urte askotan Arantzazura Peregrinaziora gindoazen zegamarri ongi-etorria eta ura ematen ziguten bertan.



- 2.- Maitere Larrea eta bere senar Meliton Gorrotxategi (Mazkiarangoak), Dolores Telleria Murgikoa, eta Joxe Albizu Arbeltxokoa.



- 1.- Karmen Zabaleta Berasategi
- 2.- Agustin Iradier
- 3.- Ramonita Arizkorreta
- 4.- Patxi Otaegi (Tellerikoa)



Arantzazuko Peregrinaziorako behar zen materiala astoetan eramaten zen.

- 1.- Fernando Urbizu (zinegotzia)
- 2.- Sabino Zabaleta (Ibaiondoko)
- 3.- Imanol Ruiz de Eginu (Iruetxetakoa)



- 1.- Joxe Ormazabal (Dirintikoa)
- 2.- Sabino Zabaleta (Ibaiondoko)





Aspiración industrial, filtración y calderería fina

Poligono Industrial Intxausti 14 P    [itsasgama@itsasgama.com](mailto:itsasgama@itsasgama.com)  
Teléfono / Fax : 943 80 20 44  
20215 ZEGAMA (Gipuzkoa)

**AROSZTEGI ETA  
ZERRATEGIETAKO ASPIRAZIOAK  
GALDARAGINTZA  
OROKORRA ETA MOTA  
GUZTIETAKO HERRERIGINTZA**

[www.itsasgama.com](http://www.itsasgama.com) • [itsasgama@itsasgama.com](mailto:itsasgama@itsasgama.com)  
**ZEGAMA • 943 80 20 44**



**DOITASUNEZKO MEKANIZATUAK**

Pol Intxausti, Pab. 14 I - ZEGAMA

**943 801 243**

[doilan@doilan.com](mailto:doilan@doilan.com)



**GOIERRI AUKERA**  
metal eta aluminio arrotzeria

**Acero inoxidable  
Herrería  
Aluminio**



Pol. Ind. MALLUTZ 10 -12 ORDIZIA • T. 943 881 563 • F. 943 881 407  
[aukera@goierriaukera.com](mailto:aukera@goierriaukera.com) • [www.goierriaukera.com](http://www.goierriaukera.com)

**Tinbaux**

**pintura orokorrean  
pintura en general**

T.: 637236321  
T.: 637445277

[pinturastinbaux@gmail.com](mailto:pinturastinbaux@gmail.com)

**Zerbitzuak Servicios**

Etxebizitzaren erreformak  
Fatxadaren birgaikuntza  
Dekorazio teknikak  
Bizilagunen komunitateak  
Suaren aurkako tratamenduak  
Gremioen koordinazioa

Reforma de viviendas  
Rehabilitación de fachadas  
Técnicas decorativas  
Comunidades de vecinos  
Tratamientos contra el fuego  
Coordinación de gremios